

Jonathan Swift

Gulliver-en bidaiak

euskaratzailea: Iñaki Mendiguren

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Iñaki Mendiguren.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1990

Jatorrizkoaren data: 1726

Jonathan Swift euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=298>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1608>

JONATHAN SWIFT

Guraso ingelesak zituen arren, idazle irlandar hau Dublinen jaio zen 1667an, eta aita hil eta gero jaio ere. Pobrezia handiko haurtzaroa izan zuen, osaba batzuen errukiari esker ikasi ahal izan zuelarik.

Teologi ikasketak egin zituen Dublineko Trinity College-n.

22 urterekin Sir William Temple diplomatiko eta saiolari ospetsuaren idazkari bihurtu zen, honen etxeko liburutegian, Ingalaterran, areagotu zuelarik bere jakintza. Sir Williamen ez-legezko alaba zen Esther Johnson-en tutore ere izan zen, gero eragin sakona izango zuelarik idazlearen bizitzan.

27 urterekin eliza anglikanoan ordenatu zuten, parrokia bat ere izan zuelarik bere ardura-pean.

1704ean, bi idazlan satiriko argitaratu zituen: *The Tale of a tub* («Upel baten ipuina»: erlijio eta jakintza mailako ustelkeriaz) eta *The battle of the books* («Liburuetako borroka»: antzinako

pentsalari eta modernoen arteko eztabaidan, klasikoan alde agertuz).

Whig alderdiaren alde jardun ondoren, 1710ean, agintean zegoen Tory alderdira jo zuen. 1711n argitaratu zuen *The conduct of the allies* (Aliatuen jokabidea) ospetsua, eta 1713an Dublineko San Patrizioko «dean» izendatu zuten. Baina laster ohartu zen ezin zuela eliz hierarkian aurrera egin Ana erreginaren aurkakotasunagatik.

1713an hasi zen *Journal to Stella* (Stellarentzako egunkaria) idazten, gero 1766-68an argitaratuko zena. Sir Templeren alaba zen Esther Johnsonenganako amodio platonikoa agertzen da hemen. Ez dago garbi zer-nolako harremanak izan zituzten, baina ez ziren sekula elkarrekin bizi izan. Beste emakume batekin ere izan zuen harreman handia, eskutitzez behintzat, Esther Vanhomrigh-ekin alegia, Swiftek *Cadenus and Vanessa* poema eskaini ziolarik honi.

Irlandako arazoez gero eta kezkatuago — orduan Ingalaterraren benetako kolonia zen Irlanda—, 1724ean panfletorik gogorrenetakoa idatzi zuen: *The drapier's Letters* (Oihalgilearen

Gutunak: Irlandarako txanpon berri batzuk egiteko patentearen aurka). Bestalde, urte hauetan idatzi zuen *Gulliver's Travels* (Gulliveren bidaiak), 1726an argitaratua, satira ikaragarria gizarte ingelesaren eta mundu zibilizatu osoaren aurka. Misanthropia garratza islatzen duen obra honek egundoko arrakasta izan zuen berehala, baina ordurako, etsipenak oso jota zegoen autorea. 1728an «Stella»ren heriotza ere kolpe gogorra izan zen harentzat.

Oso miretsia zen Dublinen Irlandaren aldeko jarrerarengatik, baina geroz eta misantropoago ari zen bihurtzen, eta poliki-poliki osasuna —batez ere, mentala— ahulduz joan zitzaion, 1742rako zeharo burutik eginda zegoelarik. 1745ean hil zen.

GULLIVER-EN BIDAIAK

Literatura satiriko-fantastikoaren gailurretari-ko bat da. Obra honetan anekdota hutsa, satira historikoa eta satira unibertsala aurki daitezke.

— Anekdota: Gulliverekin bisitatzen dituen herrialde ezberdinetan berari gertatzen zaizkion abenturak.

— Satira historikoa: Testuan zehar sartu ditugun oharrak irakurriz ulertuko da hau, hainbat pertsonaia historikoren identifikazioa eta gertakari askoren azalpenak ematen baitira. Swiftek sarri egiten du bere etsaien lepotik barre.

— Satira unibertsala: Batez ere liburuaren 4. zatian. Garaiko teoria positibisten aurka, Swif-tentzat gizakia gaiztoa da izatez, baina hobetu daitekeena; ez zen, beraz, fatalista haren ezkor-tasuna, nahiz eta, ematen duen itxaropen handi-rik gabe joan zela mundu honetatik.

ARGITARATZAILEAK IRAKURLEARI

Bidaia hauen autorea, Lemuel Gulliver jauna, aspaldiko lagun mina dut; gainera, ahaide gara amaren aldetik. Duela hiru bat urte, Gulliver jaunak, Redriffeko etxera ikusminez joaten zitzaion jendetzaz gogaituta, lur-zati txiki bat erosi zuen etxe egokiarekin Newark inguruan, bera jaio zeneko Nottingham konderrian; eta hantxe bizi da orain erretiratuta, auzokoen estima duelarik.

Nahiz eta Gulliver jauna Nottingham konderrian jaioa izan, bertan bizi zelarik aita ere, halerre entzuna diot familia Oxford aldetik etorria zela; eta hau baieztatzeko, nik neuk ikusiak ditut Banburyko hilerrian Gullivertarren hainbat hilobi eta oroitarri.

Redriffetik alde egin aurretik, honako paper hauen zainketa nire esku utzi zuen, neuri egoki iruditu bezala berauez baliatzeko baimenaz. Hiru aldiz irakurri ditut kontu handiz: argia eta xumea da idazkera; eta aurkitzen dudan akats bakarra, autorea, bidaiariak ohi bezala, pixka bat zeha-

tzegia izatea da. Egiantz handia dago idatzitako guztian; eta izan ere, autorearen hain ospetsua zenez bere egiazaletasunagatik, Redriffeko auzotarren artean norbaitek zerbait baieztatzen zuenean, ohiko bihurtu zen gaineratzea, Gulliver jaunak esanda bezain egia zela.

Itzal handiko zenbaiten aholkuak jaso ondoren, autorearen baimenaz neuk eman nielarik idazki hauen berri, argitaratzera ausartzen naiz orain, aldi batez behintzat politika eta alderdien ohiko bitxikeriak baino entretenimendu hobea izan litezkeelakoan gure aitonen seme gazteen-tzat.

Liburu hau gutxienez bi aldiz handiagoa izango zatekeen ez banintz ausartu haize eta mareei, edo bidaialdi ezberdinetako begiztaketa eta dibizei buruzko pasarte asko kentzera; gauza bera ekaitz garaian ontziaren gidaritzaz marine-len hizkeran egindako azalpen zehatz eta luzera eta latitudeen xehetasunei buruz. Beldur naiz Gulliver jauna ez ote den oso pozik egongo, baina erabakia nuen haren lana irakurleen batez besteko gaitasunera ahalik eta gehien egokitzea. Edonola ere, itsas kontutan dudak ezjakin-

tasunak zerbaitetan huts egitera eraman banau,
ni bakarrik naiz horren erantzule; eta bidaiariren
batek lana oso-osorik, idazlearen eskutik irten
bezala, ikusteko gogoia baldin badu, prest izango
nau horretan gustu emateko.

Autoreari buruzko xehetasun gehiagotarako,
liburuaren lehen orrialdeetatik aurkituko du
horien berri irakurleak.

Richard Simpson

I. ZATIA: LILIPUT-ERA BIDAIA

Etxalde txiki bat zuen aitak Nottingham kon-derrian; bost semeetariko hirugarrena nintzen ni. Hamalau urte nituenean, Cambridgeko Emanuel Kolegiora bidali ninduen, han hiru urtez egon eta gogor saiatu nintzelarik ikasketetan; baina nire mantenuaren zama (oso anoa txikia nuen arren) astunegia izanik ondasun urrientzat, James Bates jaunaren aprendiz sartu nintzen; Londreseko mediku ospetsu harekin lau urte eman nituen; eta aitak noiz behinka bidaltzen zizkidan diru-kopuru txikiak itsasketa eta matematikako beste arlo batzuk ikasten erabili nituen, onuragarriak direlako bidaiatzeko asmoa dutenentzat, nik beti pentsatu izan nuelarik lehentxeago edo geroxeago hori izango zela nire patua. Bates jaunarenetik alde egin nuenean, aitarenera itzuli nintzen, eta beraren, osaba Johnen eta beste senitarteko batzuen laguntzaz, berrogei libera lortu nituen eta urtero hogeita hamar libera ere agindu Lizkidaten ni Leydenen

egon ahal izateko; han medikuntza ikasi nuen bi urte eta zazpi hilabetez, jakinean baliagarri izango zitzaidala bidaia luzeetan.

Leydenetik itzuli eta berehala, Abraham Pannell kapitainak zuzentzen zuen *Swallow* ontzian mediku izateko gomendatu ninduen nire maisu on Bates jaunak, eta kapitain harekin eman nituen hiru urte t'erdi, bidaia pare bat Sortaldera eta beste alde batzuetara eginez. Itzuli nintzeanean, Londresen finkatzea erabaki nuen, nire maisu Bates jaunak horretara bultzatu baininduen, baita berak gomendatu ere zenbait gaixori. Judutegi Zaharreko etxe txiki baten zati bat hartu nuen errentan; eta egoera zibila aldatzeko aholkatu zidatelarik, Mary Burton andereñoarekin ezkondu nintzen; hau Newgate kaleko galtzagilearen, Edmon Burton jaunaren, bigarren alaba zen eta berarekin batera lauhun liberako ezkonsaria hartu nuen.

Baina bi urte geroago hil egin zelarik nire maisu on Bates jauna eta lagun gutxi nituenez, nire negozioa porrot egiten hasi zen, nire barruak ez baitzuen jasaten lankide askoren ohi-tura txarrak imitatzen hastea. Beraz, emazteare-

kin eta lagunetarikoz batzuekin kontsultatu ondoren, berriro itsasoratzea erabaki nuen. Medikuan nintzen bi ontzitan jarraian, eta sei urtetan zenbait bidaia egin nuen Eki- eta Mendebalde-Indietara, honela zerbait gehitu nituelarik neure ondasunak. Idazle zahar eta berri onenak irakurtzen egoten nintzen astia nuenean, beti liburu-kopuru handi samarrez hornitua; eta lehorreratzten nintzenean, jendearen ohitura eta izaera aztertzen ematen nituen orduak, baita beraien hizkuntza ikasten ere, erraztasun handia nuelarik hartarako neure oroimen sendoagatik.

Bidaia haietako azkena ez zenez oso zori onekoa gertatu, aspertu egin nintzen itsasoaz, eta emaztearekin eta familiarekin etxean gertatzeko asmoa hartu nuen. Judutegi Zaharretik Fetter zeharkalera aldatu nintzen, eta azken honetatik Wapping-era, marinelen artean lana izateko itxaropenaz; baina ez nuen arrakastarik izan. Gauzak oneratu ziren esperoan hiru urte eman ondoren, *Antelope*-ren buru zen William Prichard kapitainaren eskaintza onuragarria onartu nuen, Hegoaldeko Itsasoetara baitzihoan.

1699ko maiatzaren 4ean itsasoratu ginen Bristoletik eta hasieran ondo joan zitzaigun bidaia.

Hainbat arrazoiengatik, ez litzateke egokia izango itsaso haietako gure abenturen xehetasunekin irakurlea nekatzea; bedi nahikoa esatea, handik Ekialdeko Indietara igarotzean, ekaitz bortitz batek Van Diemen-en Lurraldeko ipar-mendebaldera eraman gintuela. Kalkuluak eginenez, 30 gradu 2 minutura geundela hegoaldera ohartu ginen. Gure marineletako hamabi hilda zeuden neke gehiegi eta janari txarrarengatik; gainerakoak, zeharo ahulduta. Azaroaren bostean —udaren hasiera alde haietan—, eguraldia oso lainotsua zelarik, harkaitz bat begiztatu zuten marinelek, ontzitik kable Erdiko tartera; baina haizea hain indartsua zenez, zuzen-zuzenean bertara eraman gintuen, eta berehalaxe zartatu ontzia. Marineletako seik, neu izanik haietako bat, txalupa bota uretara eta ontzitik eta harkaitzetik urruntzea lortu genuen. Nire kalkuluen arabera, hiru legoa inguru egin genituen arraunean, gehiago ezin izan genuen arte, ontzian egindako ahaleginagatik ere ahituak baikeuden. Beraz, uhinen esku utzi genituen geure

buruak, eta ordu erdi barru, txalupa irauli egin zuen iparraldetik bat-batean etorritako enbatak. Zer gertatu zitzaien txalupako beste lagunei edo harkaitz gainean edo ontzian bertan geratu zirenei, ezin dut esan; baina galdutzat jotzen dituduztiak. Nik neuk, patuak eramaten ninduen alderantz egin nuen igeri, eta haizeak eta mareak eragin zidaten aurrera. Sarritan beheratu nituen zangoak eta ezin izan nuen hondoa ukitu; baina ia egin zuenean nireak eta pot egiteko zorian nengoela, ukitzen nuela zorua konturatu nintzen; eta ekaitza ere oso baretua zen ordurako. Zoruaren inklinazioa hain txikia zenez, ia milia bat ibili nintzen itsasertzera iritsi baino lehen, arratseko zortziak aldera izan zelarrik, nire ustez. Gero beste milia erdi bat edo jarraitu nuen aurrera, baina ezin izan nuen etxe edo jende arrastorik aurkitu; edo agian, hain ahul nengoenez, ez nintzen haietaz ohartu. Oso nekaturik nengoen, eta horregatik eta eguraldi beroagatik eta ontzitik irteterakoan edandako pinta erdi brandyrenagatik, lo egiteko gogo handia nuen. Belarretan etzan nintzen, belar motz eta goxotan, eta bizitzan inoiz gogoratzen dudan baino

sakonago lo egin nuen orduan, bederatzi ordu inguruz gutxi gorabehera; zeren eta, esnatu nintzenez, egun-argia baitzen. Altxatzen saiatu, baina ez nintzen zirkinik egiteko gauza izan; hain zuzen ere, bizkarrez nengoelarik etzanda, besoak eta zangoak alde bietan zoruari tinko loturik nituela konturatu nintzen; eta ilea ere, luze eta sendoa, era berean nuen lotua. Halaber, gorpuztean zehar zenbait lokarri mehe ere sumatzen nuen, galtzarbeetatik izterretaraino. Gorantz bakarrik begira nezakeen, berotzen hasia zen eguzkia eta min egiten zidan begietan. Hots nahasiak entzun nituen inguruan, baina etzanda nengoen bezala, ezin nuen zerua baizik ikusi. Berehala, zerbait bizia nabaritu nuen ezkerreko zangoan mugitzen, poliki-poliki bular gainean aurrera ia kokotseraino iritsi zitzaidalarik; ahal nuen gehien begiak beheratuz, hamabost zentimetroko altuera izango ez zuen gizaki bat ikusi nuen, uztaia eta gezia eskuetan zituela eta geziontzia sorbaldan. Aldi berean, nire ustez espezie berekoak ziren beste berrogei gehiago behintzat sumatu nituen lehenengoari jarraika. Guztiz txundituta nengoen, eta hain ozenki egin

nuenez orro, izututa atzera egin zuten guztiek lasterka; eta haietako batzuek, gero esan zidate-
nez, min hartu omen zuten nire alboetatik behe-
ra salto egin eta erortzean. Halere, laster itzuli
ziren berriro eta haietako batek, nire aurpegia
osorik ikustera ausartu zelarik, besoak eta
begiak miresmenez goratuta, ahots ozen baina
garbiz, zera oihu egin zuen: *Hekinah degul*. Gai-
nerakoek errepikatu egin zituzten hitz hauek
zenbait aldiz, baina nik orduan ez nekien zer
esan nahi zuten. Denboraldi guzti hartan, oso
deseroso egon nintzen, irakurleak pentsatuko
duen bezala; azkenean, askatzeko ahaleginak
eginez, lokarriak apurtzeko zori ona izan nuen,
eta ezkerreko besoa zoruari lotzen zioten ziriak
atera nituen; hala, besoa aurpegiraino erama-
nez, nola lotu ninduten jakin nuen; eta aldi
berean, min handiegia eman zidan teinkada bor-
titzez, nire ileari ezkerrean eusten zioten
lokarriak ere askatu nituen pixka bat, gai izan
nintzelarik orduan burua bosten bat zentimetro
biratzeko. Baina izaki haiek hanka egin zuten
bigarren aldiz, nik harrapatu ahal izan baino
lehen; ondoren, oihu handi bat, oso zorrotza,

entzun zen eta hura isildu ostean, haietako batek ozenki *Tolgo phonac* deiadar egin zuen, eta une berean ehun gezi baino gehiago sumatu nituen gainean ezkerreko eskura botata, beste hainbat orratzek bezala zulatu nindutelarik; eta gainera, beste botaldi bat ere egin zuten airera, European bonbak botatzen ditugun bezala, haietako asko, nire ustez, gorputzean jausi zitzaizkidalarik (nahiz eta ez nituen igarri) eta beste batzuk aurpegian, berehalaxe estali nuelarik ezkerreko eskuaz. Gezi-zaparrada hura amaitu zenean, oihumin egin nuen atsekabez eta saminez, eta berriro ere askatzen saiatzean, beste botaldi bat egin zuten lehenengoa baino handiagoa, eta haietako batzuk, alboetan lantzaz zultzen ere ahalegindu zitzaizkidan baina, zorionez, bufalo-laruzko jipoia neraman soinean, haiek ezin zutena zulatu. Jokabiderik zuhurrena geldi egotea zela pentsatu nuen, eta gauera arte hala jarraitzeko asmoa nuen, orduan, ezkerreko eskua jadanik aske nuelarik, erraz libratu ahal izango bainintzen; eta jende hari buruz, banuen arrazoirik pentsatzeko nire kontra ekar zezaketen armadarik handienari ere aurre egin ahal

izango niola, nik ikusitakoaren tamaina berekoak baldin baziren guztiak. Baina patuak beste modu batera erabili ninduen. Geldi nengoela ikusi zute-nean, ez zuten gezi gehiago bota; baina areago-tzen ari zen zaratagatik, haien kopurua handituz zihoala jakin nuen; eta niregandik lau bat metro-ra, eskuineko belarriaren parean, ordu bete baino gehiagoz kolpeak entzun nituen, jendea lanean ari balitz bezala; hala, ziriek eta lokarriek uzten zidaten neurrian burua harantz biratu nue-nean, plataforma bat ikusi nuen eraikita zorutik metro erdi ingurura; biztanle haietako lau gai-nean edukitzeko modukoa zen, bi edo hiru eskai-lera zituelarik bertara igotzeko; eta haietako batek, goi-mailakoa zela ematen zuen batek, hitzaldi luzea bota zidan, txintik ere ulertu ez nuena. Baina buruzagi hark bere mintzaldia hasi aurretik, hiru aldiz *Langro dehul san* hitzak oi-hukatu zituela esan behar dut (hitz hauek eta aurrekoak ere geroago errepikatu eta azaldu zizkidaten); eta berehalaxe, haietako berrogeita hamar inguru etorri eta nire buruaren ezkeral-deari eusten zioten lokarriak moztu zizkidaten, eskuin aldera biratu eta hitz egin behar zuena-

ren itxura eta keinuak ikusteko aukera eman zidatarik. Adin ertainekoa ematen zuen eta laguntzen zioten beste hirurak baino garaiagoa; laguntzaileetako bat haren jantziaren barrenari eusten zion gortelari bat zen, eta nire erdiko hatza baino pixka batxo bat handiagoa zirudien; beste biak alde banatan zeuden hari laguntzeko. Hizlari batek bezalaxe jardun zuen, eta sarritan mehatxuka sumatu nuen, beste batzuetan promeska, errukiturik eta atsegingarri. Hitz gutxitan baina modurik apalenean erantzun nion, ezkerreko eskua eta bi begiak eguzkirantz goratuz, lekuko jartzen banu bezala; eta ia goseak akabata nengoenez —ontzitik irten baino zenbait orduz lehenagotik mokadurik egin gabe bainen goen—, eta berezko eginbeharrak hain premia-tsua zirenez niregan, ezin izan nintzen neure egonezina adierazi gabe egon eta (gizabidezko arau zorrotzen kontra beharbada) sarri-sarri behatza ahora eramanez, jan egin nahi nuela eman nuen aditzera. *Hurgo*-ak (horrela deitzen baitituzte handikiak, gero jakin nuenez) oso ongi ulertu zidan. Plataformatik jaitsi eta nire alboetan eskailera batzuk jartzeko agindu zuen; haie-

tako ehun baino gehiago igo eta nire ahora abiatu ziren jakiz betetako saskiz zamatuta, guzti hura Erregeak, nire berri lehenengoz izan zuenean, agindu zuelarik prestatu eta hara bidaltzeko. Hainbat abereren okela zegoela konturatu nintzen, baina ezin nituen bereizi zaporez. Bizkarkiak, izterrak eta solomoak zeuden, arkumearenak bezalakoak itxuraz, eta oso ongi atonduek, baina hegatzabalaren hegoak baino txikiagoak. Bi edo hiru jaten nituen mokadu bakoitzean, baita hiru ogi ere aldiko, moskete-balaren tamainakoak. Ahal bezain bizkor hornitzen ninduten, etengabeko miresmen eta harridura keinuak eginez nire gorpuzkera eta janguragatik. Gero beste keinu bat egin nien edan egin behar nuela adieraziz. Jan nuena kontutan izanda, kantitate txikia ez nuela aski izango atera zuten ondoriotzat; eta jende oso argia izanik, beren upeltxo handienetariko bat altxatu zuten trebetasun handiz, gero biraka eraman nire eskurantz eta estalkia kendu zioten; zurrutada batean edan nuen, ongi gauza erraza, ez baitzuen pinta erdi bat izango, eta Borgoñako ardo arinaren ahogustua zuen, baina askoz goxoagoa. Biga-

rren upelkada ekarri zidaten, eta era berean edan ondoren, keinu egin nien gehiagoren eske, baina ez zeukaten besterik emateko. Nik harri-garri hauek egin ondoren, oihuka hasi pozik eta nire bular gainean dantza egin zuten, hasieran bezalaxe hainbat aldiz *Hekinah degul* errepikatuz. Keinu egin zidaten bi upelak bota egin behar nituela adieraziz, baina lehendabizi beheko jendea paretik kentzeko ohartarazi zuten *Borach mivola* ozenki oihukatuz, eta ontziak airean ikusi zituztenean, *Hekinah degul* oihu egin zuten guztiek. Nire gainean atzera eta aurrera zebiltzan bitartean, eskura etorritako lehen berrogei edo berrogeita hamarrak hartu eta zoruaren kontra botatzeko tentazioa sarri izan nuela aitortu behar dut. Baina igarotakoaz oroitzeak, ziur aski ez baitzen izango egin ziezadaketen okerrena, eta beraiei egindako ohorezko promesak, horrela interpretatzen bainuen neure jokabide otzana, laster kendu zizkidaten burutik asmo haiek. Gainera, abegikortasun-legeen arabera, halako gatzuz eta eskuzabaltasunez tratatu ninduen jendearekiko zorretan ikusten nuen neure burua. Edonola ere, neure barruan harrituta jarraitzen

nuen gizaki ñimiño haien atrebentziaz, zeren eta, esku bat aske nuen arren, nire gainera igo eta bertan paseatzera ausartzen baitziren, hain izaki erraldoia irudituko nintzaien arren inolako izu-ikararik egin gabe. Pixka bat geroago, ez nuela janari gehiago eskatzen ohartu zirenean, Maiestate Inperialak bidalitako goi-mailako pertsonaia bat agertu zen nire aurrean. Eskuin zangoaren barrenetik igo zitzaidalarik jaun bikain hura, aurrera abiatu zen aurpegirantz, hamabikoren batek jarraitzen ziolarik. Eta errege-zigilua zuten bere kredentzialak erakutsi eta begien aurre-aurrean jarri zizkidalarik, hamar minutu inguruz hitz egin zuen, batere haserre itxurarik gabe, baina bai nolabaiteko tinkotasunez; sarri egiten zuen keinu aurrera —gutxi gorabehera milia erdira zegoen hiribururantz, geroago jakin nuenez—, ni hara eramatea erabakia baitzuen Maiestateak Kontseiluan. Hitz gutxitan erantzun nion, baina alferrik, eta aske nuen eskuaz keinu egin nuen beste eskurantz (baina jaun bikain haren buru gaintetik, berari edo beraren segizio-koei min egiteko beldurrez), eta gero neure burura eta gorputzerantz ere bai, askatasuna

nahi nuela adierazteko. Nahikoa ongi ulertu zidala ematen zuen, buruaz ezezkoa egin baitzuen, eta preso bezala eraman behar nindutela adierazteko moduan heldu zion bere eskuari. Dena den, beste keinu batzuk ere egin zituen behar hainbat janari eta edari izango nuela eta oso ondo hartuko nindutela aditzera emanaz. Ondoren, berriro ere bururatu zitzaidan lokarriak apurtzen saiatzea, baina orduan ere, puslaz beterik nituen aurpegian eta eskuetan gezien erresumina sentitzean —artean azkon asko bainuen haragian sartuta—, eta etsaien kopurua ere handitzen ari zela konturatzean, nirekin nahi zutena egin zezaketela adierazteko keinuak egin nizkien. Gero, *Hurgoa* eta haren segiziokoak erretiratu egin ziren oso gizalegetsu eta aurpegi alaiz. Berehala, deiadar orokor bat entzun nuen, sarri-sarri *Peplom selan* hitzak errepikatzen zituztelarik, eta ezkerrean jende-kopuru handia sumatu nuen sokak laxatzen, eskuin aldera biratu eta pixa eginez neure burua arindu ahal izan nuelarik; eta egin ere, ugari egin nuen, jendea sor eta lot utziz; zer egitera nindoan igarri zutelarik nire mugimenduez, berehalaxe urrundu

ziren ezker-eskuin, hain zaratatsu eta bortizki niregandik zihoakien uholdeari ihes egiteko. Baina aurrez, usain gozoko ukenduz aurpegia eta bi eskuak igurtzi zizkidaten, hark gezien erresumina zeharo kendu zidalarik minutu gutxitan. Gauza guzti hauek —haien jaki eta edariak, oso elikagarriak izanik, eman zidaten atseginaz gainera— loguraz utzi ninduten. Zortzi bat orduz lo egin nuen, gero baieztatu zidatenez; eta ez zen harritzekoa, zeren eta, medikuek, Enperadorearen aginduz, edabe loeragilea nahastu baitzuten upeletako ardoaz.

Dirudienez, lehorreratu eta zoruan lo aurkitu ninduten momentutik, Enperadoreak berehala izan zuen nire berri mezulariaren bidez, eta kontatu dudan bezala lotu nintzatela agindu zuen bere Kontseiluan (gauzez lo nengoen bitartean egin zutelarik), baita janari eta edari asko eta hiriburura garraiatzeko prestatua zuten makina bat bidaltzeko agindu ere.

Beharbada, erabaki honek ausart eta arrisku-tsuegia emango du, eta uste dut Europako erregeek ez luketela berdin jokatu horrelako egoeretan; edonola ere, nire iritziz oso zentzuzkoa

eta bihotz onekoa izan zen. Zeren eta, eman dezagun, lo nengoen bitartean, lantzaz eta geziz ni hiltzen saiatzen dela jende hura; ziur egon lehen sastada nabaritzean esnatu egingo nintzela, eta nire amorrua eta indarra areagotuz, lotzen ninduten lokarriak apurtzeko gai izango nintzela; orduan, aurre egiteko gauza izan gabe, ezingo zuten errukirik ere espero izan.

Matematikari apartak dira jende hauek, eta perfekzio handira iritsi dira mekanika-arloan Enperadorearen onesten eta laguntzaz, kulturen babesle ospetsua delarik berau. Monarka honek hainbat makina du gurpil gainean zuhaitzak eta beste zama handi batzuk garraiatzeko. Bere gerraontzirik handienak, batzuk ia hiru metrokoak, arbolak daudeneko basoetan bertan eraikitzen ditu sarritan, eta gero makina hauetan hirurehun edo laurehun metroz eramaten ditu itsasoraino. Bostehun zurgin eta mekanikarik berehala ekin zioten lanari, zeukaten makinarik handiena prestatzeko. Zurezko egitura bat zen, zorutik zazpi zentimetrora zegoena; bi metro inguru luze eta bat t'erdi zabal, hogeita bi gurpil-gaine mugitzen zen. Nik entzundako deia-

darra makina hau iritsi zenekoa zen, dirudienez ni lehorreratu eta lau ordura abiarazi zutelarik. Etzanda nengoelarik, neure ondoan jarri zuten luzetara. Baina eragozpen nagusia ni altxatu eta ibilgailuaren gainean ipintzea zen. Honetarako laurogei zutoin eraiki ziren, bakoitza laurogei zentimetrokoa, eta listaren lodierako soka sendo-sendoak gako zitu zituzten nire lepo, esku, gorputz-enbor eta zangoen inguruan langileek ipinitako bendekin. Gizonik indartsuenetarikoa bederatzehun soka hauetatik tiraka aritu ziren zutoinetan ezarritako polea bidez eta horrela, hiru ordu baino lehen, altxatu eta makina gainean ipini ninduten, hantxe gogor lotuz. Hau dena gero esan zidaten, honetan jardun zuten bitarte osoan lozorroan egon bainintzen ardoari bota zioten botika loeragilearen ondorioz. Enperadorearen zaldirik handienetako bostehun —hamarren bat zentimetro altu bakoitza— erabili zituzten ni metropolirantz garraiatzeko, milia erdira zegoelarik, esan dudana bezala.

Bidaia hasi eta lauren bat ordura, gertaera barregarri batek iratzarri ninduen; ongi ez zebilen zerbait egokitzeko garraiagailua gelditu egin

zutelarik, lo nengoela zer itxura ote nuen ikuste-ko gogoia izan zuten haien arteko bizpahiru gazte-
tek; makinara igo eta poliki-poliki aurpegirantz
hurbildu zitzaizkidalarik, haietako batek, guar-
diako ofizial batek, lantza-mutur zorrotza barru-
ra samar sartu zidan ezkerreko sudurzulotik, las-
toz bezala kili-kili egin eta doministiku eragin
zidalarik bortizki; berehala hanka egin zuten nik
ikusitako gabe, eta hiru aste igaro ziren hain bat-
batean zergatik esnatu nintzen jakin nuen arte.
Ibilaldi luzea egin genuen egun haren gainerako-
an eta, gauean, alde bakoitzean bostehun zain-
tzaile nituela hartu genuen atsedean, erdiek
zuziak zituzten eta beste erdiek uztaiak eta
geziak, botatzeko prest mugitzera ausartzen
banintzen. Biharamun goizean eguzkia irtetean
ekin genion berriz ibilaldiari, eta eguerdirako
hiriko ateetatik berrehunen bat metrora iritsi
ginen. Enperadorea eta Gorte osoa irten ziren
guregana, baina haren goi-mailako funtzionario-
ek ez zuten inola ere onartu Maiestateak, nire
gainera igoz, bere burua arriskuan jartzea.

Gurdia gelditu zen lekuan, antzinako tenplu
bat zegoen, erresuma osoko handientzat zeuka-

tena; zenbait urte lehenago hilketa beldurgarri batez profanatua izan zelarik, jende haren uste sendoaren arabera leku ez-sakratutzat hartu zuten eta beraz erabilera arruntetarako utzi zuten, apaingarri eta altzari guztiak handik eramanez. Eraikin hartan izango nuela ostatu erabaki zuten. Iparraldera zegoen ate nagusia metro eta laurden izango zen altu eta metro erdi inguru zabal, handik erraz igaro nintekeelarik. Atearen alde bakoitzean leiho txiki bat zegoen zorutik hamabosten bat zentimetrora. Ezkerretatik, Erregearen errementariak laurogeita hamaika katea sartu zituzten, European andereen erlojuetatik zintzilika jarri ohi direnak bezalakoak, eta berauek bezain handiak ia, ezkerreko zangoari lotu zizkidatelarik hogeita hamasei giltzarrapoz. Tenpluaren aurrez aurre, bide nagusiaren beste aldean, ia zazpi metrora, dorretzar bat zegoen, metro t'erdiko altuerakoa gutxienez. Hara igo zen Enperadorea bere Gorteko handiki askorekin, ni ikusteko aukera izan zezaten; hala esan zidaten behintzat, nik ezin bainituen ikusi. Helburu berberaz ehun mila biztanle baino gehiago irten zirela hiritik kalkulatu zen; eta

zaintzaileak nituen arren, uste dut ez zirela hamar mila baino gutxiago izango, txandaka, nire gainera igo zirenak eskaileren laguntzaz. Baina laster atera zen bando bat heriotza-zigorpean debekatuz. Langileek ikusi zutenean ezinezkoa zitzaidala ihes egitea, inguruko lokarri guztiak moztu zizkidaten; ondoren, zeharo bihozgabetua altxatu nintzen, bizitzan sekula egon ez naizen bezala. Baina altxatzen eta ibiltzen ikusi nindutenean, jendearen zaratotsa eta harridura adierazkaitzak izan ziren. Ezkerreko hankari lotutako kateak bi metro inguru izango ziren luze, eta atzera eta aurrera zirkuluerdian ibiltzeko askatasuna ez ezik, atetik hamarren bat zentimetrora zeudenez, makurtuta barrura sartu eta tenpluan luze-luze etzateko aukera ere ematen zidaten.

2. KAPITULUA

Liliputeko Enperadorea, nobleteriako zenbaitekin batera, autorea ikustera etortzen beronen itxiturara. Enperadorearen itxura eta janzkeraren deskribapena. Jende jakintsua Izendatzen dute autoreari bertako hizkuntza irakasteko. Hau, bere jarrera otzanagatik, gero eta begikongo dute. Poltsikoak miatzen dizkiote, eta ezpata eta pistolak kentzen.

Zutik jarri nintzenean, ingurura begiratu eta ikuspegi atseginagorik sekula ez dudala ikusi aitortu behar dut. Inguruko landazabalak etengabeko lorategia zirudien, eta alor hesituek, hamabi metroko karratuak gehienetan, beste hainbat lore-multzo ematen zuten. Alor haietan hamarren bat areako basoak zeuden tarteka eta zuhaitzik handienek, nire iritziz, bi metro ingurukoak izango ziren. Hiria ikusi nuen ezkerretara, antzokiko eszenategirako pintatua zirudielarik.

Berezko eginbeharrek zeharo estaturik edukia ninduten zenbait orduz; ez zen harritzekoa, ia bi egun baitziren azkenekoz barruak hustu nituenetik. Estualdi larrian nengoen premiaren eta lotsaren artean. Etxera sartzea izan zen bururatu zitzaidan irtenbide onena, eta honelaxe egin nuen; gero atea itxirik, katearen luzerak uzten zidan bezain urruti joan, eta zama gogai-karri hura bota nuen gorputzetik. Baina orduan bakarrik izan nintzen hain ekintza zikinaren errudun; horregatik, irakurle zintzoak, nire kasua eta larrialdia heldutasunez eta alderdikieririk gabe aztertu ondoren, nolabait barkatuko didala espero dut. Aurrerantzean, jaiki bezain laster eginbehar hura aire zabalean —kateak utzi bezain urruti— egiteko ohitura hartu nuen eta goizero, jendea etorri aurretik, beharrezko neurriak hartzen ziren hartarakoxe zeuden bi morroiek eginkai lotsagarri haiek handik ken zitzaten orgatiletan. Ez nintzatekeen hainbeste luzatuko lehen ikuspegian beharbada hain garrantzitsua ematen ez duen gorabehera honetan, ez banu beharrezkotzat jo garbitasunari dagokionean neure jokaera zuritzea munduaren aurrean; esan didatenez,

gertaera honen eta beste batzuen ondorioz, nire iraintzaileetako batzuek pozik asko jarri omen dute zalantzan eta.

Gorabehera hau amaitu zenean, berriro irten nintzen etxetik haize freskoaren bila. Enperadorea dorretik jaitsia zen ordurako eta zaldiz zetorren niregana, ia bere larrutik ordaindu behar izan zuelarik hau; zeren eta aberea, oso ongi hezia baina batere ohitu gabea halakorik ikustera, bere aurrean mendiren bat mugitzen ari zela iruditu zitzaionean, zutik gelditu baitzen atzeko hanka gainean. Baina printze hark, zaldizko aparta izanik, zela gainean jarraitu zuen, laguntzaileak etorri eta uhalei heldu ondoren, Maiestateak behera jaisteko aukera izan zuen arte. Jaitsi ondoren, miresmen handiz begiratu zidan, baina katearen luzera baino urrutirago geratu zen. Jatekoa eta edatekoa eman ziezadaten aginduzien jadanik prest zeuden sukaldari eta sotolariei, eta orduan, gurpildun edukinontzi batzuei egin zieten bultza nire irispidera utzi arte. Edukinontzi haiek hartu eta berehala hustu nituen denak; haietako hogeitak beteak zeuden, eta hamar, edariz; lehenengoetariko bakoitzaz biz-

pahiru mokadu bikain egin nituen, eta hamar lusuletan zetorren edaria edukinontzi haietako batera hustu eta zurrutada batean edan nuen, gainerakoez ere gauza bera egin nuelarik. Enperatriza eta Odol-Printze eta Printzesak, hainbat andere lagun zutela, halako tarte batera zeuden eserita beren aulkietan; baina Enperadorearen zaldiari gertatutakoaren ostean, zutitu eta harengana hurbildu ziren, zer itxura zuen azalduko dudalarik orain. Gorteko beste edonor baino garaiagoa da nire atzazalaren zabalera bat, besterik gabe hau nahikoa delarik ikusten dutenei beldurra sartzeko. Gogor eta gizon itxurakoa du aurpegia, ezpaina austriarra eta sudurra gakoa, azala oliba kolorekoa, burua tente, gorputz-enbor eta adarrak ongi orekatuak, mugimendu guztiak lerdinak eta ibilera arranditsua. Ordurako gainditua zuen gaztaroa, hogeita zortzi urte eta bederatzi hilabete baitzituen, hauetarik gutxi gorabehera zazpi zeramatzalarik erregetzan, zoriontasun handiz eta gehienetan garaile. Hobeto behatu ahal izateko, alde batera etzan nintzen, hala nire aurpegia harenaren parean zegoelarik, baina hark niregandik hiru bat metro-

ra jarraitu zuen; halere, geroztik sarritan izan dudanez neure eskuan, ezin dut, beraz, huts egin azalpenean. Arruntak eta xumeak zituen jantziak, erdi asiar erdi europar motakoak; baina urrezko buru-oskol arin bat zeraman, bitxiz apaindua eta luma batekin gailurrean. Ni askatzea gertatzen bazen ere, badaezpada ezpata zeraman eskuan bere burua babesteko; ia zortzi zentimetro izango zen luze, girtena eta zorroa urrezkoak zituelarik, diamantez apainduak. Aho-tsa ozena zuen, baina oso garbia eta artikulatua, eta oso ongi entzuten nion zutik nengoela ere. Andereak eta gortelariak oso handikiro jantziak zeuden, eta beraz, zoruan, haiek zeudeneko lekuan, gonazpikoa —urrezko eta zilarrezko irudiz bordatua— zegoela zabaldua ematen zuen. Behin eta berriz mintzatu zitzaidan Maiestate Inperiala, eta nik ere bai erantzun, baina ezin genion elkarri txintik ulertu. Jantzietatik atera ahal izan nuenez, haren apaiz eta legegizonetarikoz batzuk ere bertan zeuden, niri hitz egiteko agindua hartu zutelarik; pixka bat ezagutzen nituen hizkuntza guztietan hitz egin nien nik ere, hots, goi- eta behe-holanderaz, latinez, frantse-

sez, espainieraz eta lingua frankaz; baina dena alferrik. Bi ordu inguru geroago erretiratu zen Gortea, eta ongi zainduta utzi ninduten, jendailaren lotsagabekeria eta agian maltzurkeriatik ere babesteko, egonezinik baitzeuden ausartu bezain hurbil nire inguruan metatzeko; eta haietako batzuek, etxeko ate ondoan eserita nengola, geziak botatzeko arinkeria ere egin zuten, batek oso gutxirengatik ez ninduelarik jo ezkerreko begian. Baina txoriburu haietako sei atxilotzeko agindu zuen koronelak eta ez zitzaion zigor hoberik bururatu, lotu eta nire esku uztea baino, horixe egin zutelarik haren soldaduetariko batzuek, beren pika-muturrez bultza eginez nire irispidera utzi arte. Eskuinean hartu nituen denak: bost, kasakaren poltsikoan sartu eta sei-garrenari zegokionez, bizirik jateko plantak egin nituen. Izugarrizko garrasiak egin zituen gizarrak, eta oso nahigabeturik zeuden koronela eta haren ofizialak, ganibeta ateratzen ikusi nindutenean, batez ere. Baina laster desagerrarazi nituen haien beldurrak, zeren eta, eztiki begiratu eta berehalaxe ebakiz hark zeuzkan lokarriak, zoruan utzi bainuen poliki-poliki, ospa egin

zuelarik bizkor asko; banan-banan poltsikotik ateraz, berdin jokatu nuen besteekin ere, eta nire errukiaren erakusgarri honekin bai soldaduak eta bai jendea oso pozik zeudela ohartu nintzen, beronetaz oso ongi hitz egin zutelarik nire alde Gortean.

Gau aldera eragozpen pixka batez sartu nintzen etxera eta han zoruan etzan, ondorengo hamabosten bat egunez ere berdin egin nuelarik; denboraldi honetan ohea presta ziezadaten agindu zuen Enperadoreak. Ohiko neurriko seiehun koltxoi ekarri zituzten gurdietan, eta nire etxean eraiki; ehun eta berrogeita hamar elkar-josiz egin zuten ohearen luze-zabalera, eta honelako lau geruza elkarren gainean jarri zituzten, nahiz eta nik ez nuen halere ezberdintasun handirik nabaritu harri leunezkoa zen zoruaren gogortasunean. Kalkulu beraren arabera, maindirez, burusiz eta ohegainekoz hornitu ninduten, aski ongi ni bezala aspaldian ezbeharretara egina zegoen batentzat.

Nire etorreraren berri zabaldu zenean erresuman, jende aberats, zereginik gabeko eta begiluzeko asko etorri zen ni ikustera; ondorioz, ia hutsik

uzten zituzten herriak, eta laborantzako eta etxeko lan asko bertan behera geratuko zatekeen, Maiestate Inperialak zenbait bando eta gobernu-aginduren bidez neurririk ez balu hartu eragozpen honen aurka. Jadanik ikusia nindutenei etxera itzultzeko agindu zien eta ez ausartzeko nire etxetik berrogeita hamar metrora hurbiltzen Gortearen baimenik gabe, honen ondorioz ministroek ordainsari bikainak jaso zituztelarik.

Bitartean, Enperadoreak sarri biltzen zuen bere kontseilua nirekin zer egin eztabaidatzeko; izan ere, gero lagun min batek —goi-mailako pertsona eta *sekretuan* inor baino murgilduagoa zegoen batek— baieztatu zidanez, eragozpen handiak omen zituen Gorteak niregatik. Ihes egingo nuen beldur ziren, eta nire mantenua oso garestia izango zela eta gosetea ekarriko nuela. Batzuetan goseak hiltzen uztea erabakitzen zuten, edo bestela aurpegira eta eskuetara pozoitutako geziak botatzea, hala laster egingo zuelarik nireak; baina hain gorpu handiaren hatsak metropolian izurria sor zezakeela pentsatzen zuten gero eta ziur aski erresuma osora zabalduko zela. Eztabaida hauen erdian, arma-

dako zenbait ofizial hurbildu zen Kontseilu-Ganbara Nagusiko atera; eta haietako bi onartu zituztelarik, lehen aipaturiko sei gaizkileekin nik izandako jokabidearen berri eman zuten, eta honek hain iritzi ona sortarazi zuenez nire alde Maiestatearen eta kontseilari guztien baitan, Batzorde Inperial bat bidali zuten hiriburu inguruan zortziehunen bat metroren barruan zeuden herri guztiek goizero sei behitar, berrogei ardi eta beste zenbait jaki nire mantenurako ekar zitzaten agintzera; bai eta ogia, ardoa eta beste edari batzuk ere proportzio berean; guzti hau behar bezala pagatzeko Maiestateak ordainaginduak luzatu zituen bere Altxortegiaren kontura. Izan ere, Errege hura bere ondareetatik bizi da batez ere, eta okasio berezietan izan ezik oso gutxitan ezartzen dizkie zergak menpekoei, hauek behartuta daudelarik gerratan laguntzera, nork bere gastuak ordainduz. Seiehun pertsona ere izendatu zituzten nire zerbitzari izateko, berauen mantenurako soldatak ere finkatu zirelarik, baita kanpadendak eraiki ere, oso egoki, atearen alde bietan. Era berean, hirurehun jostunek, herrialde hartako modaren arabera, niretza-

ko jantziak egin behar zituztela agindu zen; Maiestatearen jakintsu handienetako seik niri beren hizkuntza irakasten saiatu behar zutela; eta azkenik, Enperadorearen, nobleteriaren eta zaintzaileen zaldiak nire aurrean entrena zitzatela nirekin ohitu zitezzen. Agindu guzti hauek behar bezala betearazi ziren, eta hiru astetan zehar aurrerapen handia egin nuen haien hizkuntza ikasten; denboraldi honetan Enperadoreak sarri ohoratu ninduen bere ikustaldiekin eta atsegin zuen niri irakasten maisuei laguntzea. Nolabait hasiak ginen jadanik elkarrekin hizketan; eta mesedez, askatasuna eman ziezadala erregutzeko izan ziren lehen hitzak, egunero errepikatzen niolarik hau belauniko jarrita. Uler nezakeenez, denbora-kontua zela erantzuten zuen hark, ez zela erabaki behar bere Kontseiluaren aholkularitzarik gabe, eta lehenengo nik *lumos kelmin pesso desmar lon emposo*, hau da, bakea zin egin behar nuela berarekin eta haren erresumarekin. Edonola ere, oso maitagarriro erabiliko nindutela, eta eroapenez eta jokabide zuhurrez bere eta bere menpekoen oniritzia neureganatzeko aholkatu zidan. Gaizki ez hartzea

nahi zuen ni miatzeko agindua ematen bazien funtzionario berezi batzuei; zeren eta, ziur aski armaren batzuk izango bainituen soinean, arriskutsuak derrigorrez, hain pertsona erraldoiaren tamainari baldin bazegozkion. Beteko zela, esan nion, Maiestatearen nahia, prest bainengoen neuk arropak erantzi eta poltsikoak haren aurrean husteko. Erdia hitzez erdia keinuz adierazi nion hau. Erresumako legeen arabera, bere funtzionarioetako bik miatu behar nindutela erantzun zidan; bazekiela hori ezin zena egin nire adostasun eta laguntzarik gabe, eta bi haiek nire esku uzteko bezain iritzi ona bazuela nire bihotz on eta zuzentasunaz, eta niri harturiko edozein gauza itzuli egingo zidatela herrialde hartatik alde egitean, edo ordaindu egingo nik esandako neurrian. Eskuetan hartu nituen bi funtzionarioak eta lehenik kasakaren poltsikoetan sartu nituen eta gero gainerako guztietan, bi patrikera eta ezkutuko beste batean izan ezik, ez bainuen asmorik hauetan ere begira zezaten, neuretzat baizik garrantzirik ez zuten huskeriak neramatzalako. Patrikera haietako batean zilarrrezko erlojua neukan, eta bestean urre pixka

bat zorrotxoan. Zaldun haiek, luma, tinta eta papera zituztelarik berekin, ikusitako guztiaren inbentario zehatza egin zuten; eta amaitu ondoren, behera jaisteko erregutu zidaten, Enperadoreari eraman behar ziotela eta. Gero ingelesera itzuli nuen inbentario hura eta ondorengo hau da hitzez hitz:

Lehenik, Gizon-Mendi Handiaren (horrela itzuliko ditut *Quinbus Flestrin* hitzak) kasakako eskuineko poltsikoan miaketarik zorrotzena egin ondoren, oihal-zati latz handi bat bakarrik aurkitu genuen, behar hainbat zabala Maiestate horren Gobernu-Areto Nagusian alfonbratzat erabiltzeko. Ezkerreko poltsikoan, zilarrezko egundoko kutxa ikusi genuen, metal bereko estalkiarekin, guk miatzaileok altxaezinezkoa. Zabaltzeko erregutu genion eta gutariko bat hara sartzean, nolabaiteko hautsetan zango erdiraino sartuta geratu zen, eta halako pixka bat aurpegietaraino iritsi zitzaigularik, bioi batera eztulka eragin zigun hainbat aldiz. Gerruntzearen eskuineko poltsikoan, gauza zuri mehe batzuen sorta izugarria aurkitu genuen, bat bestearen gain tolestuta, hiru gizon bezain handiak

ia, kable sendoz lotuak eta irudi beltzez markatuak; gure uste apalean, idazkiak ziren, letra bakoitza gure esku-ahurraren erdia baino zabalagoa ia. Ezkerrekoan, tramankulu antzeko bat zegoen, atzealdetik hogeitazutotin luze irteten zitzaizkiolarik, Maiestate horren Gorte aurreko hesolak bezalakoak; horren bidez Gizon-Mendiak bere burua orrazten duela sumatzen dugu, ez baikenuen galderekin etengabe gogaitu, oso zaila egin zitzaigulako guk esandakoa ulertaraztea. Erdi-estalkiaren (horrela itzuliko dut *ranfu-lo* hitza, nire galtza edo prakak adierazteko erabiltzen zutena) eskuineko poltsiko handian barrutik hutsik dagoen burdinazko zutabe bat ikusi genuen, gizon baten luzerakoa, zutabea bera baino handiagoa zen egur-zati sendo bati lotua; eta habearen alde batetik burdinazko pieza handi batzuk irteten ziren irudi arraroak eratuz, ez dakigularik zer izango ziren. Ezkerreko poltsikoan, mota bereko beste tramankulu bat. Eskuin aldeko poltsiko txikiagoan hainbat pieza lau eta biribil zeuden, metal zuri eta gorrizkoak, tamaina ezberdinetakoak; zurietako batzuk, zilarrezkoak ziruditenak, hain handiak eta astunak zire-

nez, nekez altxatu ahal izan genituen guk biok. Ezkerreko poltsikoan bi zutabe beltz zeuden forma irregularrekoak; ezin ginen, zailtasunik gabe, haien goialdera iritsi, poltsikoaren hondotan geundelarik zutik. Haietako bat estalia zegoen eta pieza osoa ematen zuen: baina bestearen goiko muturrean gauza zuri biribil bat zegoen, gure buruak baino bi aldiz handiagoa ia. Hauetako bakoitzean altzairuzko xafla handi bat zegoen gorderik eta, gure aginduz, erakustera behartu genuen, tramankulu arriskutsuak izan zitezkeelako susmoa baikenuen. Beren kaxetatik atera zituen eta haietako batez bere sorterrian bizarra moztu ohi zuela esan zigun, eta besteaz, okela. Bazeuden bi poltsiko, gu sartu ezinezkoak: patrikerak deitzen zituen; erdi-estalkiaren goialdean eginiko bi ebaki handi ziren, baina estu itxiak sabelaren presioagatik. Eskuineko patrikeratik kanpora zilarrezko katea handi bat zegoen zintzilika, barruan tramankulu zoragarri bat zuena. Zernahi izanik ere katearen muturrekoa, kanpora ateratzeko adierazi genion; puxika bat zela ematen zuen, erdia zilarrezkoa eta erdia metal gardenen batezkoa; alderdi gardenetik zenbait

irudi bitxi ikusi genuen zirkulari marraztuta eta ukitu ahal izango genituela pentsatu genuen, substantzia zeharrargitsu haren kontra behatzak gëratu egiten zitzaizkigula ohartu ginen arte. Tramankulu hura belarrietara hurbildu zigun, ur-errotarena bezalako hots amaigabea ateratzen zuelarik. Eta animalia ezezagunen bat den susmoa izan genuen, edo hark gurtzen duen jainkoa; baina gu azken iritzi honen aldekoago gara, berak baieztatu baitzigun (zuzen ulertu baldin bagenion, ez baitzen oso ongi mintzatzeko) gutxitan egiten zuela ezer hura kontsultatu gabe. Bere orakulu deitu zion, eta bizitzako ekintza guztietarako ordua adierazten ziola esan zuen. Ezkerreko patrikeratik sare bat atera zuen, arrantzale batentzako behar hainbat handia ia, baina poltsa bezala zabaldu eta ixteko pentsatua, horretarakoxe erabiltzen zuelarik, hain zuzen; metal horizko zenbait pieza trinko aurkitu genuen barruan, urrezkoak baldin badira beneratan, balio izugarria behar duelarik izan.

Honela bada, Maiestate horren aginduak betetzearren, arretaz miatu ondoren haren poltsiko guztiak, egundoko animalia baten larruz

egindako gerriko bat aurkitu genion gorputzaren inguruan; eta haren ezkerretatik, bost gizonen luzerako ezpata zegoen zintzilika; eta eskuinean, poltsa edo zorro bat bi zatitan banatua, Maiestate horren hiru menpeko sar litezkeelarik zati bakoitzean. Haietako batean, oso metal astunez egindako zenbait puxika edo bola zegoen, gure buruen tamainakoak, esku indartsua behar zelarrik haiek jasotzeko; beste zatiak, nolabaiteko ale beltz pila zeukan, baina ez tamaina edo pisu handikoak, haietako berrogeita hamar baino gehiago hartu baikenitzakeen eskuzabalean.

Mendi-Gizonaren gorputzean aurkitu genuenaren inbentario zehatza da hau, gizalege handiz eta Maiestate horren Batzordeari zor zaion begirunez erabili gintuelarik. Maiestate horren erregealdi oparoko laurogeita bederatzigarren ilargiko laugarren egunean sinatua eta zigilatua.

Cleffen Frelock, Marsi Frelock.

Enperadoreak inbentario hau irakurri zuenean, gauzak entregatzeko agindu zidan. Lehenengo, zimitarra eskatu zuen, bere zorro eta

guzti kendu nuelarik. Bitartean, (orduan berarekin zeuden) gudaroste aukerakoenetariko hiru mila soldaduk halako tarte batera ingura nintzabela agindu zuen, uztaiak eta geziak prest, botatzeko; baina ez nintzen hartaz ohartu, Maiestategan ezarriak bainituen begiak. Gero, zimitarra zorrotik ateratzeko eskatu zidan, pixka bat herdoilduta egon arren itsas urarengatik, gehiena oso distiratsu zegoelarik. Esana egin nuen, eta berehala oihu egin zuten gudarosteek izuturik eta harrituta; izan ere, eguzkiak dir-dir egiten zuen argi-argi, eta islak itsutu egiten zituen nik zimitarrari batera eta bestera eskuan eragitean. Maiestatea, oso errege adoretua bera, ez zegoen nik uste bezain beldurtua; zorrora itzultzeko agindu zidan, eta botatzeko zorura ahal bezain poliki, katearen muturretik metro pare batera. Ondoren eskatu zuen gauza, hutsik zeuden burdin habeetako bat izan zen, nire poltsiko-pistolak esan nahi zuelarik horrekin. Atera nuen, eta berak nahi bezala, nola erabiltzen zen azaldu nion ahal bezain ongi; eta bolboraz bakarrik bete ondoren —izan ere, nire zorroaren itxitasunagatik ez baitzen busti itsasoan (edozein marinel

zuhurrek neurri bereziak hartzen dituelarik eragozpen honen aurka)—, lehenengo, ez izutzeko ohartarazi nuen Enperadorea, eta gero tiro egin airera. Orduan, zimitarra ikustean baino askoz handiagoa izan zen haien harridura. Ehunka jausi ziren lurrera hilda bezala, eta Enperadorea bera ere, nahiz eta zutik geratu, ezin izan zen suspertu aldi batean., Zimitarra bezalaxe eman nizkion bi pistolak ere, eta gero bolbora eta balen zorroa, lehenengoa sutatik urruti eduki zezala erregutuz, txinpartarik txikienak ere piztu egin baitzezakeen airean bidaliz jauregi inperiala. Era berean, erlojua ere eman nion, ikusmin handia zuelarik Enperadoreak, eta pertikan bizkar gainean edukitzeko agindu zien bere alabar-darietako bi handienei, garraiolariak Ingalaterran garagardo-upela eraman ohi duten bezala. Hark ateratzen zuen etengabeko hotsaz txunditurik zegoen Erregea, baita minutu-orratzaren mugimenduaz ere, erraz ikusten zuelarik hau, zeren eta, haien ikusmena gurea baino askoz zorrotzagoa baita. Bere inguruko jakintsuen iritziak eskatu zituen, eta oso ezberdinak eta bitxiak jaso ere, irakurleak ongi imajinatuko

duen bezala nik errepikatu gabe, nahiz eta, egia esan, ez nien oso garbi ulertu. Gero, zilar eta kobrezko txanponak eman nizkien, baita diruzorroa urrezko bederatzi pieza handiekin eta beste txikiago batzuekin, ganibeta eta bizarra kentzeko labana, orrazia eta zilarrezko tabakontzia, sudur-zapia eta egunkaria. Nire zimitarra, pistolak eta zorroa Maiestatearen biltegietara eramán zituzten gurdietan, baina itzuli egin zizkidaten gainerako ondasunak.

Banuen, lehen esan bezala, ezkutuko poltsiko bat, haiek miatu ez zutena, bertan betaurrekoak (begietako ahuleziagatik batzuetan erabiltzen ditudanak), poltsikoko kataloxa eta beste zenbait huskeria zeuden; Enperadorearentzat garrantzirik gabekoak zirelarik, ez nuen uste izan haiek ere ateratzera behartua nengoenik, eta gainera beldur nintzen galdu edo hondatu egingo ote ziren neuregandik urruntzen uzten banituen.

3. KAPITULUA

Autoreak oso era berezian entretenitzen ditu Enperadorea eta haren nobleak, emakumezko nahiz gizonzkoak. Liliputeko Gorteko denbora-pasen berri. Autoreari askatasuna ematen diote zenbait baldintzaren pean.

Nire jatortasun eta jokabide onak Enperadoreagan eta haren Gortean, baita armadan eta oro bat jendartean ere, hain eragin handia izan zuten, epe laburrera askatasuna lortzeko itxaropena izaten hasi nintzen. Ahal ziren bide guztiak erabili nituen neure aldeko jarrera hori bultzatzeko. Poliki-poliki bertakoek beldurra galdu zioten niregandiko edozein arriskuri. Batzuetan etzan egiten nintzen, eta haietako bospaseiri eskuan dantza egiten uzten nien. Eta azkeneko, neska-mutikoak etorri eta nire ile artean ezkutaketan jolastera ausartzen ziren. Ordurako

egina nuen dezenteko aurrerakada haien hizkuntza ulertzen eta hitz egiten. Egun batean, hango zenbait ikuskizunez ni entretenitzeko burutazioa izan zuen Enperadoreak, honetan nik ezagutu ditudan herrialde guztiak garaitzen dituztelarik, nola trebetasunez hala ikusgarritasunez. Ezerk ez ninduen soka gaineko dantzarienak baino gehiago dibertitu, zorutik hogeita hamarren bat zentimetrora zegoen hirurogei zentimetro inguruko hari zuri mehe baten gainean jardun zutelarik. Honetaz pixka bat luzatzeko baimena nahi nuke, irakurlearen eroapenez.

Gortean goi-mailako lanpostuak eta mese-deak eskuratu nahi dituztenek bakarrik jarduten dute denbora-pasa honetan. Gaztetatik trebatzen dituzte arte honetan, eta ez dira beti aitonen seme edo intelektualak izaten. Kargu garrantzitsu bat heriotzez edo ezbeharrez hutsik geratzean (sarri gertatzen dena), izangai haue-tako bospaseik soka gaineko dantzaz Maiestatea bera eta Gortea entretenitzeko baimena eskatzen diote Enperadoreari, eta erori gabe goren salto egiten duenak bereganatzen du postua. Sarritan beren trebetasuna erakusteko agintzen

zaie lehen ministroei ere, gaitasuna ez dutela galdu konbentzi dezaten Enperadorea. Flimnap Altxorzainari inperio osoko beste edozein jauntxori baino hazbete gorago uzten zaio itzulipurdika ibiltzen soka tenkatuaren gainean. Ikusia dut nik salto nagusia hainbat aldiz jarraian egiten soka finkaturiko pikadera baten gainean, soka ez delarik Ingalaterrako lista baino sendoagoa. Nire ustez, eta partziala ez banaiz, nire lagun Reldresal, Isilpeko Arazoetarako Idazkari Nagusia da Altxorzainaren ondoren, bigarrena; gainerrako goi-funtzionarioak elkarren pare-parean dabilta.

Denbora-pasa hauetan sarri zorigaitzeko istripuak gertatzen dira, berauetako askoren konstantzia dagoelarik. Nik neuk ikusi ditut bizpahiru izangai gorputz-adarren bat apurtzen. Baina arriskua askoz handiagoa izaten da ministroei berei agintzen zaienean trebetasuna erakusteko; zeren eta, beren markak eta lagunetak hausteko lehian hainbestearainoxe ahalegintzen direnez, ez baita ia inor egongo erorketaren bat izan ez duenik, eta bizpahiru aldiz batzuk. Baiez-tatu didatenez, ni iritsi baino urte bete edo bi

lehenago, Flimnapek ziur hautsiko zukeen garondoa, Erregearen kuxinetariko batek, hala-beharrez zoruan zetzalarik, ez balu moteldu erorketaren indarra.

Bada beste denbora-pasa bat ere, zenbait kasu berezitan Enperadorearen, Enperatrizaren eta Lehen Ministroaren aurrean bakarrik egiten dena. Hamabost zentimetroko luzera duten zetazko hiru hari mehe uzten ditu Enperadoreak mahai gainean. Bat urdina, beste bat gorria eta hirugarrena berdea. Hari hauek, bere ederraren erakusgarri bereziaz Enperadoreak nabarmendu nahi dituen pertsonentzako saritzat eskaintzen dira. Maiestatearen Gobernu-Ganbara Nagusian egiten da zeremonia, aurrekoen aldean oso ezberdina den froga bat jasan behar izaten dutelarik izangaiek, eta halakoaren antz-arrastorik duenik ez dut nik Mundu Zaharreko edo Berriko ezein herrialdetan ikusi. Enperadoreak makila bat hartzen du eskuetan zeharretara, eta bitartean izangaiek, banan-banan hurbilduz, batzuetan makila gaisetarik salto egiten dute, beste batzuetan narraska pasatzen azpitik aurrera eta atzera, makilari ere aurrera ala atzera egiten

zaion kontutan izanda. Batzuetan Enperadoreak heltzen dio makilaren mutur bati, eta Lehen Ministroak besteari; beste batzuetan, Lehen Ministroak bakarrik eusten dio. Berari dagokiona zalutasun handienaz egiten duenari, eta *saltoka* eta *narraska* luzaroen irauten duenari kolore urdineko zeta ematen zaio saritzat; bigarrenari gorria ematen zaio, eta hirugarrenari berdea, guztiek eramaten dutelarik gerri inguruan bi bueltaz lotuta; eta goi-mailako funtzionario gutxi ikusiko duzu Gorte hartan gerriko hauetakoren batez apaindu gabe.

Armadako zaldiak, eta errege-tegietakoak, egunero nire aurrera eramana izan ondoren, ez ziren jadanik beldur, baizik eta oinetaraino hurbiltzen zitzaizkidan izutu gabe. Eskua zoruan jartzten nuenean, haren gainetik saltoan pasarazten zituzten zaldizkoek, eta Enperadorearen ehiztarietako batek, ehizako zaldi handi baten gainean, hanka, oinetako eta guzti, gainditu zuen; salto harrigarria, benetan. Egun bat geroago, Enperadorea oso era berezian dibertitzeko aukera izan nuen. Sei metroko luzerako eta kanabera arrunten lodierako zenbait makila ekar ziezada-

ten agintzeko erregutu nion; Maiestateak berehala agindu zion Basozain-Nagusiari horretarako burubideak egin zitzala, eta biharamun goizean sei baso-gizon iritsi ziren beste hainbat gurdirekin, bakoitza zortzi zaldik ekarria. Makila haietako bederatzi hartu eta hirurogeita hamabost zentimetroko zabalerako karratu bat osatuz lurrean tinko sartu ondoren, beste lau makila hartu nituen, ertz bakoitzean zeharretara lotu nituelarik zorutik hirurogeiren bat zentimetrora; gero, zutik zeuden bederatzi makiletan sudurzapia lotu eta tenkatu egin nuen alde guztietara, danborraren gaina bezain atezatuta geratu arte; eta zeharretara jarritako lau makilek, sudurzapia baino hamarren bat zentimetro gorago, baranda zerbitzua egiten zuten alde bakoitzean. Neure eginkizuna amaitu nuenean, bere zaldizkorik onenatariko talde bati, hogeita lau bati, niregana etorri eta lautada hartan entrenatzen uzteko erregutu nion Enperadoreari. Onetsi zuen Enperadoreak nire proposamena eta zaldi gainean eta armaturik banan-banan hartu nituen eskuetan, zegozkien entrenatzaileekin batera. Formazioan jarri bezain bizkor, bi taldetan bana-

tu ziren, borroka itxurak egin zituzten, puntarik gabeko geziak bota, ezpatak atera, ihesi eta atzetik jarraika ibili, eraso egin eta erretiratu, eta sekula ikusi dudan instrukzio militarrik onena erakutsi zuten denbora laburrean. Zeharkako makilek babesten zituzten zaldizkoak eta zaldiak plataformatik eror ez zitezen; eta Enperadorea hain pozik zegoenez, denbora-pasa hura zenbait egunez errepikatzeko agindu zuen, eta behin, gora altxa nezan nahi izan zuen, berak aginduak emateko; eta eragozpen handiz baina lortu zuen Enperatriza bera ere konbentzitzea nik esku-aulkian eduki nezan plataformatik metro pare batera, handik ekitaldi guztiaren ikuspegi osoa izan baitzezakeen. Nire zorionerako, ez zen istripurik gertatu denbora-pasa hauetan; behin bakarrik kapitain baten zaldi sugartsuak zoruari ostikoka zuloa egin zuen sudur-zapian eta, hanka beheara sartu zitzaionez, gainekoa eta biak erori egin ziren; baina berehala lagundu nien biei, eta zuloa esku batez estalirik, besteaz jaitsi egin nuen talde osoa, gora jaso nuen era berean. Erori zen zaldiak ezkerreko hankagaina okertu zuen, baina zaldizkoak ez zuen minik hartu, eta

nik ahalik ongien konpondu nuen sudur-zapia; halere, ez nintzen aurrerantzean haren sendotasunaz fidatu halako zeregin arriskutsuetarako.

Aske utzia izan baino bizpahiru egun lehena-go, honelako trikimailuekin Gortea entretenitzen ari nintzela, mezulari bat iritsi zen Maiestateari esatera, beraren menpekoetariko batzuek, hasieran aurkitu ninduteneko inguruan zaldiz zebiltzalarik, gauza beltz handi bat ikusi zutela zoruan, oso itxura arrarokoa, ertzak Maiestatearen logela bezain zabal hedatuak eta erdialdea gizon baten pareraino altxatua zuelarik; ez zela izaki bizia, hasieran iruditu zitzaien bezala, belarretan mugitu gabe baitzetzan, haietako batzuek ingurutik zenbait bira egin arren; batzuk besteen bizkar gainera igoz, haren gailurrera iritsi zirela, laua eta leuna zelarik, eta hankaz jo ondoren, barrutik hutsik zegoela konturatu zirela; beren uste apalean, Gizon-Mendiaren zerbait izan zitekeela, eta Maiestateak ederresten bazion, beraiek arduratuko zirela ekartzeaz bost zaldiz bakarrik. Berehala konturatu nintzen zertaz ari ziren eta benetan poztu nintzen hura jakiteaz. Dirudienez, ontzia hondoratu eta itsasertzera iri-

tsi nintzanean hain zorabiatua nengoenez, loak hartu ninduen lekura iritsi baino lehen, kapela — arraunean egin bitartean sokaz buruari lotua izan nuena eta igerian egin bitartean ere han egon zena— erori egin zitzaidan lehorreratu nintzanean; soka, pentsatzen dut, apurtu egingo zen niri oharkabean pasatu zitzaidan zerbaitengatik, kapela itsasoan galdua nuela uste banuen ere. Ahalik azkarren ekar ziezadaten agintzeko erregutu nion Enperadoreari, zertarako zen eta nolakoa zen azaldu nizkiolarik. Eta biharamunean, han ziren garraiarriak kapelarekin, baina ez zuten oso egoera onean ekarri; bi zulo eginak zizkioten hegalean, ertzetik lau zentimetrora, eta zuloetan bi gako lotuta; gako hauek soka luzez zaldi-uhalei lotuak zeuden, eta hala, arrastaka ekarria zuten nire kapela Ingalaterrako milia erdi baino bide luzeagoan; baina herrialde hartan lurzorua izugarri lau eta leuna denez, nik espero baino gutxiago zegoen hondatua.

Gorabehera honetatik bi egunera, metropoli barruan eta inguruan koarteleratua zegoen armadaren zatiari prest egoteko agindu ziolarik Enperadoreak, bere burua oso era bitxian dibe-

titzeko apetaldia izan zuen. Koloso bat bezala zutik egoteko erregutu zidan, zangoak ahal beste zabaldua baina eroso. Gero, gudarosteak trinko formarazteko agindu zion bere Jeneralari (eskarmentu handiko buruzagi adintsu eta nire babesle zenari, hain zuzen) eta nire azpitik pasarazteko, oinezkoak hogeita lauko lerrotan eta zaldizkoak hamaseikotan, danborrak joz, banderak airean eta pikak aurrerantz zituztela. Talde honetan hiru mila oinezko eta mila zaldizko zeuden. Desfile hartan soldadu guztiek nirekiko begirunerik handiena izan behar zutela agindu zuen Maiestateak, heriotza-zigorren mehatxupean; halere, ezin izan zuen eragotzi ofizialik gazteenek gora begira ziezadaten azpitik igarotzean. Eta egia esateko, hain egoera kaxkarrean nituenez orduan prakak, izan zuten aukerarik barre egin eta zerbait miresteko.

Neure askatasunari buruzko idazki eta eskari asko nuen bidalia, azkenean Maiestateak aipatu egin zuen arazoa, lehenik Kabinetean eta gero Kontseiluaren osoko batzarrean, non ez baitzen inor aurka agertu, Skyresh Bolgolam izan ezik, honek atsegin baitzuen, inolako probokaziorik

gabe ere, nire etsai amorratua izatea. Baina beronen iritziaren kontra onetsi egin zuen Junta osoak, eta Enperadoreak berretsi. Ministro hura *Galbet* edo Erresumako Almirante zen, bere nagusiak uste onean zeukana, oso aditua bere eginkizunetan baina izaera goibel eta garratze-koa. Edonola ere, azkenean konbentzitu zuten amore emateko, baina aske uzteko arauak eta baldintzak —nik zin egin beharrekoak— berak ezartzea lortu zuen. Arau hauek Skyresh Bolgolamek berak ekarri zizkidan, bi idazkariorde eta beste zenbait pertsona agurgarriekin batera. Irakurri ondoren, beteko nituela zin egiteko eskatu zidaten; lehenik neure herrialdeko eran, eta gero haien legeek ezarritakoaren arabera: eskuineko oinari ezkerreko eskuaz helduta, eskuin eskuko erdiko hatza buruko koroatxoan eta erpurua eskuineko belarri puntan ipiniz. Baina agian irakurleak jakin-mina izango duenez jende haren adierazpenak nolakoak ziren ezagutzeko, baita zein arauen menpean berreskuratu nuen askatasuna jakiteko ere, hitzez hitz itzuli dut dokumentu osoa, ahal izan dudan neurrian, eta hemen eskaintzen diot jendeari:

GOLBASTO MOMAREN EVLAME GURDILO SHEFIN MULLY ULLY GUE, Liliputeko Enperadore guztiz ahaltzua, Unibertsoko Atsegina eta Izuikara, zeinen aginterriak bost mila blustrugekoak (hamarren bat milia biribilean) munduaren ertzetaraino hedatzen diren; Errege guztien Errege, gizasemeak baino garaiagoa; zeinen oinek lurra erdirantz zapaltzen duten eta buruak eguzkia ukitzen, beronen keinuak munduko erregeei zangoak dardarazten dizkielarik; udaberria bezain atsegingarria, uda bezain bizigarria, udazkena bezain emankorra, negua bezain bel-durgarria. Maiestate Txit Goren honek Gizon-Mendiari, gure aginterri zerutiarretara iritsi berriari, ondorengo arauak proposatzen dizkio, berauek betetzea zin egin behar duelarik handikiro.

1. Gizon-Mendia ez da gure aginterrietatik aterako, gure zigilu nagusiaz emandako baime-nik gabe.

2. Ez da ausartuko gure metropolira sartzen, guk horretarako agindua eman gabe; horrelako-

etan bi ordu aurrez ohartaraziko dira biztanleak etxe barruan egon daitezzen.

3. Aipaturiko Gizon-Mendiak gure errepide nagusietara mugatuko ditu bere ibilaldiak, eta ez zaio bururatuko belardi edo galsoroetan ibiltzerik edo etzaterik.

4. Aipaturiko bide horietatik ibiltzean, arretarik handiena izango du gure menpeko maitagarriarik edo berauen zaldi edo gurdirik hankapean ez hartzeko, eta menpeko horietako inor ere ez du eskuan hartuko beren adostasunik gabe.

5. Mezuren batek aparteko igorketa eskatzen badu, Gizon-Mendia beharturik dago mezularia eta zaldia bere poltsikoan eramatera sei eguneko bidaitartean ilargialdi bakoitzean behin, eta aipatu mezulariak bizirik eta onik gure Inperial Presentziara ekartzera ere bai (behar izanez gero).

6. Gure aliatu izango da Blefuscu irlako etsaien aurka, eta ahal duen guztia egingo du haien ontziteria suntsitzeko, gure erresuman sartzeko prestatzen ari direlarik orain.

7. Aipaturiko Gizon-Mendiak, astia duenean, harri handi batzuk altxatzen lagunduko die gure

langileei parke nagusiko harresia eta gure beste errege-erakin batzuk estaltzeko.

8. Aipaturiko Gizon-Mendiak, bi ilargialdi barru, gure aginterriaren zirkunferentziaren neurketa zehatza egingo du kostari jarraitu eta bere urratsak zenbatuz.

Azkenik, aurreko guzti hauek beteko dituela benetan zin egin ondoren, aipaturiko Gizon-Mendiak gure 1728 menpeko mantentzeko beste janari eta edari izango du egunero, baita nahi duenean gureganaino iristeko aukera eta gure ederraren beste erakusgarri batzuk ere. Belfabrac-eko jauregian emana gure erregealdiko lau-rogeita hamaikagarren ilargialdiko hamabigarren egunean.

Poz eta alaitasun handiz izenpetu nituen arau hauek, nahiz eta batzuk ez izan nik nahi bezain ohoretsuak; izan ere, Skyresh Bolgolam Almirante Nagusiaren maltzurkeriaren ondorio baitziren guztiz. Gero, berehala kendu zizkidaten kateak, erabat aske geratu nintzelarik; zeremonia osoan zehar bera ondoan egoteko ohorea egin zidan Enperadoreak. Maiestatearen oinetara ahuspez-

tuz erakutsi nion neure esker ona, baina altxatzeko agindu zidan; eta bere jarrera ona modu askotara erakutsi ondoren —harrokeri salaketak eragoztearren, ez ditut errepikatuko— ni zerbitzari baliotsu izatea espero zuela gaineratu zuen, baita jadanik egindako eta etorkizunean egin ziezazkidekeen mesede guztiak merezi izatea ere.

Irakurleak atsegin izan lezake ohartzea, askatasuna berreskuratzeko azken arauan, 1728 liliputiar mantentzeko beste janari eta edari ematea erabakitzen duela Enperadoreak. Handik aldi batera, kopuru zehatz hori finkatzera nola iritsi ziren galdetu niolarik Gorteko lagun bati, erantzun zidan Maiestatearen matematikariek koadrante baten laguntzaz nire gorputzaren altuera neurtu eta berena halako hamabi zela ohartzuz, nireak beraien 1728renen edukiera izango zuela ondo dago inguratua, zazpi metroko tartera beste eraikinetatik. Maiestatearen baimena nuen harresi hura gaineratik pasatzeko; eta beronen eta jauregiaren arteko tartea hain handia izanik, erraz ikusi ahal izan nuen alde guztietatik. Kanpoaldeko patioa hamahiru metroko

zabalerako karratua da, eta beste bi patio ditu bere barruan: barnekoenean errege-gelak daude, irrika biziz ikusi nahi nituenak, baina oso zaila zen, zeren eta, patio batetik bestera pasatzeko ate handiak metro erdi ere ez baitziren altu eta hogeitazentimetro zabal. Eta bestalde, kanpoaldeko patioako eraikinak gutxienez metro t'erdi ziren altu eta ezinezkoa zitzaidan gainetik pasatzea kalte handia egin gabe multzo hari, nahiz eta hormak harri landuz sendo eraikiak egon, hamar zentimetroko lodieraz. Aldi berean, gogo bizia zuen Enperadoreak haren jauregiko bikaintasuna ikus nezan, baina hiru egun geroagora arte ezin izan nuen egin, denboraldi hau errege-parkeko zuhaitzik handienetako batzuk neure ganibetaz mozten eman nuelarik, hiritik ehunen bat metrora. Zuhaitz hauekin bi aulkitxo egin nituen, metro bete altu bakoitza eta nire pisuari eusteko behar hainbat sendoak. Jendea ohartarazi zutenean bigarren aldiz, berriro joan nintzen hirian zehar bi aulkitxoak eskuetan nituela. Kanpoaldeko patioaren ondora iritsi nintzenean, aulki baten gainera igo eta eskuan hartu nuen bestea; hau teilatuaren gainetik

altxatu eta poliki-poliki lehen eta bigarren patio-aren artean utzi nuen zoruan, bi metro t'erdiko zabalera zuelarik bigarren patio honek. Hala, oso egoki pasatu nintzen aulki batetik bestera eraiki-nen gainetik, eta gakodun makilaz jaso nuen neure atzetik lehenengo aulkitxo. Asmakizun honekin iritsi nintzen barnealdeko patiora; eta alde batera etzanda, erdialdeko solairuetako leihoetara hurbildu nuen aurpegia, horretarako xe zudelarik zabalik utzita; eta imajina litez-keen gelarik zoragarrienak aurkitu nituen. Enpe-ratriza ikusi nuen han, eta Printze gazteak beren geletan, laguntzaile nagusiak inguruan zituztela. Enperatrizak atseginez eskaini zidan irribarretxo bat, eta bere eskua atera zuen leihotik kanpo muin eman niezaion.

Baina ez diot irakurleari aurreratuko honela-ko xehetasun gehiago, inprimatzeko ia prest dagoen lan handiago baterako utziko baititut; bertan Inperio haren deskribapen orokorra ager-tzen da, hasierako eraketatik, erregeen zerrenda luzearekin, beraien gerra eta politika, lege, kul-tura eta erlijioaren berri zehatzekin; baita haien landare eta animalia, izaera eta ohitura berezi

eta beste gai oso bitxi eta interesgarriekin; nire helburu nagusia orain ez da Inperio hartan egin nuen bederatzi hilabete inguruko egonaldian zehar jendeari edo neuri gertaturiko jazoera eta gorabeherak kontatzea baino.

Goiz batez, askatasuna lortu eta hamabosten bat egunera, Reldresal, Isilpeko Arazoetarako Idazkari Nagusia (haiek esaten duten bezala) etxera etorri zitzaidan zerbitzari bakar bat lagun zuela. Bere zalgurdiak handik urrutixerago itxaron ziezaiola agindu zuen, eta ordu beteko entzunaldia eman niezaiola erregutu zidan niri; berehala onartu nion, bere maila eta meritu pertsonalengatik, baita mesede handi asko egin zidalako ere nik Gorteari igorritako eskarien inguruan. Lurrean etzateko prest nengoen, ero-soago iritsi ahal izan zedin nire belarrira, baina nahiago izan zuen neure eskuan bar nezan gure hizketaldirako. Nire askatasunari buruzko konplimentuekin hasi zen, eta hartan berak ere merituren bat izan zezakeela esan zuen; baina, hale-re, une hartan Gortean zegoen egoeragatik izan ez balitz, agian ez nuela hain bizkor lortuko gaineratu zuen. «Zeren eta», esan zidan, «kanpota-

rren ikuspegitik hain egoera bikainean egon arren, bi ezbehar handiren menpe baikaude: talde gogortzale bat barnean eta areriorik indartsuenaren inbasio-arriskua atzerritik. Lehenengoari dagokionez, jakin behar duzu, azken hirurogeita hamar ilargialdiak baino gehiago eman dituztela borrokan bi alderdik Inperio honetan, *Tramecksan* eta *Slamecksan* deiturapean, oinetakoetako takoi luze eta laburrengatik bereizten baitira beren artean. Izan ere, takoi luzeak gure antzinako konstituzioarekin guztiz bat datozeela esaten da; baina halere, gobernu-administrazioan eta koroaren esku dauden kargu guztietan takoi laburrak bakarrik erabiltzea erabaki du Maiestateak, zeuk ere ikus dezakezun bezalaxe, baita Maiestatearen takoi inperialak Gorteko beste edozeinenak baino drurr bat gutxienez laburrago direla (*drurr* delakoa ia bi milimetroko neurri bat da). Bi alderdi hauen arteko ezinikusia hain bizia denez, ez dute elkarrekin jaten edo edaten, ezta hitzik egiten ere. *Tramecksan*, edo Takoi Luzeak, kopuruz gehiago direla kalkulatzeko dugu; baina boterea gure aldean dago guztiz. Beldur gara Gorentasun Inperialak, koroaren

oinordekoak, Takoi Luzeen aldeko joera ote duen; behintzat berorren takoietariko bat bestea baino luzeagoa dela konturatzen gara garbi, herrenka ibilarazten diolarik honek. Orain, barne-gatazka hauen erdian, Blefuscu irlatiko inbasio baten mehatxupearan gaude, berau delarik unibertsoko beste Inperio handia, gure Maiestatearen hau bezain handi eta ahaltsua ia. Izan ere, zuri entzun dizugun horretaz —alegia, munduan badirela beste erresuma eta estatu batzuk, zeu bezain gizaki handiz populatuak— zalantza handiak dituzte gure filosofoek, eta ilargitik edo izarren batetik eroria zarelako susmoa dute; zeren eta, egia baita zure tamainako ehun gizakik Maiestatearen aginterriko uzta eta ganadu guztiak suntsituko lituzketela denbora laburrean. Gainera, sei mila ilargialdiko gure historiak ez du beste herrialderik aipatzen, Liliput eta Blefuscu bi Inperio Nagusiak izan ezik. Eta bi botere indartsu hauek, esatera nindoakizun bezala, oso gerra tematsuan ari izan dira azken hogeita hamasei ilargialditan. Ondorengo honengatik hasi zen: Mundu guztiak onartzen du, jan aurretik arrautzak kraskatzeko era zaharra

muturrik zabalenetik egitea zela; baina gaur egungo Maiestatearen aitonak, mutikotan, arrautza bat jatera zihoanean, era zaharrearan kraskatu zuelarik, behatzetariko bat ebakitzea suertatu zen. Ondoren, haren aita Enperadoreak, zigor handien mehatxupean, arrautzen mutur estuena kraskatzeko aginduz ediktua eman zuen menpeko guztientzat. Jendearentzat hain iraingarria izan zenez lege hau, Historiak diosku sei altxamendu egon direla horrengatik, Enperadore batek bizia galdu duelarik eta beste batek koroa. Istilu zibil hauek Blefuscuko monarkek bultzatzen zituzten etengabe, eta menperatuak izaten zirenean, exiliatuak Inperio hartara joaten ziren beti babes bila. Batean eta bestean, kalkulatzen da hamaika mila pertsonak nahiago izan duela heriotza jasan arrautzak mutur estuenetik kraskatzea onartu baino. Ehunka liburuki handi argitaratu da eztabaida honi buruz, baina Muturzabalzaleen liburuak debekatuak izan dira luzaroan eta alderdi osoa legez ezgaitua karguak betetzeko. Gatazka hauek iraun bitartean, Blefuscuko Enperadoreek sarritan protestatu zuten enbaxadoreen bidez, erlijio-zisma sortzen ari ginela

salatuz, Lustrog gure profeta nagusiaren funtsezko doktrina baten aurka jokatzeko genuelako, (hain Korana den) *Brundecral*-eko berrogeita hamalagarren kapituluaren dagoelarik, hain zuzen. Honek, ordea, testua bortxatzea dela ematen du, zeren eta, hauek baitira hitzak: «*Benetako sinesle guztiek muturrik egokienetik kraskatu behar dituzte arrautzak*». Eta muturrik egokiena zein den, badirudi, nire uste apalean, gizon bakoitzaren barruari utzi behar zaiola erabakitzen, edo gutxienez epaile nagusiaren eskupean berak erabaki dezan. Baina Muturzabalzale erbesteratuek hain sinesgarritasun handia dutenez Blefuscuko Enperadorearen Gortean eta ezkutuko hain laguntza eta amore handia beren alderdiaren aldetik hemen bertan, gerra odoltsua izan da bi Inperioen artean hogeita hamasei ilargialditan zehar emaitza ezberdinekin; denboraldi honetan berrogei itsasontzi nagusi galdu ditugu eta ontzi txikien askoz kopuru handiagoa, gure itsasgizon eta gerlari onenatariko hogeita hamar milarekin batera; eta arerioak jasandako kaltea nolabait gurea baino handiagoa izan dela kalkulatu da. Halere, orain ontziteria handia

dute ekipatuta eta gure gainera oldartzeko ari dira prestatzen; eta Maiestate Inperialak, usteon sendoa duelarik zure adore eta indarrean, bere arazoen berri zuri emateko agindu dit.»

Nire zerbitzu apalak Enperadoreari eskaintzeko erregutu nion Idazkariari eta jakin erazteko berari, kanpotarra nintzenez, alderdien arazotan ez nuela sartu behar uste nuela; baina prest nengoela bizia arriskatuz ere bera eta Estatua defendatzeko erasotzaile guztien aurka.

5. KAPITULUA

Estratagema bitxiaren bidez, inbasioa eragozten du autoreak. Ohorezko titulu handia ematen diote. Blefuscuko Enperadorearen enbaxadoreak iristen dira bakea eskatuz.

Enperatrizaren geletan sutea sortzen halabeharrez; jauregiaren gainerakoa salbatzen laguntzen die autoreak.

Liliputen ipar-ipar-ekialdean kokaturiko irla bat da Blefuscuko Inperioa, zazpiehun metroko itsasarteak bakarrik banatzen dituelarik. Artean ikusi gabea nintzen, eta inbasioa prestatzen ari omen zirela jakin ondoren, ez nintzen kostaren alde hartan agertzen, arerioaren ontziren batek aurkituko ote ninduen beldurrez; haiek ez zuten nire berri, gerra garaian bi Inperioen arteko harreman guztiak zeharo debekaturik baitzeuden heriotza-zigorpean eta gure Enperadoreak enbargoa zuen ezarria edozein ontzirentzako.

Arerioaren ontziteria osoa harrapatzeko eratuta-ko egitasmoa jakin erazi nion Enperadoreari; ontziteria, gure zelatariek baieztatu zigutenez, portuan zegoen ainguratua, lehen haizeekin itsasoratzeko prest. Itsasartearen sakoneraz galdegin nien marinelik adituenei, zundatua baitzuten sarritan, eta itsasgoraz erdian hirurogeita hamar *glumgluff* zeudela esan zidaten, bi metro inguru Europako neurrian, eta gainerakoan berrogeita hamar *glumgluff* gehienez ere. Ipar-ekialdeko kostarantz abiatu nintzen Blefuscu parean; han, muino baten atzean etzanda, poltsikoko kataloga txikia atera eta arerioak ainguraturik zeukan ontziteriari behatu nion, berrogeita hamarren bat gerraontziz eta zamaontzi ugariz osatua zegoelarik. Gero, etxera etorri eta kablerik sendoenetik pilo bat eta burdin barrak ekartzeko agindu nuen (bai bainuen honetarako baimena). Gutxi gorabehera listaria bezain lodia zen kablea, eta barra haien luzera eta tamaina puntua egiteko orratzena bezalakoa. Hiru aldiz tolestu nuen kablea sendoagoa izateko, eta arrazoi berarengatik burdin barrak ere hirunaka bihurrikatu nituen elkarrekin, muturrak okertuz gakoei

bezala. Berrogeita hamar gako beste hainbat kablari lotu ondoren, ipar-ekialdeko kostara itzuli nintzen, eta kasaka, oinetakoak eta galtzerdiak erantzi ondoren, itsasora sartu larruzko jipoiarekin, itsasgora baino ordu erdi inguru lehenago. Ahal bezain bizkor ibiz iragan, eta gutxi gorabehera hogeita hamar metroz egin nuen igerian berriro hondoa ukitu arte; ordu erdi baino lehen iritsi nintzen ontziteriara. Ikusi nindutenean, hainbestearinoxe izutu zirenez kontrarioak, salto egin zuten ontzietatik, eta igerian joan itsasertzerantz, ez zirelarik han hogeita hamar mila baino gutxiago izango. Hartu orduan neure aparailua eta ontzi bakoitzaren brankako zulotik gako bana sartu ondoren, kable guztiak elkarrekin lotu nituen beste muturrean. Honetan ari nintzen bitartean, hainbat milaka gezi bota zuen arerioak, eskuetan eta aurpegian jo nindutelarik askok; eta erresumin izugarriaz gain, eragozpen handiak ere sortu zizkidaten neure eginkizunean. Kezkarik bizienera begiengatik nuen, eta galdu egingo nituzkeen erremediorik gabe, ez balitzait bat-batean babespeide bat bururatu. Zenbait gauzatxo beharrezkoren artean banuen

nik betaurreko pare bat ezkutuko poltsikoan, lehen esan bezala, Enperadorearen miatzaileek aurkitu gabea. Atera eta ahal bezain sendo sudur gainean finkatu nituen eta, honela babes-tuta, neure egitekoari jarraitu nion ausarki are-rioaren geziak gorabehera, nahiz eta hauetako askok betaurrekoen kristalen kontra jotzen zuten, baina pixka bat okertzeaz aparte beste ondoriorik gabe. Gako guztiak loturik neuzkala, korapiloa eskuan harturik, tiraka hasi nintzen; baina ez zen ontzirik mugitu, ongi ainguratuak baitzeuden denak, eta beraz, nire egitekoaren alderdirik ausartena zertu gabe zegoen. Jaregin nion orduan sokari eta gakoak ontziei lotuta utzi-rik, di-da ainguren kableak moztu nituen ganibe-taz, bitartean berrehun jaurtigaik baino gehia-gok jo nindutelarik aurpegi eta eskuetan; gero, gakoei loturik neuzkan kableen mutur korapila-tua hartu eta erraztasun handiz arerioaren gerraontzirik handienetako berrogeita hamar eramane nituen tiraka neure atzetik.

Blefuscutarrak, nire asmoaren susmo txikie-nik ere ez zutenez, harrিতuta eta nahastuta gera-tu ziren hasieran. Kableak mozten ikusi nindute-

nean, ontziei noraezean uztea edo elkarren kontra tupust eragitea izango zela nire asmoa pentsatu zuten; baina ontziteria osoa txukun-txukun bazihoala konturatu zirenean, eta mutur batetik tiraka ikusi nindutenean, atsekabez eta etsipeenez zer-nolako iskanbila sortu zuten, ia ezinezkoa da azaltzea edo imajinatzea. Arriskutik at egon nintzenean, pixka batean geratu egin nintzen eskuetan eta aurpegian sartutako geziak ateratzeko eta, lehen esan dudan bezala, heldu berritan eman zidaten ukendu berberaz igurzteko. Betaurrekoak kendu, eta marea pixka bat jaitsi arte ordu bete inguru itxaron ondoren, ibiz iragan nuen erdialdea neure zamaz, eta onik iritsi Liliputeko errege-portura.

Enperadorea eta Gorte osoa itsasertzean zeuden abentura handi honen amaieraren zain. Ilargi-erdi handi baten eran ontziek aurrera egiten zutela ikusten zuten, baina ni neu ez ninduten ikusten, uretan sartua bainengoen bularre-raino. Itsasartearen erdira iritsi nintzenean, are atsekabetuago jarri ziren, leporaino bainengoen uretan. Itotzat jo ninduen Enperadoreak eta erasotzeko asmotan arerioaren ontziteria hurbiltzen

ari zela pentsatu zuen; baina laster joan zitzaion beldurra, zeren eta, ematen nuen urrats bakoitzeko itsasarteak gero eta sakonera txikiagoa zuenez, berehala iritsi bainintzen elkarri entzuteko bezain hurbilera, eta ontziteriari lotutako kableen muturra gora altxatuz, oihu egin nuen ozenki: *Bizi luzea Liliputeko Enperadorerik ahaltsuenari!* Lehorreratu nintzenean, imajina litezkeen gorespen guztiekin hartu ninduen errege bikain hark, eta hantxe bertan Nardac izendatu, haien artean ohorezko titulu nagusia delarik.

Arerioaren gainerako ontzi guztiak ere haren portuetara ekartzeko beste aukeraren batez baliatzeko erregutu zidan Maiestateak. Eta hain neurrigabea izaten denez erregeen gutizia, bazi-rudien hark ez zuela besterik buruan Blefuscuko Inperio osoa probintzia bihurtu eta Erregeorde bidez gobernatzea baizik, baita erbesteratutako Muturzabalzaleak suntsitzea ere, arrautzak muturrik estuenetik kraskatzera behartuz jende hura, hala bera izango zelarik mundu osoko errege bakarra. Asmo hauek haren burutik kentzen saiatu nintzen politika eta zuzenbideko liburuetatik ateratako argudio askoren bidez, eta argi

eta garbi adierazi nion sekula ez nintzela izango herri aske eta adoretzu bat esklabotzara ekartzeko bitarteko. Eta arazo hau Kontseiluan eztabaidatu zutenean, nire iritzi berekoak omen ziren Ministroen arteko zentzudunenak ere.

Nire aitorten argi eta ausart hau, Maiestate Inperialaren egitasmo eta politikari hain kontrajarria zegoenez, ez zidan inoiz barkatu; oso maltzurki aipatu omen zuen Kontseiluan, non, esan zidatenez, zentzudunenetariko batzuk, beren isiltasunagatik behintzat, nire iritzi berekoak zirela ematen omen zuen; baina beste batzuek, isilpeko nire etsaiak izanik, ezin izan omen zuten gorde, zeharka-meharka niri kalte egiteko zenbait adierazpen. Eta ordudanik hasi zen Maiestatearen eta maltzurki nire kontra zegoen ministro-taldetxo baten arteko satorlana, bi hilabete baino lehen kanporatu zena eta nire hondamendi osoan amaitu izan zitekeena. Hain gutxi balio izaten dute erregeei egindako zerbitzurik handienek, haien grinak asetzeari emandako ezezko baten aldean!

Balentria honetatik hiru bat astera, Blefuscutik enbaxada handi bat iritsi zen, apalki bake-

eskaintza eginez; berehala lortu zen bakea oso baldintza egokietan gure Enperadorearentzat, baina ez dut irakurlea gogaitaraziko berauen kontaketa. Sei enbaxadore etorri ziren, bostehunen bat pertsonako segizioarekin, eta handikiro egin zuten sarrera, beren ugazabaren bikaintasunari eta zeukaten egitekoaren garrantziari zegokion bezala. Ituna burutu zutenean, eta Gortearen aurrean nuen —edo banuela zirudien— sinesgarritasunagatik, Jaun Bikain haiek bisita ofizial bat egin zidaten, haiekiko adiskidetasun handiz jokatu nuela esan baitzieten isilpean. Nire adore eta eskuzabaltasunari buruzko konplimendu askorekin hasi ziren, beren erresumara gonbidatu ninduten beren ugazaba Enperadorearen izenean, eta nire indar miragarriaren frogaren batzuk emateko erregutu zidaten, gauza harrigarriak baitzituzten entzunak; pozik eman zuen honetan gustu, baina ez dut irakurlea xehetasun hauetan luzaraziko.

Jaun Bikain haiek pixka batean entretenitu eta poz-pozik eta txundituta utzi nituenean, beren ugazaba Enperadoreari nire goraintzi apalak emateko ohorea egin ziezadatela erregutu

nien; izan ere, beraren bertuteen ospeak, arrazoiz, betea baitzuen mundu osoa mirespenez, eta nik erabakia nuen neure sorterrira itzuli aurretik berari bisita egitea. Beraz, gure Enperadorea ikusteko ohorea izan nuen lehen egokieran, Blefuscuko monarka ikusteko baimena erre-gutu nion, ontzat eman zidalarik baina hoztasun handiz, argi eta garbi nabaritu ahal izan nuenez; ezin nuen, ordea, zergatia asmatu, norbaitek isilka-misilka esan zidan arte enbaxadore haiekin izandako elkarrizketa gaizki-nahiaren erakusgarritzat aurkeztu ziotela Flimnap eta Bolgolamek, ziur nagoelarik nire bihotza guztiz libre zegoela horrelakotik. Eta orduan hasi nintzen lehen aldiz Gorte eta ministroen akatsez konturatzen.

Enbaxadore haiek interpretari bidez hitz egin zidatela adierazi behar da, bi inperioetako hizkuntzak Europako bi edozein bezain ezberdinak baitira elkarren artean, nazio bakoitza bere mintzairaren antzinasun, edertasun eta indarrak harrotzen delarik, bestearenarekiko mesprezu nabariaz; hala eta guztiz ere, gure Enperadoreak, haien ontziteria bere esku izateak ematen zion abantailaz baliatuz, kredentzialak aurkezte-

ra eta hitzaldia liliputieraz egitera behartu zituen. Eta aitortu beharra dago, bi erresumen arteko merkatal eta komertzio-harreman ugarien ondorioz, baita erbesteratuak etengabe hartzen dituztelako —biek jokatzeko dutelarik honetan berdin— eta inperio bakoitzeko aitonen seme gazteak eta aberaskumeak bestera bidaltzeko ohitura dagoelako ere (mundua ikusiz eta jende eta izaera ezberdinak ezagutuz beren buruak hez ditzaten, batez ere), guzti honengatik itsasaldean bizi den handiki edo merkataria edo marinel gutxi dagoela elkarrizketarik bi hizkuntzetan egin ezin duenik; aste batzuk geroago konturatu nintzen honetaz, Blefuscuko Enperadoreari neure agurra egitera joan nintzaionean, abentura hau, bere garaian kontatuko dudana bezala, oso zorionekoa izan zelarik niretzat, etsaien maltzurkeriak eragindako ezbehar handien artean.

Irakurleak gogoratuko duenez, askatasuna berreskuratzeko arau haiek izenpetu nituenean, baziren batzuk oso gogoko ez nituenak morrontza handiegia zekarkidatelako, ezinbestean eta halabeharrez bakarrik derrigortu nindutelarik

amore ematera. Baina *Nardac* bat nintzelarik orduan, goren mailakoa Inperio hartan, betebeharrak ez zegozkiola nire duintasunari pentsatzetzen zuten eta Enperadoreak (berea aitortu behar zaio) sekula ez zizkidan aipatu. Dena den, luzarora gabe izan nuen Maiestateari oso mesede aipagarria egiteko aukera, edo behintzat, hori uste izan nuen orduan. Gauerdian, atean zeuden ehunka askoren deiadarrak entzun nituen; eta bat-batean iratzarri nindutenez, nolabaiteko izu-ikaraz nengoen. Etengabe *burglum* hitza errepikatzen zutela entzun nuen; Enperadorearen Gorteko batzuek, jendartean aurrera etorri zirelarik, berehalaxe jauregira joateko erregutu zidaten, Maiestate Enperatrizaren gela sutan baitzegoen ohorezko dama baten axolagabekeriaz, eleberri bat irakurtzen ari zela loak hartu omen zuen eta. Berehalaxe altxatu nintzen; eta nire aurrean bidea garbi uzteko agindu ondoren, eta gainera ilartargia zegoelarik gau hartan, lortu nuen inor zapaldu gabe jauregiraino joatea. Jadanik gelako hormetara eskailerak hurbilduta zituztela eta ontziz ongi hornituak zeudela ohartu nintzen, baina ura urruti samar zegoen. Ontziak titare

handien tamainakoak ziren, eta gizarajo haiek ahal bezain bizkor pasatzen zizkidaten; baina sugarrak hain biziak zirenez, ezer gutxitarako balio zuten. Erraz itzali ahal izango nukeen neure kasakaz, baina zoritxarrez etxean utzia nuen presaren presaz, larruzko jipoiarekin bakarrik irtena nintzelarik kanpora. Guztiz etsia eta tamalgarria zirudien egoerak, eta jauregi bikain hura erremediorik gabe erreko zatekeen oinarrietaraino, adorealdira batean —ezohikoa niregan— ez balitzait bat-batean irtenbide bat bururatu. Aurreko gauean asko edana nintzen ardo bikain batetik, *glimigrim* izenekoa (Blefuscutarrek *flunec* deitzen dute, baina hobetsizat dago gurea) eta oso diuretiko dena. Munduko txiriparirik zoriontsuenaz, batere bota gabe neukan neure baitan. Sugarretara asko hurbiltzean sartu zitzaidan beroagatik eta haiek itzaltzeko ahaleginagatik, ardoa pixa bihurtu zen; eta hain kantitate handia hustu nenez eta hain egoki bideratu behar zen lekuetara, sua erabat itzalia geratu zen hiru minuturen buruan, eta eraikin-multzo haren gainerakoa, egiten hainbeste mende kostatakoa, hondamenetik libre.

Egun-argia zen eta etxera itzuli nintzen, Enperadorearekin ospatzen geratu gabe; zeren eta, zerbitzu-ekintza aparta burutu nuen arren, ez bainekien Maiestateak nola hartuko zuen nire jokabidea; izan ere, erresumako lege nagusien arabera, heriotza-zigorra dago jauregi-barrutian pixa egiten duen edonorentzat, berdin izanik zein mailatakoa den. Lasaitu egin ninduen pixka bat Maiestateak bidalitako mezuak, hots, aginduak emango zizkiola Epaile Nagusiari ofizialki onar zezan niretzako barkamena, halere ezin izan nuelarik lortu. Eta xuxurlatu zidatenez, nik egindakoari hain nazka izugarria hartu zionez Enperatrizak, patioko bazterrik urrunenera aldatu omen zen, sendo erabakia zuelarik eraikin haiek ez zirela sekula konponduko berak erabiltzeko; eta bere konfiantza handienekoen aurrean, ezin omen zen mendekatzeko zin-hitza eman gabe egon.

6. KAPITULUA

Liliputeko biztanleez; haien kultura, lege, ohitura eta haurrak hezteko eraz. Autorearen bizimodua herrialde hartan. Andere bikain baten defentsa.

Inperio haren deskribapena tratatu berezi baterako uzteko asmoa dudan arren, bitartean jakin-mina duen irakurlea pozik aseko dut zenbait azalpen orokor emanaz. Bertakoak tamainaz ez dira eskuarki hamabost zentimetrora iristen, eta proportzio berberori dute gainerako animalia guztiek, baita landare eta zuhaitzek ere; esate baterako, zaldi eta idirik handienek hamarhamabi zentimetroko altuera dute, ardiek lau zentimetro gutxi gorabehera; antzarak txolarraren tamainakoak dira, eta horrela dago dena murriztuta, txikienetaraino iritsi arte, ia ikusiezinak direlarik nire begietarako; baina naturak liliputiarren begiak ere moldatu ditu haien ikuspegiaren dauden gauza guztietara: zehaztasun han-

diz ikusten dute, baina ez tarte handira. Eta hurbileko gauzekiko haien ikusmen zorrotza erakustearren, esango dut euli arrunta bezain handia ere ez zen hegatzabala sukaldari batek nola lumatzen zuen ikusteko atsegin handia izan nuela; baita neska gazte bat jostorratz ikusiezinan hari ikusiezina sartzen ere. Haien zuhaitzik handienek bi metro inguruko luzera dute; errege-parke nagusian zeudenetariko batzuei buruz ari naiz, haien puntetara ukabila itxita iristen nintzelarik, hain zuzen. Gainerako landareak ere proportzio berekoak dira; baina hau irakurlearen irudimenari utziko diot.

Gauza gutxi esango dut orain haien kulturaz, mende luzetan zehar arlo guztietan loratu delarik haien artean; baina oso berezia dute idazteko era, ez baitute ezkerretik eskuinerantz egiten, europarrok bezala; ezta eskuinetik ezkerrerantz, arabiarrek bezala; ezta goitik behera, txinatarrek bezala; ezta behetik gora, cascagiarrek bezala; baizik eta zeharretara paperaren ertz batetik bestera, gure andereek Ingalaterran bezala.

Zuzen buruz behera lurperatzen dituzte hildakoak, zeren eta, haien ustez, hamaika mila

ilargialdiren buruan guztiak altxatuko baitira berriro eta, orduan, lurra (laua dela uste dutena) azpikoz gora jarriko delarik, berpizten direnean, prest egongo dira eta zutik. Haien arteko jakintsuenek aitortzen dute doktrina honen zentzugaria, baina ohiturak jarraitu egiten du jende xeheari amore emateagatik.

Badira lege eta ohitura batzuk oso bereziak Inperio hartan, eta zuzen-zuzenean neure herrialde maitekoen kontrakoak ez balira, haiek zurrizko zerbait esaten ahaleginduko nintzateke. Haienak bezain ongi betearaziko balira gureak! Aipatuko dudan lehena salatariei buruzkoa da. Estatuaren aurkako krimen guztiak gogortasunik handienaz zigortzen dira, baina akusatuak lortzen badu bere errugabetasuna argi eta garbi erakustea epaiketan, berehalaxe ematen diote akusatzaileari heriotzarik laidagarriena; eta honen ondasun edo lurretatik ordainsari laukoitza ematen diote errugabeari, galdutako denboragatik, jasandako arriskuagatik, espetxealdiko nekeengatik eta bere defentsa prestatzen egindako gastu guztiengatik. Eta salatariaren fondoa aski ez bada, Koroak berak osatzen

du eskuzabaltasunez. Halaber, bere ederraren erakusgarriren bat ematen dio Enperadoreak jendaurrean, eta hiri osoan zehar aldarrikatzen da haren errugabetasuna.

Iruzurkeria lapurreta baino krimen handiagoztat hartzen dute eta, beraz, gutxitan uzten heriotzaz zigortu gabe; zeren eta, arretaz zainduz gero, zentzu pixka batez gizakiaren ondasunak gorde daitezkeela lapurrengandik esaten baitute, baina zuzentasunak ez duela babesik maltzurkeria handiagoaren kontra; eta beharrezkoa denez salerosketa eta tratuak zorretan egitea etengabe, horrelakoetan iruzurkeriari onepena eman edo ezikusiarena egiten bazaio, edo zigortzeko legerik ez baldin badago, tratugile zintzoa izaten dela beti galtzaile, eta lotsabakoak lortzen irabazia. Gogoratzen dut behin gaizkile baten alde bitartekotza egin nuela Erregearen aurrean, nagusiari txekoz iritsitako dirutza handi bat hartu eta hanka egin baitzuen; eta aringarri modura, konfiantza-abusua besterik ez zela esan niolarik Maiestateari, ikaragarria iruditu zitzaion Enperadoreari nik, defentsa gisa, krimenaren astungarririk handiena eskaintzea; eta egia esa-

teko, ezer gutxi erantzun niezaiokeen beti esan ohi denaz gain, alegia, nazio ezberdinek ohitura ezberdinak dituztela, zeharo lotsatua nengoela aitortu beharrean bainago.

Nahiz eta guk ere esan ohi dugun saria eta zigorra direla gobernu guztien bi ardatzak, sekula ez dut arau hau beteta ikusi Liliputetik kanpo beste inon. Han hirurogeita hamahiru ilargialdiz herriko legeak zorrotz bete dituela behar hainbat frogatzen duen edonork zenbait abantailatarako eskubidea du bere kategoria eta bizi-mailaren arabera, baita horretarakoxe duten fondo berezi batetik proportzioan dagokion diru-kopurua hartzeko ere; gainera, *Snilpall* —edo *Legal*— titulua lortzen du, bere izenari eransten diona, baina ez da ondorengoengana pasatzen. Gure legeak, sarien aipamenik gabe, zigorrez bakarrik beteazten direla esan nionean jende hari, politikahutsegite ikaragarria iritzi zioten. Hain zuzen ere, honexegatik ditu sei begi Justiziaren irudiak hango epaitegietan: bi aurrean, beste horrenbeste atzean eta bana alde bakoitzean arreta eta zuhurtasuna adierazteko; eskuinean poltsa bat urre izaten du zabalik eta ezkerrean ezpata

zorroan sartuta, zigortzera baino saritzera emanagoa dela adierazteko.

Lanpostu ofizialetarako jendea aukeratzera-koan, trebetasun handiak baino ohitura onak gehiago hartzen dituzte kontutan; zeren eta, gobernu beharrezkoa izanik gizateriarentzat, giza adimenaren gaitasun arrunta edozein gizarte-mailari dagokiola uste dute haiek, eta Probidentziak sekula ez duela herri-arazoan administrazioa misterio bihurtzeko asmorik izan aparteko argitasuna duten pertsona gutxi batzuk bakarrik ulertzeko, hauetariko hiru nekez jaiotzen direlarik mende batean. Aitzitik, egia, zuzentasuna, neurritasuna eta horrelakoak edozein gizakirengan egon daitezkeela pentsatzen dute; eta bertute hauen praktikak, eskarmentu eta borondate onarekin batera, edozein gizaki gaituko lukeela bere herniaren zerbitzurako, ikasketak eskatzen dituzten postuetan izan ezik. Baina bertute moralen gabezia adimen-dohain handiagoen bidez hain zaila denez betetzen, horrelako pertsonenak bezaiako esku arriskutsuetan kargu ofizialak ez direla inoiz utzi behar pentsatzen dute; eta behintzat, asmo onarekin ezjakintasu-

nez eginiko hutsegiteek ez dutela inoiz guztion ongirako hain ondorio txarrik izango, nola baitute, gaiztakeriarako joera izanik, bere txarkeria antolatu, ugaldu eta defendatzeko abilezia handia duenaren ekintzek.

Era berean, Jainkozko Probidentziaren batean ez sinesteak ezgaitu egiten du pertsona edozein kargu publikotarako; zeren eta, erregeek aitorzen dutelarik Probidentziaren ordezkari direla berak, beren gainerako aginpide hori ukatzen duten pertsonak lanerako hartzea baino zentzuz bakoagorik ez dagoela ezer uste dute liliputiarrek.

Lege hauen eta ondorengo berri ematean, jatorrizko erakundeei buruz bakarrik ari naizela ulertu beharko litzateke, eta ez gizakiaren izaera endekatuagatik zertu dituzten ustelkeriarik eskandalagarrienei buruz. Zeren eta, soka gainean dantza eginez kargu handiak eskuratu edo makila gaineratik saltoka eta azpitik arrastaka ibiliz mesede eta pribilegioak lortzeko jokabide higuigarriari buruz, lehenengoz orain agintean dagoen Enperadorearen aitona sartu zituela jakin behar baitu irakurleak, eta alderdi eta tal-

detxoak gehitu ahala iritsi direla gaur egungo mailara.

Eskergabetasuna heriotza-zigorra duen krimena da haien artean, beste herrialderen batzuetan ere gertatzen dela irakurtzen dugun bezala; zeren eta, honela pentsatzen baitute haiek, hots, bere ongileari gaizkia itzultzen diona beste gizaki guztien etsai ere izango dela, ez baitu gainera hauengandik ezer onik hartu, eta beraz, honelako gizonak ez duela merezi bizitzetik.

Guraso eta seme-alaben arteko betebeharrei buruzko haien ideiak eta gureak oso ezberdinak dira. Zeren eta, arraren eta emearen arteko elkarketa Naturako Lege nagusian dagoenez oinarritua espezieek ugaltu eta iraun dezaten, gizon-emakumeak, beste animaliak bezalaxe, haragiaren grinaz daudela halabeharrez elkartuta uste dute liliputiarrek; eta beren umeengandiko samurtasuna ere natur printzipio beretik sortzen dela; hau dela eta, ez dute inoiz onartzen ume batek inolako obligaziorik duenik aitarekiko, honek sortu zuelako, edo amarekiko, honek mundura ekarri zuelako; zeren eta, giza bizitza-

ko miseriak kontutan izanez gero, hau ez baita berez onuragarri, ezta gurasoen asmoan ere, hauen gogoan beste zerbait baitzebilen amodioz elkarbatu zirenean. Honengatik eta antzerako arrazonamenduengatik, haien iritziz, gurasoak dira beren seme-alaben heziketaz ardura litezkeen azkenak; eta beraz, hiri bakoitzean haurtzaindegi publikoak dituzte, guraso guztiak, baserritar eta laborariak izan ezik, behartuak daudelarik seme-alabak hogeitaz ilargialdi betetzeari haurtzaindegi haietara bidaltzera bertan hazi eta hezi daitezen, adin horretarako pixka bat otzantzen hasiak direla uste izaten baita. Mota ezberdinetakoak dira eskola hauek, gizarte-maila ezberdinetakoentzat eta neska nahiz mutikoentzat. Badute zenbait irakasle haurrak gurasoen kategoriari nahiz beren gaitasun eta joerei dagokien bizimodurako prestatzen ongi trebatuta. Lehenik, mutikoentzako haurtzaindegiari buruz esango dut zerbait, eta gero neskatilentzako.

Aitonon seme edo jatorri bereziko mutikoentzako haurtzaindegietan irakasle zorrotz eta jakintsuak daude, hainbat ordezkorekin batera.

Haurren jantziak eta janariak arrunt eta xumeak izaten dira. Ohore, zuzentasun, adore, apaltasun, bihozberatasun, erlijio eta beren herriarekiko maitasunean hezten dira; beti izaten dituzte zerbait egiten, jateko eta lo egiteko aldi oso laburretan eta gorputz-ariketak egiteko den bi orduko atsedenaldian izan ezik. Gizonak jantzen dituzte lau urte bete arte, eta ordudanik haurrek berek jantzi behar dituzte arropak, nahiz eta gizarte-maila oso altukoak izan; eta neskameek, gure artekoen berrogeita hamarreko adina dutelarik proportzioz, eginkizunik apalenak bakarrik egiten dituzte. Inoiz ez zaie zerbitzariekin hitz egiten uzten, baizik eta elkarrekin ibiltzen dira talde txiki edo handiagotan jolasean, irakasleren edo ordezkioetako baten aurrean betiere; horrela eragozten zaizkie gure haurrek jasan behar izaten duten txorakeria eta grina txarren eragina. Urtean bi aldiz bakarrik uzten zaie gurasoei semeak ikusten; bisitak ez du ordu bete baino gehiago iraun behar. Etortzerakoan eta joaterakoan uzten zaie haurrari musu ematen; baina horrelako okasioetan beti ondoan egoten den irakasleak ez du onartuko ezer xuxurla die-

zaioten, edo maitasun-adierazpenik egiterik, edo jostailu, gozoki eta horrelakorik oparitzerik.

Haurraren heziketa eta mantenurako familia bakoitzak ordaindu beharrekoa ez pagatzea gertatuz gero, Enperadorearen ofizialeek biltzen dute.

Zaldun arrunt, merkatari, komertzianta eta artisauen umeentzako haurtzaindegia proportzionalki era berean daude antolatuta; lanbide-
ren bat behar dutenak bakarrik jartzen dituzte ikasten zazpi urterekin, familia berezietakoek beren haurtzaindegietan hamabostera arte jarraitzen dutelarik, gure artean hogeita batera arte izango balitz bezala; baina itxialdia poliki-poliki murriztuz joaten da azken hiru urteetan.

Neskatilentzako haurtzaindegietan, goi-mailakoak mutikoen oso antzera hezten dituzte; bakarrik, ongi diziplinaturiko neskameek jantzen dituztela, baina betiere irakasle edo ordezkoren baten aurrean, haiek berak jantzen hasi arte, bost urterekin alegia. Eta konturatzen badira haurtzain hauek izu-istorio edo inozokeriekin edo gure artean neskameek egin ohi dituzten txorakeriekin entretenitzen dituztela neskatilak,

hirian jendaurrean zigortzen dituzte hiru aldiz, urte beterako espetxeratu eta bizitza osorako herrialdeko eskualderik baztertuenetara bidaltzen. Horrela, neska gazteak gizonak beste lotsatzen dira koldarrak eta txepelak izateaz, eta modu onak eta garbitasuna ez den beste edozein apaingarri mesprezatzen dute. Ez nuen nik ezberdintasunik ikusi haien heziketan, sexu-diferentzia zela eta; bakarrik, neskatilen ariketak ez zirela gehienetan hain gogorak, eta etxeko bizi-moduari buruzko zenbait arau ematen zitzaiela, eta ikasgai-kopuru txikiagoa, haien esaera batek dioenez, goi-mailako jendearen artean, emazteak lagun arrazoitsu eta atsegin izan behar baitu beti, ezin delako beti gazte izan. Neskatilak hamabi urtera iristean, haien artean ezkon-adina delarik, guraso edo tutoreek etxera eramaten dituzte irakasleei esker on bizia adierazi ondoren, eta gutxitan falta izaten dira andereñoaren eta laguneren malkoak.

Behe-mailako neskatilen haurtzaindegietan, beren sexu eta gizarte-mailari dagozkion lanmota guztietan hezten dituzte haurrak. Aprendiz

izatekoak zazpi urterekin irteten dira, gainerakoak hamaikara arte egoten.

Hurtzaindegi hauetan umeak dituzten behe-mailako familiak beharturik daude, urteko pensioaz —ahalik eta merkeenaz— gain, hileroko irabazien parte txiki bat hurtzaindegiko administratzaileari ematera, umearentzako ondare izan dadin; eta horrela, legeak mugatzen ditu guraso guztiak beren gastuetan. Zeren eta liliputiarrek uste baitute ez dagoela bidegabekeria handiagorik jendeak, bere grina likitsen menpean, haurrak mundura ekarri, eta hauen manteuaren zama gizarteari uztea baino. Goi-mailako jendeari dagokionez, haur bakoitzarentzat, beren mailaren araberako kopuru jakin bat uztea ziurtatu behar izaten dute; eta fondo hauek, zentzu handiz eta zuzentasunik zorrotzenaz administratzen dituzte beti.

Baserritar eta laborariek etxean hazten dituzte umeak, haien bizibidea lurra maneiatu eta lantzea baita, eta beraz, haien heziketak ondorio txikia du gizartearentzat. Baina beren arteko zaharrak eta gaixoak ospitaletan zaintzen dituz-

te, eskean ibiltzea ezezaguna baita Inperio hartan.

Eta hemen baliteke pixka bat entretenitzea jakingurako irakurlea, bederatzi hilabete eta hamahiru eguneko egonaldian zehar herrialde hartan izan nuen etxeaz eta bizimoduaz zerbait esanez. Oso mekanikazalea naizenez eta beharrak derrigortuta, mahai eta aulki bat nahikoa erosoak egin nituen neuretzat errege-parkeko zuhaitzik handienez. Berrehun jostunek jardun zuten lanean nire alkandorak eta oheko eta mahaiko zapi zuriak egiten, aurkitu ahal izan zuten bezain ehun sendo eta zarpailez dena; halere, gero bata bestearen gainean jarri eta gosnatu beharra izan zuten, haietako lodiena goma-oihala baino hainbat aldiz meheagoa baitzen. Haien zapiak eskuarki zazpi zentimetro izaten dira zabal eta metro bete luze. Zoruan etzanda nengoela hartu zidaten neurria jostunek: bat lepoan zutik jarri zen eta beste bat zangoaren erdi aldera, soka sendo bat tenkaturik zutela bakoitzak mutur batetik helduta; bitartean hirugarrenak sokaren luzera neurtzen zuen bi zentimetro t'erdiko luzerako erregelaz. Gero, eskui-

neko erpurua neurtu zidaten, eta ez zuten gehi-
go behar izan; izan ere, kalkulu matematikoaren
arabera, erpurua baino bi aldiz lodiagoa izanik
eskumuturra, eta era berean kalkulatz lepoa
eta gerria, eta nire alkandora zaharraren lagun-
tzaz, zeina haien aurrean zoruan zabaldu bai-
nuen eredu bat izateko, dena neurri egokiz egin
zidaten. Era berean, hirurehun sastrek ere jar-
dun zuten lanean jantziak egiteko; baina haiek
beste zerbait asmatu zuten neurria hartzeko.
Belaunikatu egin nintzen, eta eskailera bat jarri
zidaten zorutik leporaino; haietako batek eska-
leran gora igo eta plomuari erortzen utzi zion
lepotik zoruraino, huraxe izango zelarik nire
kasakaren luzera; baina gerria eta besoak neuk
neurtu nituen. Nire jantziak amaitu zituztenean
—eta neure etxean egin zituzten (ez baitzirate-
keen sartuko haien handiengan ere)— Ingalate-
rran andereek puska koloretsuz egin ohi dituzten
oihal horietakoa ematen zuen, nahiz eta nireak
denak kolore bakar batekoak izan.

Hirurehun sukaldari nituen neure jakiak pres-
tatzeko, neure etxe inguruan eraikitako etxola
txiki egokietan bizi zirelarik beren familiekin, eta

bakoitzak bi jaki prestatzen zidan. Hogei zerbitzari hartzen nituen eskuan, era mahaian ipintzen; beste ehun zoruan geratzen ziren, batzuk jakiekin, eta beste batzuk ardoarekin eta beste likore batzuekin, upelak bizkarretik zintzilika zituztela; hau dena, nik nahi nuenean, goiko zerbitzariak igo egiten zuten oso era burutsuan zenbait sokaren bidez, guk European putzutik baldea ateratzen dugunean bezala. Haien platerkada bat mokadu ona zen, eta upela bete likore zurrutada dezentea. Haien arkumea ez da gurea baino hobea, baina behikia apartekoa. Behin izan nuen solomotxo bat, hiru zati egin beharrekoa, hain handia zelako; baina honelakorik oso gutxitan gertatzen da. Zerbitzariak txundituta geratu ziren hezur eta guzti jaten nuela ikustean, gure artean hegatzabal-hankekin egiten dugun bezala. Haien antzara eta indioilarrak gehienetan mokadu batean jaten nituen, eta gureak baino askoz hobekak direla aitortu behar dut. Beste hegazti txikiago batzuk hogeit edo hogeita hamar bar nitzakeen neure ganibet-puntan.

Egun batez, Maiestate Inperialak, nire bizi-moduaren berri izan ondoren, berak eta bere Erregina-Emazteak, Odol-Printze eta Printzesa gazteekin batera, nirekin afaltzeko zoriona (hitz hauxe erabili zuen) izan zezatela erregutu zidan. Hala bada, etorri ziren, eta mahai gainean jarri nituen goi-aulkietan, neure aurre-aurrean, beren jagoleak inguruan zituztela. Flimnap Altxorzain Nagusi Jauna ere hantxe zegoen, bere makulu zuriarekin; eta sarri begiratu garratza botatzen zidala ohartu nintzen, nik ezikusia eginez, ohi baino gehiago jaten nuelarik, neure sorterri mai-tearen ohorez, baita Gortea miresmenez betetzearren ere. Baditut nik neure arrazoiak pentsatzeko, Maiestatearen bisita honek aukera eman ziola Flimnapi nire kontra gaizki hitz egiteko bere jaunari. Ministro hura beti izan zen ezkutuan nire etsai, nahiz eta, itxuraz, haren izaera ozpintsuari berez zegokion baino zurikeria handiagoz erabiltzen ninduen. Bere Altxortegiaren egoera kas-karra agertu zion Maiestateari; behartua zegoe-la dirua beherapen handiz hartzera; Haziendako baloreak gutxienez ehuneko bederatziaren azpitik zebiltzala paretik behera; Maiestateari milioi

t'erdi *sprung* (haien urrezko txanponik handiena, dilista txiki baten tamainakoa) baino gehiago kostatu nintzaiola; eta guztiaren ondorioz, kome-nigarri izan zitekeela Enperadorea lehen aukeraz baliatzea ni handik bidaltzeko.

Behartua nago andere paregabe baten ospe onaren alde agertzera, errugabea izanik nirega-tik sufritu baitzuen. Bere emaztearekiko jeloskor jartzeko kasketaldia izan zuen Altxorzainak, andere agurgarri hark oso begiko hartu ninduela jakin erazi baitzioten mihi gaiztoek maltzurke-riaz, eta denboraldi batez izan zen zurrumurru eskandalagarririk Gortean, behin ezkutuan nire etxera etorri omen zela esanez. Hau faltsukeria-rik iraingarriena dela adierazi behar dut benetan eta zinez, inolako oinarririk gabea, egia izanik ere andere hark atsegin izan zuela maltzurkeria-rik gabeko askatasun eta adiskidetasun handiz nirekin jokatzea. Onartzen dut sarri etortzen zela etxera, baina beti agerian, sekula ez beste hiru baino gutxiagorekin zalgurdian, hauek gehiene-tan bere ahizpa, alaba gaztea eta lagun berezi-ren bat izaten zirelarik; baina hau Gorteko beste andere askok ere egiten zuen. Neure inguruko

zerbitzariengana ere jo dezaket, esan dezaten ea inoiz ikusi ote zuten zalgurdirik nire etxe ondoan, barrukoak zeintzuk ziren jakin gabe. Honelakoetan, eta zerbitzariren batek ohartarazi ondoren, berehalaxe atera joatea izaten zen nire ohitura, eta begirunez agurtu ondoren, gurdia eta bi zaldi kontu handiz neure eskuetan hartu (zeren eta sei zeudenetan, zaltzainak lau askatu egiten baitzituen beti) eta mahai batean ipintzen nituen, beronen inguru osoan hamabi zentimetro altu zen ertz mugigarria jarria izaten nuelarik istripurik gerta ez zedin. Eta sarri izan ditut aldi berean lau gurdi beren zaldiekin bisitariz betetako neure mahai gainean, nik, aulkian eserita, aurpegia haienganantz hurbiltzen nuelarik; eta talde batekin nengoen bitartean, gurtzainek poliki-poliki mahai inguruan erabiltzen zituzten besteak. Arratsalde atsegin asko pasatu izan dut elkarrizketa hauetan. Baina erronka botatzen diet Altxorzainari eta haren bi salatariei (esan egingo ditut izenak, eta hor konpon daitezela!), Clustril eta Drunlori, froga dezaten inoiz norbait *incognito* etorri zitzaidala bisitatzera, Reldresal Idazkaria izan ezik, hau Maiestate Inperialak

espresuki bidalia izan zelarik, lehen kontatu dudan bezala. Ez nintzen arazo honetaz hainbeste luzatuko, andere bikain baten ospe ona ez balego arriskuan jarria, eta neurea, zer esanik ez, nahiz eta *Nardac* izateko ohorea dudan, Altxorzaina bera ere ez den zerbait, mundu guztiak baitaki *Clumglum* besterik ez dela, nirea baino gradu bat beheragoko titulua, markesa dukearekiko bezala Ingalaterran; halere, onartzen dut nire gaintetik zegoela bere karguarengatik. Informazio faltsu hauen ondorioz —nik geroago jakin nuen, aipagarria ez den gorabehera batengatik, Altxorzainak aldi batez aurpegi beltza jarri zion bere emazteari, eta are okerragoa niri; zeren eta, azkenean zentzatu eta adiskidetu baldin bazen ere emaztearekin, nik sinesgarritasun guztia galdu bainuen harentzat, eta Enperadorearen beraren aurrean ere nire garrantzia oso bizkor joan zela beheraka ohartu nintzen, izan ere, favorito haren gobernupean baitzegoen benetan.

7. KAPITULUA

Goi-mailako traizioz salatua izateko planaren berri jakin ondoren, Blefuscura ihes egiten du autoreak. Hango harrera.

Erresuma hartatik nola irten nintzen kontatu aurretik, komenigarria izan liteke bi hilabetez ezkutuan nire aurka zertutako azpilanaren berri irakurleari ematea.

Ordura arte nire bizitza osoan sekula izan gabea nintzen Gorteetan, ez bainintzen horretarako gai neure maila apalagatik. Egia da dezententzun eta irakurria nuela printze eta ministro handien aldarteez; baina ez nuen inoiz pentsatu izan berorien eragin beldurgarriak hain herrialde urrunean aurkitzerik, Europakoan aldean oso arau ezberdinez gobernatua zegoela uste bainuen.

Hain zuzen ere, Blefuscuko Enperadoreari bisita egiteko prestatzen ari nintzela, Gorteko pertsona garrantzitsu bat (nori bere garaian

mesede handia egin bainion, Maiestate Inperialaren haserrealdirik biziena jasaten ari zenean) nire etxera etorri zen gauzez ezkutuan esku-aulki itxian eta, bere izena aldarrikatu gabe, sartzen uzteko erregutu zuen. Aulki-ekarleak itzularazi ondoren, aulkia, Jaun hura barruan zela, kasakaren poltsikoan sartu nuen; eta ondoezik nengoe-la eta lotaratua nintzela esateko aginduak eman ondoren konfiantzazko zerbitzari bati, etxeko atea itxi, aulkia mahaian ipini, egin ohi nuen bezala, eta ondoan eseri nintzen. Ohiko agurrak egin ondoren, Jaun haren aurpegia kezka betea zegoela ohartu eta haren zergatiaz galdetzean, eroapenez entzuteko erregutu zidan nire oho-rearekin eta biziarekin zerikusi handia zuen zer-bait. Gutxi gorabehera, hauxe esan zidan hark, oharrak hartu baintuen berak alde egin eta berehala.

«Jakin behar duzu», esan zidan, «azken aldian Kontseiluko zenbait Batzorde bildu dela guztiz isilpean zutaz jarduteko; eta bi egun besterik ez dira Maiestateak azken erabakia hartu duela.

Ongi dakizu Skyresh Bolgolam (*Galbet*, edo Almirante Nagusia) zure etsai amorratua izan dela ia iritsi zinenetik. Ez dakizkit horretarako hasieran zituen arrazoiak, baina gorrotoa biziki areagotu zitzaion Blefuscuren aurka izan zenuen arrakasta handiaren ostean, beraren aintza, Almirante bezala, ilundu egin baitzen. Jaun honek, Flimnap Altxorzain Nagusiarekin —nabaria baita honen ezinikusia zure kontra bere emaztearenagatik— eta Limtoc Jeneralarekin, Lalcon Txanberlanarekin eta Balmuff Justizi Ministroarekin batera, zenbait prozesamenduebazpen prestatu du zure aurka, traizio eta heriotzaz zigortutako beste hainbat krimenengatik».

Aitzinsolas honek hain urduri jarri ninduenez, jabetua bainengoen neure meritu eta errugabetasunaz, etetera nindoakion esaten ari zena; baina isilik egoteko erregutu zidan, eta honela jarraitu zuen:

«Egin dizkidazun mesedeengatiko esker onez, prozedura osoaren informazioa eskuratu dut, baita ebazpen horien kopia bat ere, honekin

neure burua arriskuan jarri dudalarik zuri laguntzeagatik.

Prozesamendu-ebazpenak Quinbus Flestrin (Mendi-Gizonaren) aurka

I. ARTIKULUA

Kontutan izanik ezarria dagoela, Calin Deffar Plune Maiestate Inperialaren erregealdian emandako legearen arabera, errege-jauregiko esparruan pixa egiten duen edonork goi-mailako traizioari dagozkion pena eta zigorrak bereganatuko dituela; eta halere, aipaturiko Quinbus Flestrinek lege hori argi eta garbi hautsiz, Maiestatearen Emazte Tronukide txit maitearen geletan sorturiko sutea itzaltzeko aitzakiaz, maltzurki, traizioz eta deabruzki bere pixa isuriz aipaturiko geletan sorturiko sute hura itzali zuela, aipaturiko errege-jauregiko esparruaren barnean zegoelarik, horrelako kasuetarako emaniko legearen kontra, eta bere betebeharraren kontra, etab. etab.

II. ARTIKULUA

Aipaturiko Quinbus Flestrinek, Blefuscuko ontziteria inperiala erregearen portura ekarri zuelarik, eta gero agindu ziolarik Maiestate Inperialak Blefusco Inperioko gainerako ontzi guztiak harrapatzeko, eta Inperio hura kolonia bihurtzeko hemengo Erregeorde batek gobernaturia, eta suntsitzeko eta hiltzeko ez bakarrik exiliatutako Muturzabalzale guztiak, baita Muturzabalzaleen heresiari berehala uko egiten ez zion Inperio hartako jende guztia ere; berak, aipatu Flestrin horrek, Maiestate Inperial Txit Onbera eta Barea-ren aurkako traidore maltzurra bezala, zerbitzu horretatik desenkusaturia izateko erregutu zuen, betiere jende errugabearen kontzientziak bortxatzeko edo askatasuna eta bizitzak desegiteko gogoezaren aitzakipean.

III. ARTIKULUA

Kontutan izanik, Blefuscuko Gortetik zenbait enbaxadore iritsi zirela bakea eskatzera Maiesta-tearen Gortera, eta Flestrin horrek, traidore maltzur legez, lagundu, adore eman, mesede egin eta dibertitu egin zituela aipaturiko enbaxadoreak, nahiz eta bazekien berak azken aldian

Maiestate Inperialaren etsai amorratua zen eta Maiestatearen aurka gerra deklaratuan zegoen Printzearen zerbitzari zirela haiek.

IV. ARTIKULUA

Aipaturiko Quinbus Flestrin hori, menpeko leialaren eginbeharren kontra, Blefuscuko Gorte eta Inperiora bidaia egiteko prestatzen ari dela, horretarako ahozko baimena bakarrik jaso duen larrik Maiestate Inperialarengandik; eta aipatu baimen horretan oinarrituz, bidaia hori amarruz eta traizioz burutu nahian dabilela, horrela lagundu, mesede egin eta adore eman ez Blefuscuko Enperadoreari, hau gure Maiestate Inperialarekiko etsai eta gerra deklaratuan egon dena oraintsu arte.

Badaude beste artikulua batzuk, baina hauek dira garrantzitsuenak eta berauen laburpena irakurri dizut.

Salaketa honi buruzko hainbat eztabaidatan, aitortu beharra dago bere *onginahi* handiaren frogara asko eman zuela Maiestateak, sarri aipatuz zuk berari egindako zerbitzuak eta zure krime-

nak arintzen ahaleginginduz. Altxorzainak eta Almiranteak behin eta berriz zioten heriotzarik mingarrien eta lotsagarriena eman behar zitzaizula, gauzez zure etxeari su emanaz, Jenerala hogeimila gizon armaturekin joango zelarik gezi pozoituak aurpegira eta eskuetara botatzeko. Edo zure zerbitzarietako batzuek isilpeko aginduak hartuko zituzten zure alkandora eta maindireetan isurkai pozoitsu bat botatzeko, honek laster sarrastatuko zizularik haragia eta torturarik bizienaz hil eraziko. Bat etorri zen Jenerala ere, eta beraz, gehiengoa zure aurka egon zen luzaroan. Baina ahal izanez gero bizia salbatzeko erabakia hartua zuelarik Maiestateak, azkenean lortu zuen Txanberlana ere bereganatzea.

Gertaera honen ostean, Reldresali —Isilpeko Arazoetarako Idazkari Nagusia, eta zure benetako adiskide dela beti frogatu duenari— bere iritzia emateko agindu zion Enperadoreak, horrela egin zuelarik, berari buruz duzun iritzia ona egiaztatuz. Zure krimenak handiak zirela onartu zuen, baina halere bazegoela bihozbera izateko aukerarik, berau izanik printze batentzat bertuterik gomendagarriena eta beronengatik zelarik

Maiestatea hain bidezki ospetsua. Esan zuen, bien arteko adiskidetasuna hain ezaguna zenez mundu guztiarentzat, partziala zela pentsatuko zuela agian Batzorde txit ohoragarriak; halere, hartu zuen agindua betetzearren, askatasunez azalduko zituela bere sentimenduak. Alegia, zure zerbitzuak kontutan izanda, eta bere jarre-
ra errukiorraren arabera, zuri bizia barkatzeari eta bi begiak bakarrik ateratzeko agintzeari Maiestateak ederretsiz gero, konponbide hone-
kin nolabait justizia eginda geratuko litzatekeela bere uste apalean, eta mundu guztiak txalotuko lukeela Enperadorearen onginahia, baita bera-
ren kontseilari izateko ohorea zutenen prozedu-
ra zuzen eta eskuzabalak ere. Begiak galtzeak ez lukeela zure indar fisikoa eragotziko, beronekin artean ere mesedegarri gerta zenkizkiokeelarik Maiestateari. Itsutasuna ausartziaren osagarri dela, ezkutatu egiten baitizkigu arriskuak; zeure begiekiko beldurra izan zela oztoporik handiena arerioaren ontziteria ekartzekoan, eta aski izango litzatekeela zuretzat ministroen begiez ikustea, printzerik bikainenek ere ez baitute bes-
terik egiten.

Proposamen honek Batzorde osoaren gaitzespenik biribilena bereganatu zuen. Bolgolam Almirantea ezin izan zen bere buruaren jabe izan eta amorratuta jaiki zelarik, traidore baten bizia salbatzeko iritzia ematera Idazkaria nola ausartzzen zen galdetzen zuela esan zuen; zuk egindako zerbitzu guztiak, benetako estatu-arrazoi guztien arabera, zure krimenen astungarriak zirela; zuk, Enperatrizaren geletan pixa isuriz sutea itzaltzeko gai izan zinen horrek (nazkaz aipatu zuen hau), beste momenturen batean, era berean uholdeak sortu ahal izango zenituela, jauregi osoa urperatuz; eta arerioaren ontziteria ekartzeko gai egiten zintuen indar berori, lehen nahigabearekin, berriz itzultzeko erabili ahal izango zenuela; berak bazuela arrazoi sendorik zure bihotzean Muturzabalzale zinela pentsatzeko; eta traizioa ageriko ekintzetan azaldu aurretik bihotzean sortzen denez, horregatik salatzen zintuela traidoretzat, eta beraz, heriotzara emana izan behar zenuela jarraitzen zuela pentsatzen.

Eritzi berekoa zen Altxorzaina; Maiestatearen diru-sarrerak zein murriztuta zeuden erakutsi

zuen honek, eta hau zure mantenuaren kostuagatik, laster jasangaitz bilakatuko omen zelarik egoera; begiak ateratzeko Idazkariak proposaturiko irtenbidea ez zela inola ere gaitzaren aurkako erremedioa, eta ziur aski arazoa larriagotu egingo zuela, hau erakusten duelarik hegaztimotaren bat itsutzeko ohiturak, gero arinago jaten baitute eta bizkorrago loditzen; Maiestate sakratua, eta Kontseilua —zure epaileak, alegia— beren barnean guztiz konbentziturik zuek dela zure erruduntasunaz, aski argudio izanik hori zu heriotzara kondenatzeko, *legeak zentzu hertsian exijitzen duen froga formalik* gabe.

Baina Maiestate Inperialak, heriotza-zigorren kontra zegoelarik zeharo, atsegina izan zuen esatea, begien galera zehapen arinegitzat zuekenez Kontseiluak, besteren bat ere ezar zitekeela geroago. Eta zure adiskide Idazkariak, berriro entzun ziezaiotela erregutu ondoren apalki, eta zure mantenuagatik Maiestateak zituen gastu handiei buruz Altxorzainak esandakoei erantzunez, adierazi zuen, Altxorzaina bera izanik Enperadorearen diru-sarrerak bere esku zituen bakarra, erraz aurre egin ziezaiotekela

arazoari, hornizioak poliki-poliki murriztuz; hala, behar hainbat elikagai ez izateagatik, ahuldu eta indargabetu egingo zinela, eta apetitua galduko, eta beraz zeharo makaldu eta kontsumituko hila-bete gutxiren buruan; eta ordurako, zure gorpuren hatsa ere ez zela hain arriskutsua izango, erdira eta gutxiagora izango baitzinen murriztua; eta hil eta berehala, Maiestatearen bost edo sei mila menpekok, bizpahiru egunetan, haragia hezurretatik kendu, gurdietan eraman eta urrutiko tokietan lurperatu ahal izango zutela izurriak ekiditeko, eskeletoa monumentu miresgarritzat ondorengoei utzirik.

Honela konpondu zen arazo guztia Idazkariaren adiskidetasun handiagatik. Poliki-poliki gosez hiltzeko plana isilpean gordetzeko agindu zorrotza eman zen, baina zure begiak ateratzeko epaia akta-liburuetan idatzi zen, guztiak bat etorri zirelarik Bolgolam Almirantea izan ezik, zeren eta, Enperatrizaren sorkaria izanik bera, etengabe zirikatzen baitzuen Maiestateak zure heriotzarenari euts ziezaion, betirako gorrotoa baitzizun hartua, bere geletako sua itzaltzeko erabili

zenuen metodo lotsagarri eta ezlegezkoan oinarriturik.

Hiru egun barru, etxe honetara etortzeko agindua hartuko du zure adiskide Idazkariak, prozesamendu-ebazpenak irakur diezazkizun; baita Maiestatearen eta Kontseiluaren onginahi eta mesede handiaren berri emateko ere, horregatik kondenatzen zaituztelarik begiak galtzera bakarrik, hau esker onez eta apalki onartuko duzula Maiestateak ez duelarik zalantzan jartzeko; eta Maiestatearen medikuetariko hogeiei ere etorriko dira, ekintza behar bezala burutzen dela ziurtatzeko, lurrean etzanda zaudenean, punta zorrotzeko geziak botako dizkizutelarik begibole-tara.

Zeure zuhurtziara uzten dut zer-nolako neurriak hartu; eta susmo txarrik ez sortzearren, itzuli egin behar dut berehalaxe etorri naizen bezain isilik.»

Joan egin zen Jaun hura, eta bakarrik geratu nintzen, zalantza askorekin eta txundituta.

Oraingo Printze honek eta beronen ministroek ezarritako ohitura baten arabera (esan didatenez, oso ezberdina antzina zeudenekiko) Gor-

teak exekuzio ankerren bat agindu ondoren, nahiz monarkaren sumina nahiz faboritoren baten maltzurkeria asetzeko, Enperadoreak beti egiten zion hitzaldi bat Kontseilu osoari, bere *onginahi eta bihozberatasun handia*, —*mundu guztiak ezagutu eta aitortzen zizkion kalitateak*— azpimarratuz. Hitzaldi hau berehalaxe zabaltzen zen erresuman zehar, eta ezerk ez zuen jendea gehiago izutzen Erregearen errukia-ri buruzko goraipamen hauek baino, zeren eta, ohartuak baitziren zenbat eta handiagoak izan eta gehiago insistitu laudorio haietan, are *anker-rragoa* izaten zela zigorra eta *are errugabeagoa biktima*. Nahiz eta, neuri dagokidanez, aitortu beharra dudan —ez jaiotzaz ez heziketaz inoiz ez nintzelarik gortelari izateko aukeratua izan— hango gauza haien epaile txarra nintzela, ezin bainuen ulertu epai haren onginahia eta mesedea; aitzitik, iruditzen zitzaidan (agian oker) zorrotza zela eta ez biguna. Batzuetan pentsatuen prozesamendua onartzea, zeren eta, ezin banituen ere ukatu artikulu haietan aipaturiko ekintzak, aringarriren batzuk onartuko zituztela pentsatzen bainuen. Baina nire bizitzan estatu-

prozesu asko nituenez aztertuak, eta ohartua nintzenez epaileek egokitzen jo bezala amaitzen zirela beti, ez nintzen ausartzen hain erabaki arriskutsuaz fidatzera, hain kinka larrian eta hain etsai ahaltzuen aurka. Une batean, sendo erabaki nuen kontra egitea, zeren eta, askatasuna nuen bitartean, Inperio hartako indar guztiek ere nekez menperatuko baininduten, eta nik erraz egin nezakeen metropolia txiki-txiki harrika eraso; baina berehala baztertu nuen asmo hura izututa, Enperadoreari emandako zin-hitza, berarengandik hartutako mesedeak eta hark emana zidan *Nardac* titulu handia gogoratu bainituen. Eta gainera, artean ez nuen hain bizkor gortelarien esker ona barneratua, Maiestatearen *orduko zorroztasunak iraganeko nire erantzukizun guztietatik aske uzten ninduela* konbentzitzeko.

Azkenean, erabaki bat hartu nuen, gerta litekeelarik honengatik kritikaren bat jasotzea, eta ez bidegabeki; izan ere, aitortu behar dut, begiak, eta beraz, nire askatasuna, gordetzea neure ausarkeria handiari eta eskarmentu-faltari zor diedala, zeren eta, nik ezagutu banu orduan

errege eta ministroen izaera —geroztik beste erresuma askotan behatu ahal izan dudana— eta ni bezain higuingarriak ez ziren kriminalak tratatzeko zuten modua, bizkor eta prestu onartuko bainukeen hain zigor biguna. Baina gaztetasunaren urdurikeriak bultzatuta eginda eta Maiestate Inperialaren baimena nuelarik Blefuscuko Enperadoreagana joateko, aprobetxatu egin nuen aukera, hiru egunak igaro aurretik, adiskide Idazkariari gutun bat bidali eta, neukan baimenaz baliatuz, goiz hartan Blefuscura joatea erabaki nuela adierazteko; eta erantzunaren zain egon gabe, gure ontziteria zegoeneko irlaren aldera joan nintzen. Gerraontzi handi bat hartu, brankari kable bat lotu eta aingura jaso ondoren, jantziak erantzi nituen; gero, arropak (besapean ekarri nuen ohegainekoarekin batera) ontzian ipini, eta tiraka neure atzetik, batzuetan ibiz iraganez eta bestetan igerian, Blefuscuko errege-portura iritsi nintzen, han luzaroan zegolarik jendea nire zain; bi gidari eman zizkidaten izen bereko hiriburura bidea erakusteko. Neure eskuetan eraman nituen, ate nagusitik berrehunen bat metrora iritsi arte, eta iritsi nintzela

ministroren bati adierazteko erregutu nien, eta esateko, hantxe egongo nintzela Maiestatearen aginduen zain. Ordu bete ingurura izan nuen erantzuna, hots, Maiestatea, Errege-Familiarekin eta Gorteko ofizial nagusiekin batera, harrera egitera zetorkidala. Ehun metro egin nuen aurrera. Enperadorea, eta haren segiziokoak zaldietatik jaitsi ziren, Enperatriza eta damak zalgurdietatik, eta ez nintzen konturatu izututa edo kezkatuta zeudenik. Lurrera etzan nintzen Enperadorearen eta Enperatrizaren eskuei muin egiteko. Nire jaun Enperadorearen baimenaz, emandako hitza betetzera etorri nintzaiola esan nion Maiestate hari, hain monarka ahaltsua ikusteko ohorea izan eta neure esku zegokeen edozein zerbitzu berari eskaintzeko, betiere neure printzearekiko eginbeharrak betez; neure zoritxarraz ez nion txintik aipatu, ez bainuen ordura arte inolako informazio ofizialik, eta neure buruak ezertxo ere ez zekiela hartaz pentsa nezakeen; eta ez zitzaidan zentzuzkoa ere iruditzen haren eskumendetik kanpo nengoen bitartean jakin eraziko zuenik Enperadoreak sekretua; honetan, ordea, laster ikusi zen oker nengoela.

Ez dut irakurlea gogaituko Gorte hartan nolako harrera egin zidaten zehatz kontatuz, hain printze handiaren eskuzabaltasunari dagokion bezalakoa izan zelarik, ezta etxe eta ohe faltaz izan nituen eragozpenen berri emango ere, zoruan etzatera behartua egon nintzelarik neure ohegainekoan bilduta.

8. KAPITULUA

*Autoreak, zorioneko txiripa batez,
Blefuscutik irteteko era aurkitzen du;
eta zenbait eragozpenen ondoren,
bere sorterrira itzultzen da onik.*

Iritsi eta hiru egunera, ikusmiran nenbilerarik irlaren ipar-ekialdeko kostan, iraulitako txalupa bat bezalakoa ematen zuen zerbait ikusi nuen itsasoan aurrean legoa erdira. Oinetakoak eta galtzerdiak kendu, eta berrehun edo hirurehun metro ibiz iragan ondoren, marearen indarrez gauza hura hurbiltzen ari zela ohartu nintzen, eta gero argi eta garbi ikusi nuen benetako txalupa bat zela, ekaitzak itsasontziren batetik botako zuela pentsatu nuelarik. Orduan, berehala itzuli nintzen hirira eta bere ontziteria galdu ondoren geratu zitzaizkion ontzirik handienetako hogeitazteko erregutu nion Maiestate Inperialari, baita hiru mila marinela ere bere Almirantordearen agindupean. Ontziteria hau kosta inguratuz joan zen, ni neu biderik laburrenetik itzuli nintze-

larik txalupa aurkitua nuen itsasertzera; mareak are hurbilago ekarria zuela konturatu nintzen. Marinel guztiak sokaz ongi hornituta zeuden, aurrez neuk txirikordatu nituelarik behar hainbat sendo egiteko. Ontziak iritsi zirenean, biluztu egin nintzen eta ibiz iragan txalupatik ehunen bat metroraino, gero igeri egin behar izan nuelarik bertara iritsi arte. Sokaren muturra bota zidaten marinelek, eta nik txalupak aurrealdean zuen zulo bati lotu nion, eta beste muturra gerraontzietariko bati, baina nire ahalegin guztiak ezer gutxitarako izan ziren, zeren eta, hondorik ukitzen ez nuenez, ezin bainuen ezer egin. Larrialdi hartan, igeri egin behar izan nuen txaluparen atzetik eta, ahal nuenean, aurrera bultzatu egin neure eskuetariko batez; eta marea neure alde nuenez, aurrera egin nuen kokotsa ur gainean nuela hondoa ukitzera iritsi arte. Bizpahiru minutuz atsedean hartu eta txalupari beste bultzada bat eman nion, eta horrela jarraitu ura besapera baino gorago iritsi ez zitzaidan arte; eta orduan, lanik neketsuena egina zegoelarik, beste kableak atera nituen, ontzi batean gordeta zeudenak, eta lehenbizi txalupari lotu nizekion,

eta gero, laguntzen ari zitzaizkidan ontzietariko bederatziri; haizea alde zegoenez, marinelek tiraka eramane zuten, eta nik bultza egin nion itsasertzetik berrogeiren bat metrora iritsi arte, eta marea jaisteko zain egon ondoren, ontzira hurbildu busti gabe eta sokaz eta makinaz hornitutako bi mila gizonen laguntzaz, azpikoz gora jartzeko moldatu nintzen, eta pixka batxo bat bakarrik zegoela hondatuta konturatu nintzen.

Ez dut irakurlea gogaituko, txalupa zenbait arrabaz —hamar egun behar izan nituen hauek egiteko— Blefuscuko errege-portura eramateko izan nituen eragozpenak kontatuz, non jendetza handia agertu baitzen ni iristean, guztiz txundituta geratu zirelarik hain itsasontzi erraldoia ikusita. Ontzi hura nire bidean zorte onak jarri zuela esan nion Enperadoreari, norabait eramane nintzan gero handik neure sorterrira itzuli ahal izateko, eta haren ekipamendurako materialak lortzeko aginduak eman zitzaala erregutu nion, baita irteteko baimena ere; zenbait agiraka atseginen ostean, ederretsi zion eskatutakoa emateari.

Denboraldi guzti hartan oso harriturik egon nintzen, ez zelako entzun gure Enperadoreak niri

buruzko mandaturik Blefuscuko Gortera bidali zuenik. Baina gero isilpean adierazi zidatenez, Maiestate Inperialak, haren egitasmoen susmo txikiena nuenik ere inola pentsatu gabe, uste omen zuen neure hitza betetzearren bakarrik joan nintzela Blesfoscuro —berak emandako baimenaz baliatuz, gure Gortean ongi jakina zen bezala—, eta egun gutxi barru, zeremonia hura amaitu ondoren, itzuli egingo nintzela. Baina azkenean atsekabetu egin zuen nire absentzia luzeak; eta Altxorzainarekin eta Taldetxo hartako gainerakoekin kontsultatu ondoren, goi-mailako pertsona bat bidali zuten nire aurkako ebazpenen kopiarekin. Mandatari hark jasotako aginduen arabera, Blefuscuko monarkari bere jaunaren *onginahi* handia azaldu behar zion, aski baitzuen ni neure begiak galtzera bakarrik zigortzearekin; baita justiziatik ihesi nembilela eta, bi ordu barru ez banintzen itzultzen, *Nardac* tituluaz desjabetu eta traidore deklaratuko nindutela ere. Mandatariak gaineratu zuenez, bi Inperioen arteko bakea eta adiskidetasunari eustearren, haren jaunak espero omen zuen ni, esku eta oinez lotua, Liliputera bidaltzeko aginduko

zuela Blefuscuko anaiak, traidoretzat zigortua izan nendin.

Blefuscuko Enperadoreak, hiru egun eman zituelarik kontsultatan, adeitasun handi eta desenkusa askoz betetako erantzuna itzuli zion. Lotuta bidaltzeari zegokionez, esan zion kide maiteak bazekiela ezinezkoa zena; bere ontziteria kendu nion arren, halere zor handiak zituela nirekiko, bakeak egiterakoan eman nion laguntza handiagatik. Edonola ere, bi Maiestateak laster lasaitu ahal izango zirela; zeren eta, ikaragarriko ontzi bat aurkitua nuenez hondartzan —ni itsasoratzeko gauza zena— eta berak agindua zuenez hura ekipatzeko nire laguntza eta zuzendaritzapean, aste gutxi barru bi Inperioak libre izango zirela hain eragozpen jasangaitzetik.

Erantzun honekin mandataria Liliputera itzuli zen, eta gertatuko guztia kontatu zidan Blefuscuko monarkak, aldi berean eskainiz (baina guztiz isilean) bere eskerrezko babesa, haren zerbitzura jarraitzen banuen; eta bera zintzo ari zela uste nuen arren, erabakia nuen nik sekula gehiago ez fidatzea printze edo ministroez, ahal izanez gero behintzat; eta hala, bere asmo mesede-

garri haiekiko zor nion esker onarengatik, desenkusatzeko erregutu nion apaltasunez. Esan nion, Zoriak, onak edo txarrak, ontzi bat jarri zidanez bidean, erabakia nuela itsasoratzea, bi monarka ahaltsu haien arteko eztabaida-gai bihurtu baino lehen. Ez zitzaidan iruditu Enperadoreari batere desatsegin zitzaionik; baizik eta, nire erabakiaz oso pozik zegoela ohartu nintzen halako batean, baita haren ministro gehienak ere.

Asmoa nuena baino pixka bat lehenago irte-tera bultzatu ninduen egoerak, honetan gogotik lagundu zidalarik Gorteak, irrikaz baitzegoen nik alde egiteko. Bostehun langile aritu ziren, nire zuzendaritzapean, txaluparentzat bi bela egiten, zeukaten lihorik sendoeneko hamahiru tolesdura elkarren gainean josiz. Ni sokak eta kableak egiteko lanetan ari izan nintzen, haienetako hamar, hogeit edo hogeita hamar lodien eta sendoenak txirikordatuz. Itsasertzean luzaroan bila ibili ondoren aurkitutako harri handi bat hartu nuen ainguratzat. Hirurehun behiren gantza neukan txalupa miztilutzeko, eta beste erabilera batzue-tarako. Izugarri nekeza izan zen egurretarako arbolarik handienetariko batzuk moztea arrau-

nak eta mastak egiteko, nahiz eta honetan Maiestatearen ontzi-arotzek laguntza handia eman arbolak leuntzen, lan zakarra neuk egin ondoren.

Hilabete inguru geroago, dena prest egon zenean, Maiestatearen aginduak eta irteteko baimena eskatu nituen. Enperadorea eta Errege-Familia jauregitik irten ziren; ahozpez etzan nintzen, Enperadorearen eskuari muin emateko, berak oso eskertsu luzatu zidalarik; berdin egin zuen Enperatrizak ere, eta Odol-Printze gazteek. Maiestateak berrogeita hamar poltsa erregalatu zizkidan, berrehun *sprug*-ekin bakoitza, baita bere irudia ere, gorputz osokoa, berehala esku-larruetako batean sartu nuelarik, hondatu ez zedin. Irteerako zeremoniak gehiegi izan ziren, orain irakurlea haiekin gogaitarazteko.

Txalupan ehun idi eta hirurehun ardi sartu nituen, hilda, kopuru honi zegozkion ogi eta edariarekin, baita laurehun sukaldarik prestatu ahal beste jaki ere. Sei behi eta bi zezen bizi ere hartu nituen neurekin, eta beste horrenbeste ardi eta ahari, neure sorterrira eraman eta espeziea zabaltzeko asmoz. Eta hauei ontzian emateko,

sorta bikain bat belar ondu eta poltsakada gara-
garra neuzkan. Pozik ekarriko nukeen bertako
biztanleetako hamabiko bat, baina inola ere
Enperadoreak baimendu ez zidan gauza izan zen
hau; eta nire poltsikoak arretaz miatzeaz gain,
ohorezko hitza eman behar izan nion Maiesta-
teari ez nuela haren menpekorik eramango,
berauek bat etorri eta onartu arren ere.

Honela prestatu ondoren dena ahalik eta
ongien, 1701eko irailaren hogeita laugarren egu-
nean itsasoratu nintzen, goizeko seietan; eta
iparralderantz lauren bat legoa egin ondoren,
haizea hego-ekialdekoa zelarik, arratsaldeko
seietan, irla txiki bat begiztatu nuen legoa erdira
ipar-mendebaldean. Aurrera egin eta aingura
bota nuen irlaren haizabe aldean, inor ez zela
han bizi ematen zuelarik. Gero, zertxobait jan
eta edan, eta etzan egin nintzen. Ongi lo egin
nuen, eta sei ordu behintzat bai gutxi gorabehe-
ra jota, zeren eta, esnatu eta bi ordura argitu
baitzen eguna. Gau garbia izan zen. Eguzkia
irten aurretik hartu nuen gosaria; eta aingura
jaso ondoren, haizea aldeko nuelarik, bezperako
norabide berari jarraitu nion, horretarako poltsi-

koko itsasorratzaz baliatu nintzelarik. Nire ustez Van Diemen-en Lurraldearen ipar-ekialdean egon behar zuten irla haietariko batera iristeko asmoa nuen, ahal izanez gero behintzat. Ezer ez nuen egun hartan aurkitu; baina biharamunean, arratsaldeko hirurak aldera, nire kontuen arabera Blefuscutik hogeita lau legoara nengoela, hego-ekialderantz zihoan belaontzi bat ikusi nuen; ni ekialderantz nindoan. Deiadar egin nion, baina ez nuen erantzunik izan; edonola ere harengana hurbiltzen ari nintzela ohartu nintzen, baretzen ari baitzen haizea. Ahal nuen guztia nabigatu eta ordu erdi barru haiek ere ikusi ninduten, orduan beren ikurra jaso eta tiro bat egin zutelarik. Ez da erraza adieraztea zein pozik jarri nintzen, neure sorterri maitea eta han utzitako kuttunak berriro ere ikusteko itzaropena bainuen ustekabeen. Ontziak bildu egin zituen belak pixka bat, eta arratsaldeko bostak eta seiak artean iritsi nintzen haren parera, irailaren 26an; irauli egin zitzaidan bihotza bandera ingelesa ikustean. Behiak eta ardiak kasakaren poltsikoetan ipini eta ontzi hartara igo nintzen neure hornizio-karga txikiarekin. Merkatalontzi

ingeles bat zen hura, Japoniatik zetorren Ipar-eta Hego-Itsasoetatik zehar; Deptfordeko John Biddel jauna zen kapitaina, oso gizon adeitsua eta marinel bikaina. Orduan, latitudez 30 gradura geunden hegoaldera; gutxi gorabehera berrogeita hamar gizon zeuden ontzian; eta lagun zahar bat ere aurkitu nuen, Peter Williams delako bat, honek oso goraipatu ninduelarik kapitainaren aurrean. Zaldun honek begikotasun handiz hartu ninduen, eta azken aldian non egon nintzen eta norantz nindoan esateko erregutu zidan; hitz gutxitan azaldu ondoren, zentzua galduta nengoela pentsatu zuen, eta jasandako arriskuen ondorioz, burutik eginda; orduan, neure behi eta ardi beltzak atera nituen poltsikotik, eta honek, zeharo txundituta utzi zuelarik, garbi konbentzitu zuen egia esaten ari nintzaio-la. Blefuscuko Enperadoreak emandako urrea ere erakutsi nion, baita Maiestatearen gorputz osoko irudia ere, eta herrialde hartako beste bitxikeriaren batzuk. Bi poltsa eman nizkion, berrehun *sprug*-ekin bakoitza eta, Ingalaterrara iritsi ondoren, behi bat eta ernaldutako ardi bat oparituko nizkiola ere hitz eman nion.

Ez dut irakurlea gogaituko bidaia honetako gorabeherekin, oso ona izan zelarik ibilaldirik gehienez. 1702ko apirilaren 13an iritsi ginen Downsera. Zoritxar bat bakarra izan nuen, alegia, ontziko arratoiek ardi bat eraman zidatela; hezurak aurkitu nituen zulo batean, garbi-garbi, haragi-izpirik gabe. Gainerako ganadua onik eta osorik ekarri nuen eta Greenwich-eko bolatokiko zelaian larrean utzi, hango belarra hain goxoa zenez gogotik jan zutelarik, nahiz eta ni kontra-koaren beldur izan. Eta ziur aski ezin izango nituzkeen onik mantendu hain bidaia luzean, kapitainak ez balit bere bizkotxorik onenaren parte bat eman, hauts bihurtu eta uraz nahastuta, haien eguneroko janaria izan zelarik. Ingaltarran egon nintzen denboraldi laburrean, irabazi dezenteak egin nituen handiki askori eta beste batzuei ganadua erakutsiz; eta bigarren bidaiari ekin aurretik, saldu egin nituen sei ehun liberatan. Azken bidaiatik itzultzean, espeziea asko gehitu dela konturatu naiz, ardiak, batez ere; artilegintzaren mesedetarako izango dela espero dut, oso fina baitute ilea.

Bi hilabete bakarrik eman nituen emazte eta etxekoekin, atzerriak ikusteko irrika asegaizak ez baitzidan uzten luzaroago geratzen. Mila eta bostehun libera utzi nizkion emazteari, eta etxe eroso batean ezarri nuen Redriffen. Geratzen zitzaidana neurekin eraman nuen, zati bat dirutan, eta beste bat salgaietan, neure aberastasunak gehitzeko asmoz. John, osaba zaharrenak, lursail bat utzia zidan ondareztat, Epping inguruan, hogeita hamar libera inguru ematen zituen urtean: eta nik luzarorako errentan emana nuen Zezen Beltza delakoa Fetter zeharkalean, beste hainbeste ematen zidana; ez nuen, beraz, inolako arriskurik familia parrokiaren babespean utzi behar izateko. Johnny semea, osabarengatik deitua horrela, bigarren mailako eskolan zebilen, eta mutiko argia zen. Betty alaba (ongi ezkondua dago orain eta seme-alabekin) jostuna zen orduan. Emaztea, semea eta alaba agurtu —malakoekin haien eta neure aldetik— eta *Adventure*-ra igo nintzen; hirurehun tonako merkatalontzi hau Suratera zihoan, Liverpooleko John Nicholas kapitaina buru zuelarik. Baina ibilaldi honen kon-

taketa neure Bidaien bigarren zatirako utziko dut.

LEHEN ZATIAREN AMAIERA

II. ZATIA: BROBDINGNAG-ERA BIDAIA

1. KAPITULUA

Ekaitz handi baten berri. Txalupa ur bila bidaltzen dute eta autoreak bertan joaten lurralde hura ikuskatzera.

Itsasertzean utzia, bertakoetariko batek harrapatzen du eta nekazari-etxe batera eramaten. Hango harre-ra eta han gertatzen den zenbait gorabehera. Biztanleen berri.

Naturak eta Zoriak kondenatua nindutelarik bizitza aktibo eta atsedengabea eramatera, itzuli eta bi hilabetera berriro utzi nuen jaioterria, eta Downsen ontziratu 1702ko ekainaren 20. egunean, *Adventure*-n, Kornualeseko John Nicholas kapitaina buru zela, Suratera joateko. Oso aldaize egokia izan genuen Esperantza Oneko Muturrera iritsi arte, ur gezaren bila lehorreratu ginelarik han, baina ur-zirritua aurkitu genionez ontziari, gauza guztiak atera genituen, eta negua hantxe eman; zeren eta, elgaitzak zituenez kapitainak, ezin izan baikinena Mutur

hartatik martxoaren amaierara arte irten. Orduan itsasoratu ginen, eta bidaialdi ona izan genuen Madagaskareko Itsasarte pasatu, arte; baina irla haren iparraldera eta latitudez bosten bat gradu hegoaldera iritsi ginenean, haizeak — alde haietan etengabeko aldaize berdintsuak jotzen duelarik ipar eta mendebaldearen artean abenduaren hasieratik, maiatzaren hasierara arte— apirilaren 19an askoz indar handiagoz hasi ziren jotzen, eta ohi baino mendebaldeago-tik, horrela jarraitu zutelarik hogeit egunez segidan, denboraldi hartan Moluka Men ekialdera eramán gintuztelarik eta hiru bat gradu Ekuatoreaz iparraldera; honetaz kapitaina ohartu zen maiatzaren 2an egin zuen kalkuluan, orduantxe amaitu zirelarik haizeak eta dena bare-bare gelditu, izugarri poztu ninduen gauza. Baina berak, eskarmentu handiko gizona izanik itsaso haietan ibiltzen, denok ekaitzaren aurka prestatzeko agindu zuen, biharamunean iritsi zelarik ekaitza; izan ere, hegoaldeko haize bat, hegoaldeko montzoia deitua, hasi baitzen jotzen.

Ohartuz ezingo genituela gabiak luze eramán, sartu egin genuen xebadera, eta aitzin-

masta atxikitzeko prestatu ginen; baina eguraldi txakurra genuenez, kanoi guztiak lotuta ote zeuden begiratu genuen, eta atzeko masta gogortu. Oso jirabira luzeak ematen zituen ontziak, eta beraz, pentsatu genuen hobe zela uharari jarraitzea, belekin gutxi edo batere ez ibiltzeko moduan egotea baino. Zintzilikatu egin genuen aitzin-masta eta lasaitu, eta tira egin genion popan bela-lokarrira. Ontzia haizaberatua zegoen eta bira egiten zuen zakar. Brankako beheko kalamua kabilaztu genuen, baina bela zarrastatu egin zen eta belazurruna beheratuz, bela kubiertara ekarri genuen; gauza guztiak askatu genituen dena libre utzi arte. Ekaitza beldurgarria zen. Itsasoa arraro eta arriskugarriro lehertzen zen. Ahalik eta gehien tenkatu genuen lemaziriarren lokarria, eta lemazainari lagundu genion. Eta ez genuen ontzi-haga eraitsi nahi izan, baizik eta hantxe utzi dena, zeren eta, oso ongi baikinodozen itsasoan aurrera eta bai baikenekien ontzi-haga jasota ontzia eztikiago eta hobeto zihoala itsasoan zehar, ikusirik bagenuela maniobratzeko tokia. Ekaitza baretu zenean, aitzin-masta askatu genuen, baita masta nagusia ere eta

ontzia gertu jarri. Gero mesana, gabia eta gabie-
ta askatu genituen. Gure norabidea ekialde-ipar-
ekialderakoa zen, eta haizea hego-mendebalde-
koa. Itriborreko amulak tenkatu eta haizaldeko
brazak eta alxamartak zirgatu genituen; haiza-
beko brazak zirgatu eta brankara tenkatu geni-
tuen haizaldeko bolinak, eta bihurrituz estutu
eta kabilaztu egin genituen, eta mesana-amulari
haizaldera tira egin genion, eta haizearen arabe-
ra eutsi genion ontziari ahal genuen guztia.

Ekaitzak iraun bitartean, eta gero mendebal-
de-hego-mendebaldeko haize indartsuak jo-
zuen, nire kalkuluen arabera bostehunen bat
legoatan izan ginen ekialderantz eramanez, eta
beraz, ontziko marinelik zaharrenak ere ezin
zuen esan munduaren zein aldetan geunden.
Gure hornizioek ongi irauten zuten, ontzia
sendo-sendo zegoen, eta marinela guztiak osa-
suntsu: baina estu eta larri genbiltzan uraz. Pen-
tsatu genuen hobe zela norabide berean jarrai-
tzea iparralderantzago bira egitea baino, izan
ere, Tartaria Handiko ipar-mendebaldeko zonal-
deetara eta itsaso izoztura eramanez ahal izango
baikintuen.

1703ko ekainaren 16an, mastagainean zegoen mutiko batek lehorra aurkitu zuen. 17an, irla handi edo kontinente bat (ez baikenekien bietatik zer zen) ikusi genuen bete-betean, haren hegoaldean lurmutur txiki bat zegoelarik itsasoa sartua, eta badia txiki bat, sakonera txiki-gikoa ehun tona baino gehiagoko ontzi bat hartzeko. Nadia hartatik legoa bat baino gutxiagora bota genuen aingura, eta kapitainak bere gizonetarik hamabiko bat bidali zuen txalupan, ongi armatuak eta ontziekin, urik aurkitu ahal baldin bazen. Haiekin joateko baimena erregutu nion, lurralde hura ikusi eta ahal nituen aurkikuntzak egiteko. Lehorrera iritsi ginenean, ez genuen ibai edo iturbururik ikusi, ezta biztanle-arrastorik ere. Gure gizonak, orduan, hara eta hona ibili ziren itsasertzetik ea ur gezarik aurkitzen zuten, eta ni, bakarrik, milia bat inguru ibili nintzen beste alderantz, landa guztiz idorra eta harkaiztsua zela ikusi nuelarik. Nekatzen hasia nintzen, eta nire jakin-mina pizteko ezer aurkitzen ez nuenez, poliki-poliki badiarantz itzultzen hasi nintzen; eta itsasoaren ikuspegia aurrean bete-betean izan nuenean, gure gizonak txalupan zeudela eta jo

eta ke arraunean ari zirela ohartu nintzen. Haien atzetik joateko zorian nengoenean, nahiz eta alferrikakoa izango zatekeen, egundoko izaki bat ikusi nuen haien atzetik itsasoan ahal bezain bizkor; ura ez zitzaion belaunetara baino askoz gorago iristen, eta izugarrizko pausokadak ematen zituen; baina gure gizonak legoa erdi aurre-rago zihoazen, eta itsasoa inguru hartan harkaitz zorrotzez betea zegoenez, munstroa ez zen gauza izan txalupa harrapatzeko. Honen berri gero eman zidaten, orduan ez bainintzen ausartu abenturaren amaiera ikusteko geratzen, baidetik eta ahal nuen bezain arin korrika itzuli nintzen lehen ibilitako lekurantz; eta gero muino aldapatsu bat igo nuen, landa-zabalaren nolabaiteko ikuspegia nuelarik handik. Guztiz landuta zegoela konturatu nintzen; baina lehenengo harritu ninduena belarraren luzera izan zen, belar ondutarako zirela ematen zuten alorretan, zazpi metroko altuera izango baitzuen.

Errepide zabal batera irten nintzen, edo hori iruditu zitzaidan, nahiz eta bertakoentzat bidezidorr bat besterik ez izan garagar-soroan zehar. Handik ibili nintzen pixka batean, baina ezer

gutxi ikusten nuen alboetara, ia uzta-garaia zelarik orduan, gariak hamahiru metro izango baitzitu-
tuen gutxienez. Ordu bete eman nuen soroaren amaieraraino joaten, han hesituta zegoelarik berrogei metroko altuera behintzat izango zuen palaxuz, eta zuhaitzak hain luzeak zirenez ezin nuen nik haien altuera kalkulatu. Hesi gainean eskailera bat zegoen soro batetik ondokora pasatzeko. Lau maila zituen, eta harri bat gorenekora iristean zeharkatzeko. Ezinezkoa zen niretzat eskailera hartatik igotzea, maila bakoitzak bi metro baitzitu, eta gainerako harriak zazpiren bat. Palaxuan zirrikturen baten bila ari nintzela, ondoko soroan hango biztanle bat aurkitu nuen eskailera alderantz zetorrela, itsasoan gure txalupari jarraika ikusi nuen haren tamaina berekoa, hain zuzen. Kanpandorre arrunt bat bezain garaia ematen zuen, eta gutxi gorabehera jota pausokada bakoitzean bederatziren bat metro egiten zituela iruditu zitzaidan. Zeharo ikaratua eta txunditua nengoen eta gari artean ezkutatzera joan nintzen korrika, hura eskailera gainean eskuin aldeko soroantzez zegoela begira ikusi nuelarik handik, eta tronpeta bat baino

askoz ozenagoa zen ahotsez dei egiten entzun nuen, baina hotsa hain goitik zetorrenez airean, hasieran trumoa zela pentsatu nuen benetan. Berehalaxe, bera bezalako zazpi munstro hurbildu zitzaizkion igitaiak eskuetan zituztela, igitai bakoitza sei sega bezain handia zelarik. Jende hau ez zegoen lehenengoa bezain ongi jantzita, haren morroi edo jornalari zirela ematen zutelarik. Zeren eta, esan zizkien hitz batzuen ondoren, etzanda nengoeneko sorora etorri baitziren garia moztera. Ahal bezain urruti geratu nintzen haiengandik, baina oso nekez mugitzen nintzen, gari-zuztarrak batzuetan ez baitzeuden beren artean hogeita hamar zentimetrora ere, eta nekez pasatu ahal izaten nuen gorputza haien artetik. Halere, moldatu nintzen nolabait aurrera egin eta euriak eta haizeak garia eratzanda zeukaten toki bateraino iristeko. Han ezinezkoa izan zitzaidan urrats bat gehiago ematea, zeren eta, zuztarrak hain airtekatuta zeudenez, ezin bainintzen haien artetik iragan, eta eroritako galbueren bizarrak hain sendoak eta zorrotzak zirenez, gorputzean sartzen baitzitzaizkidan jantzie-tan zehar. Aldi berean, ehun metro baino hurbi-

lagora sumatzen nituen igitariak nire atzean. Zeharo abaildua ahaleginagatik eta saminak eta etsipenak guztiz menperatua, bi ildo-bizkarren artean etzan nintzen, eta biziki nahi izan nuen nire egunak hantxe amaitzea. Negar egin nuen neure emazte atsekabetu eta seme-alaba umezurtzengatik. Neure zorakeria eta burugogorke-ria deitoratu nituen, adiskide eta ahaide guztien aholkuaren aurka bigarren bidaiari ekin niolako. Gogo-kezka beldurgarri honekin ezin nuen Liliput burutik kendu; hango biztanleek inoiz mundura agertu den gauzarik harrigarriena banintz beza- la begiratzen zidaten; eta han, ontziteria inperia- la neure eskuaz garraiatzeko gai izan nintzen, baita Inperio hartako kroniketan betirako idatzi- ta geratuko diren beste balentria batzuk egiteko ere, ondorengoek nekez sinetsiko dituztenak, nahiz eta milioika pertsona izan lekuko. Ni beste nazio honetan liliputiar bat gure artean bezain ezereztzat hartua izatea zein mingarria izango zen pentsatzen nuen. Baina neure zoritxarrik txi- kientzat neukan hau; izan ere, tamainaren ara- bera gizakiak basatiagoak eta ankerragoak dire- la erakusten duenez esperientziak, zer espero

nezakeen harrapatuko ninduen barbaro izugarri haietako lehenengoaren ahoan mokadu izatea baizik? Zalantzarik gabe, filosofoek arrazoi dute esaten dutenean ezer ez dela handi edo txiki konparazioz izan ezik. Agian nahi izango du Zoriak liliputiarrek beste nazioen bat aurkitzea, hango jendea liliputiarrak nirekiko bezain txikia izango delarik beraiekiko. Eta nork daki jende-arraza erraldoi hau munduaren urrutiko bazterren batean guk oraindik aurkitu ez dugun besteren batek ez ote duen gaindituko?

Izu-ikaratua eta nahastua, gogoeta hauek burutik kendu ezinda nenbilela, etzanda nengoeneko ildo-bizkarretik hamar metro baino gertuagora hurbildu igitarietako bat eta hurrengo urratsean haren oinpean zanpatuta hila edo igitaiatz bitan zatitua izan nintekeela konturatu nintzen. Beraz, berriro mugitzear zegoela, beldurrak eragiten zidan bezain ozenki oihu egin nuen. Orduan, izaki erraldoi hark urrats laburragoa eman zuen, eta behean bere inguruan begiratu ondoren, azkenean ikusi ninduen non nengoen etzanda. Une batez behaketan egon zen, animalia txiki arriskutsu bati —atzaparka edo horzka

ez egiteko moduan— heltzen saiatzen denaren arretaz, nik neuk erbinuderen batekin noizbait Ingalaterran egin izan dudan bezala. Azkenean, ausartu zen atzetik hartzera bere hatz erakuslearen eta erpuruaren artean, eta begietatik hiruren bat metrora eramanez nire itxura hobeto ikusi ahal izateko. Igarri egin nituen haren asmoak eta nire zori onak behar hainbat adore eman zidanez, batere indarka ez egitea erabaki nuen behetik hogeiren bat metrora airean nindukan bitartean, nahiz eta alboetatik oso mingarriro estutzen ninduen, atzamarretatik ihes egingo ote nion beldurrez. Begiak eguzkirantz goratu eta eskuak erregu-jarreran elkartuta ipiniz, egoera hartarako egokiak ziren zenbait hitz era malenkoniatsu eta apalean esatera baino ez nintzen ausartu. Zeren eta, zoruaren kontra lehertuko ninduela barruntatzen bainuen, desegin nahi ditugun animaliatxo higuingarriekin geuk ere egin ohi dugun bezalaxe. Baina nire patu onari esker, atsegingarriak suertatu zitzaizkion nire ahotsa eta keinuak, eta bitxikeria bat bainintzan hasi zitzaidan begira, guztiz liluratuta hitz artikulatuak ahoskatzen entzuteaz, nahiz

eta ezin zituen berak ulertu. Bitartean, ezin nintzen ni aieneka eta malkoak isuri gabe eta buruari batera eta bestera eragin gabe egon; hala adierazten bainion, ahal nuen bezain ongi, izugarrizko mina nuela haren hatz artean estutu-ta. Esan nahi niona ulertu egin zuela ematen du, zeren eta, bere jakaren barrena altxatu, hantxe ezarri poliki-poliki eta berehala abiatu baitzen korrika ugazabarengana, nekazari aberatsa eta soroan lehenengo ikusi nuen pertsona bera, hain zuzen.

Nitaz morroiak esan ziezaiokeen guztia entzun ondoren nekazariak (honela iruditu zitzaidan haien hizketatik), lasto-zati txiki bat hartu, bastoi baten tamainakoa, eta neure kasakaren barrenak altxatu zizkidan; naturak emandako estalki modukoren bat zela pentsatu bide zuen. Nire ileei aldamentetara putz egin zien aurpegia hobeto ikusteko. Bere langileei deitu eta (gero jakin nuenez) ea sekula ikusi al zuten soroetan nire antzeko izaki txikirik galdetu omen zien. Gero, poliki-poliki behean utzi ninduen lauoinka, baina berehala altxatu nintzen, eta atzera eta aurrera ibili nintzen astiro, ez nuela ihes egiteko

asmorik jakin erazteko jende hari. Nire inguruan eseri ziren guztiak, mugimenduak hobeto mires-teko. Kapela kendu eta nekazariari agur egin nion burua makurtuz. Belaunikatu, eskuak eta begiak gorantz jaso eta hitz batzuk esan nituen ahal bezain ozenki. Poltsa bat urre atera poltsi-kotik eta oparitu egin nion apaltasunez. Bere eskuzabalean hartu zuen, gero begira hurbildu zer zen ikusteko eta mahukatik atera zuen orratz baten puntaz zenbait buelta eman zizkion, baina ezin zuen ulertu zer zen. Orduan, eskua zoruan jar zezan keinu egin nion. Gero, poltsa hartu, zabaldu eta urre guztia haren eskuzabalera bota nuen. Espainiako sei pieza ziren, lau pistolakoa bakoitza, eta hogeit edo hogeita hamar txanpon txikiago ere bazeuden. Hatz txikiaren punta mihian bustitzen ikusi nuen, eta nire piezarik handienetariko bat hartu zuen, eta gero beste bat, baina bazirudien, zer ziren antzik ere ez ziela ematen. Berrito poltsara sartzeko adierazi zidan keinuz, eta poltsa berrito neure poltsikora eta, hain zuzen ere, berari hainbat aldiz eskaini ondoren, horixe zela onena pentsatu nuen.

Ordurako konbentzitua zegoen nekazaria izaki adimenduna nintzela. Sarri hitz egin zidan, baina haren ahotsaren soinuak errotarriarenak bezala zulatzen zizkidan belarriak, nahiz eta hitzak aski artikulatuak izan. Ahal bezain ozen erantzun nion zenbait hizkuntzatan, eta bi metro baino gerturago hurbiltzen zuen maiz belarria, baina alferrik dena, zeharo ulergaitzak baikinena bata bestearentzat. Orduan, lanera bidali zituen morroiak, eta sudur-zapia poltsikotik ateraz, tolestu eta ezkerreko eskuan jarri zuen; gero, eskua ahurraz gora zoruan ipini zabal-zabalik eta hara igotzeko adierazi zidan keinuz, erraz egin ahal izan nuen gauza, ez baitzen hogeita hamar zentimetro baino lodiagoa. Esana egitea pentsatu nuen; eta erortzeko beldurrez, luzetara etzan nintzen sudur-zapi gainean, gainerakoaz ongi bildu bururaino segurtasun handiagorako eta bere etxera eraman ninduelarik halaxe. Han emazteari deitu eta zekarkiona erakutsi zion; baina garrasi egin eta atzera egin zuen berak, Ingalaterrako emakumeek apoa edo armiarma ikustean egiten duten bezala. Halere, pixka batean ikusi ondoren nire jokabidea eta zein

ongi betetzen nuen senarrak keinuz adierazitakoa, laster adiskidetu zen eta poliki-poliki oso maitagarri bihurtu nirekin.

Eguerdiko hamabiak ingurua zen, eta zerbitzari batek bazkaria atera zuen. Jaki bat bakarra baina mamitsua (egokia nekazariaren izaera xumerako) zortzi metro inguruko diametroa izango zuen azpilean zegoen. Nekazaria eta emaztea, hiru haur eta amona ziren mahaikideak. Eseri zirenean, beregandik halako tarte batera jarri ninduen nekazariak mahai gainean, zorutik hamar metroko altueran. Biziki ikaratua nengoenez, ertzetik ahalik eta urrutien geratu nintzen, erortzeko beldurrez. Emazteak jaki pixka bat txikitu zuen, gero ogia apurtu pikaderan eta aurrean ipini zidan. Hari agur egin makurtuz, neure ganibet eta sardexka atera eta jateari ekin nion, zeharo liluratu zituelarik honek. Etxeko andreak sei litroko kopatxo txiki baten bila bidali zuen neskamea, eta edariz bete; eragozpen handiz hartu nuen ontzia bi eskuen artean, eta modurik begirunetsuenean edan andere haren osasunera, hitzak ahalik eta ozenkien esanez ingelesez; honek mahaikideei hain

gogotik eragin zielarik barre, ia gortuta utzi ninduten zarataz. Sagardo arinaren ahogustua zuen likoreak, eta ez zen desatsegina. Gero bere plateraren ondora joateko keinua egin zidan ugazabak; baina mahaian zehar nindoala, biziki txundituta betiere, irakurle maiteak erraz imajinatu eta barkatuko didan bezala, ogi-azaltxo batekin behaztopa egitea suertatu zen eta muturrez aurrera erori nintzen, baina minik hartu gabe. Berehalaxe altxatu nintzen, eta jende hura oso kezkatu zegoela ohartuz, neure kapela hartu (besapean baineraman gizabidetsu) eta buru gainean astinduz, hiru urra! bota nituen, erorretan minik ez nuela hartu adierazteko. Aurrera jarraituz neure ugazabaganantz (honelaxe deituko diot aurrerantzean), haren ondoan zegoen semerik gazteenak, hamar urte inguruko mutiko zital hark, zangoetatik heldu zidan eta hain gora altxatu ninduenez airean, dardara bizian jarri nintzen; baina aitak kendu egin ninduen haren eskuetatik, eta aldi berean ezkerreko belarri ondoan eman zion zaplastakoaz, eraitsiko zukeen zaldun-talde europar bat behera, mahaitik alde egiteko ere agindu ziolarik. Baina muti-

koak begitan hartuko ninduen beldurrez, eta gogoratuz gure artean ere haurrak berez zein bihurriak izan ohi diren txolarre, untxi, katakume eta txakurkumeekin, belauniko jarri, eta mutiko-arengana keinu eginez, semeari barka ziezaion nahi nuela eman nion aditzera ugazabari, ahal bezain ongi. Onartu zuen aitak eta berriro eseri zen mutikoa; nik berarengana joan eta muin eman nion eskuan; orduan, ugazabak hartu eskua eta poliki-poliki ni laztantzera behartu zuen.

Jatorduaren erdian, etxeko andrearen katu kuttunenak salto egin zuen haren altzora. Lanean ari den dozena bat galtzerdigilerena bezalako zaratotsa entzun nuen neure atzean; eta burua itzultzean, animalia haren burrunba zela ohartu nintzen, idi bat baino hiru aldiz handiagoa izango zelarik, etxeko andreak jaten eman eta laztantzen zuen bitartean burua eta hanka bat ikusita kalkulatu ahal izan nuenez. Nahiz eta mahaiaren bazterrik urrutienean nengoan, harengandik hamasei metrora baino urrutirago, eta etxeko andreak ondo helduta zeukan arren, salto bat eman eta atzaparretan harrapa-

tuko ninduen beldurrez, izaki haren begiratu basatiak zeharo txundituta utzi ninduen. Baina ez zen arriskurik egon, zeren eta, katuak ez baitzidan batere jaramonik egin ugazabak haren-gandik hiru metrora jarri ninduenean ere. Piztia basati baten aurrean ihes egin edo beldurra agertzea jarraika edo erasoka has dakizun jokae-ra seguruena dela esan izan didatenez beti —eta neure bidaietako eskarmentuz egia dela konturatu naiz—, egoera arriskutsu hartan inolako kezkarik ez erakustea erabaki nuen. Bospasei aldiz igaro nintzen izukaitz katuaren buru aurre-aurretik, eta metro erdira ere hurbildu nintzaion, baina bera izan zen atzera egin zuena, nire bel-durrago balitz bezala. Kezka gutxiago nuen txakurrei buruz, haietako hiruzpalau sartu zirelarik jangelara, baserrietan ohi den bezala; haietako bat ardi-txakurra zen, lau elefanteren tamainakoa, eta bestea xarlangoa, ardi-txakurra baino altuagoa, baina ez hain handia gorpuzkeraz.

la amaitua zenean jatordua, inudea sartu zen urte beteko umetxoarekin besoetan; berehalaxe ikusi ninduen, eta jostailutzat nahi ninduelarik, haurrek ohikoa duten oratoriaz, txilioka hasi zen,

Londresko zubitik Chelseara entzuteko moduan. Hari atsegin ematearren bakarrik, amak hartu eta haurraren gana hurbildu ninduen, hark berehalaxe heldu gerritik eta nire burua ahoan sartu zuelarik; orduan, hain orro bizia egin nuenez, izutu eta eskutik jaregin zidan umegorri hark, eta ziur-ziur nik lepahezurra hautsiko nukeen amak ez balu amantala azpian jarri izan. Umetxo baretzeko inudeak txintxarria erabili zuen, barrutik hutsik zegoen ontzi bat harri handiz beteta, eta kablez umearen gerriari lotua; baina alfer-alferrik dena, eta beraz, azken erremedioaz baliatu behar izan zuen: bularra ematea. Bular nardagarri hura ikusteak baino nazka handiagoa sekula ezerk ez didala eman aitortu behar dut; ez dakit zerez konparatu, jakingura duen irakurleari haren tamaina, itxura eta kolorearen berri emateko. Bi metro irteten zen kanpora eta bost baino gutxiago ez zituen biran. Ditiburua ia nire buruaren erdia bezain handia zen eta haren eta ugatzaren kolorean hain ugariak zirenez orainak, oreztak eta garatxoak, ezer ezin zitekeen nazkagarriagoa izan; izan ere, hurbiletik ikusten nuen, hura bularra emateko erarik egokienean

baitzegoen eserita, eta ni mahaian zutik. Honek gure andere ingelesen larruazalaren leuntasunaz jarri ninduen gogoetan, gure tamaina berekoak direlako bakarrik iruditzen baitzaigu hain ederra, eta haien akatsak ez direlako lupaz baikik ikusten, honelakoetan larruazalik leun eta zurienak ere zakar, latz eta kolorgea ematen duela erakusten digularik esperientziak.

Gogoratzen dut Liliputen nengoenean, jende txiki haren aurpegia munduko finena iruditzen zitzaidala niri; eta gai honetaz hitz egitean hango jakitun batekin, lagun min batekin alegia, zorutik begiratzen zidanean nire aurpegiak ere askoz fin eta leunagoa ematen zuela esan zidan, baina hurbilagoetik begiratzean, eskuan hartu eta neuregana gerturatzean, hasieran behintzat ikuspegia beldurgarria zela aitortu zidan. Zulo handiak aurkitzen zituela nire azalean, eta nire bizar-txorroak apotearen zurdak baino hamar aldiz gogorragoak zirela, eta nire begitartea zeharo desatsegina, hainbat kolorez osatua zegoelako; nahiz eta erregutu behar dudaneure alde esaten uzteko, neure sexu eta herriko gehienak bezain ederra naizela, eta eguzkiak

gutxi errea neure bidaietan. Bestalde, Enperadore haren Gorteko damei buruz hitz egitean, hark esan ohi zidan batek oreztak zituela, beste batek aho zabalegia, hirugarrenak sudur luzeegia, halakorik ezer ezin nuelarik nik sumatu. Gogoe-ta hauek nahikoa jakinak direla aitortu behar-rean nago, baina, halere, ezin nituen baztertu, bestela izaki erraldoi haiek benetan itxuraga-beak zirela pentsa baitzezakeen irakurleak; eta justizia egiteko, esan behar dut, jende-mota era-kargarria dela; eta batez ere nire ugazabaren aurpegiera, nekazari baizik ez izan arren, oso egoki eratua iruditzen zitzaidala, hogeit metroko altueratik ikusten nuenean.

Jatordua amaitu zenean, ugazaba bere langi-leengana joan zen, eta haren ahots eta keinuen-gatik igarri nuenez, ni arreta handiz zaintzeko ardura eman zion emazteari. Oso nekatua nengo-en eta loguraz, eta honetaz ohartu zenean etxeko andrea, bere ohean ipini ninduen eta sudur-zapi zuri garbi baina gerraontziko bela nagusia baino handiago eta zarpailagoa zen batez estali ninduen.

Bi ordu inguruz egin nuen lo, eta emaztearekin eta haurrekin etxean nengoela amets egin, honek areagotu egin zuelarik nire atsekabea, esnatu eta gela handi hartan —hirurogeita hamar edo ehun metro izango zen zabal eta hirurogeita hamarren bat altu— hogeituro metroko zabalera zuen ohe batean etzanda neure burua bakarrik aurkitu nuenean. Etxeko andrea bere lanetara joana zen, ni han giltzaz itxirik utzita. Zorutik zortzi metrora zegoen ohea. Berezko eginbehar batzuek behera jaistea eskatzen zidaten; ez nintzen ausartzen dei egitera, eta egin izan banu ere, nirea bezalako ahotsaz eta ni nengoan logelatik familia egon ohi zen sukalderrainoko tarte handiaz alfer-alferrik izango zatekeen. Egoera honetan nengoela, bi arratoi igo ziren gortinetan gora, eta ohe gainean atzera eta aurrera korrika hasi usnaka. Haietako bat ia aurpegiraino iritsi zitzaidan, izututa jaiki eta sastakaia atera nuelarik neure burua babesteko. Piztia beldurgarri haiek bi aldeetatik erasotzeko ausardia izan zuten eta batek aurreko hankak lepoan jarri ere egin zizkidan, baina inolako kalterik egin baino lehen, zorionez sabela zabaldu

ahal izan nion. Nire oinetara jausi zen, eta besteak, lagunaren patua ikusirik, ospa egin zuen, baina ez zauri eder bat gabe atzealdean, ihesi zihoala egin niona, bertatik odol-zirriztada zerio-larik. Balentria honen ondoren, astiro-astiro batetik bestera ibili nintzen ohean, galdutako arnasa eta adorea berreskuratzeko. Piztia haiek ardi-txakur handi baten tamainakoak ziren, baina askoz ere bizkor eta basatiagoak, beraz, lotara baino lehen ez banu gerrikoa kendu izan, zati-zati egin eta irentsi egingo ninduketen. Akabatutako arratoiaren isatsa neurtu nuen, eta bi metrorako hogeitazentimetro falta zitzaizkion; edonola ere, nazka handiegia ematen zidan haren gorpua arrastaka ohetik eramateak, hantxe zegoelarik artean odolusten; bizirik zegoela ohartu nintzen, eta lepoan zehar ebaki sakon bat eginez zeharo akabatu nuen.

Laster sartu zen etxeko andrea gelara, eta dena odolduta ikusi ninduenean, korrika etorri eta eskuan hartu ninduen. Akabatutako arratoia erakutsi nion, eta ez nengoela zauritua adierazteko irribarre eta beste keinu batzuk egin; biziki poztu zuen honek, eta neskameari dei egin zion

akabatutako arratoia kurrikaz kendu eta leihotik kanpo bota zezan. Gero, mahai gainean jarri ninduen, han nire sastakaia, dena odoldua, erakutsi niolarik, eta kasakaren barrenean garbitu ondoren, zorrora sartu nuen berriro. Gauza bat baino gehiago egin beharrean nengoen, beste inork ezin zituenak nire ordeztu egin, eta beraz, zoruan utzi nintzan nahi nuela etxeko andreaki adierazten ahalegindu nintzen; berak hori egin ondoren, nire lotsak ezin zuen jasan beste ezer adierazterik aterantz keinu egin eta hainbat aldiz gurkerak egitea baino. Ondo kostata, emakume on hark ulertu zuen azkenean zer nahi nuen, eta berriro bere eskuan hartuta, lorategira irten eta zoruan utzi ninduen han. Ia berrehun metro ibili nintzen alde batera, eta ez begiratzeko edo jarraitzeko adieraziz keinu bidez, bi uztao-hostoren artean ezkutatu nintzen, eta hantxe hustu eta arindu nituen barruak.

Espero dut irakurle atseginak barkatuko dida la xehetasun hauetan eta antzerakoetan luzatzea, zeren eta, hauek huskeriak izan arren buru txatxar eta arruntentzat, filosofoari benetan lagunduko diotelakoan bainago bere irudimen

eta gogoetak aberasten eta bizimodu publiko nahiz pribatuaren onurarako aplikatzen, berau izanik nire helburu bakarra munduan zehar egindako bidaien albiste hauek eta beste batzuk ematean; batez ere, egiaren aztertzaile izan naiz, erudizio eta idazkerazko apainduren ardurarik gabe. Baina bidaia honetako gorabehera guztiek hain zirrara bizia eragin zidatenez barnean, eta sakon daudenez nire oroimenean finkatuak, paperean ezartzean ez dut inolako xehe-tasunik kendu; halere, zorrotz berrikusi ondoren, lehen kopian zeuden garrantzi gutxiko zenbait pasarte ezabatu ditut, aspergarri eta txikikeriatzat jo zitezkeen beldurrez, sarritan egiten baitira honelako salaketak bidaiei buruz, eta ez arrazoirik gabe agian.

2. KAPITULUA

*Nolakoa den nekazariaren alaba.
Herri bateko azokara eramaten dute
autorea, eta gero hiriburura. Bidaia-
ren xehetasunak.*

Bederatzi urteko alaba bat zuen etxeko andreak, oso neska buruargia bere adinerako, oso iaioa jostorrazaz, eta trebea panpina jantzen. Panpinaren sehaska egokitzea bururatu zitzaien amari eta biei, bertan gaua eman nezan; armairuko kaxoi txiki batean utzi zuten sehaska, eta kaxoia, zintzilika zegoen apal batean, arratoi beldurrez. Hura izan nuen neure ohea jende harekin egon nintzen bitartean, nahiz eta poliki-poliki erosoagoa egin zuten, haien hizkuntza ikasi eta neure nahiak adierazi ahala. Hain esku onekoa zenez neskatoa, behin edo birritan arropak beraren aurrean erantzi ondoren, gauza izan zen bera ere ni jantzi eta biluzteko, nahiz eta sekula ez nion lan hori ematen neuri uzten zidanean egiten. Zazpi alkandora egin zizkidan,

eta beste jantzi zuri batzuk, lortu ahal izan zuen ehunik finenaz, baina benetan zakukia baino zarpailagoa zena; eta etengabe garbitzen zizkidan jantzi haiek bere eskuez. Halaber, bera zen nire maistra hizkuntza irakasteko: nik zerbait erakutsi keinuz, eta haren izena esaten zidan bere hizkuntzan; eta hala, egun batzuk barru, bururazten zitzaidan edozer eskatzeko gauza izan nintzen. Oso bihotz onekoa zen, eta ez hamahiru metro baino garaiagoa, txikia baitzen bere adinerako. *Grildrig* izena eman zidan, familiak ere onartu zuelarik, eta gero erresuma osoak. Hitzaren esanahia latindarrek *nanunculus* deitzen dutena da, italiarrek *homunculetino*, eta ingelesek *manikin*. Berari zor diot batez ere, herrialde hartan bizirik iraun izana: han egon nintzen bitartean sekula ez ginen banandu. Nire *glum-dalclitch* edo «inudetxoa» deitzen nion, eta esker txarraren errudun izango nintzateke nireganako izan zuen ardura eta maitasunaren aipamen ohoragarri hau isilduko banu; eta biziki nahiko nuke hark merezi bezala saritu ahal izatea, beraren zoritxarraren bitarteko errugabe

baino tamalgarri izan ordez, honen beldur izateko ere arrazoi sendoak baitituz.

Nire ugazabak animalia bitxi bat aurkitu zuela soroetan hasi ziren jakiten eta esaten auzoan, *splacknuck* bat bezain handia gutxi gorabehera, baina gizakia bezalaxe eratu bere zati guztietan, gizakiaren itxurak egiten omen zituelarik bere ekintza guztietan ere; bere hizkuntza propioren batean mintzatzen zela, haie-netik ere hainbat hitz ikasiak zituelarik; eta tente ibiltzen zela bi hankaren gainean; otzan eta baketsua zela, deitutakoan etorri egiten zela eta agindutako guztia betetzen; munduko gorputz-adarrak finenak zituela, eta aitonen semeren baten hiru urteko alabak baino larruazal leunagoa. Oso hurbil bizi zen beste nekazari bat —nire ugazabaren lagun ona— bisita egitera etorri zen istorio hau egia ote zen jakiteko. Berehalaxe atera ninduten eta mahai gainean jarri; han, ibili egin nintzen agindutakoaren arabera, sastakaia atera, berriro zorroratu, makurtuz agurtu ugazabaren bisitaria, zer moduz zegoen galdetu bere hizkuntzan eta ongi etorria zela esan nion, neure inudetxoak irakatsi bezalaxe, hain zuzen. Gizon

hark, zaharra izanik ikusmena nekatua zuenez, betaurrekoak jarri zituen hobeto ikusteko, eta orduan ezin izan nintzen barre-algaraka hasi gabe egon, haren begiek ilargi betea ematen baitzuten bi leihotako gela barruan distiratsu. Gure jendeak ere, nire alaitasunaren zergatiaz konturatu zelarik, barreari eman zion eta agurea haserretu eta kikilduta geratzeko bezain inozoa izan zen. Oso zikoitza izatearen ospea zuen eta ongi merezia nire zoritxarrerako, ugazabari eman zion aholku madarikatuagatik behintzat, alegia, azoka-egunean eramán nintzala ondoko herrira bitxikeria bezala erakusteko, herria, zaldiz ordu erdira, hogeita bi milia ingurura zegoe-larik gure etxetik. Batzuetan niregana keinu eginenez ugazaba eta laguna luzaroan ari zirela mix-mixka ikustean, maltzurkeriaren bat bazetorrela igarri nuen; eta beldurraren eraginez, haien hitzen batzuk entzun eta ulertu egin nituela ere iruditu zitzaidan. Baina biharamun goizean, Glumdalclitch nire inudetxoak guztiaren berri eman zidan, berak aman atera baitzion trikimailuz. Neskato gaixoak altzoan hartu ninduen, eta negarrari eman zion lotsaz eta nahigabez. Bel-

dur zen jende arrunt eta zakar harengandik ezbeharren bat etorriko ote zitzaidan, estutu eta hil edo gorputz-adarren bat hauts ziezadaketelako eskuetan hartzean. Halaber, ohartua zen bera zein apala nintzen neure izaeran, zein gogoz zaintzen nuen ohorea eta zein iraingarria gertatuko zitzaidan diruarengatik publikoan erakutsia izatea jendailaren aurrean. Grildrig berea izango zela aitak eta amak hitz emana ziotela esan zidan, baina aurreko urtean egin zioten gauza bera egin nahi ziotela ohartzeko ari zen, alegia, arkume bat ematen baliote bezala egin, eta gero, loditu bezain bizkor, harakinari saldu. Neure aldetik, inudea bezain kezkatua ez nengola aitortu behar dut benetan. Itxaropen sendoa nuen, inoiz galdu ez nuena, egunen batean berreskuratuko nuela askatasuna; eta munstroa bezala batetik bestera eramana izatearen lotsagarrikeriari buruz, neure burua zeharo kanpotartzat jotzen nuen herrialde hartan, eta noizbait Ingalaterrara itzultzen banintzen, halako zoritxar bat ezingo zitzaidala sekula aurpegiratu pentsatzen nuen; izan ere, Britainia Handiko Erregeak

berak, nire egoeran, jasan egingo baitzukeen irain hura.

Ugazabak, lagunaren aholkuari jarraituz, hurrengo azoka-egunean kaxa batean eraman ninduen ondoko herrira, eta berekin batera alabatxoa, nire inudea, ere eraman zuen nire atzean bigungarriaren gainean. Kaxa itxita zegoen alde guztietatik, atetxo batekin —sartu eta irten ibiltzeko ni— eta zenbait zulorekin haizea sar zedin. Hain arduratsua izan zen neskatoa, ezen bere panpinaren oheko edredoia ipini baitzidan barruan, etzan ahal izateko. Halere, izugarrizko astindua hartu eta zeharo ondoezturik geratu nintzen bidaiaz, nahiz eta ordu erdikoa bakarrik izan. Zeren eta, zaldiak hamahiru metro egiten baitzituen zangada bakoitzeko, eta hain altu egiten zuenez trostan, ekaitz handi batean ontzia gora eta behera bezalaxe mugitzen zen, baina askoz sarriago; bidea, Londrestik St. Albans-era dagoena baino pixka bat luzexeagoa izan zen. Maiz bisitatu ohi zuen ostatu batean sartu zen ugazaba; eta pixka batean ostalariarekin mintzatu eta beharrezko zenbait prestakuntza egin ondoren, Grultrud edo Pregonaria aloka-

tu zuen herrian zehar aldarrika zezan Arrano Berdearen Ostatuan izaki bitxi bat zegoela ikus-
kizun, ez zela *splacknuck* bat bezain handia (oso
itxura ederreko animalia herrialde hartan, eta bi
metro inguru luze) eta gizakiaren itxurakoa gor-
putz-adar guztietan, zenbait hitz ere egin zitza-
keelarik baita hamaika zirtzileria barregarri ere.

Ostatuko gelarik handienez —ehun metro
karratu inguru izango zen— mahai gainean ipini
ninduten. Nire inudetxo aulki txiki apal batean
zegoen mahai ondoan, ni zaindu eta zer egin
behar nuen esateko. Jendetzarik ez pilatzeko,
aldi berean hogeita hamar pertsonari bakarrik
uzten zien sartzen ugazabak. Mahaian ibili nin-
tzen paseoan neskatoak agindu bezala; galderak
egiten zizkidan, nire hizkuntz ulerkuntzaren
barne zeudela zekien neurrian, eta ahalik eta
ozenkien erantzuten nien haiei. Hainbat aldiz
ikusle goarengana itzuli nintzen, apalki agur-
hitzak esan, ongi etorria egin eta irakatsiak zizki-
daten beste esaldi batzuk bota nizkien. Likorez
betetako titare bat, Glumdalclitchek kopatzat
eman zidana, hartu eta haren osagarriari topa
eginez edan nuen. Sastakaia atera nuen, Ingala-

terran ezpatariak ohi bezala, neure trebetasuna erakutsi nien berarekin. Inudeak lasto-zati bat eman zidan, eta zikiaz bezala ibili nintzen harekin, gaztetan ikasia bainuen arte hori. Hamabi talderen aurrean izan nintzen egun hartan erakutsia, eta hainbeste aldiz behartu nindutenez ergelkeria berberak errepikatzeraz, erdi hila geratu nintzen nekeaz eta unaduraz. Izan ere, ikusi nindutenek hain gauza harrigarriak kontatzen zituztenez, barrura sartzearen atea behera botatzeko prest baitzegoen jendea. Ugazabak, bere buruaren interesaz, ez zuen onartzen inork ni ukitzerik, neure inudeak izan ezik; eta arriskurik egon ez zedin, aulkiak jarri zituzten mahaia-
ren inguruan, guztien irispidetik kanpo geratzeko behar bezain urruti. Halere, zorigaiztoko eskola-ume batek hur bat bota zidan zuzenean burura, eta ozta-ozta ez ninduen jo; bestela, behintzat, hain indartsu zetorrenez, zalantzarik gabe, burmuinak aterako zizkidakeen kanpora, kalabaza txiki bat bezain handia baitzen ia; baina zital hura, ongi jipoitua, gelatik kanporatu egin zutela ikusteko atsegina izan nuen.

Hurrengo azoka-egunean erakutsiko ninduela berriro jakin erazi zion ugazabak jendeari, eta bitartean ibilgailu egokiago bat prestatu zuen niretzat, bai baitzuen horretarako aski arrazoi; zeren eta, lehen bidaiaz eta zortzi orduz jarraian jendea entretenitzeaz hain abaildua nengoenez, nekez egon bainintekeen zutik edo hitzik esan. Gutxienez hiru egun pasatu ziren indarrak berreskuratu arte; eta etxean ere atsedetik izan ez nezan, inguruko ehun miliako zaldun guztiak, nire ospearen berri izanik, ni ikustera etorri ziren ugazabaren etxera bertara. Gutxienez izango ziren hogeita hamar pertsona emazte eta haurrekin (herrialde hura biztanle askokoa baita); eta gela beteari zegokion ordaina eskatzen zuen ugazabak etxean erakusten ninduen bakoitzean, nahiz eta familia bakar baten aurrean izan. Honela bada, nahiz eta ez izan herrira eramana, aldi batez lasaitasun gutxi izan nuen asteko egun guztietan (asteazkenetan izan ezik, haien atsedeen-eguna baita).

Ugazabak, zein onuragarria izan nintekeen oharturik, erresumako hiririk nagusienetara eramatea erabaki zuen. Beraz, bidaiia luze baterako

beharrezko guztiaz hornitu eta etxeko arazoak konpondu ondoren, emazteari egur esan eta 1703ko abuztuaren 17an —iritsia nintzela gutxi gorabehera bi hilabete zirenean—, metropoli-rantz abiatu ginen, Inperioaren erdialdera zego-
elarik kokatua, eta gutxi gorabehera hiru mila miliara gure etxetik. Zaldiz nire atzetik joateko agindu zion ugazabak bere alaba Glumdalclitchi. Honek bere altzoan eraman ninduen gerriari lotutako kaxa batean. Hau, lortu ahal izan zuen oihalik goxoenaz forratu zuen neskatoak alde guztietatik, ongi gosnatu azpitik, bere panpinaren ohea ipini han, aldagarriz eta beharrezko beste zenbait gauzaz hornitu eta ahal zuen bezain ongi antolatu zuen dena. Ez genuen beste konpainiarik etxeko morroi bat baizik, gure atzetik zihoana ekipaiarekin.

Ni bide inguruko herri guztietan erakusteko asmoa zuen ugazabak, errepidetik berrogeita hamar edo ehun miliaraino ere desbideratuz, bere ustez bezeroak aurki zitzakeen edozein herri edo handiki-etxetara joateko. Bidaialdi erosoak egin genituen, ez ehun eta berrogei edo hirurogei milia baino gehiago egunero; zeren

eta, ni zaindu nahian, Glumdalclitch kexatu egiten baitzen zaldiaren trostaz nekatua zegoela esanez. Neure desioz sarritan ateratzen ninduen kaxatik haizea hartzeko eta paisaia erakusteko, baina beti ongi helduta uhalez. Bospasei ibairen gaineratik pasatu ginen, Nilo edo Ganges baino askoz zabalago eta sakonagoak; eta apenas zegoen erreka Thames Londresko zubitik igarotzean bezain txikirik. Hamar aste eman genituen bidaiari, eta hamazortzi hiri handitan erakutsi ninduen, gehi herrixka eta etxe partikular askotan.

Urriaren 26an iritsi ginen metropolira, haien hizkuntzan *Lorbulgrud* edo *Unibertsoaren Harrotasuna* deritzona. Hiriko kale nagusian hartu zuen ostatu ugazabak, ez oso urruti errege-jaurregitik, eta ohi bezala zabaldu zituen kartelak, nire izaera eta trebetasunen azalpen zehatza eginez. Areto handi bat alokatu zuen, ehun eta ehun eta hogeita hamar metroko zabalera. Hogeita metroko diametroa zuen mahaia ere eskuratu zuen, haren gainean egin behar nuelarik neure emanaldia, eta inguru guztian, ertzetik ia metro batera, hesitu egin zuen, beste horrenbes-

teko altueraz, eror ez nendin. Egunean hamar aldiz erakusten ninduen jende guztiaren harridura eta atseginez. Ordurako, aski ongi hitz egiten nuen haien hizkuntza eta oso ongi ulertzen nuen esaten zidaten guztia. Gainera, ikasia nuen haien alfabetoa, eta moldatzen nintzen tartekamarteka esaldi batzuk interpretatzeko; izan ere, Glumdalclitch izan bainuen irakasle etxean egon nintzen bitartean eta bidaian izandako aisialdian. Liburu txiki bat zekarren poltsikoan, ez Sansonen *Atlasa* baino askoz handiagoa; neska gaztetxoek erabili ohi zuten testua zen, haien erlijioaren berri ematen zuena laburki; honetaz baliatuz irakasten zizkidan letrak eta azaltzen hitzak.

3. KAPITULUA

Autorea Gortera eramana. Han Erreginak ugazaba nekazariari erosten dio autorea eta Erregeari erregalatzzen. Maiestatearen jakintsu handiekin izandako eztabaidak. Gortean gela bat prestatzen diote. Oso begiko du Erreginak. Autoreak bere sorteriaren ohorea defendatzen du. Erreginaren ipotxarekin izandako haserreak.

Egunero jasaten nituen etengabeko lanaldiek aste gutxiren buruan aldaketa handia eragin zidaten osasunean; zenbat eta gehiago lortu ugazabak nirekin hainbat eta asegaizago bihurtzen zen. Zeharo galdua nuen jateko gogoia, eta ia hezur eta azal besterik ez nintzen. Honetaz oharturik nekazaria, eta laster hilko nintzela pentsatuz, ahalik eta gehien baliatu nahi izan zuen nitaz. Honela arrazoitzen eta erabakitzen ari zelarik bere artean, *Slardral* edo Zaldun Jauregi-

zain bat iritsi zen Gortetik, berehalaxe hara eramantzen nintzela aginduz ugazabari, Erregina eta haren damak entretentzeko. Azken hauetarikoren batzuek ikusia ninduten jadanik eta gauza harrigarriak kontatu zituzten nire edertasun, jokabide eta zentzu onaz. Erregina eta haren laguntzaileak neurritz gain geratu ziren txundituta nire portaeraz. Belauniko jarri eta haren oin inperialari muin egiteko ohorea erregutu nuen; baina Printzesa dohatsu hark bere hatz txikia luzatu zuen niregana (ni mahai gainean ipini ondoren), eta bi besoen artean estutuz, begirunerik handienaz, haren muturra neure ezpainetara hurbildu nuen. Galdera orokor batzuk egin zizkidan neure sorterri eta bidaiei buruz, ahalik eta garbien eta laburkien erantzun niolarik. Gortean pozik biziko ote nintzen galdetu zidan. Mahaiko ohola ukitzeraino makurtu eta ugazabaren esklabo nintzela erantzun nion apalki, baina neure buruaz erabaki ahal izanez gero, harro emango nuela bizitza Maiestatearen zerbitzuan. Orduan, ea prezio onean saltzeko prest ote zegoen galdetu zion ugazabari. Honek, hilabete ez nuela iraungo sumatuz, eta prest egonik niri

jaregiteko, urrezko mila txanpon eskatu zituen, berehalaxe joan zirelarik bila, pieza bakoitza zortziehun moidororen tamainakoa izanik; baina, herrialde haren eta Europaren artean gauza guztietan zegoen proportzioa eta haien artean urrea zein garesti zegoen kontutan izanda, nekez iristen zen dirutza hura Ingalaterrako ehun ginea beste izatera. Orduan, esan nion Erreginari, Maiestatearen izaki eta menpekorik apalena nintzenez, mesede bat erregutu behar niola, alegia, Glumdalclitch ere, beti hain arretatsu eta maitagarriro zaindu ninduen eta dena hain ongi egingen zekiena, izan zedila haren zerbitzupean onartua, nire inude eta irakasle izaten jarraitzeko. Baiezkoa eman zion Maiestateak nire eskaerari, eta erraz lortu zuen nekazariaren adostasuna, hau biziki poztu zelarik alaba Gortean sartuta ikustean; eta neskato gaixoak berak ere ezin zuen alaitasuna gorde. Ugazaba ohia erretiratu egin zen agur eginez eta zerbitzu onean utzi ninduela esanez; nik ez nion txintik erantzun, pixka bat makurtu besterik ez.

Nire hoztasunaz ohartu zelarik Erregina, zergatiaz galdetu zidan nekazaria gelatik irten

zenean. Ausartu nintzen Maiestateari erantzute-
ra ugazaba ohiari ez niola beste mesederik zor,
bere soroan txiripaz aurkituriko kaltegabeko
izaki koitadu bati burmuinak ez zanpatu izana
baino; mesede hori ederki saritua izan zitzaiola
erresuma erdian zehar ni erakutsiz ateratako ira-
baziez, eta orduantxe ni saltzean eskuratutako
dirutzaz. Ugazabarekin eramán behar izan nuen
bizimodua, hamar aldiz ni baino indartsuagoa
zen animalia bat ere akabatzeko bezain neke-
tsua izan zela; nire osasuna oso erasanda zego-
ela eguneko ordu guztietan jendaila entreteni-
tzeko lan astun etengabeaz, eta ugazabak ez
balit bizia arriskuan ikusi, Maiestateak ez zuke-
la agian halako mahukarik izango nirekin. Baina
hain Enperatriz handi eta onaren, Naturako
Apaingarri, Munduko Maitagarri, Menpekoen
Atsegingarri, Kreazioko Phenix haren babespean
ez nuenez batere kezkarik gaizki hartua izateko,
ugazaba ohiaren beldurra funsgabea izatea
espero nuela esan nion, zeren eta, jadanik hasia
bainintzen adorea berpiztuta sentitzen haren
Presentzia Agurgarriaren eraginez.

Hau izan zen nire hitzaldiaren mamia, ezegokitasun eta zalantza askorekin emana; azken zatia jende haren estilo berezian eratu zegoen oso-osorik, Glumdalclitchengandik ikasi bainuen zenbait esaldi, Gortera nindekarren bitartean.

Erregina, oso bihozbera izan zelarik hitzaldiko akatsen aurrean, harriturik zegoen, halere, halako argitasuna eta zuhurtzia aurkitzean hain animaliatxo txikian. Bere eskuan hartu eta Erregearengana eraman ninduen, bere langelan zegoelarik orduan. Maiestateak —zentzutasun handiko printzea eta itxura zorrotzekoa zelarik— lehen begiratuan nire itxuraz ongi ohartu gabe, splacknuck bat noizdanik zitzaion atsegin galde-tu zion Erreginari hotz eta motz; izan ere, halakotzat hartu ninduen, Erreginaren eskuineko eskuan ahozpez etzanda nengoelarik. Baina Printzesak, argitasun eta umore aparta zituelarik, poliki-poliki zutik utzi ninduen idazmahaiian, eta Erregeari neure buruaren berri emateko agindu zidan, halaxe egin nuelarik hitz gutxitan; eta Glumdalclitcheke, langelako ate ondoan zain egon ondoren eta ni begi aurrean ez ikustea ezin jasanik, bere aitaren etxera iritsi nintzenetik ger-

tatutako guztia berretsi zuen, barrura sartzen utzi ziotenean.

Erregeak, bere erresumako beste inor bezain jakitun eta filosofiaren eta, batez ere, matematikaren ikasketan hezia izan arren, zehatz-mehatz ikusi zuenean nire itxura, eta tente ibiltzen nintzela, hitz egiten hasi aurretik, erloju-piezaren bat, artisau iaioaren batek asmatua, izan nintzekeela pentsatu zuen (oso perfekzio handira baita iritsia herrialde hartan erlojugintza). Baina, nire ahotsa entzutean, eta esaten nuena normal eta zentzuzkoa zela ohartuz, ezin izan zuen bere harridura ezkutatu. Inola ere ez zen konforme geratu bere erresumara nola iritsi nintzen azalduz kontatutakoarekin, baizik eta Glumdalditch eta aitaren arteko azpijokoa zela pentsatu zuen, garestiago saldu ahal izateko irakatsiko zidatelarik zenbait hitz. Irudipen honen arabera beste zenbait galdera egin zidan, eta orduan ere zentzuzko erantzunak jaso zituen, beste akatsik gabe doinu arrotza, hizkuntzaren ezagutza ez-oso eta nekazariaren etxean ikasi eta Gorteko hizkera finerako egokiak ez ziren esaldi arrunt batzuk izan ezik.

Hiru jakitun handiri etortzeko agindu zien Maiestateak, izan ere, asteroko zerbitzualdian baitzeuden (herrialde hartako ohituraren arabera). Zaldun haiek, pixka batean nire itxura zehatz-mehatz aztertu ondoren, iritzi ezberdinak eman zituzten nitaz. Guztiak bat zetozen Natura-ko lege normalen arabera sortua ezin nintzelakoa izan, ez bainengoen neure bizia babesteko prestatua, ez bizkortasunez, ez zuhaitzetara igoz, ezta lurrean zuloak eginez ere. Zehaztasun handiz aztertu ondoren, nire hortzetatik atera zuten, animalia haragijalea nintzen; baina lauhazkako gehienek zeharo menperatzen nindutenez, eta landa-saguak eta antzerakoak ere bizkorregiak izanik niretzat, ez zuten ulertzen nola nintzen bizirik irauteko gauza, ez banintzen behintzat barraskiloz eta beste intsektu batzuek elikatzen, baina hau ezinezkoa izango zitzaidala frogatu zuten erudiziozko argudio askoren bidez. Haietako batek umeki edo hilaurra nintzela pentsatzen bide zuen. Baina iritzi hau ere baztertu egin zuten beste biek, gorputz-adarrak oso-osorik eta ongi eratuak nituela ikusten baitzuten eta, nire bizarrak erakusten zuen bezala, hainbat

urtetako bizia ere banuela, bizar-txorroak argi eta garbi ikusten baitzituzten lupaz. Ipotxa nintzenik ere ez zuten onartzen, nire txikitasuna konparazio guztien gaineretik baitzegoen, zeren eta, Erreginaren ipotxarik kuttunena, erresuma hartan sekula ezaguturiko txikiena, ia bederatzi metro baitzen altu. Eztabaida luzeen ondoren, aho batez erabaki zuten *relplum scalcath* besterik ez nintzela, hitzez hitz esanda, *lusus naturae*, erabaki hau guztiz bat dator Europako filosofia modernoarekin, beronen irakasleek, *ezkutuko kausen* ihesbide zaharra mesprezaturaz —beronekin Aristotelesen jarraitzaileak beren ezjakintasuna disimulatzen saiatzen zirelarik alferrik— zailtasun guztien konponbide liluragarri hau asmatu baitute, giza jakintzaren ezinesanezko aurrerapenaren alde.

Ondorio erabakior honen ostean, hitz batzuk esaten uzteko erregutu nien. Erregeari zuzendu nintzaion, eta bi sexuetako hainbat milioi zituen herrialde batetik nentorrela ziurtatu nion Maies-tateari, guztiak nire garaierakoak zirelarik han; animaliak, zuhaitzak eta etxeak ere denak proportzioan zeudela eta, beraz, neure burua

babesteko eta zer jana aurkitzeko gai nintzela han, Maiestatearen edozein menpekok hemen egin zezakeen bezalaxe; hau erantzun biribila iruditu zitzaidan jakintsu haien argudioetarako. Erdeinuzko irribarrez bakarrik erantzun zioten nireari, nekazariak lezioa oso ongi irakatsi zidala esanez.

Erregeak, askoz adimen handiagoa zuelarik, bidali egin zituen bere jakitunak, eta nekazaria etor zedin agindu, hau, zorionez, artean irten gabea baitzen hiritik. Lehenik, berari egin zion itaunketa bakarrean eta gero haren, neskatoaren eta hiruron arteko kontrastaketa egin ondoren, esan geniona agian egia izango zela pentsatzen hasi zen Maiestatea. Arreta bereziz zaindu nintzatela agintzeko erregutu zion Erreginari eta, bere iritziz, Glumdalclitchek artean ni zaintzeko lanetan jarraitu beharko zukeela, ohartua baitzen elkarri atxikimendu handia geniola. Gela egoki bat prestatu zuten neskatoarentzat Gortean; haurtzain moduko bat izendatu zitzaion bere heziketaz arduratzeko; andereño bat, jantzeko, eta beste bi zerbitzari eginkizun arruntetarako; baina nitaz arduratzea guztiz bere zeregi-

na izango zuen. Nire logela izateko moduko kaxa bat diseinatzeko agindu zion Erreginak bere arotzari, Glumdalclitchek eta biok erabakiko genuen ereduaren arabera. Gizon hura oso artisau trebea zen, eta nire oharrei jarraituz, hiru astetan zurezko gela bat egin zidan, karratua, ia bost metro zabal eta hiru altu, goitik beherako leihoekin, ate bat eta aparteko bi gelaunerekin, Londresko logelak bezalakoak. Sabaitzat zegoen ohola altxatu eta jaitsi egiten zen bi erroren bidez, Erreginaren tapizariak jantzitako ohea sartu ahal izateko barrura; Glumdalclitchek ateratzen zuen egunero aireztatzeko, berak txukundu eta sartu egiten zuen gauean, sabaia itxiz nire gainean. Bere miniatura bitxiengatik ospetsua zen artisau jator bat arduratu zen bi aulki egiteaz, bolia bezalako ekaiz egindako bizkarralde eta egiturekin, baita bi mahai eta barruan gauzak sartzeko armairua ere. Logelak gosnatuta zituen alde guztiak, baita zorua eta sabaia ere, garraiatzen nindutenen axolagabekeriaz istripurik gerta ez zedin, eta zalgurdian joatean astinaldiren baten kolpea leuntzeko. Giltzarra-poa eskatu nuen aterako, sagu eta arratoirik sar

ez zedin; eta zenbait saioaren ondoren, haien artean inoiz ikusitako txikiena egin zuen errementariak, zeren eta, handiagoa ikusia baitut nik Ingalaterrako zaldun baten etxeko atean. Giltza neure poltsikoan gordetzea lortu nuen, beldur nintzelarik Glumdalclitchek galdu egingo ote zuen. Halaber, lot zitezkeen zetarik finenak eskatu zituen Erreginak, nire jantziak egiteko; ez ziren burusi ingeles bat baino askoz lodiagoak, ?baina oso deserosoak beraietara jarri arte. Erre-suma hartako modaren arabera egin zituzten, neurri batean pertsiarak, eta bestean txinatarak balira bezala; benetan oso janzkera serio eta duina zen.

Hain maite zuenez Erreginak nire konpainia, ezin izaten zuen ni gabe otordurik egin. Mahai bat ipini zidaten Erreginak erabiltzen zuenaren gainean, haren ezkerreko ukondoaren ondo-ondoan, eta aulki bat ere bai esertzeko. Zoruan, nire mahai ondoan zegoen aulkitxo batera igo-tzen zen Glumdalclitch, ni lagundu eta zaintzeko. Zilarrezko azpil- eta plater-multzo osoa neukan, eta gainerako tresneria; baina guzti haiek, Erre-ginarenen aldean, ez ziren Londresko jostailu-

denda batean, panpina-etxeko altzarien artean ikusitakoak baino askoz handiagoak. Nire inude-txoak bere poltsikoan gordetzen zituen, zilarrezko kaxatxo batean, eta jatorduetan ematen zizkidan nik eskatu ahala, berak garbitzen zituelarik beti. Beste inork ez zuen Erreginarekin batera jaten, bi Errege-Printzesak izan ezik: zaharrena hamasei urtekoa, eta gazteenak hamahiru urte eta hilabete bat zituen orduan. Erreginak janari pixka bat ipini ohi zuen nire plateretako batean, hari neuk kentzen nizkiolarik zatiak; eta miniaturan ni jaten ikustea zen haren denborapasa. Izan ere, Erreginak (urdail ahula zuelarik benetan) mokadu batean hartzen zuen hamabi nekazari ingelesek jatordu batean jan lezaketen beste, aldi batez niretzat oso ikuskizun nazkagarria izan zelarik. Hegatxabalaren hegoa hezur eta guzti birrintzen zuen hagin artean, nahiz eta hazitako indioilarrarena baino bederatzi aldiz handiagoa izan; eta ahora eramaten zuen ogizatia hamabi penikeko bi ogi bezain handia zen. Urrezko kopatik edaten zuen, eta berrehun eta berrogeita hamar litro inguru zurrutada batean. Haren ganibetak, girtenaren gainean zutik jarri-

tako sega baino bi aldiz luzeagoak ziren. Goilarak, sardexkak eta beste tresna batzuk ere proportzio berekoak ziren denak. Gogoratzen dut, jakin-mina nuela eta Glumdalclitchek Gorteko jatordu batzuk ikustera eraman ninduelarik, ganibet eta sardeska erraldoi haietako hamar-hamabi aldi berean altxatu zituztenean, hain ikuskizun beldurgarririk ordura arte sekula ez nuela ikusi pentsatu nuela.

Ohitura da asteazkenero (lehen esan dudan bezala, haien atsedeen-eguna), Erregeak eta Erreginak, beren seme-alabekin, Erregearen gelan bazkaltzea elkarrekin, berarentzat oso kuttuna izatera iritsia nintzelarik ordurako; eta okasio haietan nire aulki eta mahaitxoa haren ezkerreko eskuaren ondoan jartzen zituzten gatzontzietariko baten aurrean. Printze hark atsegin zuen nirekin hizketan egotea, Europako ohitura, erlijio, lege, gobernu eta kulturaz galderak eginez, nik ahal nuen bezain ongi erantzuten niolarik. Haren adimena hain argia zenez eta zentzumena hain zorrotza, oso gogoeta eta oharpen zuhurak egiten zituen nik esandako guztiaz. Baina aitortu beharra dut, neure sorterri

maiteaz, gure merkataritzaz, itsas eta lehorreko gerrateez, erlijio-zismez eta Estatuko alderdiez gehiegitxo hitz egin ondoren, haren heziketako aurreiritziak hainbestearino nagusitu zirenez, ezin izan zuela ebitatu bere eskuin eskuan hartu, eta besteaz samur laztanduz, barre-algara bizi baten ondoren, ea Whig ala Tory nintzen galde-tzea. Gero, Lehen Ministroarengana bihurtuz, bere atzean zeukalarik zain makulu zuriarekin — *Royal Sovereign*-aren masta nagusia bezain luzea ia— giza handitasuna zein mesprezagarria den aipatu zuen, ni bezalako intsektu nanoek imita baitzezaketen. «Eta halere», esan zuen, «apustu egingo nuke, izaki hauek ere badituzte-la beren ohorezko tituluak eta goraipamenak; habia eta gordeleku txikiak zertzen dituzte, etxe eta hiri deritzenak; itxura dotorez ibiltzen dira jantzi eta apaingarriekin; maitatu, borroka egin, eztabaidatu, engainatu eta traizio egiten dute». Eta horrela jarraitu zuen aurrera, niri kolorea behin eta berriz aldatzen zitzaidalarik, gure herri noblea, Arte eta Armatan Maistra, Frantziaren Zigorra, Europako Arbitroa, Bertute, Erruki, Ohore eta Egiaren Egoitza, Munduaren Harrota-

sun eta Inbidia halako mesprezuz tratatzen zuela suminduta entzutean.

Baina ni ez nengoenez inolako irainengatik sumintzeko egoeran, pixka bat hausnartu ondoren, dudatan jartzen hasi nintzen ea iraindua nintzen ala ez. Zeren eta, zenbait hilabetez jende hura ikusi eta harekin hitz egitera ohitu ondoren, eta begiztatzen nuen edozein gauzak proportziozko neurriak zituela ohartuz, haien tamainak eta itxurak lehenengotan eman zidaten izua zeharo desagertua baitzen jadanik, jaun-andere ingelesen segizio bat ikusi izan banu orduan urtebetetzetako jantzi dotoreekin —buru-harro bakoitza bere papera gizalegetsu errepresentatzen, agurtzeko makurtu eta txor-txor mintzatzen—, egia esateko, Erregeak eta haren handikiek nire kontu egiten zuten beste barre egiteko gogo bizia sentituko nukeen. Eta benetan, Erreginak bere eskuan hartu eta ispilu aurrean jartzen ninduenean, ezin nintzen neure buruaz ere irribarre egin gabe egon, hala bion irudiak azaltzen zirelarik nire aurrean oso-osorik batera; eta ez zegoen ezer konparaketa hura baino barregarriagorik; beraz, benetan hasi nin-

tzen pentsatzen neure ohiko tamainarekiko dezente murriztua nengoela.

Beste ezerk ez ninduen Erreginaren ipotxak baino gehiago amorrarazten eta mintzen; inoiz herrialde hartan izandako txikiena zelarik altueraz (benetan ez baitut uste bederatzi metro izango zenik altu), bera baino askoz izaki txikiagoa ikustean hain lotsagabe bihurtu zenez, beti ibiltzen zen harropuztuta bezala eta handiarena egiten nire ondotik Erreginaren gelaurrean pasatzen zenean, ni neu mahairen baten gainean Gorteko jaun eta andereekin hizketan izaten nintzelarik, eta gutxitan geratzen zen nire txikitasunaz eztenkada pare bat bota gabe; mendekatze-ko era bakarra berari *anaia* deitzea izaten zen, borrokarako erronka eginez eta *gorte-mutilen* artean ohikoak diren bezalako ateraldiekin. Egun batean jatorduan potxo maltzur hura hain ozpinduta jarri zenez nik esandako zerbaitez, eta ezer txarrik espero gabe eserita nengoela, hark, Erreginaren aulkian gora igo eta, gerritik altxatuz, kremaz betetako zilarrezko katilu batera jausten utzi ninduen, gero hanka egin zuelarik ahalik eta bizkorren. Kokoteraino murgilduta geratu nin-

tzen, eta ez banintz igerilari ona izan, gorriak ikusiko nituzkeen; zeren eta, une hartan Glum-dalclitch gelaren beste muturrean suertatu baitzen eta Erreginak, hain izututa jarri zenez, ez zuen adorerik izan laguntzeko. Baina inudetxoak, korrika etorri eta atera egin ninduen, ordurako kremaren laurdena baino gehiago irentsia nuelarik. Ohera sartu ninduten; baina ez nuen beste kalterik izan jantzirik gabe geratzea baizik, guztiz hondatuta baitzeuden. Ederki berotu zuten ipotxa, eta zigor gehigarri modura, neu sartu nindueneko katiluko krema edatera behartu zuten; eta ez zioten geroztik aurretiko begikotasunik izan, zeren eta, pixka bat geroago, Erreginak goi-mailako andere bati eman baitzion; beraz, ez nuen gehiago ikusi, eta ikaragarri poztu nintzen, ezin bainuen jakin zertaraino eraman zezakeen gorrotoak zital maltzur hura.

Aurrez egina zidan azpikeria zikin bat, Erreginari barre eragin ziona, baita aldi berean biziki haserrarazi ere, eta berehalaxe bidaliko zukeen, neu bihotz-zabalki ez banintz bitartekari izan. Barruan muina zeukan hezur bat hartu zuen Erreginak bere platerera eta, muina ateratzeko

kolpeak eman ondoren, berriro tente utzi zuen azpilean, lehen zegoen bezala; Glumdalclitch arasara joan zen bitartean, aukera ona zuela ikusiz ipotxak, jatorduetan niri laguntzeko neskatokak oinpean erabiltzen zuen aulkitxora igo, bi eskuekin hartu eta zangoak elkarren kontra estutuz, hezurraren zuloan sartu ninduen gerri-raino baino gorago, hantxe geratu nintzelarik pixka batean, oso egoera barregarrian. Uste dut ia minutu bat pasatuko zela zer gertatu zitzaidan inor konturatzeko, neure burua beheratzea iruditzen baitzitzaidan garrasika hastea. Baina printzeek gutxitan hartzen dituztenez beren jakiak oso bero, ez zitzaizkidan zangoak erre, galtzerdiak eta prakak bakarrik geratu ziren egoera penagarrian. Nik haren alde egin nuelako ez zuen epotxak beste zigorrik izan jipoi eder bat baino.

Erreginak sarritan jotzen zidan adarra hain beldurtia nintzelako, eta nire sorterriko jende guztia al zen ni bezain koldarra galdetu ohi zidan. Hona hemen zergatik. Erresuma euliz jositako egoten da udaldian, eta intsektu higuingarri haiek —Dunstableko hegatsabal bat bezain han-

dia bakoitza— nekez uzten ninduten lasai jator-
duetarako mahairatzen nintzenean, belarri ingu-
ruan burrunbadan eta durundan ibiltzen zirela-
rik. Batzuetan jakietan pausatzen ziren eta
atzean uzten beren ongari nazkagarria edo
lapartza, nik argi ikusten nuen gauza, baina ez
herrialde hartakoek, haien begi handiak ez bai-
tziren nireak bezain zorrotzak gauza txikiak ikus-
teko. Batzuetan nire sudurrean edo bekokian
kokatzen ziren, hezur-muineraino zizta egin eta
hats gogaikarria botaz; eta erraz jarraitzen nuen
beraien substantzia itsaskorraren arrastoa, gure
naturalistek diotenez, horri esker ibiltzen direla-
rik izaki hauek sabaian hankaz gora. Banuen
zereginik asko animalia nardagarri haiengandik
neure burua babesten, eta ezin izu-ikara gorde
aurpegira etortzen zitzaizkidanean. Intsektu
haisetako batzuk eskuan harrapatu, gure artean
eskola-umeek egiten duten bezala, eta bat-
batean nire sudurpean jaregiteko ohitura zuen
ipotxak, ni izutzeko eta Erregina entretenitzeko
helburuaz. Hegan zebiltzanean, ganibetaz zati-
zati egitea izaten zen nire babespidea, oso mire-
tsia zelarik nire trebetasuna horretan.

Goiz batez, eguraldi oneko egunetan egin ohi zuten bezala, Glumdalclitchek neure kaxan sartuta haizea hartzeko leihoan ipini ninduela gogoratzten dut, (ez bainintzen ausartu leihotik kanpora iltzetik zintzilika utz zezaten kaxa, kaiolekin Ingalaterran egin ohi dugun bezala); eta kaxaren leihoetariko bat gora jaso ondoren, mahaian eserita pastel gozo puska bat jatera nindoalarik gosaltzeko, usainak erakarrita, hogeitaz baina gehiago sartu ziren gelara hegan, beste horrenbeste gaitaren baxuek baina burrunbada ozenagoz. Haietako batzuek pastela hartu eta zatitxoka eraman zuten, beste batzuk hegaldaka ibili ziren nire aurpegi eta buruaren inguruan, durdituta utzirik zarataz eta zeharo ikaratuta beren eztenaz. Halere, izan nuen adorea zutitu, sasta-kaia atera eta airean erasotzeko. Haietako lau garbitu nituen, baina gainerakoek ospa egin zuten, eta berehala itxi nuen leihoa. Intsektu haiek galeperrak bezain handiak ziren; eztenak atera nituenean, ia lau zentimetro zirela luze ohartu nintzen, eta orratzak bezain zorrotzak. Gorde egin nituen kontu handiz eta beste bitxikeria batzuekin batera Europako hainbat aldetan

aurkeztu ondoren, Ingalaterrara itzultzean, haie-
tako hiru Gresham Kolegioari eman nizkion, eta
neuretzat gorde laugarrena.

4. KAPITULUA

Nolakoa den herrialde hura. Mapa modernoak zuzentzeko proposamena. Erregearen jauregia, eta metropoliari buruzko zenbait berri. Auto-rearen bidaiatzeko era. Tenplu nagusiaren deskribapena.

Herrialde haren deskribapen labur bat egin nahi diot orain irakurleari, beti ere nik bidaiatu nuen neurrian, eta ez zen bi mila milia baino urrutirago izan Lorbrulgrud metropoliaren inguruan. Zeren eta, Erregina —eta harekin joaten nintzen ni beti— ez baitzen inoiz harantzago pasatzen Erregeari bere ibilaldietan laguntzen zionean, eta hantxe geratzen zen zain Erregeak mugak ikuskatu eta itzuli arte. Errege honen aginterri guztiaren hedapena sei mila miliakoa izango zen luzeran eta hirutik bost milarainokoa zabaleran. Eta beraz, Japoniaren eta Kaliforniaren artean itsasoa baizik ez dagoela suposatzean, Europako gure geografoak oso oker dau-

dela ondorioztatu behar dut derrigorrez; zeren eta, nire iritzia beti izan baita lur-orekatzailereren bat egon behar duela Tartariako kontinente handiaren kontrapisu bezala; eta beraz, mapa arrunt eta itsasokoak ere zuzendu egin beharko lituzkete eta lurralde zabal hori Amerikako ipar-mendebaldeari elkartu, prest egongo naizelarik honetan laguntzeko.

Penintsula bat da erresuma hura, ipar-ekialdeko mugan hogeita hamar miliako altuera duen mendikatea dagoelarik, inola ere gainditu ezin litekeena gailurretan dituen sumendiengatik. Eta jakintsuenek ere ez dakite nolako jendea bizi den mendiez bestaldean, ezta biztanlerik dagoen ere. Beste hiru aldeetan ozeanoa du muga. Ez dago itsasportu bakar bat ere erresuma osoan, eta ibaiak itsasoratzen diren tokiak harkaitz zorrotzez bete-beteak daudenez, eta itsasoa gehienetan oso zakarra izanik, ez da inor arriskatzten ontzirik txikienaz ere, eta beraz, jende harentzat zeharo eragotzia dago edonolako merkataritza munduaren gainerakoaz. Baina ibai handiak ontziz beteak daude, eta arrain paregabea dute ugari, gutxitan hartzen dutelarik ezer

itsasotik, zeren eta, itsasoko arraina Europakoaren tamaina berekoa baita, eta ez du, beraz, harrapatzerik merezi; honek garbi erakusten du, hain tamaina aparteko landare eta animalien produkzioa Naturak kontinente hartara mugatu duela guztiz, honetarako arrazoiak aurkitzea filosofoentzat uzten dudalarik. Halere, noizean behin hartzen dute harkaitzen kontra jo duen balearen bat, jende xeheak oso gogotik jaten duelarik. Nik ikusitako baleak hain handiak zirenez, gizonak bizkarrean nekez eraman zezakeen haietako bat; eta batzuetan bitxikeria bezala Lorbrulgrudera eramaten dituzte saskietan. Haietako bat —ezohikotzat zeukaten— platerean ikusi nuen Erregearen mahaian, baina ez zitzaidan iruditu oso gogoko zuenik; egia esateko, haren handitasuna ez zuela atsegin uste dut, nahiz eta Groenlandian ikusia dudan bat handixeagoa.

Ongi populatua dago herrialdea, berrogeita hamaika hiri, ia ehun herri harresitu eta herrixka-kopuru handia baititu. Irakurlearen jakingura asetzeko, aski izango da Lorbrulgrud nolakoa den esatea. Hiri honek bi alde ia berdintsu ditu,

erditik ibaiak zeharkatzen duelarik. Laurogei mila etxe baino gehiago ditu. Luzeran hiru *glon-glung* ditu (ia berrogeita hamalau milia ingeles) eta bi t'erdi zabaleran, neuk neurtu ahal izan nuen Erregearen aginduz egindako maparen gainean, espresuki neuretzat zabaldu zutelarik zoruan; hogeita hamar metro baino gehiago zituen: diametroak eta perimetroak zeuzkaten pausuak zenbatu nituen zenbait aldiz oinutsik, eta kalkuluak eginez eskalari buruz, nahikoa zehatz neurtu nuen.

Erregearen jauregia ez da besteak bezalako eraikuntza, baizik eta eraikin-pilo bat ia zazpi milia dituen biran: gela nagusiek eskuarki laurogei metro dituzte altueran, eta proportzioan zabalera eta luzeran. Zalgurdi bat izendatu zitzaigun Glumdalclitchi eta bioi, bertan sarri eramaten zuelarik haurtzainak hiria ikustera edo denda artean ibiltzera; eta ni ere beti joaten nintzen haiekin, neure kaxan eramana, nahiz eta neskatoak, nire gogoz, sarritan ateratzen ninduen eta bere eskuan ipintzen, etxeak eta jendea hobeki ikusi ahal izateko kaleetan zehar pasatzen ginenean. Gure zalgurdia, ia karratua,

Westminster Hall bezain zabala izango zela kalkulatu nuen, baina ez hain altua oro har; edonola ere, ezin dut oso zehatz esan. Egun batean, zenbait dendatan geratzeko agindu zion haurtzainak gurtzainari, eta han, aukera ona zutela ikusiz, zalgurdiaren inguruan pilatu ziren eskaileak, inoiz europar begiek ikusi duten ikuskizunik ikaragarriena eman zidatelarik. Bazen emakume bat bularrean minbizia —beldurgarriro hazia eta zuloz betea— zuena, haietako bizpahirutan erraz sartu ahal izango nintzelarik, gorputza zeharo ezkutatu arte. Bazen beste bat kistearekin lepoan, artilezko bost sorta baino handiagoa zuelarik, eta beste bat zurezko bi zangoekin, bakoitza zazpiren bat metrokoa. Baina ikusteko gauzarik nazkagarriena jantzietan zebilzkien zorriak ziren. Begi hutsez argi eta garbi ikusten nituen piztitxo haien gorputz-adarrak, Europako zorri batenak mikroskopioz baino askoz hobeto, baita haien muturrak ere, haiekin txerriak bezala ibiltzen zirelarik uxarrean. Ordura arte ikusten nituen lehenengoak ziren, eta izan beharko nukeen haietako bat disekatzeko adina jakin-min, tresna egokiak izan banitu (zoritxarrez itsasontzian

utziak nituenak), nahiz eta, egia esateko, hain nazkagarria zenez ikuskizuna, guztiz iraultzen zidan urdaila.

Kaxa handiaz gain, non eramaten baininduten eskuarki, beste txikiago bat egin ziezadatela agindu zuen Erreginak, karratua, lau metro zabal eta hiru altu, bidaietarako egokiagoa izango zena, zeren eta, agian bestea handiegia baitzen Glumdalclitche altzorako, eta deserosoa zalgurdi barruan eramateko; lehengo artisau berak egin zuen, neuk zuzendu nuelarik ekintza osoan. Bidaiatzeko gelatxoak karratu-karratua zen, leiho batekin alboetako hiru alderen erdian, eta leiho bakoitzak burdin hesia zuen kanpotik, bidaiak luzeetan istripurik gerta ez zedin. Laugarren aldean, leihorik ez zeukan hartan, bi urkila sendo finkatu zituzten eta, zaldiz ibiltzeko gogoan nuen, ninderaman pertsonak haietan zehar larruzko uhal bat pasatu eta bere gerriari lotzen zion. Eginkizun hau, Glumdalclitche ondoezik egotea suertatzen bazen, nire konfiantza zuen morroi serio eta fidagarriren bati egokitzen zitzaion beti, nahiz Errege-Erreginekin joateko izan haien bidaialdi ofizialetan, nahiz lorategiak

ikusteko, nahiz Andere ospetsu edo Gobernuko Ministroren bat Gortean bisitatzeko izan; zeren eta, laster hasi bainintzen funtzionario nagusien artean ezagutua eta estimatua izaten, neure merituengatik baino Maiestateen ederrarengatik gehiago, uste dut. Bidaietan, gurdiaz nekatzen nintzenean, zaldiz zihoan morroiren batek nire kaxa gerriari lotu eta bere aurrean ipintzen zuen kuxin gainean; eta hala, landazabalaren ikuspegi osoa izaten nuen hiru aldetara neure hiru leihoetatik. Gelatxo hartan banituen kanpaohea eta sabaitik zintzilika hamaka bat, eta bi aulki eta mahaia, trebeki zoruari torlojutuak, zaldiaren edo zalgurdiaren astinaldiek bota ez zitzaten. Eta itsasoz ibiltzera ohitua egonik luzaroan, mugimendu haiek, batzuetan oso zakarrak izan arren, ez ninduten gehiegi asaldatzen.

Hiria ikustea bururatzen zitzaidanean, neure bidaiatzeko gelatxoan egiten nuen beti, Glum-dalclitchek altzoan eramaten zuelarik esku-aulki ireki batean, herrialde hartako ohituraren arabera, lau gizonak garraiatua eta Erreginaren morroi-jantziak zituzten beste bik lagunduta. Jendeak, sarri entzuna zuelarik nitaz hitz egiten,

jakin-min handia zuen eta esku-aulkiaren ingurura biltzen zen, neskatoa behar hainbat adeitsua zelarik eramaileak gerarazi eta bere eskuan hartzeko hobeto ikus nintzaten.

Irrika bizia nuen ten plu nagusia ikusteko eta, batez ere, haren dorrea, erresumako handientzat jotzen baita. Honela bada, egun batean haraxe eraman ninduen neure inudeak, baina benetan etsita itzuli nintzela esan dezaket, haren altuera ez baita bederatziehun metrora iristen, zorutik xapitel garaienaren gaineraino hartuta ere; eta hau, kontutan izanik jende haren eta gu europarron arteko tamaina-ezberdintasuna, ez da oso gauza miresgarria, eta proportzioan ez da iristen (zuzen gogoratzen badut) Salisburyko kanpandorrearen altuerara. Baina bizi naizen artean nire esker on beroa izango duen nazioari meriturik ez kentzearren, onartu beharra dut dorre ospetsu hark altueran falta duena erraz konpentsatzen duela edertasun eta sendotasunaz. Zeren eta, hormak ia hogeita hamar metro baitira lodi, harri landuz eginak, hauetako bakoitza hamahiru metro inguru zabal, eta aldeguztietan jainko eta enperadoreen esta-

tuaz hornituak daude, marmolean zizelkatuak, berezko tamainan baino handiagoak, eta beren nitxoetan ezarriak. Estatua haietako batetik behera erori eta oharkabean hondakin artean zegoen txirkanda bat neurtu nuen, eta zehazki metro bat eta hogeita lau zentimetro zela ohartu nintzen. Glumdalclitchek sudur-zapian bildu zuen, eta poltsikoan etxera ekarri beste huskerien artean gordetzeko, horrelakoen zaletasun handia baitzuen, haren adineko haurren artean ohikoa den bezala.

Erregearen sukaldea eraikin bikaina da beneran, gangaduna gainean, eta berrehun metro ingurukoa altueraz. Labe handiari hamar oinarte bakarrik falta zaizkio San Pabloko kupula bezain handia izateko, berariaz neurtu nuelarik itzuli nintzenean. Baina sukaldeko parrilla, eltze eta lapiko erraldoiak, okela-zatiak burruntzietan biraka eta beste hainbat xehetasun azalduko banitu, agian nekez sinetsiko lidakete; edo behintzat, ahobero samarra naizela pentsatzeko joera izango luke kritiko zorrotzak, sarri izaten baita bidaiariak horrela jokatzeko dutelako susmoa. Salaketa horri ihes egitearren, beldur naiz

gehiagi joan ote naizen beste muturrera; eta liburu hau Brobdingnageko (hauxe da erresumaren ohiko izena) hizkuntzara itzulia izatea eta hara eramatea gertatuko balitz, Erregeak eta jendeak izango lukete kexatzeko arrazoirik gauzak faltsutuz eta txikietsiz irain egin diedala esanez.

Maiestateak gutxitan izaten ditu seiehun zaldi baino gehiago bere tegietan; hauek eskuarki hamazortzi eta hogeituro metro arteko altuera dute. Baina kanpora irteten denean egun ospetsuetan, bostehun zaldiko milizi guardiak laguntzen dio segizioan, benetan hura iruditu zitzaidalarik inoiz ikus litekeen ikuskizunik zoragarriena, behintzat haren armadaren zati bat gudurako eratuta ikusi nuen arte, baina honetaz hitz egiteko aurkituko dut beste egokierarik.

5. KAPITULUA

*Autoreari gertatu zitzaizkion zenbait
abentura. Gaizkile baten exekuzioa.
Autoreak bere trebetasuna erakus-
ten du itsasketan.*

Nire bizitza herrialde hartan aski zoriontsua izango zatekeen, neure txikitasunaren ondorioz ez banitu istripu barregarri eta gogaikarriak jasan; hauetako batzuk kontatuko ditut. Glum-dalclitchek sarritan eramaten ninduen Gorteko lorategietara neure kaxa txikian, eta batzuetan handik atera eta bere eskuan edukitzen ninduen, edo zoruan uzten ibil nendin. Ipotxak Erreginarenetik alde egin baino lehen, egun batean lorategietara jarraitu zigula gogoratzen dut eta, inude-txoak ni zoruan utzi ondoren, ipotxa eta biok elkarrekin geundelarik sagarrondo nano batzuen alboan, neure buru-argitasuna agertzeko ateraldi inozo bat egin behar izan nuen zuhaitzei eta berari buruzkoa, gertatu zelarik haien hizkuntzan ere bazuela zentzurik gurean bezalaxe.

Orduan, zital maltzur hark, aukera ederra ikusiz, haietako baten azpitik nindoanean, astindu egin zuen nire buru gainera, eta hala hamabiko bat sagar, Bristoleko upel bat bezain handia bakoitza, jausi zitzaidan belarri ondora; haietako batek bizkarrean jo ninduen makurtu nintzen batean eta muturrez aurrera bota lurrera, baina ez nuen beste minik hartu, eta ipotxari barkatu egin zioten nire erreguz, neuk zirikatu bainuen.

Beste egun batean, Glumdalclitchek soropil biguneko sail batean utzi ninduen diberti nendin, bera paseoan urrutiratzen zen bitartean haurtzainarekin. Bitartean, hain txingor-jasa beldurgarria etorri zenez bat-batean, haren indarrak berehala bota ninduen behera eta, zoruan nengoela, teniseko pelotaz jo banindute bezalakoxe zartada ankerrak eman zizkidaten harri haiek gorputz osoan; halere, lortu nuen nolabait lauoinka ibiliz limoi-ezkai sail baten haizabeen ahozpez etzanda neure burua babestea, baina burutik oinetaraino hain mailatuta geratu nintzenez, ezin izan nintzen hamar egunez kanpora irten. Eta ez dago honetan ezer harrigarririk, zeren eta, herrialde hartan Naturak proportzio

bera duenez bere agerpen guztietan, txingor-harri bat ia mila eta zortziehun aldiz handiagoa da Europako bat baino, eta hau esperientziaz baieza dezaket, pisatu eta neurtu egin baini-tuen jakin-mina nuelako.

Baina istripu arriskutsuago bat lorategi berean gertatu zitzaidan, nire inudetxea, leku seguruan ipini ninduelakoan —eta sarri erregu-tzen nion hori, neure gogoetekin gozatu ahal iza-teko— eta nire kaxa etxean utzia zuelarik hura garraiatzen ez ibiltzeko, lorategietako beste alde batera joan zenean bere haurtzainarekin eta ezagunak zituen andere batzuekin. Urruti eta nire ahotsik ezin entzuteko moduan zegoela, ur-txakur zuri txiki bat, lorazain-buruetako batena zena, halabeharrez lorategira sartu eta ni nengo-eneko ingurutik ibiltzea egokitu zen. Txakurra, usainari jarraituz, niregana etorri zen zuzenean eta ahoan harturik, bere ugazabarengana itzuli zen korrika isatsari eraginez, eta zoruan utzi nin-duen poliki-poliki. Zorionez, hain ongi hezia zenez, inolako minik egin gabe edo jantzirik ere urratu gabe eraman ninduen bere hortz artean. Baina lorazain gaixoa, ongi ezagutzen eta oso

begiko ninduelarik, zeharo izututa zegoen. Goxo hartu bere eskuen artean eta zer moduz nengo- en galdetu zidan; baina guztiz txundituta eta arnasarik gabe nengoenez, ezin izan nion txintik esan. Minutu batzuen buruan onera itzuli nintzen, eta oso eta sendo inudetxoagana eramanez ninduen; hau, ordurako itzulia zelarik utzi nindueneko lekura, izugarri atsekabetua zegoen ez nintzelako agertzen eta berak deitzean ez nuelako erantzuten; txakurra zela eta, zorrotz egin zion agiraka lorazainari. Baina arazoa isilean gorde zen eta Gortean ez zuten inoiz haren berri izan; zeren eta, Erreginarenean haserrearen beldur baitzen neskatoa eta, neuri zegokidanez ere, ez nuen uste neure osperako izan zitekeenik pasadizo hura zabaltzea.

Gertakari honen ondorioz, aurrerantzean kanpora irtetean bere ikuspegitik at ez uzteko erabaki sendoa hartu zuen Glumdalclitchek. Erabaki honen beldurrez egona nintzen ni luzaroan eta, beraz, halakoetan —neure kasa utzitako aldietan— gertaturiko ezbehar txikiren batzuk ezkutatu ere egin nizkion. Behin batean, lorategi gainean hegaldaka zebilen miru bat niregana

oldartu zen, eta ez ausarki sastakaia atera eta landare-sare sendo baten azpira korrika joan ez banintz, ziur nago eraman egingo nindukeela bere atzaparretan. Beste behin, egin berria zen sator-meta baten gainera nindoalarik, leporaino sartu nintzen animalia hark lurra ateratzeko erabilitako zuloan, eta gogoratzea merezi ez duen gezurren bat asmatu behar izan nuen, jantziak hondatzearen aitzakia bezala. Eskuineko hankezurra ere hautsi nuen barraskiloaren oskolaren kontra, harekin tupust egin bainuen ustekabean, Ingalaterra gaixoa buruan nuela bakar-bakarrik nenbilen batean.

Ezin dut esan poztu ala mindu egiten ninduen ibilaldi bakarti hauetan txoririk txikienek ere ez zutela nitaz batere izututa ematen ikusteak, baik eta inguruan metro betera saltoka ibiltzen zitzaizkidala, har eta beste jaki batzuen bila, hurbilean inortxo ere ez balute bezalakoxe axolaga-bezia eta konfiantzaz. Glumdalclithek gosaltzeko eman berri zidan pastel-zatia birigarro batek mokoaz eskutik kentzeko ausartzia izan zuela gogoratzen dut. Txori haietakoren bat harrapatzen saiatzen nintzenean, neure aurka itzuli ohi

ziren lotsagabe, atzamarretan mokoka egiten ahaleginduz, nahiz eta ez nintzen haien irispidera jartzen ausartzen; eta gero, kez Kagabe berriro itzultzen ziren saltoka lehengora, har eta barraskiloak harrapatzera. Baina egun batean borra sendo bat hartu eta indar guztiz jaurtiki nion txoka bati, eta hain zorte onez ezen jo eta bota egin bainuen, eta lepotik bi eskuez helduta, korrika inudeagana joan nintzen garaile. Halere, zorabiatu bakarrak zegoenez, suspertu egin zen txoria eta bere hegoez hainbeste zipli-zapla eman zidan buruaren eta gorputzaren bi aldeetan —nahiz eta eskuez urruti eutsi nik eta haren atzaparren irispidean ez egon— ezen hogeit hamar aldiz pentsatu bainuen jaregitea. Baina laster izan nuen morroietariko baten laguntza, txoriari lepoa bihurritu ziolarik, eta biharamunean bazkaltzeko prestatu zidaten Erreginarekin aginduz. Txoka hura, gogoratzen dudanez, beltxarga ingeles bat baino pixka bat handixeagoa izango zen.

Ohorezko damek sarri gonbidatzen zuten Glumdalclitch beren geletara, eta ni ere eramateko eskatzen zioten, ikusteko eta ukitzeko atse-

gina izan zezaten. Askotan biluzten ninduten goitik beheraino, eta luze-luze eratzaten ninduten beren bular artean; ez nuen batere atsegin; zeren eta, egia esateko, oso hats nazkagarria botatzen baitzuen haien azalak; eta ez dut hau aipatzen andere paregabe haiek gutxiesteko asmoz, beraiekiko begirune osoa baitut; baina nire sentiberatasuna, txikitasunarekin proportzioan, zorrotzagoa zelakoan nago eta ez dut uste pertsona argitsu haiek beren maitaleentzako, edo elkarren artean, desatseginagoak zirenik, gure artean Ingalaterran maila bereko jendea den baino. Eta azken batean, haien berezko usaina askoz jasangarriagoa zela ohartu nintzen lurrinak erabiltzen zituztenean baino, hauekin berehalaxe zorabiatzen bainintzen. Ezin dut ahaztu Liliputen adiskide min batek, egun hero batean eta nik ariketa asko egin ondoren, neure inguruko usain biziak kexatzeko ausartzia izan zuela, nahiz eta horretan neure sexuko gehienak bezain akasgabea naizela uste izan nik; baina liliputiarren usaimena nirekiko, nirea beste hauekiko bezain fina izango zela pentsatzen dut. Arazo honetaz, nahitaez justizia egin beharrean

nago neure andere Erreginari eta Glumdalclitch inudeari, hauen gorputzak Ingalaterrako edozein andererenak bezain usaingozokoak baitziren.

Ohorezko dama hauei dagokienez, inudeak bisita egitera eramaten ninduenean, inolako zeremoniarik gabe, garrantzirik gabeko izaki bat bezala erabiltzen nindutela ikustea izaten zen gehien asaldatzen ninduena. Zeren eta, larrugorritan geratu arte biluzten baitziren eta neure aurrean janzten azpiko gona, ni apain-mahaian ipintzen nindutelarik beren gorputz biluzien aurre-aurrean; ikuskizun hark, ziur nago, ez zidan niri inolako tentaldirik sortzen, ezta izua eta nazka ezik beste sentipenik ere. Hurbiletik ikusi nuenean, oso latz eta malkartsua iruditu zitzaidan haien larruazala, eta kolore ezberdinetakoa, platerak bezain zabalak ziren orainenekin han-hemenka, eta lista-haria baino ile sendoagoekin haietatik zintzilika; eta hau, ezer gehiago ez esatearren beraien gainerakoaz. Eta ni aurrean nengoen bitartean, ez zuten batere erreparorik izaten edandakoa husteko, ia bostehun litro inguru bai, hiru milaren bat hartzen zituen ontzi batera. Ohorezko dama haien arteko ederrenak,

hamasei urteko neska jostalari atsegin batek, batzuetan zangalatraba ipintzen ninduen bere ditiburuetako baten gainean, baita beste bihurrikeria asko egin ere, baina barkatuko dit irakurleak xehetasun gehiagorik ez ematea. Edonola ere, hain atsekabetua nengoenez, andereño hura gehiago ez ikustearren aitzakiaren bat asmatzeko erregutu nion Glumdalclitchi.

Egun batean, gizon gazte batek, nire inudetxoaren haurtzainaren iloba zenak, etorri eta exekuzio bat ikustera joan zitezten insistitu zien biei. Beraren lagun min bat hil zuen gizon bat garbitu behar omen zuten. Bere gogoaren oso kontra konbentzitu zuten Glumdalclitch haiekin batera joan zedin, bihotz bigunekoa baitzen berez; eta neuri dagokidanez, gorroto ditudan arren honelako ikuskizunak, nire ustez zerbait berezia izan zitekeena ikustera bultzatu ninduen jakin-minak. Gaizkilea aulki batean lotu hartarakoxe eraikitako urkamendian, eta kolpe batez moztu zioten lepoa hamabiren bat metro luze zen ezpataz. Zain eta arteriek hainbesterainoxe odol bota zutenez eta hain gora airean, Versailleseko *jet d'eau* ospetsua ez zen haren pareko

izango iraun zuen bitartean; eta urkamendiaren zorura erori zenean burua, halakoxe zartada eman zuenez, izu-ikaratu egin ninduen, nahiz eta milia ingeles batera egongo nintzen gutxienez.

Erreginak, sarri entzuten zidalarik neure itsas bidaiez hitz egiten eta goibel nengoenean aukera guztiez baliatzen zelarik ni dibertitzeko, galdetu zidan ea ba al nekien bela edo arrauna erabiltzen, eta ea nire osasunarentzat ez ote zen komenigarria izango arraunean pixka bat egitea. Oso ongi moldatzen nintzela biekin erantzun zion. Zeren eta, nire benetako lanbidea ontzian mediku edo osagile izatea bazen ere, sarritan, beharrak eraginda, marinel arrunt bezala lan egin izan nuela. Baina ezin nuen ulertu nola egin nezakeen honelakorik herrialde hartan, haien batelik txikiena ere gure lehen mailako gerraontzien pareko baitzen, eta nik erabiltzeko moduko ontzirik ez baitzen inoiz ur gainean egongo haien ibaietan. Ontziren bat diseinatzen banuen, bere arotzak egingo zuela esan zidan Erreginak, eta berak prestatuko zidala tokiren bat nabigatzeko. Oso artisau trebea zen arotza, eta nire argibi-

deekin hamar egunetan egin zuen laketontzi bat aparailu eta guzti, zortzi europar eroso sartzeko modukoa. Amaitua ikusi zuenean, hain pozik jarri zenez Erregina, hartu besoetan eta Erregearengana joan zen korrika; honek, saio antzera, neu ontzian nintzela, urez betetako pozadera batean ipintzeko agindu zuen, non ezin izan bainituen neure bi gibel-arraun edo arraun txikiak erabili, tokirik ez zegoelako. Baina aurrez Erreginak bazuen beste egitasmo bat buruan. Zurezko aska bat egiteko agindu zion arotzari, laurogeita hamar metroko luzeraz, hamabosteko zabaleraz eta ia hiruko sakoneraz; ongi bikeztatu ondoren, ur-ihesik ez izateko, zoruan ipini zuten paretaren ondoan, jauregiko kanpo-gela batean. Ia hondotan, zipotz bat zuen, usteltzen hasten zenean urari irteten uzteko, eta bi morroik erraz bete zezaketen ordu erdian. Sarri egiten nuen han arraunean neure dibertsiorako, baita Erregina eta haren damak dibertitzeko ere, atsegingarriro entretenitzen zirelarik nire trebetasun eta arintasunaz. Batzuetan bela hedatzen nuen eta nire eginkizun bakarra lema gidatzea izaten zen, dama haiek haizea ematen zidatelarik abanikoz;

eta nekutzen zirenean, gorte-mutil batzuek putz egiten zioten belari, nik, nahierara, ababorrera edo istriborrera biratuz neure trebetasuna erakusten nuen bitartean. Amaitzen nuenean, Glumdalclitchek bere gelara eramaten zuen beti ontzia eta iltzetik zintzilika uzten lehortzeko.

Jarduera honetan istripu bat izan nuen behin, bizia galtzeko arriskuan egon nintzelarik. Zeren eta, gorte-mutiletako batek ontzia askan ipini ondoren, Glumdalclitche haurtzainak oso maitagarriro altxatu egin ninduen ontzian ipintzeko, baina haren atzamarretan labaindu eta hamabi metroz eroriko nintzatekeen ezinbestean zorura, munduko txiriparik zorionekoenaz ez balit eutsi emakumearen bularrekoan sartuta zegoen orratz handiak; orratzaren burua alkandoraren eta praketako gerrikoaren artean sartu zen, eta honela geratu nintzen gerritik airean Glumdalclitch korrika laguntzera etorri zen arte.

Beste behin, morroietariko batek —hiru egunero aska ur berriaz betetzeko eginkizuna zuenak—, hain axolagabea izan zenez, egundoko igeltzar bati baldetik ihes egiten utzi zion ohar-kabea. Igela ezkutatuta egon zen ontzian jarri

ninduten arte, baina orduan atsedenleku bat ikusiz, igo egin zen, eta hainbestera inoiz okertu zuenez ontzia alde batera, neure pisu guztiaz beste aldera kontrapisu egin behar izan nuen, irauli ez zedin. Gainera igo zenean, salto batean ontziaren erdiraino iritsi zen igela, eta gero neure buru gainera, atzera eta aurrera, aurpegia eta jantziak zikindu zizkidalarik bere lingirda nazkagarriaz. Bere aurpegiko irtenune handiekin, imajina litekeen animaliarik desitxurosoena ematen zuen. Halere, igelarekin neuri bakarrik moldatzen uzteko erregutu nion Glumdalclitchi. Aldi luze samar batean arraunaz joka jardun ondoren, behartu nuen azkenean ontzitik salto egitera.

Baina erresuma hartan inoiz izan nuen arris-
kurik handiena sukaldeko ofizial batena zen txi-
minoarengandik etorri zitzaidan. Glumdalclit-
chek itxita utzia ninduen bere gelan, bera zere-
gin edo bisitaren batera nonbaitera joan zen
bitartean. Eguraldia oso beroa izanik, gelako
atea irekita zegoen, baita nire kaxa handiko
leihoak eta atea ere, non egiten bainuen bizimo-
du gehiena, handia eta zabala zelako. Mahaian

eserita lasai-lasai gogoetan nengoela, gelako leihotik barrura zerbait oldartzen zela entzun nuen, eta batetik bestera zebilela saltoka; hala, oso izututa nengoen arren, begiratu bat egitera ausartu nintzen, baina neure aulkitik mugitu gabe; orduan animalia jostalari hura ikusi nuen, jauzika eta gora eta behera saltoka, azkenean nire kaxara etorri zen arte, atsegin eta jakingura handiz begiratzen ziolarik, atetik eta leiho bakoitzetik barrura begiratur. Neure gelako, edo kaxako, bazterrik urrutienara erretiratu nintzen, baina tximinoak, alde guztietatik agertuz, hain ikaratuta utzi ninduenez, ez nuen adorerik izan neure burua ohe azpian gordetzeko, oso erraz egin nezakeen bezala. Behaketan, hortzak erakusten eta txioka denboralditxo bat eman ondoren, aurkitu ninduen azkenean, eta nahiz eta ihes egitearren ni etengabe aldatu lekuz, bere hanka bat ate azpitik sartu —katuak saguarekin jolasean egin ohi duen bezala—, eta kasakaren barrenari heldu zion (herrialde hartako zetaz egina izatean, oso lodia eta sendoa zena) eta kanpora atera ninduen. Aurreko eskuineko hankaz jaso eta bularra eman behar dionean inu-

deak haurri bezala heldu zidan, espezie bereko animalia bat European katakumearekin egiten ikusia dudan bezalaxe; eta indarka hasi nintzenean, hain gogor estutu ninduenez, zuhurragoa iruditu zitzaidan amore ematea. Arrazoi sendoak ditut pentsatzeko bere espezieko kumeren bat nintzelakoan zegoela, beste hankaz behin eta berriz laztantzen baitzidan aurpegia poliki-poliki. Honelako jolasetan zebilen, gelako atletik zeterren hots batek —zabaltzen ari balira bezalakoak— geldiarazi zuenean; orduan, sartzeko erabilutako leihora salto egin zuen bat-batean, eta handik tutu eta hodiedara, hiru hankatan ibiliz eta laugarrenaz niri helduta, gurearen ondoko teilaturaino igo zen arte. Baninderamala ikustean, Glumdalclitchek garrasi egin zuela entzun nuen. Ia zoratu zen neskato gaixoa. Jauregiko alde hartan izugarrizko zalaparta sortu zen; morroiak eskailera bila hasi ziren korrika; Gorteko ehunka pertsonak ikusten zuten tximinoa, etxe-gailurrean eserita, jaioberria bainintzan aurreko hanka batean ninduela, eta jaten ematen besteaz; ahora sartu eta sartu egiten zizkidan berak papotik atera eta alde bateko matrai-

lezurrean zanpatzen zituen jakiak, eta esku-zartak ematen zizkidan ez banuen jaten; hura ikusita, beheko jendaila arteko askok ezin izan zion barreari eutsi; eta ez dut uste benetan erruduntzat jo behar zirenik, zalantzarik gabe egoera nahikoa barregarria baitzen guztientzat, neuretzat ezik. Batzuk harrika hasi ziren, tximinoa jaitzaraziko zutelakoan; baina zeharo galarazi zitzairen hau, bestela, burmuinak aterako zizkidaten, ziur aski.

Eskailerak ekarri eta zenbait gizon igo ziren haietatik, baina tximinoak ikusi zituenean, eta ia inguratua zegoela ohartzean, hiru hankatan ezin zelarik oso bizkor ibili, gailurreko teila batean botata utzi ninduen eta ospa egin. Han egon nintzen eserita behetik lauhun eta berrogeita hamar metrora, haizeak beheara botako ote ninduen edo neu zorabiatuta erori eta dinbili-danbala gailurretik teilategalera joango ote nintzen beldurrez, betiere. Baina gazte jator batek, nire inudearen morroietariko batek, igo, praka-poltsikoan sartu eta beheara ekarri ninduen oso eta sendo.

la ito zorian nengoen tximinoak indarrez zintzurrian behera sartu zizkidan zikinkeriekin; baina nire inudetxo maiteak orratz txiki batez atera zizkidan eztarritik, eta gero botaka egin nuen, lasaitu handia hartu nuelarik. Halere, alboetan animalia higuigarri hark emandako estutuekin, hain ahul eta mazpilduta nengoenez, ohean egon behar izan nuen hamabost egunez. Erregeak, Erreginak eta Gorte osoak egunero galdetzen zuten nire osasunaz, eta Erreginak zenbait ikustaldi ere egin zidan neure gaixoaldian. Tximinoa akabatu egin zuten, eta halako animaliarik jauregi inguruan ez edukitzeko agindua eman zen.

Osatu ondoren, bere mesedeengatik eskerak ematera Erregearengana joan nintzenean, abentura honengatik adarra ederki jotzeko gogoz zegoen. Tximinoaren hankan nengoen bitartean, zer-nolako gogoeta eta burutazioak izan nituen galdetu zidan, ea atsegin izan nituen piztiak emandako jakiak eta elikatzeko era hura, eta ea teilatuko haize freskoak jateko gogorik sortu zidan. Halako egoera batean neure herrialdean zer egingo nukeen jakin nahi zuen. Euro-

pan ez geneukala tximinorik esan nion Maiesta-teari, bitxikeria modura beste lekuetatik ekarritakoak izan ezik, eta hain txikiak direnez, haietako dozena bati ere egin niezaiokeela aurre aldi berean, niri erasotzera ausartuz gero. Eta nirekin borrokan jardun berria zen animalia nardagarri hari buruz (elefantea bezain handia zen benetan), beldurrak utzi balit sastakaia erabili ahal izateko beste buru-argitasun (begirada basatiz eta sastakaiaren girtena eskuaz zarta-zarta joz esan nion hau), hanka nire gelara sartu zuenean agian egingo niokeen zauriaz, pozik kenduko zukeela jarri baino bizkorrago. Hau ahots tinkoz bota nuen, bere kemena zalantzan jarriko ote duten beldur den norbaitek bezala. Halere, barre-algara ozenak bakarrik sortu zituen nire hitzaldiak, Erregeari ingurukoek zor dioten errespetu guztiak ere ezin izan zituenak isildu. Honek, alferrikako ahalegina dela pentsarazi zidan, gizakia bere burua ohoratzen saiatzea berarekin inolako berdintasun edo konparazio-mailarik ez dutenen artean. Eta halere, nire jokabidearen antzekoa Ingalaterran oso ohikoa dela ohartu naiz itzuli ondoren, non, jatorriz, izaeraz, argita-

sunez edo zentzuz inolako eskubiderik gabe, edozein nahaspilari kaskar mesprezagarrik goratzen duen bere burua baita erresumako pertsonaiarik nagusienen mailan jarri ere.

Egunero egiten nuen Gortean xelegekeria barregarriren bat; eta biziki maite ninduen arren, Erreginari kontatzeko bezain bihurria zen Glumdalclitch, bere ustez, Erreginentzat entretenigarri izango zen txorakeriaren bat egiten nuen bakoitzean. Behin neskatoa, ondoezik egon ondoren, haizea hartzera eramane zuen haurtzainak jauregitik ordu betera, hau da, hogeita hamarren bat miliara. Landan zegoen bidezidor baten ondoan jaitsi ziren zalgurditik, eta Glumdalclitchek nire bidaiatzeko kaxa zoruan utzi zuelarik, kanpora irten nintzen paseatzera. Behigorotza zegoen bidean, eta neure bizkortasuna frogatu nahi izan nuen haren gainetik salto egiten saiatuz. Abiada hartu, baina zoritxarrez salto laburregia egin nuen eta erdi-erdian sartu nintzen belaunetaraino. Pixka bat kostata irten handik, eta lekaioetariko batek ahal zuen bezain ongi garbitu ninduen bere sudur-zapiak, nazkagarriro lardaskatuta bainengoen, eta inudeak

neure kaxan sartu ninduen etxera itzuli ginen arte; han Erreginak laster izan zuen gertaturikoa-aren berri, eta morroiek Gortean zehar zabaldu zuten, ondorioz, hango barre-algara guztiak nire bizkarretik izan zielarik zenbait egunez.

6. KAPITULUA

Autorearen zenbait asmakizun Erregeari eta Erreginari atsegin emateko. Musikarako duen trebetasuna erakusten du. Europako egoeraz galdegiten dio Erregeak, eta zenbait berri ematen autoreak. Berauei buruzko Erregearen oharpenak.

Astean behin edo birritan Erregearen jaikitze-zeremoniara joaten nintzen, eta sarri ikusi nuen bizarginaren eskupean, benetan ikuskizun bel-durgarria hasieran, zeren eta, labana sega arrunta bai no ia bi aldiz luzeagoa baitzen. Herrialde hartako ohituraren arabera, astean bi aldiz bakarrik kentzen zioten bizarra Erregeari. Behin batean bits edo xabonduratik pixka bat eman ziezadan konbentzitu nuen bizargina, handik bizar-zati sendoenetako berrogei edo berrogeita hamar hartu nituelarik. Gero, egur fineko zati bat hartu eta orraziaren bizkarraldea bezala landu nuen, tarte berdinetara zenbait zulo egi-

nez Glumdalclitchengandik lortu ahal izan nuen orratzik txikienaz. Neure ganibetaz muturrak karrakatuz eta janez, halakoxe trebetasunez sartu nituenez ileak zulo haietan, orrazi aski itxurosoa egin nuen, eta behar nuen unean, gainera, nireak apurtuak zituelarik punta asko, ia erabilteztina baitzen; eta ez nuen ezagutzen herrialde hartan hain artisau iaio eta zehatzik, beste bat egiteko ardura hartu nahi zuenik.

Eta honek beste entretenimendu bat dakarkit gogora, astiordu asko eman nituelarik hartan. Bere Maiestatearen orrazkondoak gorde ziezakidala erregutu nion Erreginaren mirabeari, denboraz multzo dezentea bildu nuelarik haietatik; eta nire adiskide arotzarekin kontsultatu ondoren —niretzat lantxoak egiteko agindu orokorra baitzuen— kaxan neuzkanak baino handiagoak izango ez ziren bi aulki-armazoi egiteko argibideak eman nizekion, eta gero, ziri mehe batez zuloak egiteko nik bizkarraldeak eta eserlekuak jarri nahi nitueneko inguru guztian; zulo haietaz baliatuz, bildu ahal izan nituen ilerik sendoenak artekatu nituen, Ingalaterran zumezko aulkiak egin ohi diren bezalaxe. Amaitu nitue-

nean, Erreginari oparitu nizkion, eta honek, bere gelan gorde zituelarik, bitxikeria gisa erakutsi ohi zituen eta, hain zuzen ere, ikusten zituen edonor geratzen zen txundituta. Ni haietakoren batean esertzea nahi zuen Erreginak, baina bizi-ki egin nion uko haren nahia betetzeari, eta noiz-bait Erregiaren burua apaindu zuten ile preziatu haien gainean neure gorputzaren zati lotsagarria jarri baino mila aldiz hiltzea nahiago nuela esan nion. Halaber, ile haiekin (beti izan baitut mekanikarako buru argia) ia bi metro luze zen diruzorro txiki polit bat egin nuen, urrezko letraz Erreginaren izena ipiniz, eta Glumdalclitchi eman nion, Erreginaren baimenaz. Egia esateko, erakusteko gehiago balio zuen erabiltzeko baino, ez baitzuen txanponik handienen pisuari eusteko sendotasunik eta, beraz, ez zuen han ezer gordetzen, neskatoek gogoko dituzten jostailutxo-
ren batzuk izan ezik.

Musikak liluratu egiten zuen Erregea eta sarri izaten zituen kontzertuak Gortean, neu ere eramaten nindutelarik batzuetan, eta entzuteko, neure kaxan jartzen mahai gainean; baina hotsa hain ozena zenez, nekez bereiz nitzakeen melo-

diak. Ziur nago errege-armadako danbor eta turuta guztiak aldi berean joka eta dunbaka belarri ondoan, ez zirela haren pareko izango. Beraz, soinujoleak esertzen ziren tokietatik kaxa ahalik eta urrutien eramateko eskatzen nuen, gero atepak eta leihoak ixten nituen, baita leihoe-tako gortinak ere, eta hala, ez zitzaidan haien musika desatsegina iruditzen.

Espineta jotzen pixka bat ikasia nintzen gazetetan. Glumdalclitchek bat bazuen bere gelan, eta astean birritan maisu bat etortzen zitzaion irakastera. Espineta deitzen diot hari, nolabait bazuelako tresna honen antzik eta era bertsuan jotzen zelako. Tresna hura erabiliz eta ingeles melodia bat joz, Erregea eta Erregina entretenitu behar nituela sartu zitzaidan buruan. Baina oso zaila zen hau, zeren eta, espineta ia hamazortzi metro zen luze, eta beraz, besoak zabaldu-ta ere ezin nituen bost tekla baino gehiago hartu, eta hauek zapaltzeko ere ukabilaz kolpe ederra eman beharrean nengoen, lan handiegia eta alferrikakoa zena. Ondorengo metodoa asmatu nuen. Bi makila biribil prestatu nituen, borra arrunten tamainakoak gutxi gorabehera;

mutur batean lodiagoak ziren bestean baino, eta muturrik sendoenak sagu-larruz estali nituen, haiekin jotzerakoan teklak ez kaltetzeko eta soina ere ez hondatzeko. Espinetaren aurrean eta teklategia baino metro t'erdi beherago aulki bat jarri zuten, eta neu aulki gainean. Hara igota, batera eta bestera ibili nintzen korrika ahal bezain bizkor, neure bi makilez beharrezko teklak jotzen, eta *jig* bat jotzea lortu nuen Maies-tateen atsegina handiz. Baina sekula egin nuen ariketarik gogorrena izan zen hura eta halere ezin izan nuen hamasei tekla baino gehiago jo, ezta, beraz, grabeak eta tipleak aldi berean jo ere, beste artista batzuek bezala, hau desabantaila handia izan zelarik nire ekitaldirako.

Erregeak, lehen esan dudana bezala, jakintza handiko printzea zelarik, sarritan ematen zuen agindua neure kaxan eraman eta mahaian uzteko bere gelan. Orduan, kaxatik neure aulkietariko bat ateratzeko agintzen zidan, eta esertzeko hiru metrora baino hurbilago idazmahaiaren gainean, hala haren aurpegiaren parean jartzen nintzelarik ia. Honela zenbait elkarrizketa izan nuen berarekin. Egun batean ausartu nintzaion

esatera Europa eta munduaren gainerakoareki-ko agertzen zuen mesprezuak ez zuela ematen bat zetorrenik haren aparteko adimen-kualitateekin, berauetan maisu baitzen; zentzua ez dela gorputzaren tamainarekin hazten: alderantziz, gure herrian ohartzen ginenez, gehienetan pertsonarik garaienak zirela gutxien zutenak; beste animalia batzuen artean ere, erleek eta inurriek espezie handiago asko baino langileago, iaioago eta zoliagoak direlako ospea dutela; eta nik neuk ere, berak hain gutxitzat hartzen ninduen arren, Maiestateari zerbitzu aipagarriren bat egiteko beste bizitzea espero nuela. Arretaz entzun zidan Erregeak, eta ordura artean inoiz izan zuena baino iritzi hobea izaten hasi zen nitaz. Ingalaterrako gobernuaren berri ahalik eta zehatzen emateko erregutu zidan, zeren eta, printzeek eskuarki beren ohiturak baldin badi-tuzte ere gogokoen (ideia hau zuen beste monarka batzuei buruz, nik aurrez esandakoaren ondorioz), berak pozik entzungo omen zuen imi-tagarri izan zitekeen edozer gauza.

Pentsa, irakurle atsegin horrek, nola irrikituko nuen orduan Demosthenes edo Ciceronen mihia

izatea neure sorterri maitearen gorespenak bere merezimendu eta zorientasunaren mailan ospatzeko gai izateko.

Hasi nuen hitzaldia Maiestateari esanez gure lurraldeak bi irla zirela, Ameriketako koloniez gainera, hiru erresuma ahaltsu zeudelarik errege bakar baten menpe. Lurzoruaren emankortasuna eta klimaren neurritasuna azpimarratu nizkion. Luze mintzatu nintzen Parlamentu ingelesaren osaketaz, zati batean, *Lord*-en Ganbara deritzon korporazio agurgarriaz eratua dagoelarik, odolik nobleena eta jabegorik antzinakoen eta zabalenak dituztenez, alegia. Berauen prestakuntza, arteetan nahiz armetan, zein arreta handiz egiten den azaldu nion, Erregearen eta erresumaren berezko aholkulari izateko gai izan, legegintzan ere esku har dezaten, Justiziako Epaitegi Gorenaren kide ere izan daitezen — beronen epaitza apelaezina delarik— eta beren adone, jokabide eta leialtasunaz erregea eta herria defendatzeko beti prest dauden zaldun bihoztoiak izan daitezen. Hauek zirela erresumaren apainduria eta babesa, arbasorik ospetsuenen jarraitzaile duinak eta haiek ohorea izan

zutelarik beren bertutearen sari, ez zela jakin ondorengoak bide horretatik sekula desbideratu zirenik. Hauei, batzar haren parte bezala, zenbait pertsona santu —apezpiku deituak— gehitzen zitzaizkiela, erlijioaz eta erlijioan jendea hezten dutenez arduratzea izanik beren eginkizun berezia. Hauek, Erregeak eta kontseilaririk jakintsuenek herrialde osoan aztertu eta bilatzen zituztela, bizitzaren santutasun eta jakintzaren sakontasunagatik merezita gehien nabarmentzen ziren elizgizonen artean; izan ere, kleroaren eta jendearen aita izpiritualak baitziren benetan.

Parlamentuaren beste zatia Komunen Ganbara deituriko batzarrak osatzen zuela, guztiak zaldun nagusiak, beren gaitasun handi eta herriaganako maitasunagatik jendeak libreki hartu eta aukeratuak nazio osoaren zentzutasunaren ordezkari izateko. Eta bi gorputz hauek Europako batzarrik ospetsuena osatzen dutela, berau arduratzen delarik Printzearekin batera legegintza guztiaz.

Gero justizi epaitegiez mintzatu nintzaion, hauen buru epaileak —jakintsu agurgarri eta legearen interpretariak— daudelarik, gizakien

artean eztabaidatuak diren eskubide eta jabetzei buruz erabakitzeke, baita bizioa zigortzeko eta errugabetasuna babesteko ere. Gure Haziendaren administrazio zuhurra ere aipatu nion, eta gure indar armatuen balentriak eta lorpenak itsasoan nahiz lehorrean. Gure jende-kopurua kalkulatu nuen, ditugun erlijio-sekta edo alderdi politiko bakoitzean zenbat milioi egon litezkeen zenbatuz. Gure kirolak eta denbora-pasak ere ez nituen ahaztu, ezta nire sorterriaren ohorerako izan zitekeela iruditzen zitzaidan beste xehetasunik ere. Eta azken ehun urteetan edo, Inglaterra-jazotako gertaera eta arazoak aipamen historiko laburra eginez amaitu nuen dena.

Elkarrizketa honetarako gutxienez bost ikustaldi behar izan genituen, zenbait ordu emanaz bakoitzean, eta Erregeak arreta handiz entzun zuelarik dena, nik esaten nuenaz sarri oharrak hartu eta egin asmo zizkidan galderak ere apuntatu egiten zituen.

Hitzaldi luze hauekin amaitu nuenean, seigarren ikustaldian Erregeak bere oharrei begiratu zabalantza, galdera eta eragozpen asko adierazi zidan gai bakoitzari buruz. Gure aitonen seme

gazteen gogo eta gorputzak hezteko zein metodo erabiltzen zen galdetu zidan, eta zer-nolako jardueretan eman ohi zuten eskuarki bizitzako lehen aldia, irakaskuntzari dagokiona. Zein bide jarraitzen zen batzarra osatzeko handikien familiaren bat iraungitzean. Zer-nolako baldintzak bete behar zituzten *Lord* berriak izango zirenek: ea Erregearen umorea, Gorteko andere edo Lehen Ministroen bati emandako dirutza edo interes publikoaren aurkako alderdiren bat indartu nahia, izan ote zitekeen inoiz kargu-igozte horien arrazoi. Zer-nolako ezagutza zuten *Lord* haiek herriko legeei buruz, eta nola lortzen zuten hori, azken finean erkideen jabetzei buruz erabakitzeko gai izateko. Ea beraiek beti egoten al ziren hain libre gutizia, alderdikeria edo beharretatik, beraien artean eroskeria edo beste maltzurkeriarik ezin eman izateko moduan. Ea nik aipaturiko jaun santu haiek, erlijio-gaietan zuten jakintzarengatik eta beren bizitzen santutasunagatik igotzen al ziren beti maila hartara; eta ez ote ziren inoiz komenientzietara moldatzen apaiz huts zirenean, edo doilorki prostituitzen handikiren baten kaperau izanez, haren aginduei

morrontza handiz jarraituz batzarrera onartuak izan eta gero ere.

Nik Komunak deituriko haiek aukeratzeko zer bide erabiltzen ote zen jakin nahi izan zuen gero. Ea arrotzen batek diru-zorro handiaz ezin ote zuen boto-emaile xeheengan eraginik izan, bera-ri botoa eman ziezaioten eta ez bertako nagusia-ri edo auzoko zaldun garrantzitsuenari. Ea nola gertatzen zen jendeak hain gogo bizia izatea batzar hartan sartzeko, nik onartzen banuen arazo eta gastu handiak ekartzen zituela eta familien hondamendia sarritan, inolako soldata edo pentsiorik gabe; zeren eta, honek hain bertute eta herri-kontzientzia handia adierazten bide zuenez, bazirudien zalantza zuela Maiesta-teak ez ote zen beti zintzotasunagatik izango; eta jakin nahi zuen ea hain pertsona sakrifika-tuek ez ote zuten inoiz beren buruak ordaintze-ko asmorik izaten jasan behar zituzten neke eta arduren truke, honela printze ahul eta biziotsu-ren baten azpijokoetara herriaren ongia sakrifi-katuz, ministro-kabinete ustelduren batekin hitzartuta. Gero eta galdera gehiago bota zidan eta sakon aztertu ninduen gai honi buruzko

alderdi bakoitzaz, kontaezin beste zalantza eta eragozpen jarri zidalarik, nahiz eta ez zaidan zuhur edo egoki iruditzen orain errepikatzea.

Gure justizi epaitegiei buruz esan nionaz, zenbait puntu argitzea nahi zuen Maiestateak; eta hobeto gaitua nengoen honetarako, ia arruinau bainintzen behin Kantzelaritzan izandako auzi luze batez, epaitzaneure aldekoa izan zelarik kostuekin. Galdetu zidan ea eskuarki zenbat denbora behar izaten zen zuzenaren eta okerraren artean bereizten, eta zein kostu izaten zuen. Ea abokatuek eta auzi-jartzaileek askatasuna al zuten argi eta garbi bidegabeak, higuingarriak edo ustiatzaileak ziren auziak defendatzeko. Ea ikusten al zen erlijio edo politikan parte hartzeak inolako pisurik zuenik justiziaren balantzan. Ea abokatu defendatzaileak ekitatearen ezagutza orokorrean hezitako pertsonak ziren, ala probintzia, nazio eta herri mailako ohituretan bakarrik. Ea berauek edo epaileek inolako esku-hartzerik ba ote zuten nahierara interpretatu eta azaltzen zituzten legeen idazketan. Ea inoiz gertatu ote zen une batean auzi baten alde jardutea eta gero aurka, aurretiazkoak aipatuz kontrako iri-

tziak frogatzeko. Ea korporazio aberats ala behartsua zen. Ea inolako ordainsaririk hartzen zuten beren iritziak defendatu eta adierazteagatik. Eta batez ere ea inoiz onartzen zituzten beheko batzarrean.

Ondoren, gure Haziendaren administrazioaz mintzatu zen; eta oroimenak huts egin zidalakotan zegoela esan zuen, zeren eta, gure zergak urteko bospasei milioitan kalkulatu nituelarik, gastuak aipatu nizkionean, batzuetan bi halako baino gehiago izaten zirela ohartu baitzen; izan ere, honetaz hartu zituen oharrak oso zehatzak ziren, —adierazi zidanez, gure jokabidea ezagutzea beretzat mesedegarri izango zelakoan zegoen— eta ezin zuen beraz kalkuluetan huts egin. Baina, esan niona egia baldin bazen, halerre ezin zuela ulertu erresuma batek, pertsona partikular batek bezala, nola gastatzen zuen ahal zuena baino gehiago. Gure hartzekodunak nortzuk ziren galdetu zidan eta non aurkitzen genuen dirua beraiei ordaintzeko. Harritua zegoen hain gerra luze eta kostu handikoez hitz egin niolako, eta jende liskarzalea izango ginela edo oso auzokide gaiztoen artean biziko ginela pen-

tsatzen zuen, eta gure jeneralak erregeak baino aberatsagoak izango direla derrigorrez. Geure irletatik kanpo zer eginkizun genuen galdetu zidan, merkataritza edo hitzarmenen ondorioz edo geure ontziteriaz itsasertza babesteko ez bazen. Baina batez ere zur eta harri uzten zuena, bakealdian eta jende librearen artean mertzenarioen armada iraunkorraz hitz egiten entzutea zen. Esaten zuen geuk erabakitako ordezkariak gobernatzen bagintuzten, ez zitzaiola buruan sartzen noren beldur ginen edo noren aurka egin behar genuen borroka, eta jakin nahi zuen ea ez al zitzaidan iruditzen etxe partikular bat ere bere jabeak eta seme-alabek eta morroiek hobeto babestuko zutela, nola hala kaleetan erreklutatu eta gaizki ordaindutako dozena erdi zitalek baino, hauek ehun aldiz gehiago atera bailezake- te jabeei zintzurak moztuta.

Barre egin zuen nire aritmetika bitxiarengatik (horrelaxe esateari ederretsi zion), gure arteko zenbait sekta erlijioso eta politikotakoak zenbatuz kalkulatu bainuen jende-kopurua. Esan zuen, ez zuela arrazoirik ikusten jendearentzako iritzi kaltegarriak zituztenak aldatzera behartzeko,

eta zergatik ez zituzten behartzen iritziak ezkutu-
tuan gordetzera; eta gobernuak lehenengoa exi-
jitzea tirania zen bezala, bigarrena ez betearaz-
tea ahulezia zela, zeren eta, onar bailiteke gizo-
nak pozoia edukitzea bere gelan, baina ez hortik
zehar saltzen ibiltzea bizkorgarriren bat baili-
tzan.

Gure aitonen seme eta aristokrazia txikiaren
denbora-pasen artean, joko aipatu niola esan
zuen. Jakin nahi zuen ea eskuarki zein adinetan
hasten ziren entretenimendu honekin, eta noiz
uzten zuten; zenbat denbora ematen zuten
honetan, eta ea inoiz izaten zen ondasunetan
eraginik izateko bestekoa. Ea jende xehe bizio-
tsua, arte honetan zuen trebetasunagatik, ez al
zitekeen oso aberats izatera iritsi, batzuetan
nobleenak ere menpean hartu eta lagunarte txar-
retara ohituz, zeharo aldendu gogamenaren
hobekuntzatik eta, izandako galeren ondorioz,
trebetasun maltzur hori ikasi eta beste batzuekin
praktikatzen behartuz.

Zur eta lur zegoen gure azken mendeko
gorabehera historikoei buruz egin nion kontake-
taz, konspirazio, errebolta, hilketa, sarraski,

iraultza eta deserriratze pilo bat besterik ez zela baieztatuz, zikoizkeriak, alderdikeriak, hipokresiak, maltzurkeriak, ankerkeriak, amorruek, zorakeriak, gorrotoak, inbidiak, gutziak, arrangurak eta anbizioak sor litzaketenak baino askoz ondorio okerragoak zituztelarik.

Beste ikustaldi batean, nik esandako guztia laburbiltzeko lana hartuzuen Maiestateak, berak egindako galderak eta nik emandako erantzunak alderatuz; gero, bere eskuetan hartu eta poliki-poliki laztanduz, ondorengo hitz hauek esan zizkidan, inoiz ahaztuko ez ditudanak ezta ere nola esan zizkidan. «Nire laguntxo Grildrig. Zeure sorterriaren goratzarrerik miresgarriena egin duzu. Argi eta garbi frogatu duzu ezjakintasuna, nagieria eta bizioa direla legegile izatera iristeko beharrezko osagaiak. Legeak ongien azaldu, interpretatu eta aplikatzen dituztenak, berauek okertzen, nahaspilatzen eta ez betetzen interesa eta trebetasuna dutenak direla. Jatorriz onargarria izan zitekeen erakunde baten arrastoak ere ikusten ditut zuen artean, baina hauek erdi ezabatuak daude, eta gainerakoak zeharo belztuta eta zikinduta ustelkeriaz. Esan duzun guztiaren

ondoren, ez du ematen inolako tasunik eskatzen denik zuen artean karguak eskuratzeko, eta are gutxiago gizonak bertutearengatik handitzen direnik, edo apaizak debozio edo jakinduriagatik igotzen direnik, soldaduak beren jokabide edo adoreaengatik, epaileak zuzentasunagatik, parlamentariak herriaganako maitasunagatik, edo kontseilariak zuhurtziagatik. Zeuri dagokizunez —jarraitu zuen Erregeak— bizitzarik gehiena bidaiatzen eman duzularik, orain artean zeure sorterriko bizio askotatik ihes egiteko aukera izan duzula pentsatuko nuke. Baina, zeuk kontatutakotik ondoriozta dezakedanez, eta neke handiz zuregandik atera eta lortu ditudan erantzunengatik, nahitaezkoa dut pentsatzea, Naturak lur gainean ibiltzea inoiz onartu duen piztitxo higuingarrien espezierik kaltegarriena dela zure erkide gehienena».

7. KAPITULUA

Autorearen maitasuna bere sorteriarekiko. Oso proposamen abantailatsua egiten dio Erregeari, baina honek errefusatu. Erregearen ezjakintasun handia politikan. Herrialde hartako kultura batere osagabea eta mugatua. Haien legeak, arazo militarak eta Estatuko alderdiak.

Egiazaletasun ikaragarriak bakarrik eragotzi ziezadakeen neure istorioaren zati hau ezkutatzea. Alferrikakoa zen nire erresumina agertzea, barre egiten baitzuten beti; eta nire herri zintzo eta maiteenaz hain iraingarriro mintzo ziren bitartean, ni behartua nengoen hura eroapenez jasatera. Biziki sentitzen dut, nire edozein irakurlek senti lezakeen beste, aukera hura eman izana, baina Printze hura hain jakingura handikoa eta galdetzailea zenez gai bakoitzaz, ez zatekeen esker oneko edo gizalegearekin koherentea izango eman niezazkiokeen satisfazio

guztiak ez ematea. Halere, zilegi bekit neure burua zuritzeko zerbait esatea, hots, galdera askori ihes egin niola azerikeriaz, eta egiaren zorrotasunak onar lezakeen baino askoz itxura hobea ematen niola gauza bakoitzari. Zeren eta, nik beti izan baitut neure sorterriarekiko, Dionysius Halicarnassensis-ek historialariari oso zuzen gomendatzen dion alderdikeria laudagarri hura. Neure aberriaren ahulezia eta itsuskeriak ezkutatzen nituen, eta beraren bertuteak eta edertasunak ahal zen agerien jartzen. Zintzo saiatu nintzen honetan monarka ahaltsu harekin izan nuen hainbat hizketalditan, nahiz eta zoritxarrez ez izan arrakastarik.

Baina oso bihotz-zabala izan beharra dago munduaren gainerakotik ia zeharo isolatua bizi den errege batekin, izan ere, beste nazio batzuetan nagusi diren era eta ohiturak ez baititu batera ezagutuko; eta ezjakintasun honek *aurreiritzi* asko sortuko dizkio, baita nolabaiteko *buru-estutasuna* ere, honetatik gu geu eta Europako herrialde zibilizatuak erabat libre gaudelarik. Eta benetan gogorra izango litzateke, bertute eta bizioari buruz hain urrutiko Printze hark dituen

ideiak gizateria osoaren eredutzat ezarriko bali-
ra.

Orain esan dudana baiesteko, eta *hezkontza mugatuaren* ondorio tristek erakusteko gainera, nekez sinetsiko duzuen pasadizo bat sartuko dut hemen. Maiestatearen ederra are gehiago irabazteko itxaropenaz, orain dela hirurehun eta laurehun urte artean egindako asmakari baten berri eman nion; alegia, bazela hauts bat, halako pilo batera txinpartarik txikiena jausiz gero, dena piztu une batean —nahiz eta mendi bat bezain handia izan— eta dena batera bidaliko lukeena airean, trumoiarena baino zaratots eta astinaldi handiagoz. Eta hauts honen kantitate egoki bat letoi edo burdinazko hodi huts batean estu sartuta, tamainaren arabera, burdin edo berunezko bola bat jaurtiki lezakeela, inork eustezinezko indar handi eta abiadaz. Honela botatako bolarik handienek armada bateko lerrokada osoak suntsi ditzaketela aldi berean, baita harresirik sendoenak eraitsi edo mila gizoneko itsasontziak urperatu eta hondora bidali ere; eta elkarlotuz gero kateaz, mastak eta aparailuak ebaki, ehunka gorputz erdi-erditik moztu eta

aurrean aurkitutako guztia deseginda utz leza-keela. Barrutik hutsik zeuden burdinazko bola handietan hauts hura jarri eta inguratua genuen hiriren baten gainera sarritan botatzen genituela tramankulu bidez, zoladurak harrotu, etxeak zati-zati egin eta lehertzean metraila barreiatzen zutelarik, inguruan harrapatzen zituen guztiei burmuinak ateraz. Oso ongi ezagutzen nituela osagaiak, merkeak eta arruntak zirelarik, eta banekiela nola nahastu eta argibideak ere eman-go nizkiela haren langileei hodiak egin zitzaten Maiestatearen erresuma hartan beste gauza guztiek zuten proportzioaren tamainan, eta handienak ez zeukala hirurogei metrokoa baino luzeagoa izan beharrik; hodi hauetako hogeik edo hirurogeik, behar beste hauts eta bolaz beteak, haren aginterriko hiririk sendoenaren harresiak eraits zitzaketela ordu gutxitan, edo metropoli osoa suntsitu, beraren aginte absolutua zalantzan jartzen bazen. Hau apaltasunez eskaini nion Maiestateari esker onaren erakusgarri txikitzat, berarengandik hartutako mesede eta babesaren ordainez.

Izu-ikaratuta geratu zen Erregea tresna bel-
durgarri hauei buruz egin nion azalpenaz eta
aurkeztu nion proposamenaz. Ezin zuen ulertu
nola ni bezalako intsektu ezgauza eta doilorrak
(hitz hauexek erabili zituen) hain ideia ankerrak
izan zitzakeen eta nolako arruntasunez mintza
zitekeen nik neuk makina birrintzaileon ondorio
ohikotzat azaldu nizekion odol- eta hondamen-
eszena guztien aurrean batere hunkitugabe
agertuz; eta makina hauen lehen asmatzailea
gizateriaren etsai zen jenio maltzurren bat izan-
go zela esan zuen. Berari zegokionez, arte eta
natura arloko aurkikuntza berriez gain ezer
gutxik liluratzen bazuen ere, halako sekretuaren
konplize izatea baino bere erresumaren erdia
galtzea nahiago zuela esan zuen zorrotz eta,
neure bizia estimatzen banuen, berriro sekula ez
aipatzeko agindu zidan.

Printzipio estuen eta ikuspegi laburren ondo-
rio bitxiak! Nola liteke itzala, maitasuna eta esti-
ma sortzen duten tasun guztien jabe den printze
batek, gaitasun sendoa, zuhurtzia handia eta
jakintza sakona dituelarik, gobernatzeko talentu
miresgarriz hornitua eta bere menpekoek ia gur-

tua izanik, European pentsaezinak diren *premiagabeko eskrupulu bitxiengatik*, bere aurreaurrean jarritako hain aukera paregabea galtzen uztea, aukera honek bere menpekoen bizitza, askatasun eta ondasunen jaun eta jabe bihurtuko zukeenean! Eta ez dut hau esaten Errege paregabe haren bertute guztiei ezertxo ere kentzeko asmoz, nahiz eta konturatzen naizen kontatutakoaren ondorioz haren ospea asko murriztuko dela irakurle ingelesaren iritzian; baina esango nuke jende haren arteko akats hau ezjakintasunetik sortua dela, ez dutelako orain artean *politika zientzia* bihurtu, Europako buruargi zorrotzenek egin duten bezala. Zeren eta, oso ongi oroitzen bainaiz, egun batez Erregearekin izandako hizketaldian, *gobernatzeko arteaz* gure herrian milaka liburu zegoela idatzita esan niolarik, honek (zuzen-zuzen nire asmoaren kontra) gure ezagupenekiko oso iritzi kas-karra sortu ziola. Printze nahiz ministroengan, edonolako *misterio*, *errefinamendu* eta *azpikeria* nardagarri eta mesprezagarri zitzaizkiola aitortu zuen. Ezin zuen ulertu zer esan nahi nion *Estatusekretuak* aipatzean, ez bazegoen areriorik edo

nazio etsairik kasuan inplikatura. Gobernatzeko jakitea oso *muga estuetara* murrizten zuen: zentzu on eta zuhurtziara, zuzentasun eta neurritasunera, auzi zibil eta kriminalak bizkor ebaztera eta kontutan hartzekoak ere ez diren beste zenbait gauza jakinetara. Eta haren iritziz, lehen bat bakarra zegoen lur-zatian bi galburu edo bi belar-izpi sortarazten zituenak tratatu hobea merezi zuen gizateriaren aldetik, eta bere herriari zerbitzu garrantzitsuagoa ematen zion, politikarien klase osoak batera baino.

Jende haren kulturak hutsune handiak ditu, morala, historia, poesia eta matematika bakarrik baitute, hauetan nagusi direla onartu beharra dagoelarik. Baina hauetako azkena bizitzan erabilgarri denari aplikatzen zaio erabat, nekazaritzaren hobekuntzari eta arte mekaniko guztiei; beraz, gure artean ez litzateke oso aintzat hartua izango. Eta ideia, izaki, abstrakzio eta transzendentalei dagokienez, ezin izan nuen kontzepturik txikienik ere haien buruetan sartu.

Herrialde hartako legeek ezin dute alfabetoko letrak baino hitz-kopuru handiagorik izan, hogeita bi bakarrik alegia. Baina, egia esateko,

gutxi iristen dira muga horretaraino ere. Hitzik argien eta errazenez idazten dira, jende hura ez delarik lege haietan interpretazio bat baino gehiago aurkitzeko bezain zolia. Eta heriotza-zigorra izaten du legeren bati buruzko iruzkinik idazteak. Auzi zibiletako epaitzei edo kriminalen aurkako prozedurei dagokienez, hain kasu gutxi izan dutenez aurrez, arrazoi askorik ez dute aparteko trebetasunaz harrotzeko.

Antzina-antzinako garaietatik izan dute, txinatarrek bezalaxe, inprimatzeko artea. Baina haien liburutegiak ez dira oso handiak, zeren eta, Erregearenak, handiena izango denak, ez baititu mila liburuki izango, hirurehun eta hirurogei metroko luzerako galerian ezarriak, handik nahi nituen liburuak hartzeko askatasuna nuelarik. Erreginaren arotzak zurezko nolabaiteko tramankulu bat asmatu zuen Glumdalclitche gela baterako; zazpi metro t'erdi zen luze eta zutik ipinitako eskailera baten antzekoa; hamabost metroko luzera zuen maila bakoitzak eta, egia esateko, eskailera pare mugikorra zen, barrena gelako paretatik hiru bat metrora zegoelarik ezarria. Irakurri nahi izaten nuen liburua paretaren

kontra jartzen zuten. Lehenik eskaileraren goren mailaraino igotzen nintzen eta, burua libururantz itzulirik, orrialdearen goiko lehen lerroan hasten nintzen, eta lerroen luzeraren arabera zortzi edo hamar pausu emanaz eskuinerantz eta ezkererantz ibiltzen nintzen, begien altuerara baino pixka bat beheraxeago iritsi arte, eta gero jaitsi egiten nintzen poliki-poliki barreneraino; ondoren, berriro igo gora eta hurrengo orrialdean hasten nintzen era berean, eta gero orria pasatzen nuen —bi eskuez erraz egiten nuen gauza—, zeren eta, kartoia bezain lodi eta zurruna baitzen, eta foliorik handienak ez ziren bost edo sei metro baino luzeagoak.

Haien idazkera argia da, indartsua eta leuna, baina ez loretsua, zeren eta, biziki ihes egiten baitute beharrezko ez diren hitzak pilatu edo adierazpide ezberdinak erabiltzetik. Haien liburu asko irakurri dut oso arretaz, historia eta moralari buruzkoak, batez ere. Azken hauei dagokienez, oso ongi pasatzen nuen beti Glumdalclitchen logelan zegoen liburutxo zahar batekin: haren hartzainarena zen, beti moral eta deboziozko liburu artean zebilen adineko andere

kopetilun harena. Giza espeziearen ahuleziari buruzkoa da liburua, eta estimazio gutxikoa emakume eta jende xehearen artean izan ezik. Halere, banuen jakingurarik ea gai honi buruz zer esaten ote zuen herrialde hartako idazle batek. Europako moralisten ohiko gai guztiak aztertzen zituen idazleak, izatez gizakia zein animalia ñimiño, mesprezagarri eta babesgabea den erakutsiz; zein ezgauza den eguraldiaren gogortasunetik edo piztien basakeriatik bere burua babesteko; berau baino zenbat gehiago den animalia bat indarrez, beste bat bizkortasunez, hirugarren bat gauzak aurreikusten, laugarren bat lanean. Munduaren beheraldiko azken garaiotan Natura endekatu egin zela gaineratzen zuen, eta orain abortu txikiak bakarrik jaiotzen zirela antzinako haien aldean. Giza espeziea hasieran askoz handiagoa izan zela pentsatzea oso zentzuzkoa zela esaten zuen, baita erraldoiak egongo zirela ere iragan garaietan, historiak eta tradizioak baieztatzen duten eta erresumako zenbait aldetan aurkitutako hezur-tzar eta burezurrek ere bide batez berresten duten bezala, hauek gaur egun ohikoa den giza

espezie murriztuarenak baino askoz handiagoak direlarik. Argudiatzen zuenez, Naturako legeak berak eskatzen omen zuen gu hasieran tamaina handiagokoak eta indartsuagoak izatea, eta ez edozein istripu txikik —etxetik teila bat jausteak, edo mutikoren baten harrikadak, edo errekastoren batean itotzeak— desegiteko modukoak. Arrazoibide honetatik, zenbait aplikazio moral ateratzen zuen autoreak bizitzako jokabiderako, baina ez da beharrezkoa hemen errepikatzea. Neure aldetik, ezin nion utzi pentsatzeari zein hedatua dagoen alde guztietan, Naturarekin ditugun liskarretan oinarrituz, moral-sermoiak —edo hobeto esanda, deskontentu eta kexugaiak— sortzeko ohitura hau. Eta ikerketa zorrotza egingo balitz, uste dut liskar hauek funsgabeak direla frogatuko litzatekeela bai gure artean, baita haien artean ere.

Arazo militarrei dagokienez, harro daude Erregearen armadak ehun eta hirurogeita hamasei mila oinezko eta hogeita hamabi mila zaldun gerlari dituelako; bidezko bada armada deitzea hiri ezberdinetan merkatariz eta landa-herrietan nekazariz eratua dagoen hari, beronen aginta-

riak aitonen seme eta goi-burgeseriakoak baka-
rrik direlarik. Egia esateko, aski trebeak dira
beren ariketetan, eta oso diziplinatuak, honetan
ez nuelarik meritu handirik ikusi, zeren eta, zer-
gatik ez horrela jokatu nekazari bakoitza bere
nagusiaren eta hiritar bakoitza bere hiriko buru-
zagien agindupean baldin badago, hauek, Vene-
zian bezala, botazioz aukeratuak direlarik?

Sarritan ikusi dut Lorbulgrudeko milizia kan-
pora irtenda hiri ondoko zabalgunek handi batean
—hogeia milia zen zabal— ariketak egiten. Ez
ziren guztira hogeita bost mila oinezko eta sei
mila zaldizko baino gehiago izango; baina ezi-
nezkoa zitzaidan haien kopurua kalkulatzeko, har-
tzen zuten lurralde zabala kontutan izanda. Zal-
dizko bat zaldi arin handi baten gainean hogeita
zazpi metro altu izan zitekeen. Ikusia dut zaldiz-
koen multzo hau osorik, aginduari jarraituz,
beren ezpatak atera batera, eta airean eragiten.
Irudimenak ezin du hain handios, harrigarri eta
txundigarrikerik ezer imajinatu. Hamar mila oinaz-
targi aldi berean zeruko bazter guztietatik geziak
botatzen ari balira bezala ematen zuen.

Banuen gogorik jakiteko, aginterri hartara beste inondik sartzerik ez dagoelarik, Printze hari nola bururatu ote zitzaion armadarena edo bere herriari militar-jarduerak irakastea. Eta laster jakin nuen, bai izandako elkarrizketen bidez baita haien historiak irakurriz ere. Izan ere, giza espezie osoari dagozkion gaitz berberak jasan behar izan dituzte mende luzetan zehar: nobleteria boterearengatik borrokan sarri, herria askatasunaren bila, eta Erregeak aginte absolutua nahi zuelako. Gauza guzti hauek, nahiz eta zorionez erresuma hartako legeek murriztu izan, hiru aldeetako bakoitzak hautsi izan ditu batzuetan; eta behin baino gehiagotan gerra zibilak sortu dira, azkenekoari oraingo Printzearen aitona eman ziolarik amaiera zoriontsua guztien akordioaz; eta adostasun orokorraz orduan ezarri zen miliziak geroztik bere zereginen barnean iraun izan du beti.

8. KAPITULUA

Erregeak eta Erreginak bidaia ofiziala egin mugaldeerara. Autorea ere beraiekin joan. Herrialde hartatik nola irteten den kontatzen du zehatz-mehatz. Ingalaterrara itzule-ra.

Beti izan nuen noizbait askatasuna berreskuratuko nuelako uste sendoa, nahiz eta ezinezkoa izan nola lortuko nuen imajinatzea edo arrakasta izateko itxaropenik txikienaz proiekturik prestatzea. Ni ekarri ninduen itsasontzia omen zen kostalde hartan sekula ikusitako lehena, eta agindu zorrotzak emanak zituen Erregeak, besterik agertzen bazen inoiz, lehorrera zezatela eta bertako marinel eta pasaiari guztiekin brozel batean Lorbulgrudera eramateko. Neure tamainako emakume bat aurkitu nahi zidan Erregeak, espeziea zabaldu ahal izan nezan; baina uste dut nahiago izango nuela hiltzea, neuk utzitako ondorengoak kanari domestikatuak bezala kaio-

latan gordeak izan eta agian geroago erresuman zehar bitxikeria gisa handikiei salduak izateko zoritxarra jasan baino lehen. Egia da begirune handiz erabiltzen nindutela ni; Errege-Erregina paregabe haien faboritoa nintzen, eta Gorte oso-aren lilura, baina giza espeziearen duintasunarentzat iraingarri zen oinarri gainean. Ezin nituen inoiz ahaztu etxean utzitako kuttun haiek. Maila berean hitz egin ahal izateko moduko jendearekin egon nahi nuen, eta igel edo txakurkume bat bezala oinpean harrapatuta akabatzeko beldurrik gabe ibili nahi nuen landa eta kaleetan. Baina uste baino lehen iritsi zitzaidan askapena eta ez oso era arruntean; istorio eta gorabehera guztiak zehatz-mehatz kontatuko ditut.

Ordurako bi urte neramatzan herrialde hartan; eta hirugarrenaren hasiera aldera, Glumdalclitch eta biok Errege-Erreginarekin batera joan ginen bidaia ofizialean erresumaren hegoaldeko itsasertzera. Ohi bezala, bidaiatzeko kaxan eramanez ninduten, jadanik azaldu dudanez bezala, hiru metro t'erdiko zabalera zuen gelatxo eroso-errosa zelarik. Agindua nuen hamaka bat jartzeko, zetazko sokaz lau ertzetan goiari lotua, batzue-

tan eskatzen nuen bezala, morroiren batek zaldi gainean bere aurrean eramatean, astindiak leuntzeko, eta sarritan loak hartzen ninduen hamakan bidean gindoazela. Gelatxoaren sabaian, ez hamaka erdiaren pare-parean, agindua nion arotzari zulo karratu bat egiteko hogeita hamar zentimetroko zabalerakoa, bero egiten zuenean airea sar zedin lo nengoen bitartean; neuk nahi nuenean ixten nuen zuloa, artekan atzera eta aurrera ibiltzen zen ohol baten bidez.

Bidaia amaitu genuenean, egoki iruditu zitzaion Erregeari Flanflasnic-etik hurbil zeukan jauregian egun batzuk ematea; hiri hau itsasertzetik hamazortzi milia ingelesera dago. Zeharo nekatuak geunden Glumdalclitch eta biok; marranta pixka bat nuen nik, baina neskato gaixoa hain gaizki zegoenez, ezin zen bere gelatik irten. Itsasoa ikusteko irrikatan nengoen, hura izango baitzen nire ihesbide bakarra, noizbait halakorik egokitzen bazitzaidan. Nengoen baino okerrago agertzeko plantak egin nituen, eta itsasoko aire freskoa hartzera joateko baimena eskatu nuen, oso maite nuen eta batzuetan ni zaintzeko ardura izaten zuen gorte-mutil bate-

kin. Ez dut inoiz ahaztuko zein gogo txarrez onartu zuen Glumdalclitchek, ezta zein zorrotz eman zion mutilari ni zaintzeko ardura ere, aldi berean negar-malkotan urtzen zelarik, gertatuko zenaren aurrentipenen bat izan balu bezala. Ordu erdi inguruko bidea eginez, jauregitik itsasertzeko harkaitzetara eramanez ninduen mutilak neure kaxan. Lurrean uzteko agindu nion, eta leihoetariko bat gora zabalduz, begiratu malenkoniatsu goibel asko egin nizkion itsasoari. Pixka bat ondoezik nengoen eta, on egingo zidan itxaropenez, hamakan lo-kuluxka bat egin nahi nuela esan nion gorte-mutilari. Ni etzan, eta gelatxoko leihoa beheratu zuen hark, hotzik sar ez zedin. Laster hartu ninduen loak eta, uste dut, lo nengoen bitartean, arriskurik ez zegoela pentsatuz, mutila harkaitzetara joan zela txori-arrautzen bila, aurrez ikusia bainuen leihotik arraildura artean bila eta bat edo bi hartzen. Nolanahi ere, kontua da, hobeto garraiatzeko kaxak gainean atxikita zeukan zirgilotik egindako teinkada bortitz batek iratzarri ninduela bat-batean. Kaxa airean oso gora zihoala ohartu nintzen, eta gero aurrera eramana izugarritzko abia-

dan. Lehen astindua iaia bota ninduen hama-
katik, baina gero nahikoa baretu zen mugimen-
dua. Ahal nuen bezain ozenki oihu egin nuen
hainbat aldiz, baina alferrik dena. Leihoetarantz
begiratu, eta ez nuen ezer ikusi, hodeiak eta
zerua baizik. Hegal-hotsa bezalako zerbait
entzuten nuen buru gainean, eta neure egoera
tamalgarriaz ohartzen hasi nintzen; arranoren
batek moko sartuko zuen kaxaren zirgiloan,
gero harkaitz gainean jausten utzi —dortoka
bere oskolean bezala— eta nire gorputza atera
eta jateko. Izan ere, hegazti hau bere maltzurke-
ria eta usaimenaz gai baita harrapakina tarte
luzera aurkitzeko, nahiz eta bost zentimetroko
oholaren azpian ni nengoen baino hobeto ezku-
tatua egon.

Laster, zarata eta hegal-hotsa bizkor ari zire-
la areagotzen ohartu nintzen, eta nire kaxa gora
eta behera inarrosia zela seinale-kartela egun
haizetsuan bezala. Zenbait kolpe eta zartada
entzun nituen, arranoari emanak nire ustez (ziur
bainago horrelakoren bat zela kaxaren zirgiloa
mokoan zuena), eta gero, bat-batean zuzen-
zuzenean behera jausten ari nintzela sumatu

nuen minutu bat baino luzaroago, eta hain abia-
da beldurgarrian ezen arnasarik gabe geratu bai-
nintzen ia. Ikaragarritzko palastadaz amaitu zen
nire erorketa, Niagarako ur-jauziena baino oze-
nagoa izan zelarik nire belarrietarako; gero ilun-
tasun beltzean eman nuen beste minutu bat eta
ondoren kaxa goraka hasi zen, leihoen goialdee-
tatik argia ikusi ahal izan nuen arte. Itsasora jau-
sia nintzela konturatu nintzen orduan. Kaxa
urgainean zegoen baina nire gorputzaren, barru-
ko gauzen eta goiko eta beheko lau ertzak sen-
dotzeko jarritako burdin xafla zabalen pisuaz, ia
metro t'erdi uretan murgilduta. Uste izan nuen
orduan, orain bezalaxe, nire kaxarekin zihoan
arranoari beste bizpahiruk jarraitu ziotela, eta
jaregin beharrean aurkitu zela, harrapakina
banatzea espero zuten besteengandik bere
burua babestu ahal izateko. Kaxaren zoruan zeu-
den burdin xaflek (sendoenak zirenak) orekan
mantendu zuten jausi bitartean, eta urgainaz
apurtzea ere eragotzi zuten. Lotune guztiak ere
ongi erantsiak zeuden, eta atea ez zen erro-
bidez mugitzen baizik eta gora eta behera leiho-
ak bezala, eta horrela nire gelatxoa hain herme-

tikoki itxia zegoenez, oso ur gutxi sartu zen barrura. Eragozpen handiz jaiki nintzen hamakatik, aipatu dudan sabaiko atexka zabaltzera ausartu nintzelarik lehenengo, izan ere, airea sartzeko pentsatua baitzegoen, eta honen faltaz ia ito larrian nengoen.

Zenbat aldiz desiratu ote nuen nire Glumdalclitch maitearekin egotea, ordu bakar batek hainbeste urrundua ninduelarik harengandik! Eta egiatan esan dezaket, neure zoritxarren erdian, ezin nintzela deitoratu gabe egon, ni galdu izanagatik eta Erreginaren suminagatik eta bere zori onaren hondamenagatik nire inude gaixoa jasaten ariko zen atsekabea. Agian bidaiari askok ez zuten biziko nik egoera hartan izan nuena baino zailtasun eta atsekabe handiagorik, edozein momentutan kaxa zati-zati eginda ikusteko beldurrez edo, gutxienez, lehen blastada bortitzaz edo Ain handi batez iraulita. Beirina haietako batean zirrikitu batek berehalako heriotza ekarriko zukeen. Eta beste ezerk ere ezingo zituzkeen leihoak babestu, bidaiatzean istripurik ez izatearren jarritako burdin hesi sendoek baizik. Zenbait zirrikitutatik ura sartzen zela ikusten

nuen, nahiz eta ez zen gauza askorik, baina ahal bezain ongi haiek estaltzen saiatu nintzen. Ez nintzen gauza gelatxoko sabaia altxatzeko, bestela ziur egon egingo nukeela, eta gainean eseriko nintzatekeela, hala behintzat ez bainintzatekeen itxita geratuko... presondegi hartan, nolabait esateko. Edo bestela, arrisku haietatik libratuta ere egun batez edo biz, zer espero neza-keen gosez eta hotzez heriotza tristea baino! Lau ordu eman nituen egoera hartan, edozein momentutan nireak egingo zuelakoan eta benetan hori desiratzen.

Esan diot jadanik irakurleari, bi urkila sendo zeudela finkatuta leihorik ez zeukan kaxaren aldean, eta zaldigainean eraman ohi ninduen morroiak larruzko uhala sartu ohi zuela haietatik eta gero bere gerri inguruan lotzen. Hain egoera etsian nengoelarik, nolabaiteko igurtzi-hotsak entzun nituen, —edo entzun nituela uste izan nuen behintzat—, urkilak zeuden kaxaren alde hartan, eta kaxari tenk egiten ziotela eta bazeramatela itsasoan aurrera iruditu zitzaidan berehala; zeren eta, tarteka-marteka nolabaiteko teinkadak sumatzen bainituen, uhinak leihoen goial-

deraino iritsarazi eta ni ia ilunpetan gelditzen nintzelarik. Laguntza-itxaropen txiki-txiki bat eman zidan honek, nahiz eta ezin nuen imajinatu nola zertuko zen hori. Aulkietariko bat destorlojutzera ausartu nintzen, beti zoruari loturik egoten baitziren; eta neke handiz lortu ondoren lehentxeago zabaldua nuen sabaiko leihatilaren pare-parean berriro torlojutzera, aulkira igo eta zulotik ahal bezain hurbil jarriz ahoa, laguntza eskatu nuen ozenki nekizkien hizkuntza guztietan. Orduan, nik erabili ohi nuen makila bati sudur-zapia lotu eta zulotik gora ateraz, hainbat aldiz astindu nuen airean, txaluparik edo ontzirik baldin bazegoen inguruan, marinela ohar zitezzen zoritxarreko gizakiren bat zegoela kaxa hartan itxita.

Egin nuen guztiarekin ere ez nuen erantzunik izan, baina gelatxo aurrera zihoala sumatzen nuen argi eta garbi; eta ordu bete edo agian gutxiagoren buruan, urkilak zeuzkan eta leihorik ez zeukan alde hartan, zerbait gogorraz tupust egin zuen kaxak. Harkaitzen bat izango zela bururatu zitzaidan, eta ordura arte ez bezalako astinaldia izan nuen. Zarata entzun nuen argi

eta garbi gelatxoaren estalki ganean, kable batena bezalakoa, eta haren kirrika-hotsa zirgilotik pasatu zenean. Orduan, poliki-poliki gora ari nintzela igotzen ohartu nintzen, metro bete inguru bai. Ondoren, berriro atera nituen makila eta sudur-zapia, laguntza eske oihuka ia erlastuta geratu arte. Erantzun gisa, deiadar bizi bat entzun nuen hiru aldiz errepikatua, eta izan nuen poza, halakoa sentitzen dutenek bakarrik uler dezakete. Berehala oinotsak entzun nituen gairenean, eta norbait zulotik ozenki deiadarka ingelesez: *Inor baldin badago behean, hitz egin dezala*. Ingelesa nintzela erantzun nuen, patu beltzak inoiz izakiren batek jasandako zoritxarrik handienak ekarria eta, zero-lurren izenean, ziega hartatik atera nintzateela erregutu nien. Salbu nintzela erantzun zuen ahotsak, nire kaxa haien ontziari lotua baitzegoen; eta arotza berehala iritsiko zela eta zerraz zulo bat, ni kanpora ateratzeko behar bezain handia, egingo zuela estalkian. Ez zela beharrezkoa eta gehiegi luzatuko zela erantzun nion, izan ere, ez zegoela zeregin handirik, nahikoa zela marineletako batek behatza sartu zirgilotik eta kaxa itsasotik ontzi gaine-

ra ateratzea, eta gero kapitainaren ganbarotera eramatea. Hain zentzugabe hitz egiten nuela entzutean, zorotzat hartu ninduten haietako batzuek; beste batzuek barre egin zuten; inola ere ezin baitzitzaidan buruan sartu neure altuera eta indar bertsuko jendearen artean nengoela orduan. Iritsi zen arotza eta zenbait minututan metro bete eta gehixeagoko karratu bat zerratu zuen, gero eskaileratxo bat bota, ni han gora igo eta ontzira eraman ninduten oso ahul nengoelarik.

Zeharo txundituta zeuden marinetak, eta milaka galdera egin zidaten, nik ez nuelarik erantzuteko gogorik. Era berean nengoen neure txunditua hainbeste pigmeo ikusteaz, horrelakoak zirela uste bainuen, nire begiak luzaroan ohitu ondoren herrialde hartan utzitako gauza erraldoiak ikustera. Baina kapitainak, Shropshire-ko gizon zintzo eta jatorra zen Thomas Wilcocks jaunak, zorabiatzeko zorian nengoela oharturik, bere ganbarotera eraman ninduen, bizkorgarri bat eman suspertzeko, eta bere ohean etzatera behartu ninduen, atsedenaldirik bat har nezan aholkatuz, izan ere, oso beharrez-

koa bainuen. Ohera aurretik, kaxan altzari balio-
tsu batzuk banituela eman nion aditzera, eta
onegiak zirela galtzeko: hamaka bikaina, kanpa-
ohe dotorea, bi aulki, mahaia eta idazmahaia;
gelatxoak zintzilikarioak zituela alde guztietan,
edo hobeto esanda, zetaz eta kotoiz gosnatua
zegoela; marineletako bati uzten bazion nire
gelatxoa ganbarotera ekartzen, bere aurrean
zabalduko nuela eta nire ondasunak erakutsiko
nizkiola. Kapitainak, erabateko zentzugabekeria
hauek entzun ondoren, eldarniatzen ari nintzela
erabaki zuen. Halere (ni lasaitzearren, uste dut),
nik nahi nuena aginduko zuela hitz eman zidan
eta, kubiartara joan zelarik, bere gizonetariko
batzuk bidali zituen nire gelatxora, nondik (gero
konturatu nintzen bezala) nire gauza guztiak
atera eta gosnatua jo eta kendu egin baitzuten;
baina aulkiak, idazmahaia eta ohea, zoruari tor-
lojutuak zeudenez, oso hondatuak geratu ziren
marinelen ezjakintasunez, indarrez kendu baitzi-
tuzten. Gero, oholetako batzuk ere brast kendu
zituzten ontzian erabiltzeko eta gogoak eman
ziren guztia hartu ondoren, itsasora bota zuten
kraskoa, hondoan eta alboetan zituen zirrikitu

askoren ondorioz, *jesus amen* batean urperatu zelarik. Eta benetan, pozik nengoen haiek egin-dako triskantzaren ikusle ez izanaz; zeren eta, ziur bainago, biziki hunkituko ninduela, ahaztea hobe nuen zenbait gertakari gogora ekar eraziz.

Hainbat orduz lo egin nuen, baina etengabe asaldatuta ihes egitean atzera utzi nuen herrialde eta arriskuei buruzko ametsez. Halere, esnatu ondoren, askoz hobeto sentitu nintzen. Arratseko zortziak ingurua zen, eta kapitainak afaria ekartzeko agindu zuen berehala, baraurik luza-roegi egon nintzela pentsatuz. Oso atsegingarri-
ro hitz egin zuen nirekin, ero-itxurarik ez nuela ohartuz ezta zentzugabe hitz egiten ere; eta bakarrik utzi gintuztenean, neure bidaien berri emateko erregutu zidan, eta ea nolako istripuz geratu nintzen itsasoan noraezean zurezko kutxa erraldoi haren barnean. Eguerdiko hama-
biak aldera, kataloxaz begira ari zen bitartean, urrutira ikusi eta belaontzia zela pentsatu zuela esan zuen, eta bide bertsuan zegoenez, bertarai-
no iristen saiatu zela, bizkotxo pixka bat eroste-
ko itxaropenez, amaitzen ari baitzitzaion berea. Hurbilago joan eta bere hutsegiteaz ohartzean,

txalupa bidali zuela zer ote zen ikertzera; izutu-
ta itzuli zirela haren gizonak, urgaineko etxe bat
ikusi zutela zin eginez. Barre egin ziela txorake-
ria harengatik eta bera joan zela ontzian, kable
sendo bat eraman zezatela aginduz gizoni. Hai-
zea bare-bare zegoenez, arraunean ibili zela nire
inguruan, leihoak eta hauen babesgarri ziren
burdin hesiak ikusi zituelarik. Dena oholez esta-
lia eta argi-sarrerarik gabe zegoen aldean bi
urkila aurkitu zituela. Alde hartarantz arraunean
joateko agindu ziela gizoni eta, urkiletako bati
kablea lotu ondoren, nire kutxa (horrela deitzen
baitzuen) ontzirantz garraiatzeko ordena eman
ziela. Hara iritsi zirenean, estalkian zegoen zirgi-
loari beste kable bat lotzeko eta nire kutxa
poleaz jasotzeko adierazi ziela, marinel guztien
artean ere ezin izan zutelarik metro erdi edo
metro bete baino gorago altxatu. Nire makila eta
sudur-zapia zulotik irteten ikusi zituztela ere
esan zuen, eta barruan itxita gizarajoren bat
zegoela pentsatu zutela orduan. Galdetu nion ea
berak edo marinelen batek hegazti handi-handi-
ren bat ikusi ote zuen airean lehen aldiz aurkitu
ninduten momentuan. Lo nengoen bitartean, gai

honetaz marinelekin hitz egin zuela erantzun zidan, eta iparralderantz hegan hiru arrano ikusi zituela esan omen zion haietako batek, baina ez zuela esan ohiko tamainakoak baino handiagoak zirenik —hain goian egoteagatik gerta zitekeela hau uste dut nik—, eta ezin zuela ulertu nire galderaren zergatia. Bere ustez, lehorretik zenbaterara ote geunden galdetu nion orduan kapitainari; eta egin zezakeen kalkulurik onenaren arabera, ehunen bat legoara behintzat egongo ginela esan zuen. Gutxienez erdiaz oker zegoela baieztatu nion, zeren eta, itsasoan jausi nintzenean ez baineramatzan bi ordu baino gehiago herrialde hartatik kanpo. Ondorioz, berriz hasi zen burua nahastua nuela pentsatzen, honela eman zidalarik aditzera, eta prestatua zidan ganbarotean oheratzeko aholkatu zidan. Beraren tratu on eta konpainiarekin oso bizkortua nengoela baieztatu nion, eta neure bizitzan inoiz ez bezain argia buruz. Kopetilun jarri zen orduan, eta argi eta garbi galdetu nahi zidala esan zidan ea ez ote nengoen kezkatua krimen beldurgarriren baten barne-zimikoaz, printzeren baten aginduz agian harengatik zigortuko nindutelarik kutxa hartan

egotera, beste herrialde batzuetan kriminal handiak, ontzi zulatueta eta horniziorik gabe, itsasoratzerak behartzen dituzten bezala; zeren eta, hain gizon gaiztoa bere ontzian jasotzeaz damu izango zen arren, halere bere hitza ematen zidala onik lehorreratuko ninduela iritsitako lehen portuan. Neure gelatxo edo kutxari buruz hasieran marinelei eta gero berari esandako zentzugabekeria handien ondorioz bere susmoak oso areagotu zirela gaineratu zuen, baita afaritan egin omen nituen begiratu arraro eta izandako jokabide bitxiaz ere.

Neure istorioa eroapenez entzuteko erregutu nion, zehatz-mehatz kontatu niolarik Ingalaterra azkenekoz utzi nuenetik berak aurkitu ninduen arte gertatutakoa. Eta azkenean egia beti sartzan denez arrazoizko buruetan, gizon zintzo jator hura ere —bai baitzuen kultura pixka bat eta oso zentzu ona— berehala geratu zen konbentzitura nire errugabetasun eta egiatasunaz. Baina esan nion guztia berrestearren, nire idazmahaia ekar zezaten agindua emateko erregutu nion, haren giltza neuk neukalarik poltsikoan (ordurako adierazia baitzidan marinelek zer egin

zuten nire gelatxoaz); beraren aurrean zabaldu nuen, eta hain era berezian atzera utzitako herrialdean egon nintzen bitartean egindako bitxikerien bilduma txikia erakutsi nion. Han zegoen Erregearen bizar-zatiekin eginiko orrazia, eta beste bat, material berdinekoa, baina zatiak Erreginaren erpuruko atzazal-ebaki batean sartuak, hau izanik orraziaren bizkarraldea. Han zegoen hogeita hamar-berrogeita hamar zentimetro luze izango ziren orratz eta buruorratzen bilduma ere. Lau liztor-ezten, arrotzen katxetak bezalakoak; Erreginaren orrazkondo batzuk; eta egun batez hain eskuzabal erregalatu zidan urrezko eraztun bat, bere txirkandatik atera eta buru gainera bota zidalarik lepoko gisa. Bere arduren truke, eraztun huraxe hartzea atsegin izan zezala erregutu nion kapitainari, baina ezezko biribila eman zidan. Ohorezko dama baten behatzetik neure eskuez kendutako maskur bat ere erakutsi nion; Kent-eko erregine-ta baten tamainakoa zen gutxi gorabehera, eta hain gogortua zegoenez, Ingalaterrara itzuli nintzenean, edalontzi-eran hustu eta zilarreztatzero eramane nuen. Azkenik, aldean nituen prakak

ikusteko erregutu nion, sagu-larruz eginak zirelarik.

Ezin izan nuen ezer hartzera behartu, lekaio baten hagina izan ezik, jakingura handiz behatzen ziola eta haretxen irrika zuela ohartu bainintzen. Eskerrak eta eskerrak emanaz onartu zuen, huskeria hark balio baino gehiago. Glumdalclitche morroietariko bat hagineta minez zegoelarik, mediku trakets batek hutsegitez ateratakoa zen, baina haren masailezurreko beste edozein bezain osasuntsu zegoena. Garbiarazi eta neure idazmahaian gordea nuen. Hogeita hamarren bat zentimetro zen luze eta hamar diametroan.

Oso pozik geratu zen kapitaina egin nion kontaketa xumearekin; eta esan zuen, Ingalaterrara itzultzean, hura papereratu eta argitaratuz, mundu guztiaren esker ona irabaz nezan espero zuela. Nire ustez, jadanik bidai liburuz gainezka geundela erantzun nion; ezin zela jadanik apartekoa ez zen ezer gertatu, horregatik nuelarik zalantza ez ote zuten autoreren batzuek egia gutxiago kontutan hartzen beren harrokeria edo interesaedo irakurle ezjakinen dibertsioa baino.

Nire istorioak gertaera arruntez gain ezer gutxi izango zuela, landare, zuhaitz, txori eta beste animalia exotiko batzuen edo jende basatien ohitura anker eta idolatriaren kontaketa apaintsurik gabe, horrelako asko sartzen dutelarik idazle gehienek. Halere, eskertu egin nion bere iritzi ona, eta hausnartuko nuela arazoa hitz eman nion.

Gauza batek harritzen zuela izugarri esan zidan, hain ozen hitz egiten entzuteak alegia, eta ea herrialde hartako Erregea edo Erregina entzungorrak al ziren galdetu zidan. Aurreko bi urte baino gehiagoz hartara egin nintzela esan nion, eta ni ere beste hainbeste liluratzen ninduela haren eta beraren gizonen ahotsak, xuxurlan ari zirela iruditzen baitzitzaidan, halere nahikoa ongi entzuten nielarik. Baina beste herrialde hartan hitz egiten nuenean, kalean dabilen gizon batek kanpandorrearen goian dagoen beste bati hitz egitea bezala zela, mahai gainean edo pertsonaren baten eskuan jartzen ez baninduten behintzat. Beste gauza batez ere konturatu nintzela esan nion, ontzira igo nintzen lehen momentuan eta marinel guztiek inguratu nindu-

tenean, inoiz ikusitako izaki txiki mesprezagarrienak zirela pentsatu nuela. Zeren eta, egia esateko, Printze haren herrialdean egon nintzen bitartean, ezin izan bainuen ispilura begiratzerik jasan, begiak hain gauza handietara ohituak nituelarik neure buruaren oso irudi kaskarra ematen baitzidan konparaketak. Kapitainak esan zidanez, afaldu bitartean gauza guztiei harriturik bezala begiratzen niela ohartu omen zen, sarritan barreari nekez eusten niola ematen zuelarik, eta ez zekiela garbi nola hartu hura, baina nire buruko asalduraren bati egotzi ziola errua. Egia-egia zela erantzun nion, eta neu ere harriturik nengoela nola ez nuen barrerik egin hiru penikeko zilarrezko txanpon baten tamainako plater haiek, edo ozta-ozta mokadu batekoa zen txerri-izterra, edo intxaur-azala bezain handia ez zen kikara bat ikusi nituenean; eta era berean jarraitu nuen gainerako mahai-tresnak eta jakiak aipatzen. Zeren eta Erreginak, beraren zerbitzura nengoen bitartean beharrezko izango zitzaizkidan gauza guztien ekipo txiki bat niri emateko agindua zuen arren, halere nire ideiak bat egin da baitzeuden inguru guztian ikusten nuenare-

kin, eta ezikusiarrena egiten nion neure txikitasu-
nari, jendeak bere akatsei egin ohi dien bezala-
xe. Kapitainak oso ongi ulertu zuen nire txantxa,
eta esaera zahar ingeles batez erantzun zidan
esanez zalantzan jartzan zuela nire begiak sabe-
la baino handiagoak zirenik, ez baitzitzaion irudi-
tzen hain jangura handia nuenik, nahiz eta
baraurik egon egun osoan; eta bere umore onaz
jarraituz, nire gelatxoa arranoaren mokoan eta
gero hain altuera handitik itsasora jausten ikus-
teagatik ehun libera pozik emango zituzkeela
esan zuen, benetan oso gauza harrigarria izango
baitzen, haren deskribapenak mereziko zukeela-
rik ondorengo mendeetara transmititua izatea;
eta Faetonekiko konparaketa hain nabaria
zenez, ezin izan zuen aipatu gabe utzi, nahiz eta
ni neu ez ninduen gehiegi liluratu ateraldi hark.

Kapitaina, Tonquinen egon ondoren Ingalate-
rrara itzultzen ari zela, latitudez 44 eta luzeraz
143 gradura izan zen eramana ipar-ekialderantz.
Baina ni ontziratu eta bi egunera alisio-haizeekin
topo egin ondoren, hegoalderantz joan ginen
luzaroan eta Holanda Berriaren itsasbazterretik
ibiliz mendebalde-hego-mendebalderantz eta

gero hego-hego-mendebalderantzako norabideari jarraitu genion Esperantza Oneko Muturraz bestaldera pasatu arte. Bidaia oso ona izan zen, baina ez dut irakurlea orduko egunkariaz aspereraziko. Portu batean edo bitan geratu zen kapitaina eta txalupa bidali zuen hornizio eta urgezaren bila, baina ni ez nintzen sekula ontzitik irten Downsera iritsi arte, 1706ko ekainaren 3an, ihes egin nuenetik bederatzi hilabetera gutxi gorabehera. Itsasaldia ordaintzeko, neure ondasunak bahituran uztea eskaini nion, baina penike laurdenik ere ez zuela hartuko esan zuen kapitainak tinko. Bihotzez agur esan elkarri, eta ni ikustera Redriffera etorriko zitzaidala hitz eman erazi nion. Kapitainari maileguan hartu nizkion bost shilling-ez zaldia eta gidaria alokatu nituen.

Bidean nindoala, etxeen, zuhaitzen, ganaduaren eta jendearen txikitasunari begira, Liliputen nengoela hasi zitzaidan buruan sartzen. Beldur nintzen topo egiten nituen bidaiariak oinpean hartzeko, eta sarritan egiten nuen oihu bidetik ken zitezen, behin edo birritan ia apurtu zidatelarik burua neure lotsagabekeriagatik.

Etxera iritsi nintzenez, non zegoen ere gal-
detu beharra izan nuelarik, morroietariko batek
atea zabaltzean, buruaz jotzeko beldurrez
makurtu egin nintzen sartzeko (antzara atexka-
tik bezala). Besarkatzera etorri zitzaidan emaz-
tea korrika, baina haren belaunpetaraino makur-
tu nintzen, bestela ez zela inoiz nire ahora iritsi-
ko pentsatuz. Alaba belaunikatu egin zitzaidan
bedeinkatzeko eskatuz, baina ezin izan nuen
ikusitako arte, luzaroan bainengoan ohi-
tua neure burua eta begiak tente edukitzera
hamazortzi metro baino goragora begira; eta
gero, gerritik esku batekin altxatzera joan nin-
tzaion. Morroiei eta etxean zeuden bizpahiru
lagunei goitik behera begiratzen nien, haiek pig-
meoak eta ni erraldoia bagina bezala. Gutxiegi
gastatu zuela esan nion emazteari, alaba eta
biak goseak hezur eta azal huts utzi zituela ikus-
ten bainuen. Labor esateko, hain bitxia zenez
nire jokabidea, kapitainak lehen aldiz ikusi nin-
duenez izan zuen iritzi berekoak ziren guzti
haiek ere, eta burutik eginda nengoela pentsatu
zuten. Ohiturak eta aurreiritziak duten indar
handiaren adibide bezala aipatzen dut hau.

Berehala iritsi ginen ni, etxekoak eta lagunak elkar zuzen ulertzera, baina sekula gehiago ez nuela itsasoratu behar esaten zuen biziki emazteak; nahiz eta nire patu beltzak antolatu zuenaren arabera, hark ez zuen eragozteko indarrik izan, irakurleak ondoren jakin ahal izango duen bezala. Bitartean hemen amaitzen dut nik neure zoritxarreko bidaien bigarren zatia.

BIGARREN ZATIAREN AMAIERA

**III. ZATIA:
LAPUTA, BALNIBARBI,
GLUBBDUBDRIB,
LUGGNAGG ETA JAPONIARA
BIDAIA**

1. KAPITULUA

Hirugarren bidaiari ekiten dio auto-reak; itsas lapurrek harrapatzen dute. Holandar baten maltzurkeria. Irla batera iristen da. Laputan hartzen dute.

Ez neramatzan etxean hamar egun baino gehiago, Kornualeseko William Robinson kapitaina, *Hope-well* hirurehun tonako ontzi sendoa bere agindupean zuena, etxera etorri zitzaidanean. Aurrez izana nintzen mediku beste ontzi batean, kapitain bera izanik hango buru eta laurden batean jabea, Sortaldera egin genuen bidai batean; beti hartu ninduen anaiatzat menpeko ofizialtzat baino gehiago, eta itzuli nintzela entzutean bisita egin zidan, ulertu nuenez adiskidetasunagatik bakarrik, kanpoan luzaroan egon ondoren ohikoa denaz baino ez baikenuen hitz egin. Baina gero sarri eginez ikustaldiak, osasuntsu aurkitzeagatik bere poza azalduz, ea jadanik betirako lehorrean ezarria ote nengoen

galdetuz, bi hil barru Eki-Indietara bidaiara bat egiteko asmotan zebilela gaineratuz, azkenean, barkatzeko eta esanez, argi eta garbi gonbidatu ninduen ontzi hartako mediku izatera; beste mediku bat izango nuela neure esanetara bi laguntzaileez gain; nire soldata ohikoa baino bi aldiz handiagoa izango zela; eta bazekienez esperientziaz itsas kontuetan nuen jakintza berearen parekoa zela, nire aholkuak jarraitzeko konpromisoa hartzen zuela esan zidan, neuk ere agintean parte hartuko banu bezalaxe.

Beste hainbat gauza atsegin ere esan zuen, eta zein gizon leiala zen banekienez, ezin izan nion haren proposamenari uko egin; nire iragan zoritxarrak gorabehera, beti bezain bizia zen mundua ikusteko nuen irrika. Geratzen zen oztopo bakarra emaztea konbentzitzea zen, baina azkenean lortu nuen haren adostasuna, bere umeentzat onuragarri izango zen itxaropenaz.

1706ko abuztuaren 5ean abiatu ginen, eta San Jorge gotorlekura 1707ko apirilaren 11n iritsi, han hiru aste eman genituelarik ontzilariak indarberritzeko, haietako asko gaixo baitzeuden. Handik Tonquinera joan ginen, bertan denboral-

di batez egotea erabaki zuelarik kapitainak, erosi nahi zituen gauza asko ez baitzeuden prest, eta ezin zuen espero izan zenbait hilabetez emango zizkietenik ere. Beraz, izango zituen gastuetariko batzuk ordaintzeko asmoz, balandra bat erosi zuen; tonkinarrek inguruko irletan saldu ohi zituzten salgai-mota ezberdinez bete eta, hamalau gizon bertaratuz, balandraren buru izendatu ninduen, tratuak egiteko ahalmena eman zidalarik, hark bere arazoen izapideak Tonquinen egiten zituen bitartean.

Ez generamatzan hiru egun baino gehiago nabigatzen ekaitz handia sortu eta lehenik ipar-ipar-ekialderantz eta gero ekialderantz eraman gintuenean, ondoren eguraldi ona izan genuelarik, nahiz eta artean mendebalak gogor jo. Hamargarren egunean bi pirata-ontzi hasi zitzaizkigun jarraika, laster harrapatu gintuztelarik; zeren eta, hain zama handia zeramanez, gure balandra oso astiro baitzihoan, eta gainera ez geunden geure buruak babesteko ere egokian.

la une berean eraso ziguten bi piratek, amonru bizian oldartu zitzaizkigularik beren gione-

kin atzetik, baina guztiok ahozpez aurkitu gintuztenez (horrelaxe agindua bainuen nik), soka sendoz lotu zizkiguten besoak eta, zaintzaile batekin utzi ondoren, balandra miaztera joan ziren.

Holandar bat ikusi nuen haien artean, eta bazirudien nolabaiteko agintea bazuela, nahiz eta ez zen bi ontzi haien buru. Gure aurpegieragatik ingelesak ginela jakin zuen eta, bere hizkuntzan zitzipitzika mintzatuz, bizkarrez bizkar elkarlotu eta itsasora botako gintuztela zin egin zuen. Nik nahikoa ongi hitz egiten nuen holanderaz; nor ginen esan nion, eta kristau eta protestante ginela eta aliantza estuan zeuden auzoherrietakoak ginela kontutan izanda, kapitainekin hitz egin zezala erregutu nion gutaz pixka bat erruki zitezen. Honek amorru bizian jarri zuen, bere mehatxuak errepikatuz eta lagunengana bihurtuz, oso sutsu hitz egin zielarik, japonieraz uste dut, *Christianos* hitza sarri erabiliz.

Bi pirata-ontzietako handiena kapitain japoniar batek zuzentzen zuen, holanderaz pixka bat hitz egiten zuelarik, baina hutsegite askoz. Niregana hurbildu eta zenbait galdera egin ondoren —nik apaltasun handiz erantzun nizkionak—, ez

ginela hilko esan zuen. Oso makurtu nintzen haren aurrean, eta gero holandarrarengana itzuliz, esan nion benetan sentitzen nuela sinesgabe batengan anaia kristau batengan baino erruki handiagoa aurkitzea. Baina laster damutu nintzen hitz txoro hauek esan izanaz; zeren eta, gaizto maltzur hark, alferrik saiatu ondoren itsasora bota behar nindutela konbentzitzen bi kapitainak (ez baitzuten hauek amore eman, ez nintzela hilko agindu ondoren niri), halere lortu zuen zigor bat eman ziezadaten, edozein giza ikuspegitik heriotza bera baino ere okerragoa zena. Nire gizonak bi pirata-ontzietara bidali zituzten erdibana, eta jende berria nire balandrra. Neuri zegokidanez, kanoa txiki batean noraezean uztea erabaki zuten, arraba, bela bat eta lau egunerako hornizioekin; hauek kapitain japoniarrak, hain onbera izanik, azkenean bikoiztu egin zituen bere jakitegitik, inori utzi gabe ni arakatzen. Kanoara jaitsi nintzen, holandarrak, ontzi gainean zegoelarik, bere hizkuntzan esan litezkeen madarikazio eta hitz iraingarri guztiak botatzen zizkidan bitartean.

Piratak ikusi baino ordu bete inguru lehena-go, egina nuen kalkulua eta latitudez 46 gradura iparraldera eta luzeraz 183ra geundela konturatu nintzen. Piratengandik halako tarte batera egon nintzenean, nire poltsiko-kataloxaz zenbait irla aurkitu nituen hego-ekialdera. Haizea alde nuelarik, bela eraiki nuen irla haietako hurbilenera iristeko asmoz, hiru bat ordutan lortu nuelarik hori egitea. Harkaiztsua zen; halere, txori-arrautza asko bildu nuen eta, sukarria joz, txilar eta alga ihar batzuk piztu nituen, hala arrautzak prestatuz. Ez nuen beste ezer afaldu, erabakia bainuen ahal beste gordetzea neure hornizioak. Harkaitz baten babespean eman nuen gaua, txilar pixka bat zabalduz azpian, eta nahikoa ongi egin nuen lo.

Biharamunean beste irla batera joan nintzen, eta handik hirugarren eta laugarrenera, batzuetan bela erabiliz eta beste batzuetan arraba. Baina ez dut irakurlea asper eraziko neure zoritxarren kontaketa zehatzaz; aski izango da esatea bosgarren egunean iritsi nintzela ikusten nuen azken irlara, aurrekoaren hego-hego-ekialdera zegoelarik.

Nik uste baino tarte handiagoa zegoen irla hartara, eta bost ordu behintzat behar izan nituen iristeko. Ia inguru guztian eman nion bira lehorreratzeko leku egokia aurkitu baino lehen: kala txiki bat zen, kanoa baino hiru aldiz zabala-goa gutxi gorabehera. Irla zeharo harkaitzua zela konturatu nintzen, han-hemenka berdegune eta usaingozoko belar batzuk bakarrik zeudelarrik. Neure hornizio urriak atera eta pixka bat indarberritu ondoren, gainerakoa haitzulo batean gorde nuen, halako asko baitzeuden han. Arrautza ugari bildu nuen harkaitzetan, baita alga eta belar ihar asko ere, biharamunean sua egin eta ahal bezain ongi arrautzak prestatzeko erabili nituenak. (Zeren eta, neurekin baintuen sukarrria, zurdokia, metxa eta erre-ispilua). Hornizioak gordeta nitueneko haitzuloan eman nuen gau osoa etzanda. Su egiteko neuzkan belar eta alga ihar berberak izan ziren nire ohea. Oso lo gutxi egin nuen, gogo-kezkak nekeari nagusitu eta iratzarririk eduki baininduen. Hain leku soilan guztiz ezinezkoa zela bizirik irautea eta oso amaiera goibela izango nuela pentsatu nuen. Hain adoregabe eta bihotz eroria nengoenez, ez

nuen jaikitzeke gogorik, eta haitzulotik irteteko behar beste kemen lortu ahal izaterako, oso aurreratua zegoen eguna. Harkaitz artean ibili nintzen aldi batez; zerua zeharo oskarbi zegoen, eta eguzkia hain distiratsu, ezen ezin bainion zuzen begiratu; baina bat-batean ilundu egin zuen eta, nire ustez, ez hodei bat tartean jarritakoan gertatzen den bezala. Biratu eta egundoko gorputz opako bat ikusi nuen neure eta eguzkiaren artean, aurrera zetorrelarik irlarantz. Ematen zuen bi milia izango zituela altueran, eta sei edo zazpi minutuz ezkutatu zuen eguzkia, baina ez zitzaidan iruditu airea askoz hotzago edo zerua ilunago zegoenik mendi baten itzalpean egon banintz baino. Nengoen lekurantz hurbildu ahala, substantzia tinkoa zela ematen zuen, azpialdea laua, leuna eta oso distira biziak zuelarik beheko itsasoaren islaz. Zutik nengoen tontor batean itsasertzetik berrehunen bat metrora, eta gorputz izugarri hura beheratzen ari zela ikusi nuen ia nire parean jarri arte, milia ingeles batera baino hurbilago. Poltsiko-kataloxa hartu eta argi eta garbi jende pilo bat ikusi nuen gora eta behera zebilela haren alboetan, okertua zegoela

ematen zuelarik, baina jende hura zer egiten ari zen ezin nuen bereizi.

Bizitzeko berez dugun gogoak pozezko barne-zirrara eragin zidan, baita aurkitzen nintzeneko leku eta egoera triste hartatik abentura hark era batera edo bestera aterako ninduen itxaropena sortarazi ere. Baina aldi berean, nekez uler dezake irakurleak nire harridura irla bat airean ikustean, gizakiak bizi zirelarik bertan, irla, beren nahierara, gora edo behera edo aurrerantz eramateko gai zirenak (hala zirudien behintzat). Baina ez nengoenez orduan fenomeno honetaz filosofatzeko egoeran, nahiago izan nuen irla norantz joango zen begira geratzea, aldi batez geldi geratu zela ematen baitzuen. Halere, hurbilago etorri zen laster, eta haren alboak ikusi ahal izan nituen, zenbait galeria mailakatuz inguratuak eta batetik bestera jaisteko, tarteka-marteka, eskailerak zeudelarik. Barreneko galerian, zenbait jende ikusi nuen kanabera luzez arrantzan, eta beste batzuk begira. Neure txanoa (aspaldi hondatua bainuen kapela) eta sudur-zapia astindu nituen irla alde-rantz; eta are hurbilago etorri zelarik, hots eta

deiyadar egin nuen ahal bezain ozen; eta gero arretaz begiratzuz, jendetza sumatu nuen hobeto ikusten nuen alde hartan bilduta. Nire aldera eta elkarri egiten zizkioten keinuengatik garbi ikusten nindutela konturatu nintzen, nahiz eta ez zieten nire oihuei erantzuten. Baina eskaileratan gora lauzpabost gizon ikusi nituen presaka eta korrika irlaren gailurrerantz joaten, gero desagertu egin zirelarik. Pentsatu nuen, eta zuzen, argibide eske bidali zituztela egoera hartan agintea zuen norbaitengana.

Jende-kopurua gehitu egin zen, eta ordu erdi baino lehen, irla mugitu eta goratu egin zuten, hala, barreneko galeria ni nengoeneko altueraren maila berean eta ehun metrora baino hurbilago geratu zelarik. Orduan, otoika eta erreguka hasi nintzaien, eta erarik apalenean hitz egin nien, baina ez nuen erantzunik izan. Nire aurrean hurbilen zeudenak goi-mailako pertsonak zirela ematen zuen, haien janzkeratik atera nuen. Elkarren artean eztabaidan ari ziren sugartsu, sarri niri begiratzuz. Azkenik, haietako batek zerbait oihu egin zuen hizkera garbi, fin eta goxo batean, italiararen antzekoa doinuz;

eta hizkuntza horretan erantzun nien beraz, kadentzia behintzat haien belarrietarako atsegingarri izango zen itxaropenaz. Elkarri ezer ulertu ez genion arren, erraz jakin zuten zer adierazi nahi nien, jendeak ikusten baitzuen estu eta larri nengoela.

Keinu egin zidaten harkaitzetik jaitsi eta hondartzarantz joan nendin, hala egin nuelarik; eta irla hegalaria halako altuera bateraino igo zelarik, ertza nire gain-gainean zuela, katea bota zuten barreneko galeriatik, aulki batekin muturrean lotuta, eta hantxe eseri ondoren, gora igo ninduten poleaz.

2. KAPITULUA

*Laputiarren izaera eta aldarteak.
Haien kulturaren berri. Erregeaz eta
haren Gortean. Autoreak han izan
zuen harrera. Bertakoek jasaten
dituzten beldur eta kezka. Emaku-
meen berri.*

Aulkitik jaistean, jendetza handiak inguratu ninduen, baina hurbilen zeudenak kategoria handiagokoak zirela ematen zuen. Begiratzeko itxura eta jarreragatik zeharo harriturik zeuden, eta neu ere antzeratsu benetan, ez bainuen ordura arte inoiz ikusi hain gizaki-arraza bitxirik itxura, janzkera eta aurpegieraz. Haien buruak denak zeuden okertuta, eskuinerantz edo ezkererantz; begietako bat barrurantz bihurtua zuten, eta bestea zuzen-zuzen zeniterantz. Kanpoko arropak eguzki, ilargi eta izar irudiz apainduak zituzten, tarteka arrabita, xirula, harpa, turuta, gitarra, klavikordio eta guretzat Europan ezezagunak diren beste musika-tresna askorekin

nahasturik. Batean eta bestean asko ikusi nituen morroi-janzkeraz, eskuetan zeukaten makila motzaren muturrari idabur bat bezala lotua puxika bat zutelarik puztuta. Puxika bakoitzean ilaridor edo txintxika mordoxka bat zegoen (horrela esan zidaten gero). Noizean behin, inguruan zituztenen ahoak eta belarriak astintzen zituzten puxika haiekin, ezin izan nuelarik orduan jokabide haren esanahia ulertu; dirudienez, jende haren gogamena hain murgilduta egoten denez espekulazio sakonetan, ezin izaten dute ez hitz egin ezta gainerakoek esandakoa entzun ere, mintzamen- eta entzumen-organoetan kanpotik egindako ukituren batek ez baditu esnatzen; arrazoi honengatik, ordain lezaketenek behintzat beti izaten dute familian *astintzaile* bat (*climénole*, jatorrizko hizkuntzan) morroietariko bat bailitzan, eta ez dira kanpora irteten edo bisitan joaten hura gabe. Eta laguntzaile honen eginkizuna, bi pertsona edo gehiago elkarrekin daudenean poliki-poliki puxikaz jotzea izaten da, bai hitz egin behar duenaren ahoa baita entzulearen edo entzuleen eskuineko belarria ere. Halaber, *astintzaile* honek arduratsu lagundu behar dio

ugazabari paseora irtetea eta beharrezko denean zaflada goxo bat eman begietan, zeren eta, beti hain murgildua ibiltzen denez bere gogoetetan, edozein amildegitatik erortzeko arrisku nabarian egoten baita, edo buruaz edozein poste jotzeko, edo kaleetan beste batzuei edo besteek berari bultza egin eta erretenera joateko arriskuan.

Beharrezkoa zen irakurleari informazio hau ematea, bestela ni bezain galdua egongo bailitzateke, jende haren jokabidea ulertu ezinik, eskaileratan gora irlaren gailurrera eta handik errege-jauregira eramanez nindutenean. Gora gindoazen bitartean, hainbat aldiz ahaztu zitzaizkizuten zertan ari zirenen, eta neure kontura utzi, *astintzailerek* oroimenak berriro ernarazi zitzaizkizuten arte; zeren eta, nire janzkera eta itxura arrotza ikustea ez zitzaizkizuela batere axola ematen baitzuen, ezta herri xehearren oihuak ere, hauen pentsamendu eta gogamenak askeagoak zirelarik.

Azkenean, jauregira sartu eta bisita-aretoraino joan ginen, eta han Erregea ikusi nuen bere tronuan eserita, kategoriarik handieneko pertsonak zituelarik bi aldeetan. Tronuaren aurrean,

mahai handi bat zegoen globoz eta esferaz betea, eta mota guztietako matematika-tresnaz. Maiestatea ez zen gutaz batere konturatu, nahiz eta gure sarrerek aski zarata sortu, Gorteko pertsona guztiak inguratu baitziren. Baina bera arazoren batean sakon murgilduta zegoen orduan, eta ordu bete gutxienez itxaron behar izan genuen, ebatzi ahal izan zuen arte. Ondoan gorte-mutil gazte bat zeukan alde bakoitzean, astingailuak eskuetan zituztela, eta libre zegoe-la ikusi zutenean, haietako batek poliki ahoan eman zion, eta besteak eskuineko belarrian; orduan, izu-ikaratu egin zen bat-batean iratzar-tzen dutena bezala, eta nireganantz eta ingu-ruan nuen taldearenganantz begiratzuz, gure eto-rrera gogoratu zuen, haren berri emana ziotela-rik aurrez. Hitz batzuk esan zituen, eta berehala gazte bat nire ondora etorri astingailuarekin eta eskuineko belarrian eman zidan poliki; baina ahal bezain ongi keinu egin nion, ez nuela tresna haren beharrik adieraziz; eta honek, gero jakin nuenez, Maiestateari eta Gorte osoari nire adi-menaren oso iritzi kaskarra sortarazi omen zien. Erregeak, sumatu ahal izan nuenez, zenbait gal-

dera egin zidan, eta nekizkien hizkuntza guztietan zuzendu nintzaion ni. Garbi geratu zenean nik ezin nuela ulertu ezta ulertua izan ere, beraren aginduz jauregiko gela batera eraman ninduten (arrotzenganako abegikortasuna baitzuen Printze hark bere bereizgarri aurreko guztien aldean), han bi zerbitzari izendatu zituztelarik nire laguntzarako. Janaria ekarri zidaten, eta lau handikik —Erregearengandik oso hurbil ikusiak nituela gogoratu nuen— nirekin batera jateko ohorea egin zidaten. Lehenengoa eta bigarrena ekarri zizkiguten eta bakoitzean hiru jaki. Lehen azpilkadan, arkume-besaburua zegoen, triangelu aldeak itxuran ebakia, behiki-zatia erronbo itxuran, eta budina zikloide eran. Bigarren azpilkadan bi ahate zeuden, arrabita eran burruntzian sartuta; saltxitxak eta odolkiak txirula eta oboe antzera, eta txahal-paparra harpa itxuraz. Zerbitzariak kono, zilindro, paralelogramo eta beste irudi geometriko batzuen forman ebakitzen ziguten ogia.

Jatorduan zehar, zenbait gauzaren izenak haien hizkuntzan nola ziren galdetzera ausartu nintzen, eta aitonen seme haiek, beren *astintzai-*

leen laguntzaz, pozik erantzun zidaten, haien abilezia handiak miresgarri gertatuko zitzaizkidan itxaropena baitzuten beraiekin elkarrizketa- tzea lortzen banuen. Laster izan nintzen jatekoa eta edatekoa, edo nahi nuen beste edozer, eska- tzeko gauza.

Jatordu ostean erretiratu egin ziren nirekin egon zirenak, eta Erregearen aginduz pertsona bat etorri zitzaidan, astintzaile batekin. Luma, tinta eta papera, eta hiruzpalau liburu ekarri zituen berekin, hizkuntza irakastera bidali zutela adierazi zidalarik keinuz. Lau orduz egon ginen elkarrekin eserita, denboraldi horretan hitz- kopuru handiak idatzi nituelarik zutabeka, itzul- penarekin ondoan. Halaber, zenbait esaldi labur ikastea lortu nuen. Izan ere, irakasleak nire zer- bitzarietako bati zerbaiten bila joateko agintzen zion, edo bira emateko, edo makurtzeko, eser- tzeko, zutitzeko, ibiltzeko eta horrelako gauzak. Orduan idatziz jartzen nuen esaldia. Bere libu- ruetariko batean eguzkiaren, ilargiaren eta iza- rren, zodiakoaren, tropikoen eta zirkulu polarren irudiak ere erakutsi zizkidan, baita irudi lau eta solido askoren deiturak ere. Musika-tresna guz-

tien izenak eta deskripzioak ere eman zizkidan, baita haietariko bakoitza jotzen erabiltzen diren termino tekniko orokorrak ere. Alde egin zue-nean, ordena alfabetikoan jarri nituen hitz guz-tiak beren esanahiekin. Eta horrela, egun gutxi-ren buruan, oroimen sendoaren laguntzaz, lortu nuen haien hizkuntza pixka bat ikastea.

Irla Hegalari edo *Flotagarri* bezala itzultzen dudan hitza *Laputa* da jatorrizko hizkuntzan, beronen benetako etimologia ezin izan nuelarik inoiz jakin. *Lap*, erabiltzen ez den mintzaira zaharrean, *altu* da, eta *untuh*, *governadore*, eta *Lapuntuh* horren desitxuraketatik datorrela *Laputa* esaten dute. Baina nik ez dut eratorpen hau onartzen, pixka bat bortxatua dela ematen baitu. Haien arteko ikasienei neure aierua aurkeztera ausartu nintzen, hots, *Laputa*, *Lap outed* dela ia; *Lap* eguzki-izpiek itsasoan egiten duten dantza delarik, eta *outed* hegoa, baina ez dut iritzi hau derrigorrez ezarri nahi, baizik eta irakurle zentzudunaren irizpidera utzi.

Nitaz arduratzeko Erregeak izendatutakoek, zein gaizki jantzita nengoen ikustean, biharamun goizean etortzeko agindu zioten jostun bati, jan-

tzi bat egiteko neurriak har zitzan. Langile honek oso era ezberdinean egin zuen bere eginkizuna lanbide berekoek European egin ohi dutenaren aldean. Lehenik altuera neurtu zidan koadrantez eta gero, erregela eta konpasez, gorputz osoaren neurriak eta itxura deskribatu zituen, dena paperean idatzi zuelarik, eta sei egunen buruan ekarri zizkidan jantziak, oso gaizki eginak eta batere formarik gabeak, zenbaki batean nahastu baitzen kalkuluak egiterakoan. Baina honelako okerrak sarri gertatzen zirela eta ez zituztela aintzakotzat hartzen ikusteak adore eman zidan.

Jantzirik ez nuelako barruan egon nintzen bitartean, ondoezik nengoelako zenbait egun gehiagoz luzatu zelarik, asko zabaldu nuen hiztegia; eta Gortera joan nintzen hurrengo aldian, gai izan nintzen Erregeak esandako gauza asko ulertzeko, baita berari nolabaiteko erantzunak emateko ere. Agindua zuen Maiestateak irla ipar-ekialderantz mugiarazteko, eta ekialdetik, Lagadoren gain-gaineraino eramateko, Lagado zelarik behean lehorrean zegoen erresuma osoaren metropolia. Gutxi gorabehera laurogeita hamar legoara zegoen, eta gure bidaiak lau

egun eta erdiz iraun zuen. Ez zuen niregan inolako eraginik izan irlak airean aurrera egiten zuen mugimenduak. Bigarren goizeko hamaikak aldera, Erregeak berak, noble, gortelari eta funtzionarioekin, bere musika-tresna guztiak prestatu ondoren, hiru orduz jardun zuen etengabe jotzen, ni nahikoa durdituta nengoelarik zarataz; eta ezin izan nuen zergatia asmatu neure tutoriak esan zidan arte. Irla hartako jendeak esferen musika entzuteko omen zeuzkan belarriak moldatuta, garai jakin batzuetan jotzen zelarik beti, eta orduan Gortekoak prest omen zeuden hobekien menperatzen zuten tresnaz parte hartzeko.

Lagado hiribururako bidaiari zehar, zenbait hiri eta herriren gainean irla gerarazteko agindu zuen Maiestateak, haietan zeuden menpekoei eskariak hartu ahal izateko. Eta helburu honekin, zenbait lista-hari bota zituzten behean pisu txiki batzuekin muturretan. Hari hauetan jendeak bere eskariak lotzen zituen, zuzen-zuzenean gora igotzen zirelarik, kometari lotutako sokaren muturrean eskola-umeek jartzen dituzten paperzatiak bezalaxe. Batzuetan ardoa eta jakiak har-

tzen genituen behetik, polea bidez jasotzen zituztenak.

Matematikako ezagupenak oso lagungarri izan zitzaizkidan haien fraseologia neureganatzeko, matematika eta musikari oso lotua baitzegoen; eta azken honetan ere ez nintzen batere trebetasunik gabea. Haien ideiak etengabe dabilta lerro eta irudien inguruan. Esate baterako, emakume baten edo beste edozein animalia-
ren edertasuna goraiatu nahi badute, erronbo, zirkulu, paralelogramo, elipse eta beste termino geometriko batzuen bidez egiten dute, edota bestela, musikatik ateratako hitz tekniko, hemen errepikatu beharrik ez daudenak. Erregearen sukaldean mota guztietako tresna matematiko eta musikalak ikusi nituen, haien irudia-
ren arabera ebakitzen dituztelarik Maiestatearen mahaira ateratako errekiak.

Oso gaizki eraikiak dituzte etxeak, hormak okertuta, angelu zuzen bat ere ez dagoelarik gela bakar batean, eta oker honen jatorria geometria praktikoarekiko mesprezuan datza, arrunt eta mekanikotzat gutxiesten baitute; gainera, ematen dituzten argibideak sutilegiak dire-

larik langileen adimenetarako, honek etengabe-ko hutsegiteak sortarazten ditu. Eta nahikoa tre-beak izan arren paperean erregela, lapitza eta konpasa erabiltzen, ez dut jende trakets, baldar eta trauskilagorik ikusi eguneroko ekintza eta bizitzako gorabeheratan, ezta hain motel eta burumotzik ere beste gai guztietan, matematika eta musikan izan ezik. Oso txarrak dira arrazoi-ketan, eta sutsuak kontra egiten, zuzen daude-
nean izan ezik, gutxitan gertatzen den gauza. Irudimena, fantasia eta asmamena guztiz ezeza-
gunak zaizkie, beren hizkuntzan hitzik ere ez dutelarik ideia hauek adierazi ahal izateko; haien adimen eta gogoeta guztiak aipaturiko bi zientzia horietara bakarrik mugatzen dira.

Haietako gehienek, eta batez ere astronomi arloaz arduratzen direnek, fede handia dute astrologia judizialean, nahiz eta jendaurrean aitortzeaz lotsatu egiten diren. Baina batez ere harritu ninduena, eta zeharo ulergaitza egin zitzaidana, albiste eta politikarako duten joera bizia izan zen, etengabe ari baitira arazo publiko-
ez galdezka, estatu-arazoei buruz iritziak ematen eta sugartsu eztabaidatzen alderdien idea-

riumetako koma bakoitza. Egia esateko, joera bera ikusi izan dut Europan ezagututako matematikari gehienen artean, nahiz eta ezin izan dudan inoiz analogia txikienik ere aurkitu bi zientzia hauen artean; ez badu behintzat jende hark pentsatzen, zirkulurik txikienak handienak beste gradu dituelako, munduaren gobernu eta administrazioak ere ez duela eskatzen esfera bat maneiatu eta birarazteko behar den baino trebetasun handiagorik. Baina, nire ustez, jarrera hau giza izaeraren gaitz oso arrunt batetik sortzen da, alegia, gurekin zerikusirik gutxien duten eta ikasketaz edo berez gaitugabe gauden arazotan jakingura eta harrotasun handiagoa agertze-ko joeratik.

Etengabeko kezkaren menpe dago jende hura, inoiz ez dutelarik izaten minutu bateko gogo-bakerik; eta haien egonezina, gainerako gizakiongan eragin txikia duten gauzek sortzen dute. Haien izua ortziko gorputzetan gerta litekeen zenbait aldaketaren beldurrak eragina da. Adibidez, eguzkia etengabe hurbiltzen ari delako lurrera, hau denboran zehar absorbitua edo irentsia izan daitekeela. Edo eguzkiaren aurpegia

poliki-poliki bere jariakinekin estalia izango dela eta ez diola lurrari argi gehiago emango. Edo lurrak ozta-ozta ihes egin ziola azken kometaren isats-zartada bati, eman balio errauts bihurtuko zukeelarik halabeharrez; eta hurrengoak, hemendik hogeita hamaika urterako kalkulatu dutelarik, suntsitu egingo gaituela ziur aski. Zeren eta, bere perihelioan eguzkitik halako tarte batera hurbiltzen bada (haien kalkuluen arabera horren beldur izateko arrazoia dagoelarik), gori-gori dagoen burdinarena baino hamar mila aldiz berotasun handiagoa sortuko omen du; eta eguzkitik urrutiratzean, milioi eta hamalau milia luzeko isats gori-goria eramango omen atzetik; eta beronetan zehar kometaren nukleo edo gorputz nagusitik ehun mila miliako distantziara igarotzen bada lurra, su hartuko omen du pasatzerakoan eta errauts bihurtua geratuko. Edo eguzkia egunero ari delarik bere izpiak gas-tatzen elika lezakeen horniziorik gabe, azkenean zeharo kontsumitu eta deuseztatuko dela, honekin batera lurraren suntsipena eta eguzkitik argia hartzen duten planeta guztiena gertatuko delarik.

Arrisku hauen eta antzekoen beldurrez etengabe hain izaturik daudenez, ezin izaten dute ohean lasai lo egin ezta inolako gozamenik izan ere bizitzako ohiko atsegín eta dibertsioez. Goizean ezagunen batekin topo egitean, eguzkiaren osasunari buruzkoa izaten da lehen galdera, ea zer itxura zuen sartzetakoan eta irteterakoan, eta zer itxaropen duten hurbiltzen ari den kometaren tupustekoa eragozteko. Honelako elkarrizketak izaten dituztenean, mamu eta sorginen istorio izugarriak poz-pezik entzun eta gero beldurrez ohera joatera ausartzen ez diren haurrek bezalaxe jokatzén dute.

Irlako emakumeak oso argiak dira; mesprezatu egiten dituzte senarrak, eta oso gogoko dituzte kanpotarrak, hauetariko asko samar izaten delarik beti Gortean beheko kontinentetik joanda, bai hiri eta korporazio ezberdinetako arazoengatik bai arazo partikularrengatik; baina oso gutxietsiak dira, ez baitituzte dohain berdinak. Hauen artean aukeratzen dituzte andereek beren galaiak; baina zein erraztasun eta konfiantza handiz jarduten duten izaten da iraingarriena, izan ere, senarra hain murgildua egoten

denez gogoetak egiten, emazteak eta amoran-
teak kutunkeriarik handienak egin ditzakete
haren aurre-aurrean, berak papera eta tresnak
baldin baditu behintzat eta *astintzailerik* ez
ondoan.

Emazte eta alabak kexu izaten dira irlara
mugatuak egon beharraz, nahiz eta munduko
txokorik xarmangarriena dela uste izan nik; eta
han oparotasun eta handitasun bikainenean bizi
eta nahi duten guztia egiten uzten zaien arren,
mundua ikusteko eta metropoliko dibertsioetan
sartzeko irrikaz egoten dira, hau ez zaielarik
uzten Erregearen baimen berezirik gabe; eta ez
da batere erraza izaten hau lortzea, handikiak —
sari eskarmentatuta— ohartu baitira zein neke-
za izaten den emazteak behetik itzul daitezen
konbentzitzea. Esan zidaten Gorteko andere
handi bat, zenbait seme-alabaren ama eta
Lehen Ministroarekin ezkondua —berau erresu-
mako aberatsena, oso pertsona atsegina, emaz-
tea oso maite zuena eta irlako jauregirik ederre-
nean bizi zena izanik—, Lagadora jaitsi zela osa-
sun-arazoan aitzakiaz, han zenbait hilabetez
egon zelarik ezkutatua, Erregeak bilatzeko agin-

dua eman zuen arte; eta ostatu ilun batean aurkitu zutela, dena zarpailduta, bere jantziak bahituran utziak baitzituen lekaio zahar desitxuratu bat mantentzeko, eta honek egunero jipoitzen zuen arren, oso bere gogoz kontra eraman zutela gora. Eta senarrak ahal zuen maitasunik handienaz —ezertxo ere aurpegiratu gabe— abegi egin zion arren, laster lortu zuela berriro behera ihes egitea bere bitxi guztiekin, galai berberarengana, eta geroztik ez dela andereaz ezer gehiago jakin.

Beharbada, ez hain herrialde urrutikoaren baizik eta Europa edo Ingalaterrako istorioren baten antz handiagoa hartuko dio irakurleak honi. Baina atsegin beza gogoan hartzea emakumearen kasketaldiak ez direla klima edo nazioaren batera mugatzen eta erraz pentsa daitekeen baino askoz orokorragoak direla.

Gutxi gorabehera hilabeteren buruan, hobe-kuntza dezentea egin nuen haien hizkuntzan eta Erregearen galdera gehienei erantzuteko gai nintzen, harekin elkartzeko ohorea izaten nuen. Maiestateak ez zuen jakingurarik txikiena ere agertu ni egondako herrialdeetako lege,

gobernu, historia, erlijio edo ohiturei buruz, bai-
zik eta matematikaren egoeraz galdetzera
mugatzen zen, eta nik ematen nion informazioa
mesprezu eta axolagabeziarik handienaz har-
tzen zuen, nahiz eta bere *astintzaileak* sarri
ematen zion alde bietan erne egoteko.

3. KAPITULUA

Filosofia eta astronomia modernoak ebatzitako fenomeno bat. Laputiarren aurrerapen handiak azken honetan. Erregearen metodoa matxinadak zanpatzeko.

Irlako lekurik bitxienak ikusteko baimena eskatu nion Printzeari, ederretsi ziolarik eskuza-balki emateari, baita lagun ziezadala agindu ere tutoreari. Batez ere, irlaren mugimendu ezberdinen kausa teknologiko edo naturala jakin nahi nuen, guzti honen kontaketa zientifikoa egingo diodalarik orain irakurleari.

Irla Hegalari edo Flotagarria zeharo biribila da, 7.166 metroko diametroa du, edo lau mila t'erdi gutxi gorabehera, eta beraz, 4.050 hektarea ditu. Berrehun eta hirurogeita hamabost metroko lodiera du. Oinarri edo azpialdea, behetik begiratzen dutenek ikusten dutena, diaman-tezko xafla leun eta uniforme da, ehun eta laurogei metroraino igotzen dena. Gainean mineral

ezberdinak daude agertu ohi diren ordenan, eta guzti honen gain humus emankorreko geruza bat, hiruzpalau metroko lodierakoa. Zirkunferentziatik erdialderantz gainaldeak duen makurdura da irla gainean jausten den ihintz eta euri guztia erreka txikietan erdialderantz joatearen kausa naturala; han lau urtegi handira husten dira, bakoitzak ia milia erdia duelarik biran eta erdigunetik ehun eta laurogei metrora daudelarik. Egunez eguzkiak etengabe lurrunarazten du urtegi haietako ura, horrela eragozten zaielarik gainezka egitea. Gainera, monarkaren esku dagoelarik irla laino eta hodeiak baino gorago eramatea, nahi duenean eragotz lezake ihintza eta euria egitea. Izan ere, hodeirik altuenak ezin dira bi milia baino gorago igo, naturologoek diotenaren arabera, edo behintzat herrialde hartan ez da inoiz jakin gorago joan direnik.

Irlaren erdian, berrogeita bosten bat metro dituen diametroko leize bat dago eta handik astronomoak ganga handi batera jaisten dira — horregatik *Flandona Gagnole* edo *Astronomoen Koba* deitua— laurogeita hamar metroko sakoneran dagoelarik diamantearen gainazalaren

azpian. Koba hartan hogeia krisailu daude etengabe argi egiten, diamantearen islas argitasun bizia botatzen dutelarik alde guztietara. Leku hartan sestante, koadrante, teleskopio, astrolabio eta beste astronomi tresna asko dago bilduta. Baina gauzarik ikusgarriena, haren menpe baitago irlaren zoria, egundoko imanarri bat da, ehuleen anezkaren antzekoa itxuraz. Bost metro t'erdia da luze eta alderik zabalenean gutxienez hiru metro alderik alde. Erdetik zeharkatzen duen diamantezko ardatz sendo batek eusten dio imanari, bere gain ibiltzen delarik, eta hain zehatz orekatua dagoenez, eskurik ahulenak ere biraraz dezakeelarik. Diamantezko zilindro huts batek inguratzen du, metro eta hogeia dituelarik altueran, beste horrenbeste lodieran eta hamaika metro diametroan, horizontalki jarria, diamantezko zortzi oinarriren gainean, hauetako bakoitzak bost metro t'erdiko altueraz. Alde konkaboren erdian hogeita hamar zentimetroko sakonera duen zirrikitia du, bertan, kokatzen direlarik ardatzaren muturrak, eta bira egiten hala behar denean.

Ez dago indarrik harria bere lekutik mugituko duenik, zilindroa eta oinarriak bat eginda baitaude irlaren oinarria den diamantezko masarekin.

Imanarri honen bidez igo erazten edo jaitsarazten zaio irlari, eta leku batetik bestera mugiarazten. Izan ere, monarkaren agintepeko lurzatiari dagokionean, harriak indar erakarlea du mutur batean eta aldaratzailea bestean. Mutur erakarlea lurrerantz duela imana zutik jarrita, irla beheratu egiten da; baina mutur aldaratzaila beherantz begira badago, irla zuzen-zuzen gora igotzen da. Harria zeiharretara dagoenean, irlaren mugimendua ere horrelakoa izaten da. Zeren eta, iman hartan indarrek ere haren norabidearekiko paraleloan eragiten baitute beti.

Zeiharretako mugimenduaren bidez monarkaren aginterriko eskualde ezberdinetara eramaten da irla. Nola egiten duen aurrera ulertzeko, demagun $A-B$ Balnibarni herrialdea zeharkatzen duen lerro bat dela, eta $c-d$ imanarria dela, d mutur aldaratzailea delarik eta c mutur erakarlea, irla, berriz, C gainean dagoelarik kokatua; irla $c-d$ posizioan jartzen bada mutur aldaratzaila beherantz dela, irla gorantz igoko da D -rants

zeiharretara. D -ra iristean, jirarazi bere ardatzean mutur erakarlea E -rantz begira egon arte, eta orduan irla zeiharretara E -rantz joango da; eta han harria berriro jirarazten bada bere ardatzean E - F posizioan jarri arte, mutur aldaratzaila beherantz duela, irla igo egingo da F -rantz zeiharretara, non mutur erakarlea G -rantz zuzenduz, irla G -rantz mugituko den, eta G -tik H -ra, mutur aldaratzailea zuzen-zuzen beherantz begira jartzeko moduan jirarazten bada harria. Eta horrela, harriaren posizioa behar bestetan aldatuz, irla gora eta behera joatea lortzen da beti ere zeiharretara, eta txandakako igoera eta beheratze hauekin (zeihartasuna ez da oso bizia) aginterriko eskualde batetik bestera eramaten da.

Baina kontutan izan behar da irla ezin dela beheko lurraldearen hedadura baino harantzago eraman, ezta lau milia baino gorago ere. Astronomoek (harriari buruzko tratatu luzeak idatzi dituztelarik) ondorengo azalpena ematen dute: propietate magnetikoa ez dela iristen lau miliaz harantzago, eta lurraren erraietatik eta itsasoan kostatik seiren bat legoara imanari eragiten dion

minerala, ez dagoela globo osoan zehar banatuta, baizik eta Erregearen aginterriko mugen barnean bakarrik; eta hain egoera pribilegiatuaren abantaila handiaz erraza izan zen printze batenzat bere esanera makur eraztea imanaren erakarpen-eremuan zegoen edozein herri.

Harria zerumugaren planoarekin paraleloan jartzen bada, irla geldi-geldi geratzen da; zeren eta, horrela, bi muturrak lurretik distantzia bereira daudenez, indar berberaz eragiten baitute, batak beherantz tira eginez, besteak gorantz bultzatzen eginez; eta beraz, ezin da mugimendurik sortu.

Imanarria astronomo jakin batzuen ardura-pean dago, noizean behin lekuz aldatzen dutelarik monarkak agindutakoaren arabera. Bizitza gehiena ortziko gorputzei beha ematen dute, gureak baino askoz hobekien diren kataloxen laguntzaz egiten dutelarik hori. Zeren eta, haien teleskopiorik handienak ez izan arren metro betekoak ere, hogeita hamabosteko gureak baino askoz gehiago handitzen baitute, eta garbiago erakusten dituzte izarrak. Abantaila honi esker, Europako gure astronomoak baino askoz

aurkikuntza handiagoak egiteko gauza izan dira; hain zuzen ere, hamar mila izar finkoren katalogoa egin dute, gure arteko handienak kopuru horren herena baino gehiago ez duelarik. Hala-ber, Martitzen inguruan dabilzan bi izar txiki edo *satelite* ere aurkitu dituzte, barrukoena bere planetaren erditik hiru diametroko tartera dagoelarik, eta kanpokoena bostera; lehenak hamar ordutan ematen du bira osoa, eta bigarrenak hogeita bat t'erdi behar ditu; beraz, haien denbora periodikoaren karratuak ia-ia proportzionalak dira Martitzen erditik duten distantziaren kuboekiko, honek nabarmen erakusten duelarik ortziko beste gorputzei eragiten dien grabitazio-lege berberaren menpe daudela haiek ere.

Laurogeita hamahiru kometa ezberdinen behaketa egin dute, eta zehaztasun handiz ezarri haien periodoak. Hau egia bada (eta ziurtasun handiz baieztatzen dute), oso desiragarria litza-teke haien behaketak argitaratzea, horrela, kometen teoriak, gaur egun oso ahul eta akasdu-na denak, astronomiako beste arlo batzuen perfekzio bera lortu ahal izango bailuke.

Erregea unibertsoko printzerik absolutuena izango litzateke, ministro-kabinete bat berarekin elkar dadin konbentzituko balu; baina hauek, beren ondasunak behean kontinentean dituzte-nez eta faboritoaren lanbidea oso ziurtasun gutxikoa dela pentsatuz, ez dute inoiz onartuko beren herria esklaboztatzea.

Hiri batek, matxinada edo errebolatan hasi edo indarkeria erabiltzen duten taldeak sortu edo ohiko zergak ordaintzeari uko egiten badio, Erregeak bi metodo ditu halakoak esanera makur erazteko. Lehena eta arinena, halako hiriaren eta inguruko lurren gainean irla airean flotatzen edukitzea da, horrela eguzkiaren eta euriaren onurak ukatzen dizkielarik eta, beraz, gabezia eta gaixotasunak jasan erazten biztanleei. Eta delituak merezi badu, aldi berean harri handiak botatzen dizkiete goitik, hauen aurka ez dutelarik babesik soto eta haitzuloetan gordeta baizik, etxeetako teilatuak zati-zati egiten dizkieten bitartean. Baina halere burugogor jarraitu edo altxamendutan hasi nahi badute, azken konponbidera jotzen du, irla zuzen-zuzen buru gainera jausten uztea alegia, horrela dena suntsi-

tzen delarik, etxeak nahiz gizakiak. Edonola ere, Printzea oso gutxitan baliatzen da neurri honez azkeneraino, eta ez da hau zertzeko irrikatan egoten ere, eta Ministroak ere ez dira ausartzen honelako ekintza bat aholkatzera, herriaren aurrean higuigarri bihurtuko lituzkeelako, baita kalte handiak eragin ere beren ondasunetan, hauek denak behean daudelarik, irla Erregearen jabetzakoa baita.

Baina bada beste arrazoi pisutsuago bat, behar-beharrezko egoeratan izan ezik, herrialde hartako erregeek zergatik ez duten sekula hain ekintza beldurgarria burutu ulertzeko. Izan ere, desegin beharreko hiriak harkaitz alturik balu, hiririk handienetan gertatu ohi den bezala (agian hasieratik aukeratuko zuten kokaleku hori horrelako hondamendiak eragoztearren), edo xapitel edo harrizko zutabe asko balitu, bat-bateko jaitzierak irlaren oinarri edo azpialdea hondatuko luke, zeren eta, esan dudan bezala, ehun eta laurogei metroko lodiera duen diamantezko osoki bat izan arren, gerta bailiteke tupusteko handiegiz apurtzea, edo beheko etxeetako sutara gehiegi hurbildu eta lehertzea, gure tximinie-

tako sugibel-harriaz sarri gertatu ohi den bezala. Herriak ongi daki guzti hau, eta badaki noraino eraman dezakeen bere tema, askatasuna eta ondasunak izaten baititu arriskuan. Eta Erregeak, probokaziorik handienak jasan eta hondakin bihurtzeraino hiria zanpatzea erabakia duenean, irla poliki-poliki jaitsarazteko agintzen du, herriarenganako onginahiz balitz bezala, baina diamantezko oinarria apurtzeko beldurrez izaten da benetan; hau gertatuz gero —filosofo guztiak iritzi berekoak dira—, imanarriak ezingo lioke irlari luzaroago eutsi, masa guztia lurrera jausiko litzatekeelarik.

Ni haien artera iritsi baino hiruren bat urte lehenago, Erregea bere aginterriaren gain zebilela bidaiaria ofizialean, ezohiko istripu bat gertatu zen, ia egin zuelarik monarkia harenak, behintzat gaur egun eratua dagoen bezala. Lindalino, erresumako bigarren hiria izan zen Erregeak lehendabizi bisitatu zuena bere bidaialdian. Handik irten eta hiru egun geroago, biztanleek —zapalkuntza handiez sarritan kexatuak— hiriko ateak itxi, Gobernaria harrapatu eta izugarritzako abiada eta ahaleginez lau dorre handi eraiki

zituzten, bakoitza (karratu-karratua den) hiriaren izkina banatan, hiriaren erdian zut dagoen harkaitz zorrotz eta sendoaren garaiera berekoak. Dorre bakoitzaren gailurrean, baita harkaitzarenean ere, imanarri handi bat jarri zuten eta, beren aurreikuspenak huts egitea gertatuta ere, errekinik suharberaenaren pilo handi bat prestatu zuten, harekin leherraraziko zutelakoan irlaren diamantezko oinarria, imanarriaren planak porrot egiten bazuen.

Zortzi hilabete iragan ziren lindaliniarrak erreboltan zebiltzala Erregeak jakin arte. Orduan irla hiri gaineraino eramateko agindu zuen. Jendea guztiz elkartuta zegoen eta egina zuen hornizio-pilaketa; gainera, ibai handi batek hiria zeharkatzen du erditik. Zenbait egunez Erregea gainean egon zitzaien airean eguzkia eta euria eragozteko. Behera lista-hari asko bidaltzeko agindu zuen, baina inori ez zitzaion bururatu gora eskaririk bidaltzerik, baizik eta, horren orde, exigentzia ausartak, bidegabekeria guztien ordaina, eskubide handiak, beren Gobernaria aukeratu ahal izatea eta antzerako beste gehiegikeria batzuk. Honen ondoren, barreneko

galeriatik hirira harri handiak botatzeko agindu zien Erregeak irlako biztanle guztiei; baina hiritar-
rrak prest zeuden ezbehar honetarako, beren
gauzeekin lau dorreetan eta beste eraikin sendo
batzuetan sartu zirelarik, baita lurpeko gangatan
ere.

Erabakia zuelarik Erregeak herri harro hura
menperatzea, dorre eta harkaitz gailurretarantz
hogeita hamabost metroraino irla poliki-poliki
jaitsarazteko agindu zuen. Halaxe egin zuten;
baina ohi baino askoz bizkorrago jaisten zela
ohartu ziren eginkizun hartan ziharduten langi-
leak, eta imanarria biraraziz ere ozta-ozta lor-
tzen zutela egonkortzea, irlak erortzera egiten
baitzuen. Berehala eman zioten Erregeari ger-
taera harrigarriaren berri, eta Erregearen baime-
na eskatu zuten irla gorago eramateko; onetsi
egin zuen Erregeak, berehala deitu kontseilu
orokorra eta imanarriaz lan egiten zutenei ere
joateko agindu zitzaien. Haien arteko zaharren
eta adituenetako batek saiakuntza bat burutze-
ko baimena lortu zuen. Hogeita hamar metroko
kordel sendo bat hartu, eta nabaritu zuten era-
karpen-eremua baino gorago altxatu zutelarik

irla hiri ganean, diamante-zati bat —irlaren oinarri edo azpialdearen izaera bereko burdinazko nahasketa zuena— lotu zion kordelaren muturrari, eta barreneko galeriatik jausten utzi zuen poliki-poliki dorregainetarantz. Diamantea lau metro ere jaitsi baino lehen, oso indartsu behera erakarria sentitu zen operatzailea, nekez tira egin zezakeelarik gorantz. Orduan zenbait diamante-zati txiki bota zituen behera, eta dorregainak biziki erakartzen zituela ohartu zen. Esperimentu bera egin zen beste hiru dorreetan eta harkaitzean, ondorio berberekin.

Gertaera honek erabat hautsi zituen Erregeak hartutako neurriak eta (beste xehetasun batzuetan gehiago ez luzatzearen) behartua ikusi zuen bere burua hiriak ezarritako baldintzak onartzera.

Ministro garrantzitsu batek adierazi zidanez, gero goratu ezinda geratzeko moduan hurbildu balitz irla hiri gainera, erabakia omen zuten hiritarrek irla betirako lotzea, Erregea eta zerbitzari guztiak hil eta gobernu-era zeharo aldatzea.

Erresuma hartako funtsezko lege baten arabera, ez Erregeak ezta beraren bi seme zaharre-

nek ere, ez dute baimenik irlatik irteteko, ezta Erreginak ere erditzeko adina iragan arte.

4. KAPITULUA

Autorea Laputatik irten, Balnibarbira eramana izan eta metropolira iristen. Metropoliaren eta inguruko landazabalaren deskribapena. Handiki batek abegikor hartzen autorea; berarekin izandako elkarrizketa.

Nahiz eta irla hartan gaizki erabili nindutenik ezin dudan esan, halere aitortu beharra dut neure burua baztertuegia sumatzen nuela, eta mesprezaturia ere bai neurri batean. Zeren eta, ez Printzeak ez jendeak ez baitzuten beste jakintza-arloekiko jakingurarik, matematika eta musikarekiko izan ezik, hauetan beraiek baino askoz gutxiago nintzelarik, eta ondorioz aintzakotzat hartu gabea.

Bestalde, irlako gauza interesgarri guztiak ikusi ondoren, handik irteteko irrikatan nengoen, oso aspertua bainindukan jende hark. Egia esateko, apartak ziren nik asko estimatzen ditudan bi zientziatan, eta ez naiz zeharo ezjakina bero-

rietan, baina aldi berean hain sorgortuak eta murgilduak zeudenez gogoetan, sekula ez dut topo egin hain lagunarte desatseginarekin. Emakume, merkatari, *astintzaile* eta gorte-mutilekin bakarrik hitz egin nuen han eman nituen bi hila-beteetan zehar, beronengatik biziki gorrotatua izan nintzelarik azkenerako, nahiz eta jende harengandik bakarrik hat nezakeen zentzuzko erantzunik.

Gogor ikasiz lortua nuen haien hizkuntzaren ezagutza-maila on samarra; baina aspertua nengoen hain jaramon gutxi egiten zitzaidan irla batera mugaturik egoteaz, eta lehen aukera izatean handik irtetea erabaki nuen.

Bazen jaun handiki bat Gortean, Erregearen hurbileko ahaide, eta horrengatik bakarrik hartzen zutena begirunez. Han mundu guztiak zeukan beren arteko pertsonarik ezjakinen eta inozoentzat. Zerbitzu bikainak eginak zizkion Korolari, berezko eta lorturiko dohain handiak zituen, zintzotasun eta ohorez jantzia zen, baina hain gaitasun urria zuenez musikarako, haren iraintzaileek esan ohi zuten sarritan ikusi zutela erritmoa oker eramaten; eta irakasleek neke handiz

bakarrik lortu omen zuten hari matematikako proposamendurik errazena ere frogatzen irakastea. Bere ederraren erakusgarri asko eskaini zidan, sarri ohoratzen ninduen bere bisitaz, eta Europako arazoan berri eman niezaion nahi izaten zuen, baita ibilia nintzen herrialde ezberdinetako lege eta ohituren, jokaera eta kulturaren berri ere. Arreta handiz entzuten zidan, eta oharpen oso zuhurrak egiten zituen nik esandako guztiaz. Bi *astintzaile* zituen ofizialki, baina ez zen sekula haietaz baliatzen Gortean eta protokolozko bisitaldietan izan ezik eta, biok elkarrekin bakarrik geundenean, erretiratzeko agintzen zien beti.

Maiestateak alde egiten utz ziezadan, bitartekaritza egiteko erregutu nion pertsonaia agurgarri honi, eta horrelaxe egin zuen, baina atsekabez, berak esan zidanez; izan ere, hainbat eskaintza onuragarri egin baitzidan, edonola ere nik onartu ez nizkionak, nahiz eta esker onik beroena adierazi.

Otsailaren 16an, agur esan nien Erregeari eta Gorteari. Berrehunen bat libera ingelesen balio-ko oparibat egin zidan Erregeak, eta beste hain-

beste haren ahaide zen nire babesleak, baita gomendio-gutun bat eman ere Lagado metropolian zeukan lagun batentzat; eta irla airean mendi baten gainean zegoelarik hiriburutik bi miliara gutxi gorabehera, beheratu egin ninduten barreneko galeriatik, gora eraman ninduten era berean.

Kontinentea, Irla Hegalariko monarkaren menpe dagoelarik, Balnibarni izen orokorraz ezagutzen da, eta metropolia, lehen esan dudan bezala, Lagado deitzen da. Atsegin pixka bat sentitu nuen lur sendoan egotean. Hirirantz joan nintzen oinez inolako kezkarik gabe, bertakoak bezala bainengoen jantzia, eta behar hainbat ikasia haiekin hitz egiteko. Pertsona bati gomen-datua nindutenez, laster aurkitu nuen haren etxea, eta beraren laguna zen irlako handikiaren gutuna erakutsi ondoren, oso maitagarriro hartu ninduen. Jaun bikain hark, Munodi izenekoak, bere etxean gela bat presta ziezadaten agindu zuen, non egin bainuen neure egonaldia, traturik abegikorrena eman zidatarik beti.

Ni iritsi eta biharamun goizean, bere zalgurdixkan eraman ninduen hiria ikustera, tamainaz

Londresen erdia izango delarik gutxi gorabehera, baina etxeak oso arraro eraikita daude, eta gehienak ez dago konpontzerik. Presaka zebilen jendea kalean, basati itxuraz, begiratu eroaz, eta oro har, zarpailki jantzita. Hiriko ateetako batetik pasatu eta hiru bat milia joan ginen landazabalean aurrera, non laborari asko ikusi bainuen lurzorua lantzen lanabes-mota ezberdinez, baina ezin izan nuen asmatu zertan ari ziren ezta inolako ale edo belar itxaropenik sumatu ere, lurrak aparta zela zirudien arren. Ezin nintzen harritu gabe egon hirian nahiz landan ikusten nituen gauza arraro haiekin, eta gidariari eskatzera ausartu nintzen mesedez azal ziezadala zergatik zebilen kale nahiz soroetan hainbeste buru, esku eta aurpegi lanpeturik, ez bainuen gero ezer onik sortzen zutenik sumatzen, baizik eta alde-rantziz, ez nuela inoiz ikusi hain gaizki landuriko lurrik, edo hain trakets diseinatu eta hondaturik zegoen etxerik, edo hainbeste miseria eta gabezia islatzen zuen aurpegi eta janzkerako jenderik.

Lehen mailako pertsona zen Munodi jaun hura, eta Lagadoko Gobernari izana zenbait

urtez, baina Ministro-taldetxo batek kargutik kendua eskastasunagatik. Halere, Erregeak samurtasunez hartzen zuen, borondate oneko pertsonatzat baitzeukan, baina adimen labur eta mesprezagarrikotzat.

Herrialde hura eta biztanleak hain argi eta garbi kritikatu nituenean, ez zidan beste ezer erantzun baizik eta ez nintzela haien artean behar beste denbora egon irizpiderik izateko; eta munduko nazio ezberdinek ohitura ezberdinak dituztela, eta ildo bereko beste zenbait egia arrunt. Baina beraren jauregira itzuli ginenean, ea zer iruditzen zitzaidan eraikin hura galdetu zidan, ea zer zentzugabekeria ikusi nuen eta zer kexu nuen haren morroien janzkera eta itxuraz. Arriskurik gabe galdegin zezakeen hori, bere inguruko guztia zoragarria, normala eta ongi egina baitzuen. Bere Gorentasunaren zuhurtziak, mailak eta zoriak, besteengan zorakeriak eta miseriak sortarazitako akatsetatik libratu egin zutela erantzun nion. Bere landetxera joaten banintzen —hogeiren bat miliara zegoen eta han omen zuen bere etxaldea— honelako elkarriketatarako asti gehiago izango genuela esan

zidan. Guztiz bere esanera nindukala adierazi nion Gorentasun hari, eta beraz, harantz abiatu ginen biharamun goizean.

Bidaian zehar, lurrak lantzeko nekazariak erabiltzen zituzten metodo ezberdinak beharazi zizkidan, niretzat zeharo ulergaitzak zirenak, zeren eta, leku gutxi batzuetan izan ezik, ezin izan bainuen galburu edo belar-izpi bat aurkitu. Baina bidaiatzen hiru ordu eman genituenerako, zeharo aldatua zen ikuspegia: landazabalik ederrenean barneratuak ginen; tarteka nekazarien etxeak zeuden, apain eraikiak; landa hesituetan mahasti, labore-soro nahiz larretokiak zeuden. Ez dut gogoratzen hain ikuskizun zoragarririk ikusi izanik. Begitartea argitu egiten zitzaidala ohartu zen Gorentasun hura; hasperen batez, bere etxaldea han hasten zela esan zidan, eta halaxe jarraitzen zuela bere etxeraino iritsi arte. Baita ere erkideek barre egin eta mesprezatu egiten zutela bere negozioak hobeki ez eramateagatik eta hain ikasbide txarra erresumari emateagatik, halere gutxi batzuk jarraitu egiten ziotelarik, bera bezalako agure setati eta ahulen batzuek, alegia.

Iritsi ginen azkenean etxera, egitura bikaine-koa benetan, antzinako arkitekturaren araurik onenak betez egina. Iturriak, lorategiak, pasealekuak, etorbideak eta zuhaiztiak gustu on eta irizpide zehatzez zeuden denak ezarriak. Merezita gorai patu nion ikusitako guztia, Gorentasun hark ez zuelarik batere aintzat hartu afalostera arte; orduan, beste inor gabe aurrean, oso malenkoniatsu esan zidan, beldur zela hiriko nahiz landako bere etxeak bota eta garaiko modaren arabera berreraiki beharko ote zituen, baita berak landaturik zuen guztia desegin eta ohitura modernoak eskatu bezala beste batzuk ezarri eta berdin egin zezatela agindu beharko ote zien bere maizterrei ere, ez bazuen harrokeriaz, berekoikeriaz, arrandikeriaz, ezjakintasunez eta kasketaldiaz salatua izan —eta agian Maies-tatearen haserrea ere areagotu— nahi behintzat.

Zenbait xehetasunen berri ematen zidanean, nik sentitzen bide nuen mirespena desagertu edo murriztu egingo zela ere esan zidan, halakorik ziur aski ez bainuen sekula Gortean entzungo, hango jendea murgilduegia zegoelarik bere

espekulazioetan behean gertatzen zenaz arduratzeke.

Beraren hitzak honako hauek izan ziren: «Duela berrogei urte inguru, pertsona batzuk Laputara igo ziren, negozioetara edo dibertitzeke, eta bost hilabetez han egon ondoren itzuli egin ziren matematikako ezagupen txiki batzuekin, baina goialde hartan lorturiko izaera aldakorraz beterik. Itzuli ondoren, behean gauzak egiteko era guztiak gaitzesten hasi ziren pertsona haiek, arte, zientzia, hizkuntza eta teknologia guztiak oinarri berri baten gain eraikitzeke asmotan. Helburu honekin, errege-baimena lortu zuten Lagadon PROIEKTUGILE-Akademia bat eraikitzeke; eta kasketaldiak halako arrakasta izan zuenez jendartean, ez dago erresuman hiri garrantzitsurik horrelako Akademiarik gabe. Ikastegi hauetan, nekazaritza eta eraikuntzarako arau eta metodo berriak asmatzen dituzte irakasleek, baita tresna eta erreminta berriak ere industria eta artisautza guztietarako, horrela, beraiek hitz ematen dutenez, gizon batek hamarren lana egingo duelarik; jauregi bat aste betean eraikiko omen da eta konpondu beharrik

gabe betirako irauteko moduko material irau-
korrez. Lurraren emaitza guztiak, guk aukeratu
nahi dugun sasoian helduko omen dira, eta gaur
egun diren baino ehun aldiz ugariagoak izango;
baita beste proposamen zoriontsu asko ere. Era-
gozpen bakarra, proiektu hauetariko bakar bat
ere ez dela oraindik perfekziora iritsi, eta bitar-
tean lurralde osoa alferrik galdua dagoela,
etxeak hondatuta, eta jendea jakirik eta jantzirik
gabe. Guzti honengatik etsita egon ordez, berro-
geita hamar aldiz gogo biziagoa dute beren egi-
tasmoezin jarraitzeko, itxaropenak beste etsipe-
nak bultzatzen dituelarik horretara». Berari
zegokionez, enpresari-izpiriturik ez zuenez,
pozik zegoela antzinako bideetatik jarraitzeaz,
arbasoek eraikitako etxeetan bizitzeaz eta, berri-
kuntzarik gabe, bizitzako arlo guztietan haiek
bezala jokatzaz. Aitonon seme eta goiko burge-
seriako beste pertsona gutxi batzuek ere berdin
egiten zutela, baina mesprezuz eta gorrotoz iku-
siak zirela, artearen etsai, ezjakin eta erkide txar-
rak balira bezala, beren erosotasuna eta alfer-
keria herriaren hobekuntza orokorra baino
nahiago balituzte bezala.

Akademia handia ikustean ziur aski sentituko nuen atsegina, xehegasun gehiagoren bidez ez zidala kendu nahi gaineratu zuen Jaun hark, berak erabakia zuelarik ni hara joatea. Baina aurrez mendi baten magalean hiru bat miliara zegoen hondatutako eraikin bat ikus nezan nahi zuen, hartaz hauxe esan zidalarik: Etxetik milia erdira errota bat izan zuela oso egokia, ibai handi batetik ur lasterrak eragiten ziolarik, eta aski zela bere familiarentzat baita maizterretariko askorentzat ere. Zazpi bat urte zirela, proiektugile haien talde bat etorri zitzaiola errota hura desegin eta mendi haren magalean beste bat eraikitzeko proposamenaz, mendiaren gailurrean luzetara ubide luze bat egin behar zelarik ura biltzeko eta hodi eta makina bidez hara eramango errota hornitzeko; izan ere, halako altueran haizeak eta aireak ura astintzen omen zuten mugitzeko egokiago bihurtuz; bestalde, gainbehera zetorren urak ibai baten emariaren erdiaz ere mugiaraziko omen zuen errota, horizontala goa izanik ibaiaren bidea. Gortearekin oso ondo konpontzen ez zenez garai hartan, eta lagun askok bultzatuta, proposamena onartu egin

zuela esan zidan; eta ehun gizon bi urtez erabili ondoren, huts egin zuela lanak, proiektugileek alde egin zutelarik erru guztia berari egotziz, eta iraintzen jarraitzen dutela geroztik, baita esperimentu berdinean beste batzuk sar erazten ere, beti arrakasta berdina hitz emanez eta etsipen berdina gero.

Egun gutxi barru hirira itzuli ginen, eta Gorentasun hark, Akademian zuen ospe txarra kontutan izanik, ez zuen nirekin joan nahi izan, baizik eta bere lagun baten esku utzi ninduen hara lagun ziezadan. Ni, proiektuen miresle sutsu eta jakin-min handiko pertsona sineskortzat aurkezteari ederretsi zion Jaun hark, eta benetan bazuen arrazoi pixka bat, neure gaztarroan izana bainintzen nolabaiteko proiektugile.

5. KAPITULUA

Autoreari Lagadoko Akademi ospetsua ikusten utzi. Akademiaren deskribapen zehatza. Irakasleek lantzen dituzten arteak.

Akademia hura ez da eraikin bat bakarra, baizik eta kalearen bi aldeetan dagoen etxe-multzo bat, eremu soil bihurtzen ari zenez, erosi eta horretarako erabilia izan zena.

Oso maitagarriro hartu ninduen Zuzendariak, eta egun askotan joan nintzen Akademiara. Proiektugile bat edo gehiago zegoen gela bakoitzean, eta uste dut bostehun baino gutxiagotan ez nintzela egon.

Ikusi nuen lehen gizona itxura argalekoa zen, eskuak eta aurpegia kedarra bezain beltzak zituen, ilea eta bizarra luzeak, zarpailtsu eta zenbait aldetan sugarastatua zegoen. Haren jantziak, txabusina eta larruazala, denak kolore berekoak ziren. Zortzi urte zeramatzan pepinoetatik eguzki-izpiak ateratzeko proiektuan sartu-

ta, izpi horiek hermetikoki itxitako ontzietan ipini ondoren, airea berotzeko kanpora aterako lirate-keelarik uda hotz eta txarretan. Beste zortzi urteren buruan, zalantzarik gabe, Gobernariaren lorategiak prezio egokian eguzki-argiz hornitzeko gai izango zela esan zidan; baina kexu zen bere gordailua urrituta zegoelako eta asmamena suspertzeko zerbait eman niezaion erregutu zidan, batez ere, aldi hartan pepinoak oso garesti zebiltzalako. Erregalu txiki bat egin nion, nire jaunak horretarako emana zidan diruaz, ezagutzen baitzuen ikustera joaten zitzaizkion guztiei eskean aritzeko ohitura hori.

Gero beste gela batera joan nintzen, baina atzera egin nuen berehala, ia eraitsi baininduen hango kirats nazkagarriak. Laguntzaileak aurrea bultza egin zidan, inor ez nezala iraindu esanez xuxurlan, oso gaizki hartuko zutela eta; beraz, sudurra estaltzera baino ez nintzen ausartu. Gela hartako proiektugilea Akademiako iker-tzailerik zaharrena zen. Aurpegia eta bizarra hori-zurixkak zituen; eskuak eta jantziak zikinke-riaz lardaskatuta. Nire aurkezpena egin ziotenean, estu besarkatu ninduen (gogo onez desen-

kusatuko nion kortesia). Akademiara iritsi zene-
tik, giza gorotzak jatorrizko elikagaietara itzul-
tzeko eragiketa zen haren eginkizuna, osagai
ezberdinak banatuz, behazun-xixkutik hartzen
duten tindagaia kenduz, usaina lurrunaraziz eta
listua kenduz. Astero giza gorotzez beteriko
ontzi baten dohaintza egiten zion Elkarteak, Bris-
toleko upel baten tamainakoa zelarik ontzia.

Bolbora lortzeko izotza kaltzinatzen ari zen
beste bat ere ikusi nuen, aldi berean suaren
xaflakortasunaz idatzi eta argitaratu nahi zuen
tratatu bat erakutsi zidalarik.

Bazegoen arkitekto bat, oso burutsua, etxeak
eraikitzeko metodo berri bat asmatua zuena,
sabaitik hasi eta beherantz oinarrietarantz lan
eginez, hori justifikatzeko bi intsektu zuhurren,
erlearen eta armiarmaren, antzeko jokabidea
aipatu zidalarik.

Bazen itsu jaiotako gizon bat ere, egoera
bereko zenbait aprendiz zituena; haien eginkizu-
na pintoreentzako koloreak nahastea zen, kolo-
reak bereizten maisuak irakasten zielarik ukime-
na eta usaimena erabiliz. Benetan zorte txarra
izan nuen, ez baintuen aldi hartan oso trebe aur-

kitu beren ikaskuntzan eta irakasleak berak ere huts egiten zuen gehienetan; artista hau biziki lagundua eta estimatua da anaidia osoan.

Beste departamentu batean oso pozik egon nintzen proiektugile batekin, txerriekin lurra lantzeko sistema baitzuen asmatua, horrela golda, ganadu eta lanaren kostuak aurreztuz. Hauxe da metodoa: hektarea erdiko lur-zati batean, hama-bost zentimetroko tarteaz eta hogeiko sakone-raz, ezkur, datil, gaztaina eta antzeko beste fruitu batzuk edo animalia hauek gogokoen dituzten landareak lurperatu behar dira; gero horietako seiehun edo gehiago eraman sorora, eta egun gutxiren buruan soro guztia harrotuko dute janari bila, eta prest utziko hazia ereiteko, aldi berean beren gorotzez ongarrituko dutelarik; egia esateko, esperimentatu ondoren, gastuak eta molestiak handiak zirela ohartu ziren, eta oso uzta gutxi edo batere ez zuten lortu. Halere, ez dago zalantzarik, hobekuntza handiak egin daitezke asmakizun honetan.

Beste gela batera ere joan nintzen, hango paretak eta sabaia armiarma-sarez guztiz estalita zeudelarik, artistaren joan-etorrirako pasabi-

de estu batean izan ezik. Sartu nintzenean, armiarma-sareekin kontuz ibiltzeko oihu egin zidan. Zetarrak erabiliz munduak hain luzaroan egina zuen hutsegite tamalgarria deitoratzen zuen, bai baikenituen horiek baino askoz hobeak ziren beste hainbat intsektu domestiko, ehotzen ere zekitenak eta ez iruten bakarrik. Eta gainera, armiarmak erabiliz, zeta tindatzearen gastua guztiz aurreztu zitekeela esaten zuen, honetaz zeharo konbentzitua geratu nintzelarik oso kolore ederretako euli-multzo handi bat erakutsi zidanean, zeinez armiarmak elikatzen baitzituen, eta ziurtatu zigun haien kolorea hartzen zutela amaraunek; eta nabardura guztietakoak zituenez, mundu guztiaren gogoan ase ahal izateko itxaropena zuen, hariei indarra eta kontsistentzia emateko, goma, olio eta beste substantzia glutinoso batzuen bidez eulientzako janari egokia aurkitu ahal izan bezain laster.

Bazen astronomo bat ere eguzki-erloju bat udaletxeko haize-orratz handiaren gainean jarri nahian zebilena, lurraren eta eguzkiaren urteko eta eguneko mugimenduak doituta zeudelarik,

haizearen halabeharrezko aldaketa guztiakin egoki eta bat etor zitezten.

Koliko txiki batez kexati nenbilenez, gidariak beste gela batera eraman ninduen, han goi-mailako mediku bat zegoelarik, gaitz hori tresna batberaren alderantzizko erabileraz sendatzen zuelako ospetsua zena. Hauspo handi-handia zuen bolizko mutur luze eta meheaz. Hau uzkitik gora sartu hogeit bat zentimetro eta, haizea kanporatuz, erraiak puxika siku bat bezain lehor utz zitzakeela esaten zuen. Baina gaitza gogorragoa eta bortitzagoa baldin bazen, hauspoa haizez beteta zegoela sartzen zuen muturra eta gaixoaren gorputz barruan husten; gero tresna berriro ateratzen zuen haizez betetzeko, bitartean erpu ruaz sendo zapaltzen zuelarik uzki-zuloa; eta hau hiruzpalau aldiz errepikatu ondoren, haize arrotz haiek ziztuan irteten ziren kanpora, bide batez berekin ekarriz kaltegarria ere (ponpara botatzen den ura bezala) eta horrela sendatuz gaixoa. Bi esperimentu hauek txakur batekin egiten ikusi nuen, baina ez nuen inolako ondorio-rik sumatu lehenengoaren ostean. Bigarrenaren ondoren, ordea, lehertzeko zorian zegoen ani-

malia, eta hain hustuketa bortitza egin zuenez, oso gogaikarria izan zen neuretzat eta nirekin zeudenentzat. Hantxe bertan akabatu zen txakurra, eta prozedura beraren bidez berpiztu nahian utzi genuen doktorea.

Beste departamentu asko bisitatu nuen, baina ez dut irakurlea ikusi nituen bitxikeria guztiekin aspertuko, laburtasuna baitut helburu.

Orain artean Akademiaren alde bat bakarrik nuen ikusia, bestea espekulaziozko jakintzan aurreratuak zirenentzako baitzen, horietaz ere zerbait esango dudalarik beste pertsonaia ospetsu bat aipatu ondoren, *artista unibertsala* deitzen zutena, alegia. Hogeita hamar urte zeramatzala esan zigun bere gogoetak giza bizitzaren hobekuntzarako erabiltzen. Bi gela handi zituen bitxitasun harrigarri beteak, eta berrogeita hamar gizon lanean. Batzuk airea kondentsatzen ari ziren substantzia lehor ukigarri bihurtzeko, nitroa kenduz eta partikula urtsu edo jariakorrei iragazten utziz; beste batzuk, marmola biguntzen burko eta kuxintxoetarako; beste batzuk, zaldiaren apatxak harri bihurtzen, atzazaletako minik izan ez zezan. Artista bera bi proiektu han-

direkin lanpetua zebilen orduan: lehenengoa, lurrean galautsa ereitekoa, benetako hazmena hortxe zegoela esaten baitzuen, baita zenbait esperimentuz frogatu ere, baina ez nintzen hura ulertzeko behar bezain buruargia izan. Eta bestea, goma, mineral eta landarezko osakinen bat gainazalean igurtziz, bi arkumetxo gazteri ilea hazten ez uztekoa; eta zentzuzko denboraldi, baten buruan, ardi biluzien espeziea erresuma osoan zehar zabalduko zela espero zuen.

Paseabidean aurrera Akademiaren beste aldera joan ginen, lehen esan dudan bezala, han espekulaziozko jakintzaren proiektugileak zeudelarik.

Lehendabizi ikusi nuen irakaslea gela handi batean zegoen, inguruan berrogei ikasle zituelarik. Agurtu ondoren, luze-zabalean gela gehiena hartzen zuen aparatu bati arduraz begira nongoela ohartu zelarik, beharbada harrিতua egongo nintzela esan zidan prozedura praktikoa eta mekanikoen bidez jakintza espekulatiboa hobetzeko proiektu batean ari zela ikustean. Baina mundualaster ohartuko zela haren erabilgarritasuna

sunaz, eta harro zegoen sekula ez zelako beste gizaki baten burutik ideia jator eta bikainagorik sortu. Mundu guztiak zekiela zein neketsua zen arteak eta zientziak ikasteko ohiko metodoa, baina bere asmakizunaz, pertsonarik ezjakinek ere, bidezko gastuaz eta gorputza pixka bat nekatuz, filosofia, poesia, politika, lege, matematika eta teologiako liburuak idatzi ahal izango zituela, inolako buru-argitasun edo ikasketa beharrik gabe. Aparatura eraman ninduen orduan, ikasle guztiak haren inguruan zeudelarik lerroetan. Sei metroko zabalerako karratua zen, gelaren erdian kokatua. Gainazala zurezko zati txikiz osatua zuen, dato baten tamainakoak gutxi gorabehera, baina batzuk beste batzuk baino handiagoak. Denak elkarlotuta zeuden metalezko zirien bidez. Zurezko zati hauek alde guztiak estalita zituzten erantsitako paperez, eta paperetan haien hizkuntzako hitz guztiak zeuden modu, denbora eta deklinabide ezberdinetan, baina inolako ordenarik gabe. Erne egoteko erregutu zidan irakasleak, bere makina martxan jarri behar baitzuen. Hark aginduta, ikasle bakoitzak burdinazko eragingailu bati heldu zion, haietako

berrogei zeudelarik ertzetan aparatuaren inguru guztian eta, bat-batean bira emanaz, zeharo aldatu zen hitzen antolamendu osoa. Orduan, lerro ezberdinak, aparatuan ageri ziren bezala, astiro irakurtzeko agindu zien gazteetako hogeita hamaseiri; eta esaldi baten parte izan zitezkeen hiru edo lau hitz aurkitutakoan, kopistak ziren beste lau mutilei diktatzen zieten. Eginkizun hau hiruzpalau aldiz errepikatu zuten, eta biraketa bakoitzean, hitzak leku berrietan koka zitezzen pentsatua zegoen aparatua, zurezko laukitxoak azpikoz gora jartzen baitziren.

Egunean sei ordu ematen zituzten ikasle gazteek lan hartan, eta folio handiko hainbat liburu-ki erakutsi zidan irakasleak, etendako esaldiz beteak, baina berak elkartu nahi zituenak, material aberats hartatik aterata munduari arte eta zientzia guztien corpus osoa eskaintzeko; halere, hura hobetu eta biziki bizkortu omen zitekeen, Lagadon halako bostehun aparatu eraiki eta martxan jartzeko jendeak fondo bat bilduz gero, baita arduradunak beren bilduma ezberdinak elkarretaratzera behartuz gero ere.

Burua gaztarotik asmakizun hartan erabili zuela ziurtatu zidan, hiztegi osoa jarria zuelarik aparatu hartan, baita partikula, izen, aditz eta esaldiaren beste zati batzuen artean liburuetan dagoen proportzio orokorraren kalkulurik zorrotzena egina ere.

Nire esker onik apalena erakutsi nion pertsonaia ospetsu hari bere komunikagarritasunagatik eta, sorterrira itzultzeko zoriona izaten banuen, justizia egingo niola hitz eman nion, makina zoragarri haren asmatzaile bakarra zen aldetik; eta aparatuaren itxura eta erabilera paperean marrazten uzteko erregutu nion, ondo-ko irudian dagoen bezala. Eta esan nion, Europan jende jakitunak elkarri asmakizunak lapurtzeko ohitura duen arren —honek gutxienez abantaila bat baduelarik, hots, benetako jabea nor den jakiteko eztabaidak sortzea— neu arduratuko nintzela ohorea oso-osorik lehiakiderik gabe berak izan zezan.

Ondoren, hizkuntz eskolara joan ginen, non hiru irakasle ari baitziren eserita beren herrikoa nola hobetu aztertzen.

Lehen proiektua, diskurtsoa laburtzea zen, silaba anitzekoak bakar batera murriztuz eta aditzak eta adjektiboak baztertuz, zeren eta, azken batean, burura dakizkigukeen gauza guztiak ez baitira izenak baizik.

Beste proiektua, hitz guztiak zeharo ezabatzeko eskema zen; eta hau biziki bultzatzen zen, osasun nahiz laburtasunaren ikuspegitik abantaila handikoa izango zelako. Zeren eta, garbi baitago, esaten dugun hitz bakoitzak neurri batean gure biriken murrizpena dakarrela higiduraz eta, ondorioz, gure bizitza labor erazten duela. Beraz, irtenbide bat proposatzen zen, *hitzak* gauzen izenak besterik ez direnez, kome-nigarriagoa izango litzatekeela, esan beharreko hura zehatz adierazteko behar beste *gauza* gizaki guztiek inguruan eramatea. Eta gizakiaren erosotasun eta osasunaren mesedetan asmakizun hura benetan gauzatuko zatekeen, emakumeek —jendaila eta analfabetoekin elkartuta— matxinatzeko mehatxua ez balute egin arbasoen erara mihiatz hitz egiteko askatasuna ematen ez bazitzaien behintzat; beti izan baita jende xehea zientziaren etsai adiskidetu ezina. Halere, jakin-

tsuen eta zuhurrenetako askok berenganatu dute *gauzen* bidez adierazteko metodo berria, eragozpen bat bakarra duelarik, alegia, pertsona baten arazoa luzea eta ñabardura ugarikoa baldin bada, bizkarrean are *gauza* pilo handiagoa garraiatu beharko duela proportzioan, laguntzeko morroi indartsu bat edo bi ez baditu aurkitzen behintzat. Sarri ikusi dut nik jakintsu horietako pare bat, zamapean ia abailduta, gure artean saltzaile ibiltariak bezala; eta kalean elkarrekin topo egitean, lurrera bota zama, zabaldu zakuak eta ordu betean egoten ziren elkarrizketan; gero, gorde beren tresnak, zamak bizkarreratzen lagundu eta elkarri agur esaten zioten.

Baina elkarrizketa laburretarako, poltsikoan edo besapean garraia ditzake pertsona batek bere tresnak, nahikoa bere burua hornitzeko, eta etxean ere ez da geratuko zer esanik gabe; horregatik, arte hau praktikatzen dutenak elkartzen direneko gelak, honelako elkarrizketa artifizialeterako gaia eman lezaketen *gauza* guztiez beteak egoten dira, prest eta eskura betiere.

Asmakizun honek eskainiriko beste abantaila handi bat, hizkuntza unibertsaltzat erabili ahal

izatea da, nazio zibilizatu guztietarako baliagarri, hauetako produktu eta tresnak mota berekoak izaten baitira eskuarki, edo oso antzekoak, berauen erabilerak oso erraz ulertuko liratekeelarik. Eta horrela, enbaxadoreak gauza izango lirateke atzerriko printze edo gobernuko ministroekin negoziatzeko, nahiz eta zeharo ezezagunak gertatu hauen hizkuntzak.

Matematikako eskolara ere joan nintzen, non guk European nekez pentsa dezakegun metodoaz irakasten baitzien maisuak ikasleei. Proposamendua eta frogaketa argi eta garbi idatziak zeuden olata mehe batean, koloregai zefaliko osatutako tintaz. Hau baraurik zegoela irentsi behar zuen ikasleak, eta ondorengo hiru egunetan ez zuen ezer jan behar ogia eta ura baizik. Olata digeritutakoan, koloregaia burmuinetara igotzen zitzaion, aldi berean proposamendua ere berekin eramanez. Baina orain artean arrakastarik ez da lortu, nahiz kantitate edo osaera aldetik hutsegiteren bat egon delako nahiz gazteen maltzurkeriagatik, zeren eta, hain nazkagarria gertatzen zaienez bolo hori, gehienetan ihes egiten baitute isilka-misilka eta goitik kanporatzen

eraginik izaten hasi aurretik; gainera, oraindik ez dituzte konbentzitu errezetak eskatu bezain luzaroan baraurik egon daitezen ere.

6. KAPITULUA

Akademiari buruzko informazio gehiago. Zenbait hobekuntza proposatu autoreak, ohorez onartzen dituztenak.

Proiektugile politikoan eskolan nahikoa gaizki pasatu nuen, nire ustez, irakasleak zeharo burutik eginda baitzeuden, beti goibeldu ohi nauen ikuskizuna izanik hau. Han zebiltzan koitadu haiek proiektuak proposatzen, faboritoak aukeratzeko jakinduria, gaitasun eta bertutean oinarrituta egin behar dutela monarkak konbentzitzeko; edo guztion ongizatea kontutan hartzen ministroei erakusteko; edo meritu, trebetasun handi eta zerbitzu aipagarriak saritzeko; edo beren benetako interesak zeintzuk diren printzei erakusteko, berenak eta herriarenak oinarririk berberaren gainean ezarriz; edo kargu ofizialeko gaitasuna duten pertsonak aukeratzeko; eta horrela, beste hainbat ezinezko ameskeria izugarriekin, aurrez sekula gizakiaren

buruan sortu ez direnak, horrela frogatu zidate-larik antzinako esaera hura, alegia, ez dagoela gauza bitxi edo zentzugabekorik filosoforen batzuek egiazat defendatu ez dutenik.

Baina, halere, justizia egingo diot Akademia-ren sail honi, haietako guztiak ez zirela hain ameslariak aitortuz. Bazegoen doktore bat oso buruargia, ongi baino hobeto menperatzen zuena gobernuaren izaera eta sistema osoa. Pertsonaia argitsu hark bere ikerketa guztiak oso onuragarriro erabiliak zituen, mota orotako administrazio publikoko gaitz eta ustelkeria guztientzako erremedio eraginkorrak aurkitu nahian, bai gobernatzen dutenen bizio eta ahuleziengatik sortutakoentzako baita obeditu behar dutenen libertinaiaren ondoriozkoentzako ere. Adibidez, gorputz naturalaren eta politikoa-ren artean antzekotasun unibertsal eta estua dagoela esatean idazle eta pentsalari guztiak bat datozela kontutan izanik, egon al daiteke ezer logikoagorik, bien osasuna zaindu behar dela eta gaitzak errezeta berberaz sendatu behar direla esatea baino? Gauza jakina da senatu eta batzar handiek sarritan izaten dituz-

tela arazoak kideek umoreak gainezka, hantuta edo beste erikortasunen batekin izaten dituztelako, edo buruko gaitz asko, eta bihotzeko gehiago; edo konbulzio bortitzak eta bi eskuetako — eta batez ere eskuineko— nerbio eta tendoien uzkurdura mingarria; edo aldarte txarrak, haizemin, zorabio eta eldarnioak; edo materia kiras-dun eta zornatsuz beteriko gangaila-tumoreak; edo lerre-jario eta korroka nazkagarriak, izugarrizko gose eta digestio txarrak, eta aipatu beharrik ez dagoen beste asko gainera. Beraz, doktore hark proposatzen zuen, senatu bat biltzerakoan, mediku batzuk ere joan zitezela lehen hiru eguneko ekitaldietara, eta egun bakoitzeko eztabaidaren amaieran, bar zezatela senatari bakoitzaren pultsua; eta gero, eritasun ezberdinen izaera —baita osabideak ere— arretaz hausnartu eta kontsultatu ondoren, senatu-etxera itzuli behar zutela laugarren egunean, beren botikariekin batera eta beharrezko sendagaiz hornituak, eta batzarkideak eseri aurretik, haietako bakoitzari bigungarriak, aperitiboak, garbitzailak, erregaiak, lehorgarriak, aringarriak, libragarriak, buruko minarentzakoak, minoriarentza-

koak, apoflematikoak edo akustikoak eman, kasu ezberdin bakoitzak eskatu bezala; eta sendagai hauen eraginaren arabera, hurrengo bilkurarako errepikatu, aldatu edo kendu.

Proiektu honek ez luke ekarriko gastu handirik herriarentzat eta, nire uste apalean, senatuak botere legegilearen parte diren herri haietan oso onuragarria izango litzateke gaiak izapidetzeko, iritzi-batasuna ekarri eta eztabaidak laburtuko bailituzke, orain itxita dauden aho bakar batzuk ireki eta zabalik dauden askoz gehiago itxiko, gaztearen harropuzkeriari eutsi eta zaharraren dogmakeria zuzenduko luke, buruz motza dena ernarazi eta lotsagabea baretuko.

Halaber, erregeen faboritoak oroimen ahul eta laburrekoak direla kexu orokorra izaten denez, doktore berberak proposatzen zutenek, lehen ministro batekin elkartzen zenak, ahalik eta laburtasun handienaz eta hitzik argiaren bidez bere arazoaren berri eman ondoren, alde egiterakoan txatxamurkada bat eman beharko lioke sudurrean, edo ostiko bat sabelean, edo maskurrak zapaldu, edo hiru teinkada bi belarrietatik, edo praken gainetik ziztada bat orra-

tzaz, edo besoa txatxamurka egin ubelduta utzi arte, oroimenak huts egin ez diezaion; eta ekin-tza bera errepikatu harrera-egun bakoitzean, arazoa ebatzi edo zeharo ukatua izan arte.

Era berean adierazten zuen, nazioko batzar nagusian senatari bakoitzak bere iritzia eman eta beraren alde argudiatu ondoren, zuzen-zuzen kontrako botoa ematera egon beharko lukeela behartua, horrela egingo balitz, azkenean zalantzarik gabe jendearen onerako izango bailitzateke emaitza.

Estatu batean alderdiak borrokan dabiltzan, asmakizun ederra eskaintzen zuen adiskidetzeko. Hona hemen metodoa. Alderdi bakoitzeko ehun buruzagi hartu eta bikoteka jarri tamaina bertuko buruak elkartuz; gero, bi langile prestuk bikote bakoitzaren *lepondoak* zerra ditzatela aldi berean, burmuina berdintsu zatitua geratzeko moduan. Honela ebakitako *lepondoak* elkartrukatu eta beste alderdikoaren buruan jarri. Zehaztasun handi samarra eskatzen duen lana dela ematen du benetan, baina irakasleak baieztatzen zigunez, trebetasunez gauzatuko balitz, sendabideak ezingo luke huts egin. Zeren

eta, honela argudiatzen baitzuen: burezur bakar baten barruan arazoa beren artean eztabaidatzen utziz gero bi burmuin-erdiei, laster iritsiko lirateke elkar ondo ulertzera, eta pentsamendua- ren neurritasun eta uniformitatea sortuko lukete —mundura beren mugimenduak miretsi eta gobernatzera bakarrik etorri direla pentsatzen duten horien buruetan ere aurkitzea hain desiragarria litzatekeena—; eta alderdietako buruzagi direnen artean, kantitatez edo kualitatez burmuinak ezberdinak direlako hori lelokeria hutsa zela esaten zigun doktoreak, bere jakintzan oinarrituz.

Bi irakasleren arteko eztabaida sutsu bat ere entzun nuen, ea zein ote zen metodorik eta baliabiderik erosoen eta eraginkorrena dirua biltzeko, zergapekoak nahigabetu gabe. Bizio eta zorakeriei nolabaiteko zerga jartzea izango litzatekeela metodorik egokiena esaten zuen lehenengoak, eta pertsona bakoitzari ezarri beharreko kopurua, auzokoek osaturiko epaimahaiak erabaki beharko lukeela erarik bidezkoenean. Bigarrenak, berriz, guztiz kontrako iritzia zuen, hots, pertsonak beren buruak baloratzeko

gehien kontutan hartzen dituzten kalitate fisiko eta mentalak zergapetu beharko liratekeela, bikaintasun-mailaren arabera kopuru handiago edo txikiagoa ezarriz, honi buruzko erabakia norberaren barruari utzi beharko litzaiokeelarik guttiz. Metodo honetan zergarik handiena, beste sexukoek gogokoen dituzten gizonen ezartzen zitzairen, eta kargak, hartutako mesedeen kopuru eta izaeraren arabera ziren, honetaz, beren buruen bermatzaile izatea onartzen zitzaielarik. Zolitasuna, adorea eta gizalegea ere gogor zergapetuak izatea proposatzen zuen, eta era berean bilduak, bakoitzak bere hitza emanek zeukan kantitateari buruz. Baina ohoreak, justiziak, zuhurtziak eta jakinduriak ez lukete batere zergarik izango, zeren eta, hain mota bereziko kalitateak direnez, ez bailizkioke inork bere auzokoari aitortuko edo ezta nor beregan baloratuko ere.

Emakumeak edertasunaren eta janzteko trebetasunaren arabera zergapetzea proposatzen zuen, honetan gizonen pribilegio bera zutelarik, alegia, beren irizpidera geratzen zela erabakia. Baina konstantzia, kastitatea, zentzu ona eta

izaera goxoa ez ziren zergagarri, ez bailukete bil-tzeko gastua ere estaliko.

Senatariek Koroari atxikiak jarraitzeko, kar-guak zozketaz banatzea proposatzen zen, aurrez izangai bakoitzak zin eginez —irabazi ala ez— gortearen alde emango dutela botoa, gero gal-tzaileek berriro izango luketelarik askatasuna hurrengo bakantearen zozketan sartzeko. Horre-la bizirik mantenduko lirateke itxaropen eta igu-rikapenak, inor ez litzateke kexatuko betegabe-ko agintzariez eta bere frustrazioak Zoriari baka-rrik egotziko lizkioke, honen sorbaldak ministro-tza batenak baino zabalagoak eta sendoagoak direlarik.

Beste irakasle batek, gobernuaren aurkako konplotak eta konspirazioak aurkitzeko argibi-deak zituen idazki handi bat erakutsi zidan. Per-tsona susmagarri guztien dieta aztertzeko ahol-kua ematen zien estatista handiei, baita jateko orduak, zein aldetara etzaten ziren ohean edo zein eskuz garbitzen zuten atzealdea ere; goro-tzak zorrotz ikuskatzeko, eta digestioaren kolo-rea, usaina, gustua, kontsistentzia, gordintasuna edo heldutasuna kontuan hartuta osatzeko kons-

piratzaileen gogoeta eta asmoei buruzko iritzia. Gizakiak ez baitira inoiz serioago, gogoetatsuago eta kontzentratuago egoten komunean daudenean baino, berak esperimentu ugariaren bidez jakin zuelarik hori; izan ere, horrelako egoeratan —proba bezala bakarrik— Erregea hiltzeko biderik onena zein ote zen hausnartzen zuenean, haren gorotzek kolore berdexka hartzen omen zuten, baina oso ezberdina matxinada bat sortzea edo metropoliari su ematea bakarrik pentsatzen zuenean.

Zorroztasun handiz idatzia zegoen testu osoa, politikoentzat oharpen asko zituelarik bitxiak eta interesgarriak, baina nik pentsatu bezala, ez guztiz osoa. Hau autoreari esatera ausartu nintzen eta, atsegin bazuen, zenbait gehigarri egitea eskaini nion. Idazleen artean, batez ere proiektugileen espeziekoen artean, ohi den baino adostasun handiagoz onartu zuen nire proposamena, informazio zabalagoa pozik hartuko zuela aitortuz.

Esan nion berari, Tribniako erresuman, bertakoek Langden deituan, non luzaroan bizi izana bainintzen, gehienak salatari, lekuko, berriemai-

le, akusatzaile, kereilari, atestatu-egile eta zinaldari zirela beren eskupeko tresna lagungarri guztiekin, eta denak ministroen eta ordezkoen bandera, zuzendaritza eta ordainketa pean zuedela. Erresuma hartan konplotak sortzen dituzten pertsonak eskuarki politiko sakonak direlako ospea areagotu nahi dutenak izaten direla, indar berria eman nahi diotenak administrazio zentzugabeari, desadostasun orokorra ito edo desbideratu nahi dutenak, konfiskatutakoaz beren kutxak bete eta, beren onura pertsonalerako zein den komenigarriago kontutan izanda, sinesgarritasun publikoa goraipatu edo gaitzetsi egiten dutenak. Lehenik, beren artean ados jarri eta konplotaz zein pertsona susmagarri salatuko duten erabakitzen dutela, gero neurri eraginkorrak hartzen direlarik halakoen gutun eta beste paper batzuez jabetzeko, eta jabeak espetxeratzeko. Paper hauek zenbait artistari ematen zaizkiola, oso trebeak direlarik hitz, silaba eta letren esanahi misterioitsuak aurkitzen. Esate baterako, komunak Kontseilu Pribatua esan nahi duela deszifra lezakete; antzara-aldrak senatua, zakur herrenak inbaditzailea, bakailao-buruak

.....-a, izurriak armada iraunkorra, zapelatzak lehen ministroa, gotak apez nagusia, urkamendiak gobernuko ministroa, pixontziak handikien batzordea, galbaheak gorteko anderea, erratzak iraultza, satarteak kargu ofiziala, hondorik gabeko putzuak Altxorzaintza, zikintzuloak Gortea, txintxarridun txanoak faborittoa, ihi apurtuak epaitegia, upel hutsak jenerala, zorna darion zauriak administrazioa.

Metodo honek huts egiten duenean, badituztela beste bi eraginkorragoak, haien arteko ikasiek akrostikoak eta anagramak deitzen dituztenak. Lehenengoaz, hasierako letra guztietan esanahi politikoak aurki ditzaketela. Adibidez, N konplota izango da, B zaldi-erregimentua, L ontziteria itsasoan. Eta bigarrenaz, edozein paper susmagarritan alfabetoko letrak tokiz aldatuz, pozik ez dagoen alderdi baten asmorik sakonenak jar ditzaketela agerian. Horrela, adibidez, gutunean lagun bati esango banio, *Gure alaba Tomasak odoluzki mingarriak ditu betirako*, arte honetan trebea den pertsonak esaldi hori osatzen duten letra berberak ondorengo hitzetara ere pasa daitezkeela aurkituko luke:

Eutsi luzaroago: balak, dinamit eta armak igorriko buk. Eta hauxe dela metodo anagramatikoa.

Irakasleak esker onik biziena erakutsi zidan oharpen hauen berri eman niolako, eta bere tratuan nire ohorezko aipamena egingo zuela hitz eman zidan.

Ez nuen ezer ikusten herrialde hartan egondia luzarazi ziezadakeenik, eta etxera Ingalaterrara itzultzeaz pentsatzen hasi nintzen.

7. KAPITULUA

Autorea Lagadotik irten eta Maldonadara iristen. Han itsasontzirik ez prest. Bidaia labur bat Glubbudub-drib-era. Gobernariak egiten dion harrera.

Badut arrazoirik pentsatzeko, erresuma hura dagoeneko kontinentea, Amerikan Kaliforniaren mendebaldean eta Ozeano Barearen iparraldean dagoen lurralde ezezagun hartaraino iristen dela mendebalderantz, aipaturiko ozeanoa ez dagoelarik Lagadotik ehun eta berrogeita hamar milia-ra baino urrutirago; Lagadon itsasportu on bat dago eta merkataritza oparoa Luggnagg irla handiarekin, ipar-mendebaldera dagoelarik 29 gradura ipar-latitudean, eta 140ra luzeran. Luggnagg irla hau Japoniaren hego-ekialdera dago, ehunen bat legoara. Aliantza estua dago Japoniako Enperadorearen eta Luggnaggeko Erregearen artean, egoera honek sarri ematen duelarik aukera irla batetik bestera ontziz joateko.

Horregatik erabaki nuen Europara itzultzeko neure bidea handik egitea. Bi mando alokatu nituen neure ekipaia urria garraiatzeko, eta gidari bat, bidea erakuts ziezadan. Agur esan nion neure babesle zintzoari, hainbeste mesede egin eta handik irteterakoan ere esku-erakutsi bikaina egin zidanari.

Bidaian ez nuen izan kontatzea merezi duen inolako gorabehera edo abenturarik. Maldonadako portura (horrela deitzen baita) iritsi nintzeanean, kaian ez zegoen ontzirik Luggnaggera joateko prest, ezta pixka batean egongo zen itxurarik ere. Ia Portsmouth bezain handia da hiria. Laster egin nituen lagun batzuk, eta oso abegikor hartua izan nintzen. Goi-mailako zaldun batek esan zidan, Luggnaggerako ontziak hilabete bat baino lehen prest egongo ez zirenez, ez zitzaidala agian denbora-pasa txarra gertatuko Glubbdubdrib irlatxora bidaiatzea, hego-mendebalderantz bosten bat legoara zegoelarik. Beta eta lagun bat eskaini zitzaizkidan laguntzera, baita bidaiarako ontzixka egoki bat eskuratzeko prest agertu ere.

Glubbubdrib, hitzari eman niezaioken itzulpen zehatzenaren arabera, *Belagile* edo *Aztien* irla da. Wight irlaren heren bat bezain handia da gutxi gorabehera, eta izugarri joria; guztiak aztiak diren leinu bateko buruzagiak gobernatzen du. Leinu hartan beren artean bakarrik ezkontzen dira, eta zaharrena printze edo gobernari izaten da. Honek jauregi bikain bat du eta mila eta berrehun hektarea inguruko parke bat, harlanduzko hesiz inguratua zazpi metroko altueran. Parke hartan beste esparru txikiago batzuk daude azienda, labore eta lorezaintzarako.

Gobernariak eta beraren etxeok ezohiko morroi eta neskameen zerbitzua eta laguntza dute. Nekromantzian duen trebetasunagatik, hildakoen artetik nahi duenari dei egiteko eta, hogeita lau orduz, baina ez luzaroago, bere zerbitzura edukitzeko ahalmena du; hiru hilabete baino lehen ezin die pertsona berberei berriz dei egin, oso-oso aparteko kasuetan izan ezik.

Irlara iritsi ginenean, hamaikak aldera goizean, nirekin zetorren zaldunetarikoa bat Gobernariarengana joan eta sartzeko baimena eskatu

zion kanpotar batentzat, Jaun Goren harekin egoteko ohorea izan zezan etorria zelarik. Berehalaxe onartu ziguten hau, eta jauregiko atetik sartu ginen hirurok zaintzaileen bi ilara artean, hauek, armaturik eta oso janzkera bitxiaz, beren aurpegieran bazutelarik zerbait ileak tentearazi zizkidana, adierazi ezin dudan ikaraz. Aurrekoak bezalaxe bi aldeetan lerrokatuta zeuden mota bereko zerbitzarien artetik, zenbait gela zeharkatu genuen, tronu-aretora iritsi arte, non, hiru aldiz beheraino makurtu eta zenbait galdera orokor egin ondoren, hiru aulkitxotan esertzeko baimena eman baitzitzaigun, Jaun Goren haren tronuko barren-barreneko harmailaren ondoan. Hark ulertzen zuen Balnibarbiko hizkuntza, nahiz eta ezberdina izan irla hartakoaren aldean. Neure bidaien berri emateko erregutu zidan, eta zeremoniarik gabe hartuko ninduela adierazteko, hatz bati eraginez bere laguntzaile guztiak bidali zituen, nire harridura handiz guztiak desagertu zirelarik berehala, bat-batean esnatzen garenean ametsetako ikuskariak bezalaxe. Ezin izan nintzen onera etorri pixka batean, ez zidatelela minik egingo ziurtatu zidan arte Gobernariak;

eta nire bi lagunak ez zeudela kezkatuta ikusiz, sarritan izan baitziren era berean hartuak, neu ere adoretuago sentitzen hasi nintzen, eta abentura ezberdinen kontaketa laburra egin nion Jaun Goren hari, ez batere zalantzarik gabe eta sarri begiratzuz atzera, espektro etxetiar haiek ikusi nituen aldera. Gobernariarekin jateko ohorea izan nuen, beste mamu-talde batek atera zigularik janaria, eta behar genuen guztia ekarri mahaira. Ez nengoela goizean bezain izututa ohartzen nintzen. Eguzkia sartu arte egon nintzen, baina jauregian ostatu hartzeko gonbidapena ez onartzeagatik desenkusatzeko erregutu nion Jaun Goren hari apaltasunez. Neure bi lagunekin etxe pribatu batean geratu nintzen inguruko hirian, irlatxo hartako hiriburuan; eta biharan goizean Gobernaria agurtzera itzuli ginen, horrela agintzeari ederretsi baitzion berak.

Era honetan hamar egunez jarraitu genuen irlan, egunik gehiena Gobernariarekin, eta gauez geure ostatuan. Hainbesteraingo jarri nintzen arimak ikustera, hirugarren edo laugarren aldiz ikusi eta gero, ez zidaten batere zirrarak eragiten; edo inolako beldurrik baldin banuen, jakin-

minak menperatu zuen. Izan ere, izendatu nahi nuen edozein pertsonari deitzeko agindu zidan Gobernari Jaun Gorenak, munduaren hasieratik gaur egunera arte hildako guztien artetik nahi besteri, egin gura nien edozein galderari erantzuteko aginduz; baina baldintza batekin, nire galderak beraiek bizi izan zireneko denboraldietara mugatu behar nituela. Eta gauza batez fida nintekeela, alegia, benetan egia esango zidate-la, zeren eta, gezurra esatea onurarik ez duen abilezia baita beste munduan.

Nire esker on apala agertu nion Jaun Goren hari hain mesede handiarengatik. Gela batean geunden, handik eder ikusten zelarik parkea behean. Eta ikuskizun ospetsu eta arranditsuz entretenitzea izanik nire lehen nahia, Alexandro Handia ikustea eskatu nuen, bere armadaren buru Arbelako borrokaldia amaitu ostean; eta Gobernariak behatzari eraginez, berehala agertu zen gu geundeneko leihopean zelai handi batean. Gelara dei egin zioten Alexandrori; oso nekez ulertu nuen haren greziera, eta oso mugatua baizik ez zen nirea. Ez zela pozoitua izan

baieztatu zidan bere ohoreagatik, baizik eta gehiegi edateagatik sukarrez hil zela.

Ondoren, Anibal ikusi nuen Alpeak gainditzeko, eta esan zidan ez zuela ozpin-tantarik ere bere kanpamenduan.

Caesar eta Pompeio beren gudarosteen buru ikusi nituen, borrokarako prest. Lehenengoa bere azken arrakastaldi handian ikusi nuen. Aretu handi batean Erromako Senatua nire aurrean agertzea eskatu nuen, eta haren aurrez aurre, ordezkarien batzar modernoa beste batean. Lehenengoak heroi eta erdi-jainkoen batzarra ematen zuen; besteak kinkilari, ebasle, bidelapur eta borrokalari pilo batena.

Nire eskariz Caesar eta Brutus guregan hurbil zitezkeen keinu egin zuen Gobernariak. Begirune sakona sentitu nuen Brutus ikustean, eta haren begitarteko marra bakoitzean erraz sumatu ahal izan nuen bertuterik beteena, ausartziarik eta gogo-sendotasunik handiena, bere herriarekiko maitasunik egiazkoena eta gizateriagarako onberatasun orokorra. Atsegin handiz ohartu nintzen bi pertsona hauek ondo hartzen zutelarik elkar, eta garbi aitortu zidan Caesarek bere bizi-

tzako ekintzarik handienak ez zirela inola ere iristen berari bizia kentzeak zuen aintzara. Elkarriketa luzea izan nuen Brutusekin; eta bere aurreko Junius, Sokrates, Epaminondas, Caton Gaztea, Sir Thomas More eta bera beti elkarrekin egoten zirela esan zidan: sextunbiratu hari munduko aro guztiek ere ezingo diotelarik zazpigarren bat erantsi.

Aspergarria izango litzateke —antzinateko garai bakoitzean mundua neure aurrean jarrita ikusteko nuen desira asegitza betetzearren deitua izan zen pertsonaia ospetsuen kopuru handiaren berri irakurleari ematea. Batez ere, tirano eta usurpatzaileen suntsitzaileak eta nazio zantatu eta irainduei askatasuna itzuli zietenak ikusiz elikatu nituen begiak. Baina ezinezkoa zait neure barruan hark sortarazi zidan atsegina adieraztea, irakurlearentzat entretenimendu atsegingarri izateko moduan.

8. KAPITULUA

Glubbudbrib-i buruzko informazio gehiago. Antzinako historia eta moderna zuzenduta.

Beren jakinduria eta kulturagatik ospetsuenak izan ziren antzinako haiek ikusteko gogoz, egun bat hartu nuen horretarako. Homero eta Aristoteles beren irazkintzaile guztien buru agertzea proposatu nuen; baina haiek hain ugari zirenez, ehunka batzuek patioan eta jauregiko kanpo-geletan itxaron behar izan zuten. Lehen begiratuan ezagutu eta bereizi ahal izan nituen bi heroi haiek, ez bakarrik jendetza artetik, baita elkarren artean ere. Homero zen bietako garaiena eta erakargarriena, oso tente ibiltzen zen bere adinerako, eta inoiz ikusi ditudan bizi eta zorrotzenak zituen begiak. Aristoteles oso konkortua zegoen eta makila bat zerabilen. Aurpegi iharrekoa, ile leun eta mehea zuen, eta ahots sakona. Laster ohartu nintzen biak guztiz ezezagunak zirela inguruko besteentzako, ez zituztela-

rik aurrez inoiz ikusi edo aipatzen entzun. Eta izengabe geratuko den mamu batek xuxurlatu zidanez, irazkintzaile haiek beren buruzagien-gandik urrutien zeuden lekuetan egoten omen ziren beste munduan, lotsa eta erruduntasuna sentitzen baitzituzten zeharo desitxuratua eman zitelako autore haien esanahia ondorengoei. Didimus eta Eustazius aurkeztu nizkion Homero-ri, eta agian merezi zuten baino hobeto har zitzan konbentzitu nuen, zeren eta, berehala konturatu baitzen buru-argitasuna falta zitzaiela poeta baten izpirituan sartzeko. Baina Aristotelesek eroapen guztia galdu zuen Scotus eta Ramus aurkeztu nizkionean haiei buruz esan nionaz, eta leinuko besteak ere beraiek bezain astakirten handiak al ziren galdetu zien.

Gero Descartes eta Gassendiri dei egiteko erregutu nion Gobernariari, eta beren sistemak Aristotelesi azaltzeko konbentzitu nituen. Filosofo bikain honek garbi aitortu zituen bere hutsegiteak natur filosofiaren arloan, gauza askotan aieruz jokatu baitzuen, gizaki guztiek egin behar izaten duten bezala; eta ohartu zen Gassendi, Epikuroren doktrina ahal bezain digerigarri egin

zuen, eta Descartesen *zurrunbiloa* era berean izan zirela gezurtatuak. Zori berbera iragarri zion *grabitateari*, egungo jakintsuak beronen aldeko sutsuak izan arren. Naturari buruzko sistema berriak moda berriak baizik ez zirela esan zuen, garai bakoitzean aldatuko zirenak; eta matematika-printzipiotan oinarrituz frogatu nahi zituztenak ere denboraldi laburrez baizik ez zirela loratuko eta zaharkituak geratuko zirela hura amaitzean.

Bost egun eman nituen antzinako beste jakitun askorekin elkarrizketan. Erromako enperadore gehienak ikusi nituen. Jatordu bat prestatzeko, Heliogabaloren sukaldariei dei egin ziezaien konbentzitu nuen Gobernaria, baina ezin izan ziguten beren trebetasuna gehiegi erakutsi, material faltaz. Agesilaoren ilota batek Espartako salda prestatu zigun, baina ni ez nintzen gauza izan bigarren koilarakada irensteko.

Irlara eraman ninduten bi zaldunak beren arazo pribatuengatik beharturik zeuden hiru egunen buruan itzultzera, berrikiago hildakoren batzuk ikusten eman nituenak, geure herrialdean eta Europako beste batzuetan azken

berrehun edo hirurehun urteetako pertsonalitaterik handienak izandakoak, alegia; eta antzina-ko familia ospetsuen miresle handia izanik beti, dozena bat edo bi errege zortzi edo bederatzirelaunaldiz izandako arbasoekin deitzeko erregutu nion Gobernariari. Baina nire etsipena mingarria eta ustekabekoa izan zen. Zeren eta, errege-diademekin segizio luze baten ordean, familia batean bi arrabitari, hiru gortelari dotore eta italiar prelatu bat ikusi baintuen. Beste batean, bizargin bat, abate bat eta bi kardinal. Begirune handiegia diet koroadun buruei gehiago luzatzeko hain arazo ederrean. Baina konde, markes, duke eta antzerako beste batzuekiko ez nuen horrelako kezkarik. Eta aitortzen dut atsegin dezentez aritu nintzela zenbait familiaren ezauzgarri bereziak jatorrietaraino aztertzen. Argi eta garbi aurkitu ahal izan nuen nondik datorkion familia bati kokots luzea, zergatik bigarren familia batek zital ugari izan zuen bi belaunalditan, eta inozo asko beste bitan; zergatik hirugarrenekoak izan ziren burugabeak, eta laugarrenekoak iruzurgileak. Nondik datorren, Polidoro Virgiliok halako etxe ospetsu batekoei buruz esaten

duena: *Nec vir fortis, nec faemina casta*. Nola iritsi ziren ankerkeria, faltsukeria eta doilorkeria zenbait familiaren ezaugarri izatera, beraien armarriak beste. Nork ekarri zuen lehenik sifilia aitonen seme-alaben etxe batera, gero zuzenezuzenean gangaila-tumoreak izan dituztelarik ondorengoek. Eta ezin ni guzti honetaz harritu, ikusi nuenean zenbat gorte-mutil, lekaio, gurtzain, jokozale, arrabitari, antzezleri, kapitain eta ebasle zegoen tartejarrita oinordeen segidan.

Historia modernoa izan zen batez ere atsekabetu ninduen. Zeren eta, zorrotz aztertu ondoren azken ehun urteetan printzeen gorteetan egondako izen handiko pertsona guztiak, prostituriko idazleek mundua nola nahastu duten konturatu nintzen, gerratako balentriarik handienak doilorrei leporatuz, aholkurik zuhurrenak zentzugabeei, zintzotasuna lausengariei, Erromako bertutea beren herriari traizio egindakoei, pietatea atoei, kastitatea sodomitei, egitasuna salatariei. Nola pertsona errugabe eta bikain asko izan den heriotzara edo deserriratzera kondenatua, ministro handiek eragindako epaileen ustelkerian eta alderdien maltzurkerian oinarri-

tuta. Nola izan den jende zital asko konfiantza, aginte, duintasun eta probetxuko posturik garaienetara altxatua; gorte, kontseilu eta senatuetako mozio eta gorabeheretan zein parte handia ezetsi ahal izango luketen lupeme, emagaldu, putazain, bizkarroi eta bufoiek. Bai iritzi kaskarra izan nuela giza jakinduria eta zuzentasunaz zehatz jakin erazi zizkidatenean munduko enpresa eta iraultza handien jatorri eta zergatiak, eta zein ustekabeko mesprezagarriri zor zioten arrakasta.

Han ohartu nintzen *anekdotak* edo ezkutuko historia idazten omen dituztenen txarkeria eta ezjakintasunaz: hainbeste errege bidaltzen dituzte hilobira kopakada bat pozoiez; erregearen eta lehen ministroaren arteko elkarrizketa errepikatuko dute, nahiz eta lekukorik ez egon han; enbaxadore eta gobernu-ministroen gogoe-ta eta bulegoetan sartuko dira; eta beti oker egoteko zoritxarra izango dute. Han aurkitu nituen mundua txundituta utzi duten gertaera handi askoren benetako zergatiak, nola emagaldu batek goberna litzakeen taldetxoak, taldetxoek kontseilua, eta kontseiluak senatua. Neure

aurrean aitortu zuen jeneral batek koldarkeria eta jokaera gaiztoaren poderioz bakarrik lortu zuela berak garaipen bat; eta almirante batek, berriz, ezagutza egokiaren faltaz menperatu zuela arerioa, traizioz ontziteria emateko asmoa zuelarik. Hiru erregek adierazi zidaten beren erreinutza osoan behin ere ez zietela kargurik eman merituzko pertsoneri, hutsegitez edo konfiantzazko ministroren baten traizioz izan ezik, eta egin ere ez luketela egingo berriro biziko balira; eta ustelkeriarik gabe errege-tronuak ezingo lukeela iraun frogatu zidaten arrazoi sendoz, zeren eta, bertuteak gizakiari ematen dion jarrera positibo, sendo eta tinkoa etengabeko oztopo baita arazo publikoetarako.

Ardura berezia nuen jakiteko, zein bidez lortu ote zituzten askok ohore-titulu handiak eta jabetza izugarriak; eta oso garai berrietara mugatu nuen galdera. Edonola ere, egungo garaiotan sartu gabe, ez bainuen irainik nahi ezta atzerri-tarrentzat ere (zeren eta espero baitut ez dela egongo irakurleari esan beharrik honetaz adieraziko dudana ez dagokiola inola ere neure sorterriari), inplikaturiko jende-multzo handiari dei

egin zitzaion eta axaleko azterketaren ondoren, halako txarkeri egoera azaldu zutenez, ezin dut gogoratu ere egin nolabaiteko kezkarik gabe. Zinauste, zapalkuntza, eroskeria, maula, luparkeria eta antzerako *gaitzak* ziren barkagarrienak aipatu zituzten trebetasunen artean, eta hauekin, bidezkoa den bezala, jasanbera izan nintzen. Baina batzuek aitortu zutenean beren handitasun eta aberastasunak sodomia edo intzestuari zor zizkiotela; beste batzuek beren emazte eta alaben prostituzioari; zenbaitek bere herri edo erregeari traizio egiteari; batzuek pozoari, eta gehiagok errugabea hondatzearren justizia okertzeari, barkatuko didatela espero dut aurkikuntza hauek eraman baninduten goi-mailako pertsonen berez diedan begirune sakona pixka bat murriztera, nahiz eta beren duintasun gorenagatik jende horrek errespeturik handienaz beharko lukeen tratatua izan gu beheragoko guztion aldetik.

Sarri irakurria nuen zerbait printze eta estatuei egindako zerbitzu handiei buruz, eta zerbitzu horiek egindako pertsonak ikusi nahi nituen. Galdetu ondoren, haien izenak ez zirela inon

erregistratuta aurkitzen esan zidaten, lotsabako eta traidore maltzurrenak bezala historiak gorde dituen banaka batzuenak izan ezik. Gainerakoei buruz, sekula ez nuen ezer entzun. Begiratu goibela zuten guztiak eta oso jantzi kaskarrak, lazerian eta atsekabeen hil zirela esan zidatelarik haietako gehienek, eta lepoa moztuta edo urkamendian gainerakoek.

Besteen artean bazegoen pertsona bat kasu berezi samarra zuena. Hamazortzi urte inguruko gazte bat zuen ondoan. Urte askoz itsasontzi baten buru izan zela esan zidan, eta Accioko itsas borrokan, arerioaren borroka-lerro nagusia hautsiz sartzeko zortea izan zuela, haien ontzi garrantzitsuenetako hiru hondoratu eta laugarren bat bereganatuz, hura izan zelarik Antonioren ihesaren eta ondorengo garaipenaren arrazoi bakarra; eta ondoan zuen gaztea, bere seme bakarra, borroka hartan hil zela. Meriturik izango zuen itzaropenaz, gerra amaitu zenean Erromara joan zela gaineratu zuen, eta ontzi handiago baten ardura eskatu ziola Augustoren Gorteari, hila baitzen ontzi haren kapitaina; baina batere jaramonik egin gabe haren gogoari, itsasoa inoiz

ikus gabeiko mutil bati eman ziotela, Enperadorearen maitaleetako baten zerbitzura zegoen *liberta* baten semeari, alegia. Bere ontzira itzuli zenean, bere eginkizuna abandonatzea leporatu ziotela, eta ontzia Publikola Almirantordearen laguntzaile kutun bati eman; ondorioz, Erromatik oso urruti zegoen landetxe batera erretiratu zela, eta han amaitu bere bizitza. Hain jakingura handia nuenez istorio honen egia ezagutzeko, Agripari dei egiteko erregutu nuen, almirante izan baitzen borrokaldi hartan. Agertu eta esandako guztia berretsi zuen, baina are hobeto hitz eginez kapitainaren alde, apaltasunez bere merituaren zati handi bat murriztu edo estali egin baitzuen berak.

Txunditurik nengoen ohartzeaz, hain gutxi zela sarturiko luxuaren eraginez, noraino eta zein bizkor iritsi zen ustelkeria Inperio hartan; ondorioz, gutxiago harritu nintzen antzerako kasu askorekin beste herrialde batzuetan, non mota guztietako bizioak nagusi izan diren denbora luzeagoan, eta non gorespen eta harrapakin guztiak buruzagi nagusiak bereganatu izan

dituen, nahiz eta agian eskubiderik gutxien izan baterako nahiz besterako.

Deituriko pertsona bakoitzak munduan ibili zen garaiko itxura berbera zuenez, gogoeta tris-teak eragiten zizkidan azken ehun urteotan giza espeziea gure artean nola endekatu den ikus-teak. Sifiliak bere ondorio eta mota ezberdin guztiez nola aldarazi dituen ingeles aurpegiera-ren ezaugarri guztiak, gorputzaren luzera murriztu, nerbioak ahuldu, tendoi eta muskuluak laxatu, larruazala horixkatu eta haragia maskal-du eta *zaharkitu*.

Hainbeste sakondu nuenez honetan, jite zaharreko ingeles nekazari haietako batzuk deitzea erregutu nuen, garai batean hain ospetsuak izan zirenak beren ohitura, janari eta jantzien xumetasunagatik, tratuen zuzentasunagatik, benetako askatasun-izpirituagatik eta beren adore eta herriarenganako maitasunagatik. Eta ezin izan nintzen zeharo hunkitu gabe geratu biziak eta hildakoak alderatu ondoren, konturatu bainintzen berezko bertute eder guztiak txanpon baten truke lohitu dituztela haien bilobek, boto-ak saldu eta hauteskundeak manipulatzean Gor-

tean ikas daitezkeen bizio eta ustelkeria guztiak berenganatu dituztelarik.

9. KAPITULUA

*Autorearen itzulera Maldonadara.
Luggnagg erresumara insten ontziz.
Auto rea atxilotua. Gortera bidalia.
Nola hartua den han. Erregearen
onberatasun handia bere menpekoe-
kiko.*

Iritsi zelarik gure irteera-eguna, agur esan nion Glubbudubdribeko Gobernari Goren hari, eta neure bi lagunekin Maldonadara itzuli nintzen, han hamabost egunez itxaron ondoren, ontzi bat prest izan zelarik Luggnaggera irteteko. Bi zaldun haiek eta beste batzuek, hain eskuzabal eta atseginak zirenez, hornizioak eman zizkidaten, eta ontzira etorri zitzaizkidan agurtzera. Hilabete eman nuen bidaian. Oso ekaitz bortitza izan genuen, eta mendebalderantz joan beharrean aurkitu ginen alisio-haizeez baliatzeko, hirurogeiren bat legoatan jotzen dutelarik. 1709ko apirilaren 21ean Clumegnigeko ibaian sartu ginen, itsasportu den hiri hau Luggnaggen hego-ekial-

deko muturrean dagoelarik. Aingura bota hiritik legoa batera eta seinaleak egin genituen kai-gidari bat eskatuz. Ordu erdi baino lehen bi iritsi ziren ontzira, haiek gidatu gintuztelarik zeharkatzeko oso arriskutsuak diren hondar-meta eta harkaitz artetik aurrera dartsena handi-handi bateraino, han ontziteria bat egon daitekeelarik arriskurik gabe ainguratuta hiriko harresitik kable bateko distantziara.

Gure marineletako batzuek, ez dakit traizioz edo oharkabean, atzerritarra eta bidaiari handia nintzela esan zieten kai-gidariei, hauek berri hori gero aduanari bati eman zioten, eta honek oso zorrotz miatu ninduen lehorreratu nintzenean. Aduanariak Balnibarbiko hizkuntzan hitz egin zidan, dagoen merkataritza ugariaren eraginez ulertzen baitute hiri hartan, batez ere itsasgizonak eta aduanatako enplegatuek. Zenbait xehe-tasunen berri eman nion labur, eta neure istorioa ahal bezain sinesgarri eta egoki eratu aurkeztu nion; baina zein herrialdetakoa nintzen ezkutatu egin behar nuela pentsatu nuen, eta holandarra nintzela esan nion; izan ere, Japoniara joateko asmoa bainuen, eta banekien holandarrak zirela

erresuma hartara sartzeko baimena zuten europar bakarrak. Honela bada, esan nion aduanariari, ontzia hondoratu Balnibarbiko kostaldean eta harkaitz baten gainean geratu nintzelarik, Laputa edo Irla Hegalarira eraman nindutela (haren berri sarritan izana zuen) eta orain Japoniara iritsi nahian nenbilela, han aurkituko nuelakoan neure sorterrira itzultzeko aukera egokirik. Gortetik aginduak jaso artean atxilotuta geratu behar nuela esan zidan aduanariak, baina berehalaxe idatziko zuela eta hamabosten bat egunen buruan erantzuna hartzea espero zuela. Egontoki eroso batera eraman ninduten, atean zaintzailea ezarriz; halere, banuen lorategi handi batean ibiltzeko askatasuna eta nahikoa gizatasunez erabiltzen ninduten, nire mantenua denboraldi hartan Erregearen kontura izan zelarik. Hainbat pertsonak bisitatu ninduen, jakinguragatik batez ere, oso urrutiko herrialdeetatik —beraiek inoiz entzun gabekoetatik etorria nintzela zabaldu baitzen.

Ontzi berean etorritako gazte bat kontratatu nuen interpretari izateko; Luggnaggen jaioa zen, baina zenbait urtez Maldonadan bizitakoa, eta

benetan maisu bi hizkuntzetan. Haren laguntzaz, gai izaten nintzen bisitatzera etorritakoekin elkarriketan aritzeko, nahiz eta haien galdera eta nire erantzunetara bakarrik mugatu.

Gutxi gorabehera, espero genuen garaian iritsi zen Gorteko erabakia. Agindu bat zegoen neu eta nire segizio guztia Traldragdubh edo Tril-drogdribera —bietara ahoskatzen baitzen, gogoratzen dudanez— eraman gintzaten, hamarreko zaldi-sail batean. Nire segizio guztia interpretari nuen gazte gizagaixo hura zen, nire zerbitzura gera zedin konbentzitu nuelarik. Nik apaltasunez eskatuta, mando bana eman ziguten gainean joateko. Gu baino egun erdi lehenago mandatari bat bidali zuten, nire etorreraren berri Erregeari emateko, eta mesedez eguna eta ordua jar zitza-la Maiestateari erregutzeko, hala jakin genezan noiz izango zitzaion atsegin nik *haren oinaultki aurrean hautsa miazkatzeko* ohorea izatea. Hau da Gorteko estiloa, eta formulismo hutsa baino zerbait gehiago zela ohartu nintzen. Zeren eta, iritsi eta bi egunera haren aurrera aurkezterakoa, sabel gainean arrastaka joateko agindu zidaten, eta zorua miazkatzeko aurreratatu ahala;

baina atzerritarra nintzela kontutan izanda, garbitzeko ardura izan zuten hautsa nazkagarri gerta ez zekidan. Halere, hau mesede berezia izan zen, goi-mailako jendeari bakarrik egiten zaiona, audientzia nahi dutenean. Are gehiago, batzuetan berariaz botatzen da hautsa zoruan, etorriko den pertsonak Gortean etsai gogorak izatea gertatzen bada. Eta nik neuk ikusia dut jaun handiki bat, ahoa hautsez bete-betea zuelarik, arrastaka tronura behar beste hurbiltzean hitzik esan ezinda. Eta ez dago ihesbiderik, zeren eta, heriotza-zigorra baitago audientziara joan eta Maiestatearen aurrean txu egin edo ahoa garbitzen dutenentzat. Bada beste ohitura bat ere, zeharo ontzat ematen ez dudana. Erregeari bururatzen zaionean bere nobleetakoren bati heriotza onberatasunez ematea, zoruan hauts nabar bat barreiatzeko agintzen du eta, osagai hilgarriak dituenez, hura miazkatzen duena hogeita lau orduren barruan hiltzen da derrigorrez. Baina Printze haren bihozberatasun handiari justizia egiteko, baita menpekoen bizitzekiko duen ardurari ere (eta desiragarria litza-teke honetan Europako monarkek imitatuko

balute), aipatu beharra dago haren ohoretan, agindu zorrotzak daudela zorian kutsaturik dauden aldeak ongi garbi ditzaten horrelako exekuzio bakoitzaren ostean, eta honetan axolagabe jokutzen badute zerbitzariak, erregearen haserrearekin pizteko arriskuan jartzen dira. Nik neuk entzun nuen gorte-mutiletariko bat zigortzeko aginduak ematen, beronen eginkizuna baitzen exekuzio baten ostean zorua garbi zezaten abisua ematea, baina maltzurkeriaz ez zuen hori bete eta, ondorioz, itxaropen handiak zituen jaun gazte bat audientziara etorri eta pozoitua gertatu zen zoritxarrez, nahiz eta orduan behintzat Erregeak ez zuen asmorik haren biziaren kontra. Baina Printze on hura hain bihozbera zenez, mutilari barkatu egin zion zigorra, honek agindu berezirik gabe berriz ez zuela egingo hitz eman ondoren.

Itzul gaitezen harira; tronutik lau metrora hurbildu nintzenean arrastaka, poliki-poliki belauniko jarri nintzen, eta gero bekokiak zorua zazpi aldiz joz, honako hitz hauek esan nituen, aurreko gauean irakatsi zizkidaten bezala: *Ick-pling gloffthrobb squutserumm blhiop mlashnalt*

zwin tnodbalkguffh slhiophad gurdlubh asht. Hau da herrialde hartako legeek ezarritako agurreria Erregearen aurrera onarturiko pertsona guztientzat. Honela itzul daiteke: *Maiestate Zerutar Hori bizi bedi eguzkia baino hamaika ilargialdi t'erdiluzaroago.* Honi Erregeak zerbait erantzun zion, eta ezin izan nuen arren ulertu, irakatsia zidate-naren arabera erantzun nion: *Fluft drin yalerick dwuldum prastrad mirplush,* zera esan nahi duelarik: *Lagunaren ahoan dago ene mihia,* eta esaldi honek esan nahi zuen nire interpretaria ekartzeko baimena erregutzen niola; ondorioz, jadanik aipaturiko gaztea sar erazi zuten, beronen bitartez erantzun nielarik Maiestateak ordu bete baino luzaroago egin ahal izan zuen beste galderari. Balnibarbieraz hitz egiten nuen nik, eta interpretariak Luggnaggeko hizkuntzara itzultzen zuen nire hitzen esanahia.

Erregea oso pozik zegoen nire konpainiaz, eta niretzat eta interpretariarentzat Gortean gela bat prestatzeko agindu zion bere *Bliffmark-klub* edo Gelazain Nagusiari, egunero honenbesteko bat emanaz nire mantenurako, baita poltsa handi bat bete urre ere gastu arruntetarako.

Hiru hilabete eman nituen herrialde hartan, batez ere, Maiestatearen nahia guztiz betetzearen, izan ere, oso atsegin baitzuen niri mese-deak egitea, eta oso eskaintza ohoragarriak ere egin zizkidan. Baina zuhurtziaren eta justiziaren araberakoagoa iruditu zitzaidan neure gainerako egunak emaztearekin eta etxekeekin pasatzea.

10. KAPITULUA

Luggnaggiarren gorespena. Struldbrugg-en deskribapen zehatza, gai honi buruz autorearen eta goren mailako pertsona batzuen artean izandako elkarrizketa askorekin.

Luggnaggiarrak adeitsu eta eskuzabalak dira, eta Ekialdeko herrialde guztien bereizgarri den harrotasunetik zerbait baduten arren, halere gizalegetsu jokatzeko dute atzerriarekin, batez ere, Gorteak onetsitakoekin. Lagun asko egin nuen mailarik oneneko jende artean eta, betiere interpretariaren laguntzaz, izaten genituen elkarrizketak ez ziren desatseginak izaten.

Egun batez oso lagunarte onean geundela, pertsona berezi batek galdetu zidan ea ikusi al nuen beraien struldbrugg edo Hilezkorrik. Ezetz erantzun nion eta izaki hilkor bati deitura hura ematean zer esan nahi zuen azaltzeko erregutu nion. Esan zidan batzuetan, nahiz eta oso gutxitan, ume bat bekokian, ezkerreko bekainaren

gain-gainean, orbain gorri biribil batekin jaiotzea gertatzen zela familiaren batean, sekula hilko ez zelakoaren adierazgarri hutsezina zelarik. Orbaina, azaldu zuenaren arabera, zilarrezko hiru penikekoaren tamainakoa zen gutxi gorabehera, baina denboran zehar handiagotu egiten zen, eta kolorez aldatzen; zeren eta, hamabi urterekin berde bihurtzen baitzen, eta horrela jarraitzen hogeita bostera arte, orduan urdin-urdin jartzen zelarik; berrogeita bostekin, ikatza bezain beltza eta shilling ingeles bat bezain handia egiten zen, baina gero ez omen zuen aldaketa gehiagorik izaten. Jaiotza hauek hain bakanak zirenez, bere ustez, erresuma osoan bi sexueta-ko mila eta ehun struldbrugg baino gehiago ez zirela izango esan zidan, horietako berrogeita hamar inguru hiriburuan zeudela kalkulatzeko zelarik, eta gainerakoen artean bazela hiru urte lehenago jaiotako neskatila bat. Jaiotza hauek ez zirela gertatzen familia jakin batean, baizik eta kasualitate hutsaren ondorio zirela, eta struldbruggen umeak ere hilkorrak izan ohi zirela gainerako jendea bezalaxe.

Garbi aitortzen dut izugarrizko atsegina jabetu zela nitaz hau dena entzutean; eta kontatu zidanak ulertzen zuenez baldinbarbiera —nik oso ongi hitz egiten nuena— ezin izan nion mihiari eutsi eta agian pixka batxo bat xebreak ziren adierazpenak atera zitzaizkidan. Trantzealdian bezala oihu egin nuen: Zorionekoa nazioa, non jaiotzerakoan haur bakoitzak hilezkor izateko aukera duen! Zorionekoa, antzinako bertutearen hainbeste eredu bizi eta iraganeko jakinduria irakasteko prest dauden maisuak dituen herria! Baina zorion-zorionekoak, konparaziorik gabe, paregabeko struldbrug horiek dira, giza naturaren zoritxar unibertsal hori gabe jaio direlarik, beren izpirituak libre eta aske baitituzte, heriotzaren etengabeko beldurrak sortzen duen zama eta gogo ezik gabe. Neure harridura azaldu nuen ez nuelako pertsona ospetsu haietakorik Gortean aurkitu, orbain beltza bekokian garbi ikusteko modukoa izanik, ez baitzitzaidan oharkabean erraz pasatuko; eta ezinezkoa zirudiela Maiestatea, zentzu handiko Printzea izanik, hain kontseilari zuhur eta trebeen kopuru handi samarraz inguratu gabe egotea. Nahiz eta gerta

zitekeen jakintsu agurgarri haien bertutea zorrotzegia izatea Gorteko jokaera txar eta lizunetarako. Eta sarritan erakusten digu esperientziak gazteak harroputz eta aldakorregiak direla zaharagoen agindu zuhurrez gidatuak izateko. Halere, Erregeak onetsi zuenez ni beraren aurrera joatea, lehen aukera izaten nuenean arazo honi buruzko neure iritzia, interpretariaren laguntzaz, argi eta luze emateko erabakia hartu nuen; eta nire aholkua kontutan hartu ala ez, halere gauza bat egiteko asmo sendoa nuen, alegia, Maiestateak sarri eskainia zidanez herrialde hartan gertatzea, esker on handiz onartuko nuen mesedea, eta struldbrugg izaki goren haiekin elkarrizketan emango nuen neure bizitza, atsegin bazuten ni onartzea.

Nire hitzaldiaren entzule izan zen zaldunak (esan dudan bezala, mintzatzen baitzen balni-barbieraz), ezjakinarenganako gupidak sortu ohi duen bezalako irribarreaz, esan zidan bera pozik zegoela ni beraien artean edukitzeko edozein aukeraz, eta adierazi niona bere lagunei azaltzeko baimena erregutu zidan. Honela egin zuen, eta aldi batez elkarren artean hitz egin zuten

beren hizkuntzan, silabarik ere ez nuelarik ulertu eta haien aurpegieretatik ere ezin izan nuen atera nire hitzek zer eragin izan zuten. Isilaldi labur baten ondoren, pertsona berak esan zidan bere lagunak eta nireak (horrelaxe adierazteari iritzi baitzion egoki) oso-oso pozik zeudela bizitza hilezkorraren zorientasun eta abantaila handiez egin nituen oharpen zuhurrekin, eta struldbrugg jaiotzeko zoria egokitu izan balitzait zer bizitza-mota jarraituko nukeen jakiteko gogo bizia zutela, batez ere.

Hain gai zabal eta atseginaz hitz egitea erraza zela erantzun nuen, batez ere niretzat, sarri izaten nuelako Errege, jeneral edo jaun handi bat izango banintz, zer egingo nukeen pentsatuz denbora pasatzeko joera; eta beste gai honetaz ere, sarritan hausnartua nuela zer egingo nukeen neure buruaz eta nola emango denbora, betirako biziko nintzatekeela jakinez gero ziur.

Mundura struldbrugg izanez jaiotzeko zortea izan banu, bizitzaren eta heriotzaren arteko ezberdintasuna ulertuz neure zorionaz jabetu bezain laster, ahal diren baliabide eta metodo guztien bidez lehenik aberastasunak eskuratzea

erabakiko nukeela esan nien. Aurrezki eta buru-
bidez hori lortzen saiatuz, zentzuzkoa litzateke
pentsatzea berrehun urte ingururako erresuma-
ko gizonik aberatsena izango nintzatekeela.
Bigarren, gazte-gaztetatik arte eta zientziak
ikasteari ekingo nioke, horrela, eta denboraz,
beste guztiek baino gehiago jakitera iritsiko nin-
tzatekeelarik. Azkenik, publikoki gertaturiko
ekintza edo jazoera garrantzitsu guztiak erregis-
tratuko nituzke kontu handiz eta, alderdikeriari-
gabe, printze eta gobernuko ministro handien
segidakoen izaerak deskribatuko nituzke, neure
oharpenak eginez arazo bakoitzaz. Zehatz-
mehatz konstaraziko nituzke ohitura, hizkera,
janzkera, jatordu eta dibertsioei buruzko aldake-
ta ezberdinak. Lorpen guzti hauekin, ezagupen
eta jakintza-altxor bizia izango nintzateke, eta
nazioko orakulu bihurtuko, zalantzarik gabe.

Ez nintzateke inoiz ezkonduko hirurogei urtez
geroztik, baina bai abegikor izango, artean
aurrezki-zale izaten jarraitu arren. Gazte itxaro-
pentsuen buruak hezi eta zuzentzen entretenitu-
ko nintzateke, neure oroitzapen, eskarmentu eta
behaketaren bidez —eta eredu askorekin berre-

tsiz— bizitza pribatu eta publikoan bertutea oso onuragarri dela konbentzitzeko. Baina lagunarte iraunkorrerako, neure anaidi hilezkorreko batzuk nahiko nituzke, hauen artetik hamabiko bat aukeratuko nukeelarik zaharrenetarik neure garaikideetaraino. Hauetarikoren batek ez balu ondasunik, neuk prestatuko nioke egontoki eroso neure etxalde inguruan, eta haietako batzuk beti mahaian izango nituzke, hilkorren arteko baliotsuenetako banaka batzuk bakarrik nahastuz tartean, azken hauek eragozpen gutxiz edo batere gabe galtzen ohituko nintzatekeelarik denboraz, baita ondorengoak era berean tratatzen ere, gizakiak bere lorategiko krabelin eta tulipen urteroko joan-etorriaz denbora pasatzen duen bezalaxe, aurreko urtean ihartu zirenengatik atsekaberik gabe.

Struldbrugg hauek eta nik geure behaketa eta oroitzapenen berri emango genioke elkarri denbora pasatu ahala, ustelkeria mailaz maila mundura nola ari den sartzen ohartaraziko genuke, eta aurre egin pausu bakoitzean, gizateriari abisuak eta argibideak emanaz etengabe; eta honek, geure jokabidearen eragin indartsuaz

batera, ziur aski galaraziko luke giza izaeraren etengabeko endekatzea, hain bidezki garai guztietan deitoratua izan dena.

Gaineratu guzti honi, estatu eta inperioetako iraultza ezberdinak ikusteko atsegina, baita zero-lurretako aldaketak ere, antzinako hiriak hondakinetan eta herrixka ezezagunak erregegoitza bihurtuta. Ibai ospetsuak erreka ubeheratsu eginda; ozeanoak kostalde bat lehor utzi eta beste bat urperatzen, eta oraindik ezezagun diren herrialde askoren aurkikuntza; naziorik gizabidetsuenetan basakeria nagusitzen, eta basatienak zibilizatu bihurtzen. Orduan, *luzera, etengabeko mugimendua, sendagai unibertsala* eta beste asko perfekziorik handienera eramana ikusiko nituzke.

Zer aurkikuntza liluragarriak egingo genituzkeen astronomian, geure iragarpenak berretsiz eta luzaroago ere biziz, kometen joan-etorria, eta eguzki, ilargi eta izarren mugimendu-aldaketak ere behatuz!

Beste gai askotaz ere luzatu nintzen, amaigabeko bizitzaren eta munduko zorientasunaren berezko irrikak erraz sortarazten zizkidalarik

gaiak. Amaitu nuenean, eta aurrekoan bezalaxe itzuli egin zitzairen nire hitzaldiaren funtsa han zeuden gainerakoei, hizketaldi ederra izan zuten beren artean hango hizkuntzan, eta ez batere barrerik gabe nire kontura. Azkenean, nire interpretari izandako zaldun berberak esan zidan zenbait hutsegitetan zuzentzeko erregutzen ziotela besteek, giza izaerari berez dagokion zentzugabekeriaz egin nituelarik huts haiek, eta aitzakia horrengatik erantzukizun txikiagoa nuela haien ustez. Strulbruggen espeziea herri haren bereizgarri zela, ez baitzegoen halako jenderik Balnibarbin edo Japonian, non izana baitzuen bere Maiestatearen enbaxadore izateko ohorea, konturatu zelarik bi erresuma haietako jendeak nekez sinesten zuela hori gerta zitekeenik, eta lehen aldiz gaia aipatu zidanean azaldu nuen harriduragatik nik ere gauza guztiz berri-tzat eta oso sinesgaitzat hartzen nuela iruditu omen zitzaion. Goian aipaturiko bi erresuma horietan, elkarrizketa luzeak izan zituelarik han egon zen bitartean, bizitza luzea gizateriaren nahi eta irrika unibertsala zela ohartu zela. Hanka bat hilobian zuen edonork, besteaz ahal

zuen guztia egiten zuela atzera. Zaharrenak ere oraindik egun bat gehiago bizitzeko itxaropena zuela, eta etsairik handienari bezala begiratzen ziola heriotzari, haren aurrean Naturak beti atzera eragiten ziolarik; Luggnagg irla hartan bakkarririk ez zela hain bortitza bizitzeko gogoia, hain zuzen ere, struldbruggen eredua zutelako aurrean etengabe.

Nik ideiatutako bizi-sistema ez zela arrazoizkoa eta bidezkoa, beti gazte, osasuntsu eta indartsu egotea suposatzen baitzuen, eta ez zegoela gizakirik itxaropen hori izateko bezain txororik, oso neurrigabea izan arren bere nahikundeetan. Kontua ez zela, beraz, ea gizonak aukeratuko lukeen beti gaztaroaren ederrenean bizitzea, oparotasunez eta osasunez inguratua, baizik eta nola emango lukeen amaigabeko bizitza zahartzaroak berekin dakartzan ohiko eragozpen guztien menpean. Zeren eta, hain baldintza gogorretan hilezkor izateko nahia pertsona gutxik aitortuko luketen arren, halere aurrez aipaturiko Balnibarbi eta Japoniako erresumetan, bera konturatua omen zen pertsona guztiek nahi zutela heriotza pixka bat gehiago atzeratzea,

beranduago iritsaraztea, eta gutxitan omen zuen entzuna inor irrikatan zegoenik hiltzeko, saminak edo sufrimenduak eraginda izan ezik. Eta galdetu zidan ea nire bidaietan ezagututako herrialdeetan, eta neurean ere, ez al nuen orokorrean jarrera bera sumatu.

Sarrera honen ondoren, beren arteko struldbruggen berri eman zidan zehatz-mehatz. Hogei-ta hamar urte ingurura arte eskuarki hilkorrek bezala jokatzeko zutela esan zidan, gero poliki-poliki goibeldu eta adoregabe bihurtzen zirelarik, areagotuz laurogei urteraino. Beraiek aitortu ziotelako zekien hau; zeren eta, mende batean ez direnez espezie hartatik bi edo hiru baino gehiago jaiotzen, gutxiegi omen ziren beraien behaketaz iritzi orokorra ateratzeko. Laurogei urtera iristean, bizitzeko mugatzat daukatena herrialde hartan, beste agure batzuen zorakeria eta gaitz guztiez gain, beste asko ere izaten zituztela inoiz hilko ez ziren perspektiba beldurgarriak eraginda. Ez zirela setatiak, erretxinak, xuhurrak, zakarrak, harroak eta berritsuak bakarrik, baita adiskidetasunerako ezgaituak eta berezko afekturako sentigaberaziak, hau ez baitzaie inoiz biloben-

gana baino urrutirago iristen. Bekaizkeria eta ezintasunak jotako nahikundeak direla haien grina nagusiak. Eta antza denez, haien bekaizkeria, batez ere gazteen bizioetara eta zaharren heriotzara dagoela zuzendua esan zidan. Lehenengoaz gogoetan hasten badira, atseginerako batere aukerarik gabe aurkitzen dituzte beren buruak; eta hileta bat ikusten dutenean, atseka bez kexatzen dira beste batzuk joan direlako atsedeen-portura, beraiek ez dutelarik inoiz hara iristeko itxaropenik. Ez dira ezertaz oroitzen gartzaroan eta adin ertainaz ikasi eta behatu zutenaz izan ezik, eta horretaz ere ez bete-betean. Edozein gertaerari buruzko egiaz edo xehetasunez, hobe da tradizio arruntetan oinarritzea haien oroitzapenik sendoenetan baino. Haien arteko alaienak badirudi txotxaldian sartutakoak direla, oroimena zeharo galtzen dutenak; hauek erruki eta laguntza gehiago aurkitzen dute, besteek ugari dituzten berezitasun txar asko falta izaten baitituzte.

Struldbrugg bat bere izaerako beste norbaitekin ezkontzea gertatzen bada, bietako gazteena laurogeira iristen denean ezkontza hautsi egi-

ten da automatikoki, erresumaren mesede gisa. Zeren eta, legeak uste baitu, arrazoizko barkamena dela, berek errurik izan gabe munduan betierekoz jarraitzera kondenatuta daudenek ez izatea gainera beren atsekabea bikoiztua emazte baten zamaz.

Laurogei urte bete bezain laster, legeak hildakotzat jotzen ditu; oinordekoak berehala jabetzen dira haien ondasunez, errenta ziztrin bat uzten zaielarik beren sostengurako, ardura publikoa izanik behartsuen mantenua. Aldi horretatik aurrera ez dira gaitzat hartzen konfiantza edo probetxuzko karguetarako, ezin dute lurrik berenganatu ezta ezer alokatu ere, eta ez dute baimenik auzietan —zibil nahiz kriminaletan— lekuko izateko, ezta mugarri eta mugei buruz erabakitze ere.

Laurogeita hamarrekin hortzak eta ilea galitzen dituzte, adin horretan ez dute dastamenik ere izaten, baizik eta lot dezaketen edozer jaten eta edaten dute, gozamenik eta gogorik gabe. Lehendik zituzten gaitzek halaxe jarraitzen dute ez gehitu ez gutxitu gabe. Hitz egitean, gauzen deitura arruntak ahazten dituzte, baita pertso-

nen izenak ere, nahiz eta beren hurbileneko adiskide eta ahaide izan. Arrazoi beronengatik ezin dute inoiz irakurtzen gozatu, oroimenak ez baitie balio esaldi baten hasieratik amaieraraino joateko ere; eta akats honengatik ezin dute gozatu bestela baliagarri litzaiekeen entretenimendu bakarra.

Herrialde hartako hizkuntza etengabe ari denez aldatzen, garai bateko struldbruggek ezin diete beste batzuetakoei ulertu, eta berrehun urteren ondoren ez dira gai elkarrizketarik izateko ere (hitz orokor gutxi batzuk salbu) inguruko hilkorrekin, eta horrela, beren sorterrian atzerri-tarrak bailiran bizitzeko zoritxarra izaten dute.

Gogoratzen dudan neurrian, hau izan zen struldbruggei buruz kontatu zidana. Gero, adin ezberdinetako bospasei ikusi nituen, gazteenak ez zituen berrehun urte baino gehiago izango, eta lagun batzuek behin baino gehiagotan ekarri zituzten niregana; baina oso bidaiari handia nintzela eta mundua guztia nuela ikusia esan zieten arren, ez zuten jakin-minik txikiena ere agertu galderarik egiteko; *slumskudask* edo oroigarriren bat eman niezaien nahi zuten bakarrik,

eskean egiteko era isila delarik hori, zeharo galaziaz baitute legez komunitateak mantentzen dituelako, baina oso anoa urriaz, egia esateko.

Mota guztietako jendeak mesprezatu eta gorrotatzen ditu; haietako bat jaiotzen denean, zantzu txarreko gauzatzen hartzen da, eta haien jaiotza ardura bereziz jartzen dute erregistroan; beraz, erregistroa kontsultatuz jakin daiteke haien adina, nahiz eta azken mila urteotakoa bakarrik izan den gordea, edo aurreragokorik izan bada, denborak edo gizarte-istiluek desegingo zuten. Baina zenbat urte dituzten kalkulatzeko bide arrunta, zein errege edo pertsonaia ospetsu gogoratzen duten galdetzea da, eta gero historia kontsultatu, zeren eta, derrigorrez, haiek gogoan duten azken printzea ez baitzen hasiko erreinatzen beraiek laurogei urte bete eta gero.

Inoiz ikusi dudana ikuskizunik mingarriena zen, eta emakumezkoak gizonezkoak baino okerrago zeuden. Oso-osoz zahartutakoari dagozkion ohiko itsuskeriez gain, gorpuen ubeltasun moduko zerbait, kontatzekoa ere ez dena, bazuten urte-kopuruaren arabera, eta seikote baten

artean berehala asmatu nuen zein zen zaharrena, nahiz eta ez izan haien artean ehun edo berrehun urteko tartea baino handiagoa.

Irakurleak errai sinetsiko du, han entzun eta ikusi nuenaz asko moteldu zela amaigabeko bizitzaz gozatzeko nuen irrika bizia. Neuk eraikitako ameskeria atseginen lotsa handia sentitu nuen, eta pentsatu nuen tiranoek ez zutela asmatuko, nik, halako bizitzatik ihes egitearren atseginez onartuko ez nuen heriotzarik. Erregeak jakin zuen lagunen eta neure artean gertatutako guttia kasu honetan, eta atsegin handiz jo zidan adarra, haren nahia zelarik nik struldbrugge pare bat bidali ahal izatea neure sorterrira, jendea heriotzarekiko beldurraren aurka prestatzeko; baina dirudienez hau galarazi egiten dute erresumako lege nagusiek, bestela, nik oso pozik hartuko nituzkeen neure gain haiek garraiatzeko lan eta gastuak.

Erresuma hartako legeak, struldbruggei buruzkoak, oso arrazoi sendoetan daudela oinarrituta onartu behar izan nuen, eta antzerako zirkunstantzietan beste edozein herrialdetan ere halakoxeak eman beharko liratekeela. Horrela

ez balitz, zikoizkeria izanik zahartzaroaren nahitaezko ondorio, hilezkor haiek nazio guztiaren jabe bilakatuko lirateke denboraz, aginte zibila ere berenganatuz, baina administraziorako gaitasunik ez dutenez, gizartearen hondamendian amaituko litzateke.

11. KAPITULUA

Autorea Luggnagetik irten eta Japoniarantz doa itsasoz. Handik, ontzi holandar batean Amsterdamerantz etorri eta Amsterdametik Ingalaterrara itzultzen da.

Struldbruggei buruz kontatu dudana irakurlearentzat entretenigarri izan zitekeela pentsatu dut, ohikoaz kanpoko zerbait dela ematen baitu; ez dut nik behintzat gogoratzen antzerako zerbait ez topatu egin dudarik eskuetara etorri zaizkidan bidai liburuetan; eta oker banago, hona nire aitzakia: herrialde bera deskribatzen duten bidaiarientzat beharrezkoa dela sarritan xehetasun berberetzat aritzea, beraiek baino lehen idatzi zutenengandik mailegatu edo transkribatu izanaren kritikarik merezi gabe.

Izan ere, etengabeko merkataritza dago erresuma honen eta Japoniako Inperio handiaren artean, eta litekeena da idazle japoniarrek struldbruggei buruz zerbait kontatua izatea;

baina nire egonaldia Japonian hain laburra izan zenez, eta hango hizkuntza hain ezezaguna zitzaidanez, ez nintzen gai izan inolako ikerketarik egiteko. Baina espero dut holandarrek, albiste honen ondoren, behar hainbat jakin-min eta gaitasun izango dutela nire hutsuneak betetzeko.

Maiestateak sarri bultzatu ninduen Gortean karguren bat onartzera, baina neure sorterrira itzultzeko erabaki sendoa nuela ohartuz, irteteko baimena emateari ederretsi zion eta Japoniako Enperadorearentzat bere eskuz egindako gomendio-gutunaz ohoratu ninduen. Halaber, urrezko laurehun eta berrogeita lau txanpon handi oparitu zizkidan (oso gogoko dituelarik nazio hark zenbaki bikoitiak) eta diamante gorri bat, mila eta ehun liberatan Ingalaterran saldu nuena.

1709ko maiatzaren seigarren egunean, handikiro agurtu nituen Maiestatea eta lagun guztiak. Hain eskuzabala zenez Printze hura, Glanguenstald-era, irlaren hego-mendebaldean dagoen errege-portura, eskoltaturik eramateko agindu zuen. Sei egun geroago ontzi bat aurkitu

nuen ni Japoniara eramateko prest zegoena, eta hamabost egun eman nituen bidaiari. Xamoschi izeneko portu-hiri txikian lehorreratu ginen, Japoniako hego-ekialdean; hiria bera mendebaldeko muturrean dago, non itsasarte estu bat dagoen, iparralderantz itsas beso luze batera daramana, honen ipar-mendebaldean Yedo metropolia dagoelarik. Lehorreratzean, Luggnaggeko Erregeak haien Maiestate Inperialari zuzendutako gutuna erakutsi nien aduanariei. Oso ongi ezagutzen zuten zigilua; nire eskuzabala bezain handia zen. Han inprimatuta, *erregea eskale herren bat lurretik altxatzen* ikusten zen. Hiriko agintariek, nire gutunaren berri entzutean, estatu-ministro banintz bezala hartu ninduten; zalgurdi eta zerbitzariak jarri zituzten nire esku, eta Yedorainoko nire gastuak hartu zituzten beren kontu; han audientzian onartua izan ondoren, gutuna entregatu nuen, zeremonia handiz zabaldu zutelarik; interpretari batek Erregeari itzuli zion, eta gero beraren gogoaren berri eman zidan, alegia, eskari bat egiteko, eta zernahi izanik ere, onartu egingo zuela Luggnaggeko bere errege-anaiaren izenean. Interpretari

hark holandarrekin negoziok izapidetzen egiten zuen lan; nire aurpegieragatik laster konturatu zen europarra nintzela, eta orduan, holanderaz errepikatu zituen bere Maiestatearen aginduak, oso ongi hitz egiten baitzuen hizkuntza hori. (Aurrez erabakia nuen bezalaxe) merkataria holandarra nintzela erantzun nion, urrutiko herrialde batean ontzia hondoratu eta handik itsasoz eta lehorrez Luggnaggeraino etorri nintzelarik, gero Japoniaraino ontziz iristeko; bai bainekien nire erkideak han sarri ibiltzen zirela merkataritzan, beraietakoren batzuekin Europara itzultzeko aukera izatea espero nuelarik; beraz, ahal zen apalkien mesede egiteko erregutzen niola, ni Nangasac-era onik eramateko agindua emanaz; eta honi beste eskari bat gaineratu nion: babesle nuen Luggnaggeko Erregearekiko begirunez, onarrez zezala nire erkideei ezartzen zitzaien *gurutzea zapaltzeko* zeremoniatik ni libre uztea, ezbeharrak bota baininduen haren erresumara, merkataritzarako inolako asmorik gabe. Azken eskari hau itzuli ziotenean Enperadoreari, pixka bat harrituta geratu zen eta, esan zuen, bere ustez neure herrikoetako lehenengoa

nintzela arazo honetan inoiz erreparorik jartzen, eta zalantzan jartzen hasia zela benetako holandarra nintzen edo ez; baina areago zuela KRIS-TAU nintzen susmoa. Halere, eman nituen arrazoiengatik, eta batez ere Luggnaggeko Erregeari atsegin ematearren, eta bere ederraren aparteko erakusgarri gisa, bete egingo zuela nire ezohiko nahikundea, baina arazoa kontu handiz zertu behar zela, eta oharkabean bezala pasatzen uzteko aginduko zitzaizela funtzionarioei. Zeren eta, nire erkide holandarrak ohartzen baziren sekretuaz, bidaian lepoa moztuko zidatela baieztatu baitzidan. Eskerrak eman nizkion interpretariaren bidez hain ezohiko mesedearengatik, eta gudaroste batzuk Nangasac-erantz abiatzera zihoazenez orduan, onik haraino eramateko agindua hartu zuen gudalburuak, oharpen bereziak egin zizkiotelarik gurutzearen arazoaz.

1709ko ekainaren 9an Nangasac-era iritsi nintzen bidaia luze eta arazotsuaren ondoren. Laster elkartu nintzen Amsterdameko *Amboyna*-koak, 450 tonako ontzi sendokoak, ziren marinel holandar batzuekin. Luze bizi izana nintzen

Holandan Leydenen ikasketak egiten, eta ongi hitz egiten nuen holanderaz. Laster jakin zuten marinelek nondik nentorren azkenekoz; eta gogo bizia zuten nire bidaia eta bizimoduaren berri izateko. Ahal nuen bezain istorio labur eta sinesgarria asmatu nuen, baina ezkutatu egin nuen gehiena. Pertsona asko ezagutzen nuen Holandan, eta gai izan nintzen gurasoentzat izenak asmatzeko, Guelderland probintziako jende apaltzat pasarazi nituelarik. Ni Holandara eramateagatik eskatu nahi zuena emateko prest nengoen kapitainari (Theodorus Vangrult bati); baina mediku nintzela jakitean, ohiko tarifaren erdiaz konformatu zen, neure lanbideko eginkizunetan laguntzeko baldintzaz. Ontziratu baino lehen, sarri galdetu zidaten ontzilarietako batzuek, ea bete al nuen lehen aipaturiko zereemonia. Ihes egin nion galderari erantzun orokorrak emanez, alegia, Enperadoreak eta Gortearak eskatutako guztia bete nuela esanez. Halere, ontzi-mutil ziztrin maltzur bat funtzionario batengana joan eta, niregana keinu eginez, ez nuela artean gurutzea zapaldu esan zion; baina besteak, pasatzen uzteko aginduak hartuak

zituelarik, banbuaz hogeï kolpe eman zizkion zital hari bizkarrean, eta geroztik ez ninduten berriz halako galderekin gogaitu.

Ez zen ezer aipagarririk gertatu bidaia hartan. Haize onez ibili ginen Esperantza Oneko Muturreraino, han ur geza hartzeko bakarrik gelditu ginelarik. Apirilaren 16an Amsterdamera iritsi ginen onik, itsasaldian hiru gizon bakarrik galdu genituelarik gaixotasunez, eta laugarren bat itsasora erori zen aitzin-mastatik, Gineako kostatik hurbil. Amsterdametik laster itsasoratu nintzen Ingalaterrarantz, hiri hartako ontzi txiki batean.

1710eko apirilaren 20an Downsera iritsi ginen. Biharamun goizean lehorreratu nintzen, eta berriro ikusi neure sorterrria, bost urte eta sei hilabetez kanpoan egon ondoren, hain zuzen. Redriffera joan nintzen zuzenean, eta egun berean iritsi nintzen hara arratsaldeko ordu bietan, neure emaztea eta etxekoak osasuntsu aurkitu nituelarik.

HIRUGARREN ZATIAREN AMAIERA

**IV ZATIA:
HOUYHNHM-EN
HERRIALDERA BIDAIA**

1. KAPITULUA

Ontzi baten kapitain gisa itsasoratzen da autoreak. Bere gizonak matxinatu egiten zaizkio, kabinan itxita luzaroan eduki eta lurralde ezezagun bateko itsasertzean uzten dute. Herrialdean barrena sartzen da. Yahoo-en, animalia mota berezi baten, deskribapena. Autoreak bi houyhnhnm-ekin topo egiten du.

Bosten bat hilabetez neure emazte eta seme-alabekin egon nintzen etxean, oso zoriontsu, ondo noiz nagoen antzematen baneki. Emazte gaixoa haurdun utzi eta *Adventure*, 350 tonako merkatalontzi sendoaren kapitain izateko egin zidaten proposamen onuragarria onartu nuen; zeren eta, ongi ezagutzen bainuen itsasketa, eta nekatua nengoenez mediku-lanaz itsasoan, — beti ere berreskura nezakeena egokiera izanez gero—, lanbide horretako gazte trebe bat hartu nuen neure ontzian, Robert Purefoy zelako bat.

1710eko irailaren zazpigarren egunean itsasoratu ginen Portsmouth-etik; hamalaugarrenean, Bristoleko Pocock kapitainarekin topo egin genuen Tenerifen, Campecheko badiara zihoalarik, egurretara. Hamaseigarrenean, ekaitzak banandu zuen guregandik; neure itzulera ostean entzun izan dudanez, ontzi hura hondoratu egin omen zen eta ez omen zen inor bizirik geratu, ontzi-mutil bat ezik. Gizon zintzoa zen, eta marinela ona, nahiz eta pixka bat dogmatikoa izan bere iritzietan, hau izan zelarik haren hondamendiaren kausa, beste zenbaitena izan den bezalaxe. Zeren eta, jarraitu izan balio nire aholkuari, orain onik egon baitzitekeen etxekoekin, ni neu bezalaxe.

Nire ontzian ere zenbait gizon hil zen sukarez; beraz, beste batzuk hartu behar izan nituen Barbadoetan eta Leeward irletan, non gelditu bainintzen kontratatu ninduten merkatarien aginduz, laster izan nuelarik egindakoaz damutzeko aski arrazoi; zeren eta, haietako gehienak itsaslapur izanak zirela ohartu bainintzen geroxeago. Berrogeita hamar marinela nituen ontzian, eta Hegoaldeko Itsasoetan indiarrekin saleroske-

tan aritzea zen niri agindutakoa, eta ahal nituen aurkikuntzak egitea. Hartu nituen zital haiek besteei burua berotu zieten, eta denen artean satorlana egin zuten ontziaz jabetu eta ni harra-patzeko; horixe egin zuten goiz batean, nire gan-barotera oldartu eta esku eta hankak lotu zizkidatenean, zirkinik egiten banuen itsasora botako nindutela mehatxatuz. Beraien preso nintzela eta haien esanetara nengoela esan zuen. Hau zin egitera behartu ninduten, eta gero, askatu egin ninduten, zango bat bakarrik lotu zidatarik kateaz ohetik hurbil, eta zaintzaile bat jarri zidaten ate ondoan arma kargatuta zuela, tiro egin eta hiltzeko aginduaz, askatzen saiatzen banintzen. Jatekoa eta edatekoa bidali zidaten, eta ontziaren gobernuaz beraiek arduratu ziren. Pirata bihurtzea zen haien asmoa, eta espainiarrei lapurreta egitea, ezinezkoa zitzaiena gizon gehiago eduki arte. Baina lehenik ontziko merkantzia saltzea erabaki zuten, eta gero Madagaskarrera joatea jende bila, batzuk hil ere egin baitziren, preso nindukaten bitartean. Hainbat astez itsasoan ibili eta indiarrekin tratuak egin zituzten, baina ez nekien zein norabidetan ziho-

azen, oso zaindua bainengoen neure ganbarotean, eta noiz hilko ote ninduten zain, mehatxu hau egiten baitzidaten sarri.

1711ko maiatzaren bederatzigarren egunean, James Welch delako bat etorri zen ganbarotera; eta kapitainaren aginduak zituela esan zidan ni kostan uzteko. Eztabaidan aritu nintzen berarekin, baina alferrik; kapitain berria nor zen ere ez zidan esan nahi izan. Txalupara joatera behartu ninduten, nituen arroparik onenak, berriak bezala zeudenak, janzten utzi ondoren, baita arropa zuri mordoxka bat hartzen ere, baina armarik ez, sastakaia izan ezik; eta poltsikoak ez arakatzeko bezain gizalegetsuak izan ziren, hauetan sartu nuelarik neure diru guztia beste zenbait gauzatxo beharrezkorekin batera. Legoa bat inguru eraman ninduten arraunez eta gero, hondartzara iritsi baino lehen, bakarrik utzi. Zein herrialde zen esan ziezadaten nahi nuen. Nik baino gehiago ez zekitela zin egin zuten guztiek, baina esan zuten kapitainak (horrela deitzen baitzioten) erabaki zuela, ontziko zama saldu ondoren, aurkituko zuten lehen lurraldean ni bertan behera uztea. Berehalaxe

urrundu ziren, mareak harrapa ez nintzan bizkor ibiltzeko esan eta agur eginez.

Honen egoera tamalgarrian egin nuen aurre-ra, eta laster iritsi nintzen lehorrera, han bizkargune batean eseri nintzelarik atsedean hartzeko eta zer egitea komeni ote zen hausnartzeko. Pixka bat indarberritu nintzenean, herrialde hartan barrena sartu nintzen, aurkituko nituen lehen basatien esku neure burua uzteko erabakiaz, eta zenbait eskumuturreko, beirazko eraztun eta beste bitxikeriaren baten truke neure bizia erosteko asmotan, honelakoz marinelak sarri hornitzen direnez bidaietarako, neuk ere zerbait bai bainuen aldean. Landa zuhaitz-ilara luzeek banatzen zuten, ez giza eskuz landatuak, berez etorriak baizik; belar ugari zegoen eta zenbait olo-soro. Oso kontuz ibili nintzen, ustekabean harrapatu edo bat-batean atzetik eta alboetatik geziz joko ninduten beldurrez. Asko ibilitako bide batera irten nintzen, giza oinatzak ugari ikusi nituelarik, eta behien batzuk ere bai, baina gehienak zaldienak. Azkenean, zenbait animalia ikusi nuen landa batean, eta mota bereko bat edo bi zuhaitzera igota. Oso itxura berezia eta

zatarra zuten, honek pixka bat txunditu nindue-
larik eta sasi atzean ezkutarazi hobeto behatze-
ko. Haietako batzuk hurbildu egin zirenez ni nen-
goen lekurantz, beraien itxuraz garbi oartzeko
aukera izan nuen. Burua eta bularra ile lodiz
estaliak zituzten, batzuek kizkurtua eta beste
batzuek leuna; ahuntzak bezalako bizarra zuten,
eta ile-motots luzea bizkarraldean behera, baita
izter eta hanken aurrealdean ere, baina gorpu-
tzaren gainerakoa ilegabe; beraz, larrua ikus nie-
zaiekeen, nabar-horixka kolorekoa zutelarik. Ez
zuten isatsik, ezta batere ilerik ipurmasailetan,
uzki-zulo inguruan ezik; hau, nire ustez, zoruan
esertzen direnean babesteko jarriko zien Natu-
rak; zeren eta, jarrera honetan egoten baitziren,
baita etzanda ere, eta sarritan zutik atzeko han-
ken gainean. Zuhaitz garaietara igotzen ziren,
urtxintxak bezain arin, atzapar sendo eta luzeak
baitzituzten aurrean eta atzean, punta zorrotz
eta gakotuekin. Sam ibiltzen ziren saltoka eta
buru-mutxika, eta izugarrizko arintasunez egiten
zuten jauzi. Emeak ez ziren arrak bezain han-
diak; ile luze leuna zuten buruetan, eta biloxka
antzeko zerbait bakarrik gorputzaren gainerako-

an, uzki-zulo eta lotsarien inguruan ezik. Errapea aurreko hanka artean zuten zintzilika, eta sarritan ia zoruraino iristen zitzaien ibiltzean. At eta emeen ilea ez zen kolore berekoa: nabarra, gorria, beltza eta horia. Oro har, nire bidaia guztietan sekula ez nuen ikusia hain animalia desatseginiak, ezta hain gogor begitan hartu nuenik ere. Beraz, nahikoa ikusi nuelakoan, mesprezuz eta nazkaz betea, altxatu eta lehengo bideari jarraitu nion, indiarren baten etxolara eramango ninduen itxaropenez. Oso urrutira iritsi baino lehen, bete-betean topo egin nuen izaki haietako batekin, zuzenean niregana zetorrelarik. Ikusi ninduenean munstro itsusiak, era ezberdinetan bihurritu zituen hazpegiak, eta aurrez sekula ikusi gabeko gauza bati bezala geratu zitzaidan begira; gero, gerturago hurbilduz, aurreko hanka altxatu zuen, ezin dudalarik esan jakin-minez edo maltzurkeriaz egin zuen. Baina sastakaia atera zorrotik eta kolpe eder bat eman nion alde lauaz; ez nintzen ausartu aho zorrotzaz jotzen, jendeak jakiten baldin bazuen haien ganadueta-koren bat akabatu edo zauritu egin nuela, nire aurka asaldatuko zen beldurrez bainengoen. Piz-

tiak kolpea sentitu zuenean, atzera egin zuen, eta hain ozenki egin zuenez orro, gutxienez berrogeiko talde bat etorri zitzaidan ondoko landatik, txilioka eta keinu higuingarriak eginez; baina zuhaitz baten enborreraino joan, eta bizkarrara haren kontra nuela, ez nien hurbiltzen utzi sastakaia astinduz. Mota madarikatu hartako batzuk atzeko adarrei heldurik zuhaitzera igo ziren, handik beren gorotzak botatzen hasi zirelarik nire buru gainera; halere, nahikoa ongi ihes egin nien enborraren kontra-kontra jarrita, baina ia ito nintzen zikinkeria artean, alde guztietatik jausten baitzitzaidan ingurura.

Larrialdi haren erdian, bat-batean ahal bezain bizkor korrika eginez guztiak ihesi zihoazela ohartu nintzen, orduan zuhaitzetik aldendu eta bideari jarraitzera ausartu nintzelarik, neure artean galdezka zerk izutu ote zituen hala. Baina ezker alderantz begiratzean, zaldi bat ikusi nuen landan poliki-poliki zebilena, eta huraxe izan zen, nire erasotzaileek lehenago ikusia, haien ihesaren eragilea. Zaldia izutu egin zen pixka bat niregana hurbildu zenean, baina laster lasaitu zelarik, bete-betean begiratu zidan aurpegira

harritu itxura nabariaz; eskuei eta oinei begiratz-
zen zien, nire inguruan zenbait jirabira eman-
ez. Neure bideari jarraituko niokeen, baina aurre-
aurrean jarri zitzaidan, nahiz eta oso itxura man-
tsoz eta inolako gogorkeriarik gabe. Elkarri begi-
ra-begira geratu ginen pixka batean; azkenean,
haren leporantz besoa luzatzen ausartu nintzen,
laztantzeko asmoz, zaldi ezezagunen batengana
hurbiltzen direnean zaldizainek egin ohi duten
eran eta ziztu-hotsaz. Baina animalia hark, nire
agurreria guztia mesprezuz hartzen balu bezala,
burua astindu zuen eta bekainak okertu, poliki
bere aurreko ezkerreko hanka altxatuz nire
eskua kentzeko. Ondoren, irrintzi egin zuen
hiruzpalau aldiz, baina hain kadentzia ezberdi-
nez, ezen ia hasi bainintzen pentsatzen bere
buruaz ari zela hizketan mintzaira bereziren
batean.

Biok honela geundela, beste zaldi bat etorri
zen, eta lehenengoarengana adeitasun handiz
hurbildu zelarik, poliki-poliki bata bestearen
aurreko eskuineko apatxa jo zuen, zenbait aldiz
irrintzi eginez txandaka, eta doinua aldatuz, ia
artikulatua zela ematen zuelarik. Pixka bat

urrundu ziren, elkarrekin hitz egitera bailihoa-zen, bata bestearen ondoan ibiliz atzera eta aurrera, arazo larriren bati buruz eztabaidan ari diren pertsonak legez, baina sarri beren begiak nire aldera itzuliz, ihes egin ez nezan zaintzeko bezala. Txundituta nengoen halako ekintza eta jokaerak adimengabeko piztietan ikusiz, eta herrialde hartako jendeak halako arrazonamen-
du-maila baldin bazuen proportzioan, munduko jenderik jakintsuena izango zela esan nuen neure artean. Gogoeta honek hainbeste adoretu ninduenez, aurrera jarraitzea erabaki nuen etxe edo herrixkaren bat aurkitu ahal izan arte edo bertako norbaitekin topo egin arte, bi zaldiak hantxe utzirik elkarrizketan beren nahierara. Baina lehenengoak, zuri-beltzak, isilka banindoa-
la ohartzean, hain modu adierazkorrean egin zidanez irrintzi, uste dut ulertu nuela zer esan nahi zidan; beraz, itzuli egin nintzen eta beraren ondora joan, agindu gehiagoren zain. Baina ahal nuen beste ezkutatu nuen beldurra, hasia bainintzen pixka bat kezkatzen nola amaituko ote zen abentura hura; eta irakurleak erraz sinetsiko du ez nuela oso atsegin halako egoera.

Ondo-ondora etorri zitzaizkidan bi zaldiak, oso zorrotz begiratzuz nire aurpegi eta eskuei. Zaldi zuri-beltzak aurreko eskuineko apatxaz kapela igurtzi zidan inguru guztian eta, hainbesteraingo narrastu zidanez, txukundu egin behar izan nuen, kendu eta berriro jarriz; hau ikusirik, berak eta bai bere lagunak ere (hori-zurixka zenak) oso harrিতuta ziruditen; bigarrenak kasakaren barrena haztatu zidan, eta nire inguruan aske zintzilikatzen zela ohartzean, berriro oso txundituta geratu ziren biak. Eskuineko eskua laztandu zidan, nonbait, biguntasunaz eta koloreaz liluratuta; baina hain gogor estutu zidanez bere apatx eta trabatokiaren artean, garrasi egin behar izan nuen; ondoren, ahal zuten samurtasunik handienaz ukitu ninduten biek. Guztiz txundituta zeuden nire oinetako eta galtzerdiei buruz ere, sarri-sarri ukitzen zituztelarik, elkarri irrintzika eta zenbait keinu eginez, pixka bat filosofoaren antzera, fenomeno berri eta zail bat azaldu nahian ari denean bezala.

Oro har, animalia haien jokabidea hain ordenatua eta arrazoizkoa, hain zorrotz eta zentzuzkoa zenez, aztiak —asmo bereziren batez hala

itxuraldatuak— izango zirela pentsatu nuen azkenean, eta arrotz bat bidean ikusi zutenean, berarekin denbora pasatzeko erabakia hartuko zutela; edo beharbada, benetan liluratuta egongo zirela, bazter haietan biziko zirenen aldean, janzkeraz, itxuraz eta gorpuzkeraz oso ezberdina zen gizaki bat ikustean. Arrazoiketa honen indarraraz, ausartu eta honelaxe zuzendu nintzaien: «Jaunak, aztiak baldin bazarete —honela pentsatzeko arrazoi sendoak baititut— edozein hizkuntza ulertu ahal izango duzue; beraz, jakin erazi nahi diet Jaun horiei, atsekabeturiko ingeles gizagaixo bat naizela, zoritxarrak zuen kostara ekarria, eta zuetariko bati erregutzen diot, benetakoa zaldia balitz bezala, utz diezadala gainean joaten etxe edo herrixkaren bateraino, han laguntza lortu ahal izateko. Mesede horren truke, ganibet eta eskumuturreko hau erregalatuko dizkizuet (poltsikotik atera eta erakutsiz esan nien)». Bi izaki haiek isilik egon ziren nik hitz egin bitartean, arreta handiz entzuten, itxuraz behintzat; eta amaitu nuenean, irrintzi egin zioten elkarri behin eta berriz, elkarrizketa serioan ari balira bezala. Argi eta garbi konturatu nin-

tzen haien hizkuntzak oso ongi adierazten zituela grinak eta neke gutxiz, txinerazkoak baino errazago, pasa zitezkeela hitzak alfabeto batera.

Yahoo hitza sumatzen nuen sarri, haietako bakoitzak hainbat aldiz errepikatu zuelarik; eta ezinezkoa baldin bazitzaidan ere zer esan nahi zuen asmatzea, halere bi zaldiak elkarrizketan murgilduta zeuden bitartean, mihipean hitz hori praktikatzen saiatu nintzen; eta isildu bezain bizkor, ausarki *yahoo* esan nuen ozen, aldi berean, eta ahal nuen bezain zehatz, zaldi-irrintzia imitatuz; hau ikusirik, nabariki harrituta geratu ziren biak, eta zuri-beltzak bi aldiz errepikatu zuen hitz bera, doinu egokia erakutsi nahi izan balit bezala; beraz, haren ondoren neuk esan nuen ahal bezain ongi, eta aldi bakoitzean garbi ari nintzela hobetzen ohartu nintzen, nahiz eta oso urruti edozein perfekzio-mailatatik. Gero, horizurixkak bigarren hitz batekin egin zuen proba, ahoskatzeko askoz zailagoa; baina ingeles *ortografiara* pasatuta, honela idatz daiteke: *houyhnhnm*. Ez nuen honekin lehenengoaz bezalako arrakastarik izan, baina bizpahiru saio-

ren ondoren, zorte hobea izan genuen; eta biek harrituta ziruditen nire gaitasunaz.

Beste pixka bat gehiago hitz egin ondoren, — nitaz ari zirela pentsatu nuen orduan—, bi lagunek elkar agurtu zuten hasieran bezalaxe batak bestearen apatxa joz; eta bere aurrean joan behar nuela adierazi zidan zuri-beltzak keinuz; esandakoa egitea iruditu zitzaidan egokiena, gidari hobea aurkitu ahal izan arte. Nire pausua moteltzera egiten nuenean, hhuun, hhunn oihu egiten zuen; banekien zer esan nahi zuen, eta nekatua nengoela eta ezin nintzela bizkorrago ibili ematen nion aditzera, ahal bezain ongi; orduan, gelditu egiten zen pixka batean niri atsedean hartzen uzteko.

2. KAPITULUA

Houyhnhnm batek bere etxera eramaten autorea. Etxearen deskribapena. Autoreari egiten zaion harrera. Houyhnhnmen elikadura. Autorea larri zer janik ez duelako, baina azkenean lortzen du laguntza. Bere elikatzeko modua herrialde hartan.

Hiru bat milia ibili ondoren, nolabaiteko erai-kin luze batera iritsi ginen, zoruan sartutako egurrez eta tartean lasto-estalkiak ipinita egina zelarik; sabaia baxu zegoen eta lastoz estalia. Pixka bat eroso sentitzen hasi nintzen orduan eta purtxileria batzuk atera nituen, Amerikako eta beste alde batzuetako indiar basatiei erregalatzeko bidaiariek eraman ohi dituzten horietakoak, hala etxeko jendeak maitagarriro hartuko ninduela koan. Haren aurretik sar nendin keinu egin zidan zaldia; gelaune handi bat zen, buztinezko zoru leunaz, askak zeudelarik alde bateko luzera guztian. Hiru moxal eta bi behor zeuden, ez jaten,

baizik eta batzuk behintzat atzeko hanken gainean eserita, honek biziki harritu ninduelarik; baina are harrigarriagoa izan zen gainerakoak etxeko lanak egiten ikustea. Azken hauek ganadu arrunta ematen zuten; halere, nire lehen iritzia berretsi zuen honek, alegia, adimen gabeko animaliak hala zibiliza zitzakeen jendeak, munduko beste nazio guztiak baino jakinduria handiagokoa behar duela izan. Berehala sartu zen zuri-beltza, horrela eragotziz besteek egin zieza-daketen edozein kalte. Irrintzi egin zien zenbait aldiz aginte-itxuraz, eta besteek erantzun egin zioten.

Gela haren ondoren beste hiru zeuden, etxearen luzera guztia hartuz, haietara igarotzeko hiru atetik pasatu behar zelarik, eta hauek, galeria batean bezala, bata bestearen aurrez aurre zeuden; bigarren gela igaro eta hirugarren-erantz joan ginen; hona zaldi zuri-beltza sartu zen lehenengo, itxaroteko keinu eginez. Bigarren gelan egon nintzen zain, eta erregaluak prestatu nituen etxeko jaun-andreentzat; biganibet, sasi-perlazko hiru eskumuturreko, ispilutxoa eta txirtxiludun lepokoa. Zaldiak hiruzpa-

lau aldiz egin zuen irrintzi, eta giza ahotsezko erantzunen bat entzuteko zain egon nintzen, baina hizkuntza berean ezik ez nuen beste erantzunik entzun, eta bat edo bi bakarrik berarenak baino pixka bat zorrotzagoak. Etxe hura, haien artean oso garrantzitsua zen pertsonaren batena izango zela hasi nintzen pentsatzen, zeremonia handia egin behar baitzen onartua izan aurretik. Baina goi-mailako gizon bat zaldiek bakarrik zerbitzatzea, ulertu ezin nuen zerbait zen. Beldur nintzen neure zoritxar eta ezbeharrengatik burua nahastuta ote nuen. Astindu esnatzeko, eta gelan ingurura begiratu nuen, bertan bakarrik utzia nengoelarik; hau ere lehenengoa bezala zegoen altzaritua, baina dotoreago. Sarri igurzten nituen begiak, baina gauza berberak ikusten jarraitzen nuen. Ametsetan egon nintzekeelakoan, neure besoetan eta hegaletan txaxamurka egin nuen, esnatzeko. Eta garbi erabaki nuen orduan, ikuskari guzti haiek ez zirela nekromantzia eta aztikeria baizik. Baina ez nuen gogoeta hauekin jarraitzeko astirik izan, zeren eta, zaldi zuri-beltza etorri baitzen atera, eta hirugarren gelara berari jarraitzeko keinu egin

zidan, han behor eder bat ikusi nuelarik, potto eta pottokarekin batera kokoriko eserita lastozko zerrien gainean, artez eginak eta oso txukun eta garbi zeudenak.

Ni sartu eta berehala, behorra altxatu egin zen bere zerriatik, eta hurbilduz, eskuak eta aurpegia arretaz aztertu ondoren, mesprezu handiko begiratu egin zidan; gero, zaldiarengana jiratzuz, *yahoo* hitza entzun nien beren artean sarri errepikatzen; hitz haren esanahia ezin nuen orduan ulertu nahiz eta ahoskatzen ikasi nuen lehenengoa izan; baina laster informatu ninduten hobeto, nire amaigabeko atsekaberako; zeren eta zaldiak, bere buruaz keinu eginez eta bidean egin zuen bezalaxe *hhuun*, *hhuun* hitza errepikatuz —ni bere ondora joatea nahi zuela ulertzen nuelarik—, patio antzeko leku batera eramán baininduen, han beste eraikin bat zegolarik, etxetik halako tarte batera. Hara sartu ginen, eta lehorreratu ondoren lehenengo aurkitu nituen izaki higuigarri haietako hiru ikusi nituen; sustraiak jaten ari ziren, eta beste animalia batzuen haragia, asto eta txakurrena zela ohartu nintzelarik gero, baita noizean behin istri-

puz edo gaitzez akabatutako behiren batena ere. Guztiak lepotik lotuta zeuden zume sendoz habe bati; aurreko atzaparren artean eusten zioten janariari, eta haginez zatikatzen.

Animalia haietako handienari jaregin eta patiora eramateko agindu zion zaldi nagusiak moxal beilegi bati, bere morroietako bati. Piztia hura eta biok elkarren ondoan jarri gintuzten eta arretaz konparatu zituzten gure itxurak, bai nagusiak eta bai morroiak, gero zenbait aldiz *yahoo* hitza errepikatu zutelarik. Ez dago azaltzerik nire izua eta harridura animalia nardagarri hark giza itxura osoa zuela ohartu nintzenez; egia esateko, aurpegia laua eta zabala zuen, sudurra zanpatua, ezpainak lodiak eta ahoa handia. Baina ezberdintasun hauek nazio basati guztiek dituzte, begitartea desitxuratu egiten baitzaie, hurrei zoruan arrastaka ibiltzen uzten dietelako bertakoek, edo bizkarrean eramaten dituztelako aurpegia amaren sorbaldaren kontra zanpatuta dutela. Yahooaren aurreko hankek eta nire eskuek ez zuten beste ezberdintasunik haien atzazalak luzeago, ahurrak latz eta nabarrago eta gainak iletsuago izatea baino. Gure

oinak ere antzerakoak ziren, ezberdintasun ber-
tsuekin, nik ongi nekizkienak baina zaldiek ez,
neure oinetako eta galtzerdiengatik; eta antze-
rakoak gorputzeko edozein zati, ile-kantitate eta
kolorean izan ezik, jadanik azaldu dudan bezala.

Dirudienez, bi zaldiak txunditzen zituen arazo
nagusia nire gorputzaren gainerakoa eta yahoo-
arena hain ezberdinak izatea zen, jantzia nengo-
elako gertatzen zelarik hau, baina ez ziren hone-
taz jabetzen; moxal beilegiak sustrai bat eskaini
zidan bere apatx eta trabatokiaren artean hartu-
ta (ohi zuten bezala, behar den lekuan adierazi-
ko dudanez); neure eskuan hartu eta usain egin
ondoren, itzuli egin nion ahal bezain gizalegetsu.
Yahooaren tegitik astaki-zati bat ekarri zidan,
baina hain usain higuingarria zuenez, atzera
egin nuen nazkaz; orduan yahooari bota zion,
hark irrikaz irentsi zuelarik. Gero eskukada bat
belar ondu erakutsi zidan eta olo-mordoxka bat
ere bai apatx gaineko ileetan; baina buruaz
ezezkoa egin nion elikagai haiek ez zirela nire-
tzat egokiak adierazteko. Eta benetan, goseak
hil beharko nuela konturatu nintzen orduan, ez
banuen behintzat neure espezieko norbait aurki-

tzen; zeren eta, garai hartan ni baino gizateria-
ren maitale handiagorik gutxi izango ziren arren,
yahoo zikin haiei buruz aitortu behar dut inoiz
ikusi gabea nintzela izaki sentikor higuingarria-
gorik zentzu guztietan; eta zenbat eta gehiago
hurbildu haiengana, are higuingarriago egin
zitzaizkidan, herrialde hartan egon nintzen bitar-
tean. Ohartu zen honetaz ugazaba-zaldia nire
jokaeragatik, eta bere tegira bidali zuen yahooa.
Orduan, ahora eraman zuen bere aurreko apatxa
—oso harritu ninduelarik, nahiz eta berak erraz
egin eta guztiz arrunta ematen zuen mugimen-
duaz— eta beste keinu batzuk ere egin zituen
zer jango ote nuen jakiteko; baina ezin izan nion
eman hark ulertzeko moduko erantzunik; eta
ulertu izan balit ere, ez zitzaidan bururatzen nola
aurki nezakeen elikagairik neuretzat. Honetan
ari ginela, pasatzen ari zen behi bat ikusi nuen
eta, harengana keinu eginez, joan eta eraisten
uzteko nahia adierazi nion. Honek izan zuen
ondoriorik; zeren eta, berriro etxe barrura era-
man baininduen, eta neskame-behor bati agindu
zion gela bat zabaltzeko, non buztinezko eta
zurezko ontzietan esne-pilo dezentea baitzego-

en, oso txukun eta garbi gordeta. Kaiku handi bat bete eman zidan, oso gogotsu edan nuelarik, neure burua indarberrituz.

Eguerdi aldera, etxerantz nolabaiteko ibilgai-lua zetorrela ohartu nintzen, lera balitz bezala-lau yahook ekarria. Zaldi zahar bat zegoen han, goi-mailakoa zirudiena; lehenengo atzeko hankak botaz jaitsi zen, min hartua baitzen istripuz aurreko ezkerreko hankan. Gure zaldiarekin bazkaltzera etorri zen, honek oso adeitsu hartu zuelarik. Gelarik onenean jan zuten, eta bigarren jakia oloa esnetan egosia izan zen, zaldi zaharrak epelduta jan zuelarik, baina gainerakoek hotz. Askak biribilean zeuden gelaren erdian, behar bezala banatuta, haien inguruan esertzen zirelarik kokoriko lastozko zerria biribilen gainean. Erdian jakitegi handi bat zegoen, askabanaketari zegokion angeluz. Beraz, zaldi eta behor bakoitzak bere belarra eta olo-esnea jaten zituen oso txukun eta modu onean. Potto eta pottokaren jokaerak oso egokia ematen zuen, eta etxeko ugazaba eta ugazamarenak alai eta atsegingarria gonbidatuarekiko. Zaldi zuri-beltzak bere ondoan zutik egoteko agindu zidan,

eta lagunak eta biek asko hitz egin zuten nitaz, kanpotarrak sarri egiten zizkidan begiratuengatik ohartu nintzenez, baita yahoo hitza asko errepikatzen zutelako ere.

Jantzita neramatzan eskularruak, eta ugazaba zuri-beltza konturatu zenean, txundituta geratu bide zen, harridura-keinuak egin baitzuten neure aurreko hankari egin nionagatik; hiruzpalau aldiz ukitu zituen apatxaz, lehengo itxurara itzularazteko adieraziz bezala, eta hala xe egin nuen, eskularruak kendu eta poltsikoan sartu nituelarik. Hau ere hizketagai izan zuten eta nire jokabideaz mahaikideak pozik zeudela ohartu nintzen, honen ondorio onak laster ikusi nituelarik. Ulertzen nituen hitz gutxi haiek esateko agindu zitzaidan, eta jaten ari ziren bitartean, olo, esne, su, ur eta beste gauza batzuen izenak irakatsi zizkidan ugazabak, nik berehala errepikatzen nituelarik haren ondoren, gaztetatik erraztasun handia izan baitut hizkuntzak ikaste-ko.

Jatordua amaitu zenean, ugazaba-zaldiak aparte eraman eta, ezer ez nuelako jateko, bere kezka adierazi zidan keinuz eta hitzez. Oloari

haien hizkuntzan *hlunnh* esaten zaio. Bizpahiru aldiz errepikatu nuen hitz hau; zeren eta, hasieran uko egin banion ere, gero, hobeto pentsatuta, ogi moduko zerbait egin ahal izango nuela bururatu baitzitzaidan, esnearekin batera aski izan zitekeelarik bizirik irauteko, beste herrialderen batera eta neure espezie bereko izakiengana ihes egin ahal izan arte. Zaldiak berehala aginduzion familiako neskame-behor zuri bati olo-kantitate dezentea ekartzeko zurezko azpil moduko batean. Ahal bezain ongi berotu suaren aurrean eta azala kendu arte lauskitu nuen, gero haizartu eta alea garbi geratu zelarik; lurrean utzi eta bi harri artean eho nuen, gero ura nahasi eta ore edo opila eginez, sutan xigortu eta beroa jan nuen esnearekin. Oso dieta zozoa zen hasieran, nahiz eta arrunta izan Europako leku askotan, baina eramangarriago bihurtu zen denboraz; eta sarritan egon naizenez gaizki jatera behartua neure bizitzan, ez zen hura lehenengo aldia izan natura zein erraz asetzen den esperimendatzeko. Eta ohartarazi behar dut ordu bete ere ez nintzela gaixorik egon irla hartan egin nuen denboraldian. Egia esateko, batzuetan untxi edo

txoriren bat harrapatzealortzen nuen yahoo-ilez egindako lakioz, eta sarri biltzen nituen belar osasungarriak, egosita edo entsalada modura ogiarekin jaten nituenak, eta noizean behin, zerbait aparteko gisa, gurin pixka bat ere egiten nuen, eta gazura edan. Hasieran gatzaren behar handia sumatzen nuen, baina laster ohitu nintzen hau gabe egotera; eta ziur nago guk gatzaz sarri erabiltzea luxuaren eragina dela, eta hasieran, edanera bultzatzeko bakarrik sartu zela, bidaialdi luzeetan edo azoka handietatik urrutituz dauden lekuetan okela kontserbatzeko behar denean izan ezik. Zeren eta, ikusten baita ez dagoela beste animaliarik gatzaren zale denik, gizakia baizik; eta neuri dagokidanez, herrialde hartatik irten ondoren, denboraldi luzea behar izan nuen beronen gustua jasan ahal izateko edozein jakitan.

Aski da hau nire dietaren gaiaz, nahiz eta beste bidaiari batzuek beren liburuak betetzen dituzten beronekin, guk ongi edo gaizki jateak irakurleak pertsonalki kezkatzen balitu bezala. Halere, aipatu beharrekoa zen arazo hau, jendeak pentsa ez zezan ezinezkoa izan zitzaidala

hiru urtez mantenurik aurkitzea halako herrialdean eta halako biztanleen artean.

Iluntze aldera, niretzat leku bat prestatzeko agindu zuen ugazaba-zaldia; etxetik seiren bat metrora zegoen, eta yahooen ukuilutik bananduta. Lasto pixka bat eraman hara, eta neure jantziez estalita, berehala nintzen lozorroan. Baina laster ostatu hobea prestatu zidaten, irakurleak geroago jakingo duen bezala, neure bizimoduaz zehazkiago hitz egingo dudanean.

3. KAPITULUA

Hizkuntza ikasteari ekiten diolarik autoreak, bere ugazaba houyhnhnmak irakasten dio eta laguntzen. Hizkuntzaren deskribapena. Ikusminez, zenbait houyhnhnm handiki etortzen dira auto rea bisitatzera. Honek bere bidaiaren berri ematen dio labur ugazabari.

Nire kezka nagusia hizkuntza ikastea zen, nire ugazaba (horrela deituko dut aurrerantzean), bere seme-alabak eta etxeko zerbitzari guztiak gogoz zeudelarik irakasteko. Zeren eta, miragarria iruditzen baitzitzaien adimengabeko animalia batek izaki arrazionalaren halako zantzuak agertzea. Edozein gauza seinalatu eta haren izena galdetzen nuen, neure egunkarian idazten nuelarik bakarrik nengoenean, eta ebakera txarra ere zuzentzen nuen, sarritan ahoskatzeko erregutuz etxekoei. Eginkizun honetan,

moxal beilegi bat, azpi-zerbitzarietako bat, oso prest egoten zen laguntzeko.

Hitz egiterakoan, sudur eta eztarri bidez egiten dute, eta haien hizkuntza goi-holanderari edo alemanari hurbiltzen zaio gehien Europan ezagutzen ditudanetatik; baina askoz dotoreago eta adierazkorragoa da. Karlos V Enperadoreak ere ia oharpen bera egin zuen, bere zaldiari hitz egin behar balio goi-holanderaz egingo liokeela esan zuenean.

Nire ugazabaren jakin-mina eta ezinegona hain handiak zirenez, astia zuenean ordu asko ematen zituen niri irakasten. Konbentziturik zegoen (gero esan zidanez) ni yahoo bat nintzela, baina harriturik zeukan nire ikasteko gaitasun, gizalege eta garbitasunak; kualitate hauek zeharo bateraezinak baitziren animalia haiekin. Baina batez ere nire jantziek txunditzen zuten gehien, gorputzaren parte ote ziren pentsatzen zuelarik bere baitan noizean behin; zeren eta, ez baintuen inoiz kentzen etxekoak lo egon arte, eta goizean haiek esnatu baino lehen jantzen nituen. Nondik etorria nintzen eta ekintza guztietan agertzen nituen adimen-aztarna haiek nola

lortu ote nituen jakiteko irrikaz zegoen ugazaba, baita nire istorioa neure ahotik entzuteko ere, hau laster gerta zitekeela uste zuelarik beraien hitz eta esaldiak ikasi eta esaten egiten nuen aurrerapen handiagatik. Oroimenari laguntzeko, ikasitako guztia ingeles alfabetora pasatu eta itzulpenarekin idazten nituen hitzak. Azkeneko hau, denboraldi baten ondoren, ugazabaren aurrean egitera ausartu nintzen. Dezente kostatu zitzaidan azaltzea zertan ari nintzen, jende hark ez baitu inolako ideiarik liburu edo literaturari buruz.

Hamar asteren buruan gai izan nintzen haren galdera gehienak ulertzeko, eta hiru hilabeterako erantzun egoki samarrak ere ematen nizkion. Gogo handia zuen herrialdeko zein aldetakoa nintzen jakiteko, eta nola irakatsi ote zidaten izaki arrazionalak imitatzen, zeren eta, yahoopak (agerian nituen buru, esku eta aurpegian guztiz haien antzeko nintzela ikusten zuen), maltzurkeri aztarna batzuk eta gaiztakeriarako joera bizia zutelarik, adimengabekoen arteko hezkaitzentzat hartzen baitzituzten. Neure espezieko beste askorekin urrutiko leku batetik itsasoz etorria

nintzela erantzun nion, zuhaitz-enborrez eginda-ko kaiku huts handi batean. Kosta hartan lehorreratzera behartu nindutela lagunek, eta gero neure kontura utzi. Zailtasun pixka batez eta keinu askoren laguntzaz, lortu nuen ulertaraztea. Oker egongo nintzela erantzun zidan, edo ez *ziren gauzak esan nituela* (beren hizkuntzan ez baitute gezurra edo faltsukeria adierazteko hitzik). Bazekiela ezinezkoa zena itsasoz harantzago beste herrialderik egotea baita adimengabekoen talde batek zurezko ontzi bat urgainean noranahi eramatea ere. Ziur zegoen ez zegoela munduan houyhnhnmik halako ontzirik egin zezakeenik edo yahooen esku uzten fidatuko zenik.

Houyhnhnm hitzak *zaldia* esan nahi du haien hizkuntzan, eta etimologiaz, *Naturako Perfekzioa*. Adierazkortasuna falta zitzaidala esan nion ugazabari, baina ahal bezain azkar hobetuko nuela; eta denbora laburrean gauza harrigarriak kontatzeko gai izatea espero nuela; niri irakaste-ko aukera guztiez balia zitezela agindu zien pozik bere behor, potto eta pottokari eta etxe-ko zerbitzariei, eta egunero bizpahiru orduz bera

ere arduratzen zen eginkizun honetaz; auzoko hainbat zaldi eta behor handiki etortzen zen sarri gure etxera, yahoo liluragarri bat, houyhnhnmak bezala mintza zitekeena eta bere hitz eta ekin-tzetan adimen-izpiren bat agertzen zuena omen zegoela zabaldu baitzen. Hauek pozik hitz egiten zuten nirekin; galdera asko egiten zidaten, eta ahal nuen bezalako erantzunak ematen nizkien. Abantaila guzti hauekin hain aurrerapen handia egin nuenez, iritsi nintzenetik bost hilabeterako esandako guztia ulertzen nuen, eta neuk ere nahikoa ongi hitz egiten.

Ikusi eta nirekin hitz egiteko gogoz ugazaba bisitatzera etortzen ziren houyhnhnmek nekez sinesten zuten benetako yahoos nintzenik, nire gorputzak nire espezieko besteenak ez bezalako estaldura baitzuen. Buruan, aurpegian eta eskuetan izan ezik, ohiko ile edo larruazalik ez nuela ikustean, harriturik geratzen ziren; baina isilpeko arazo hau ugazabari azaldu nion aste pare bat lehenago gertatutako zerbaiten ondorioz.

Esan diot jadanik irakurleari, gauero etxekoak oheratu ondoren, jantziak erantzi eta beraiez

estali ohi nintzela; goiz batean goiz, bere gelazain zuen moxal beilegia bidali zuen ugazabak nire bila; iritsi zenean, lozorroan nengoen, jantziak alde batera jausita, eta nire atorra gerriz gora. Hark egin zuen zaratak iratzarri egin ninduen, eta pixka bat asaldatuta eman zidala mezua ohartu nintzen; gero, ugazabarengana joan eta, biziki izututa, ikusitakoaren berri nahasia eman zion. Honetaz berehala jabetu nintzen, zeren eta, jantzi bezain laster, Jauna agurtzera joan nintzelarik, morroiak kontatua zionaren esanahiaz galdetu zidan, alegia, lo nengoenean ez nuela beste momentu batzuetako itxura bera; bere gelazainak baieztatu zionez, nire zati bat zuria omen zen, beste bat horia, edo behintzat ez hain zuria, eta beste bat iluna.

Ordura arte isilean gordea nuen jantziarena, neure burua ahal zen guztia bereizteko yahooren enda madarikatu hartatik; baina orduan konturatu nintzen alferrikakoa zela hala jarraitzea. Gainera, jantziak eta oinetakoak laster izango nituela higatuta pentsatzen nuen, menstuta baitzuden jadanik, eta yahooren edo beste animaliairen batzuen larruz egindako asmakizunen batez

ordezkatu beharko nituela; orduan, jakin egingo zen nire sekretu osoa; beraz, esan nion ugazabari, nire sorterrian nire espeziekoek beti estaltzen zituztela gorputzak trebetasunez landutako zenbait animalia-aren larruz, bai lotsaz bai eguraldia-ren gorabeheretatik, hotz nahiz berotik, babes-teko; eta neuri zegokidanez, guzti honen froga berehala emango niola, horrela agintzeari ederre-osten bazion, baina Naturak ezkututzen erakutsi digun parte haiek ez erakustea barkatzeko erregutzen niola bakarrik. Nik esandako guztia oso arraroa zela aitortu zidan, eta azken zatia, batez ere; ezin baitzuen ulertu zergatik erakutsi behar zigun Naturak berak emandakoa ezkutatu-zen; ez bera ezta etxeakoak ere ez zirela gorputz-eko ezein parteren lotsa, baina, edonola ere, nik, nahi nuena egin nezakeela. Ondoren, kasa-ka askatu eta erantzi egin nuen. Gauza bera egin nuen txalekoaz; oinetakoak, galtzerdiak eta prakak ere kendu egin nituen. Atorra gerriraino beheratu eta barrena jaso nuen, faja bezala erdialdean lotuz biluztasuna estaltzeko.

Jakinguraz eta miresmenez ikusi zuen ugazabak ekitaldi osoa. Jantzi guztiak hartu bere tra-

batokian banan-banan eta arretaz aztertu zituen. Gero, gorputza ukitu zidan poliki-poliki eta inguru guztian begiratu hainbat aldiz, eta bete-betean yahoo bat nintzela garbi zegoela esan zuen azkenean; baina neure espezieko gainerakoekiko oso ezberdina nintzela larruazalaren biguntasun, zurtasun eta leuntasunagatik, ilerik ez nuelako gorputzaren zenbait aldetan, aurreko eta atzeko atzazalen itxura eta laburtasunagatik, eta beti atzeko bi hanken gainean ibiltzeko nuen arazeriagatik. Ez zuen gehiago ikusi nahi izan, eta berriro arropak jantzeko baimena eman zidan, hotzak dar-dar bainengoen.

Neure kezka adierazi nion hain sarri yahoo deitzen zidalako, animalia higuigarri harekiko izugarrizko gorroto eta mesprezua sentitzen nituelarik; ez zezala hitz hura niretzat erabili erregutu nion, eta agindu bera eman ziezaiela etxekoei eta ni ikustera etortzen uzten zien lagunei. Erregutu nion, halaber, gorputzean sasi-azala neramalako sekretua ez zezala beste inork jakin, berak ezik, orduko jantziek iraun bitartean behintzat; eta beraren gelazain zen moxal beile-

giak ikusi zuenari buruz, jaun ohoragarri hark eman ziezaiokeela isilik gordetzeko agindua.

Guzti hau gogo onez onartu zuen ugazabak, eta horrela eutsi zitzaion sekretuari jantziak higatzen hasi arte, hainbat asmakizunen bidez ordezkatu behar izan nituelarik, geroago aipatuko dudan bezala. Bitartean, arretarik handienaz haien hizkuntza ikasten jarraitzeko erregutu zidan, berarentzat harrigarriagoa baitzen hitz egiteko eta pentsatzeko nuen gaitasuna gorputzaren itxura eta estalia zegoen ala ez baino; eta agindu nizkion gauza miragarriak entzuteko irrika bizia zuela gaineratu zuen.

Ordudanik areagotu egin zituen bere ahaleginak niri irakasten; lagunarte guztietara eramaten ninduen eta ni adeitasunez tratatzera bultzatzen zituen, zeren eta, isilean esaten zien bezala, umore onez jartzen baininduen horrek, eta dibertigarriago bihurtzen.

Egunero harekin nengoenean, irakasten hartzen zuen lanaz gain, neure buruaz hainbat galdera egiten zidan, ahal bezain ongi erantzuten niolarik; eta horrela, lortuak zituen ideia orokor batzuk, nahiz eta ez oso zehatzak. Aspergarria

litzateke aipatzea elkarrizketa joriagoetara iris-
teko emandako urrats ezberdinak, baina neure
buruaz egin nion lehen kontaketa, ordena eta
luzera pixka batekoa, honako hau izan zen:

Oso urrutiko herrialde batetik iritsi nintzela,
aurrez esaten saiatu nintzaion bezala, neure
espezieko beste berrogeita hamarren batekin;
itsasoetan ibili ginela, zurezko ontzi huts handi
batean, jaun ohoragarri haren etxea baino han-
diagoa zelarik. Ahal bezain ongi deskribatu nion
itsasontzia, eta sudur-zapia zabaldu eta haren
laguntzaz, haizeak nola bultza egiten zion azal-
tzen ahalegindu nintzaion. Geure artean eztabai-
da izan ondoren, lehorreratu egin nindutela kos-
talde hartan, noraezean ibili nintzelarik, yahoo
nardagarri haien jazarpenetik berak libratu nin-
duen arte. Nork egin zuen ontzia galdetu zidan,
eta nola zitekeen nire herrialdeko houyhnhnmek
adimengabeen esku uztea haren gidaritza.
Gehiago kontatzera ez nintzela ausartzen eran-
tzun nion, ez bazidan behintzat bere ohore-hitza
ematen ez zela minduko baieztatuz, eta orduan
esango nizkiola sarri agindutako harrigarriak.
Konforme zegoen; eta aurrera jarraitu nuen esa-

nez, neu bezalako izakiek egin zutela ontzia, nik bidaietan ezagututako herrialde guztietan, baita neurean ere, gobernuan zeuden animalia adimendun bakarrak zirelarik; eta hara iritsi ondoren, oso harritua geratu nintzela houyhnhnmak izaki arrazional bezala jokatzeko ikusita, bera eta bere lagunak egongo ziratekeen bezala hark yahoo deitu nahi zuen izakiarengan adimen-zantzuak aurkituz gero; eta nik neuk ere yahoo horien antz handia nuela, baina berorien endekatze eta izaera basatiaz ez nuela erantzuten. Gaineratu nion, zorte onak inoiz itzularazten baninduen sorterrira eta han neure bidaien berri ematen banuen, *ez zen gauza esaten nuela* pentsatuko zutela guztiek, neure baitan asmatu-rik historia zela; eta berarekiko, bere familia eta lagunekiko ahal zen begirune guztiaz —eta ez zela minduko hitz eman zidanez— esan behar niola nire erkideek nekez sinetsiko zutela houyhnhnma izatea nazio bateko izaki nagusia, eta yahooa abere adimengabea.

4. KAPITULUA

*Egiari eta gezurrari buruzko
houyhnhnmen ideia. Autoreak esan-
dakoa gaitzetsi ugazabak. Bere
buruaz eta bidaialdiko gorabeheraz
berri zehatzagoak ematen autoreak.*

Ezerosotasun-itxura handiz entzun zidan ugazabak, zeren eta, *zalantza* edo *ez sinestea* hain ezezagunak direnez herrialde hartan, hango jendeak ez baitaki nola joka horrelako egoeretan. Eta oroitzen naiz, ugazabarekin sarri hitz egiten nuelarik munduko beste alde batzuetako giza izaeraz, *gezurrari* eta *iruzurkeriari* buruz mintzatzeko aukera genuenean, oso nekez ulertzen zuela esan nahi niona, nahiz eta ezagumen zorrotzekoa izan bestela. Honela argudiatzen baitzuen: «Mintzamenaren onura elkar ulertzean datza eta gertatutakoaren berri jaso ahal izatean; baina norbaitek *ez dena esaten badu*, aipatu helburuek huts egiten dute; zeren eta, horrela ezin baitut benetan esan

beste bati ulertzen diodanik, eta informaziorik ere ez dut hartzen, ezjakintasunean baino okerrago uzten naularik, *zuri* denean *beltza* dela eta *luze* denean *laburra* dela sinestaraziz». Eta hauek ziren *gezurra* esateko ahalmenari buruz zituen nozio guztiak, hain ongi ulertua eta alde guztietan erabilia delarik gizakien artean.

Harira etorri; nire herrialdean gobernatzen zeuden animalia bakarrak yahooak zirela esan nionean —ugazabari buruan sartu ezin zitzaion gauza, berak esan zuenez— gure artean houyhnhnmik ba ote genuen eta zer egiten zuten jakin nahi izan zuen. Kopuru handia genuela esan nion, udaldian larrean ibiltzen zirela landan, eta neguan etxe barruan, belar onduaz eta oloaz; yahoo morroiek larruazala igurzten zirela leuntzeko, kimak orraztu, apaxak garbitu, jaten eman eta azpiak egin. «Ongi ulertzen dizut», esan zidan ugazabak; «adierazi duzunagatik, argi eta garbi dago, yahooek duten adimen-parte gorabehera, houyhnhnmak direla zuen ugazaba; benetan nahiko nuke gure yahooak hain tratagarriak izatea». Mesedez, barkatzeko erregutu nion jaun ohoragarri hari aurrera

jarraitzen ez banuen, ziur bainengoen niregandik entzutea espero zuena oso desatsegin gertatuko zitzaiola. Baina onena eta txarrena konta niezaion eskatzen zidan behin eta berriz, eta hark esana egingo nuela adierazi nion. Gure arteko houyhnhnmak, *zaldiak* deitzen ditugunak, geneuzkan animaliarik jator eta ederrenak zirela aitortu nion, apartak beren indar eta bizkortasunagatik; eta goi-mailako pertsonen jabetzakoak baldin baziren, bidaiatzeko, lasterketatarako edo gurdiak eramateko maitagarriro eta kontu handiz erabiltzen zituztela gaixotu edo hankatik herrenka hasi arte; baina orduan saldu egiten zituztela, eta lan astun guztietarako erabiltzen hil arte; ondoren, larrua kendu eta saldu egiten zituztela edozeren truke, eta gorpuak, txakurrek eta hegazti harrapariak jan zitzaten utzi. Baina arraza arrunteko zaldiek ez zutela hain zorte onik izaten, laborariak, garraiariek eta horrelako jende xeheak zaintzen zituztelarik, lan nekagarrietara behartu eta gaizki ematen baitzieten jaten. Ahal bezain ongi azaldu nion nola ibiltzen garen zaldi gainean, nolakoak eta zertarako diren brida, zela, ezproina eta usta, baita arrioak

eta gurpilak ere. Gaineratu nion, *burdina* deitzen dugun substantzia gogor batez egindako xaflak jartzen dizkiegula hanka azpian, apatxak apur ez ditzaten bide harritsueta, sarri ibiltzen ditugularik horrelakoetan.

Haserre bizioan jarri ondoren, nola ausartzen ginen houyhnhnmen gainean ibiltzen galdetu zuen ugazabak, ziur baitzegoen bere etxeko morroirik ahulena ere gai zela yahoarik indartsuena gaineratik botatzeko edo zoruan etzan eta garagarak irabaziz animalia hori hil arte zanpartzeko. Erantzun nion, hiru edo lau urte izan arte hezi egiten genituela zaldiak gero egin beharko zituzten lan ezberdinetarako; haietakoren bat bereziki hezkaitza izanez gero, garraioetarako erabiltzen zela; gazte ziren bitartean, gogor jotzen zituztela, edozein bihurrikeriagatik; arrak, gainean jendea erabiltzeko edo garraioetarako zirenak, jaio eta bi urtera edo, *irendu* egiten zituztela gehienetan, haizekeriak kendu eta otzan eta eztiago bihurtzeko; bazekitela zer ziren sariak eta zigorrak ere; baina mesedez, harrezala gogoan jaun ohoragarri hark, gure herriko

houyhnhnmek ez zutela bere herriko yahooek baino adimen-izpi gehiago.

Ingurumari askoren poderioz eman nion ugazabari esan nahi nionaren zentzu zuzena; haien hizkuntzak ez baitu hitz-ugaritasunik, nahiak eta grinak ere guk baino gutxiago dituztelako. Baina ezinezkoa da azaltzea haren erresumin zintzoa houyhnhnm arrazakoei ematen diegun trataera basatiagatik, batez ere, zaldiak nola eta zertarako irentzen ditugun azaldu ondoren, berauen espeziea ugal ez dadin eta menpekoago izan ditzagun, alegia. Esan zuen, gertatuz gero herrialderen batean yahooak bakarrik izatea adimenez hornituak, zalantzarik gabe beraiek izango direla animalia nagusiak, denboraz adimena beti nagusitzen baitzaio indar zakarrari. Baina gure gorputzen egitura, eta batez ere nirea, kontutan harturik, pentsatzen zuen tamaina bereko beste izakirik ez dagoela okerrago eginda adimen hura bizitzako eginkizun arruntetan erabiltzeko; eta gero jakin nahi izan zuen ea nire inguruan bizi zirenek nire antza zuten ala bere herrialdeko yahooena. Nire adineko gehienak bezain ongi eratua nengoela ziurtatu nion; baina

gazteagoak eta emeak askoz bigun eta samurragoak zirela, eta azkeneko hauen larrua gehienetan esnea bezain zuria. Benetan beste yahoo batzuk bezalakoak ez nintzela esan zuen, askoz garbiagoa baizik, ezta hain zatarra ere, baina benetako abantailei zegokienez, nire ezberdintasunak txarrerako zirela uste zuen. Nire atzazalek ez zutela ezertarako balio ez aurreko ez atzeko hanketan; aurreko hankak, ezin zituela berez horrela deitu ere egin, ez baininduen inoiz haie-taz ibiltzen ikusi; bigunegiak zirela zoruan ibiltzeko; gehienetan estali gabe eramaten nituela, eta batzuetan han jartzen nuen estalkia ez zela ez itxuraz ez gogortasunez atzeko hanketakoa bezalakoak. Ezin nintzela seguru ibili, zeren eta, atzeko hanketakoren batek irrist egiten bazidan, erori egingo nintzela derrigorrez. Orduan, gorputzeko beste alde batzuei ere akatsak aurkitzen hasi zen: aurpegia zapalduta, sudurra irtenda eta begiak aurre-aurrean nituela, ezin nuelarik aldamenekoa ikusi burua bihurtu gabe; ez nintzela gauza neure burua elikatzeko aurreko hanketariko bat ahora eraman gabe, eta beraz beharrian horretarakoxe jarri zituela naturak

gorputz-adar horiek. Ez zekien zertarako nituen atzeko hankako arraildura eta zatiketa haiek, bigunegiak baitziren harrien gogortasun eta zorroztasuna jasateko beste animaliairen baten larruaz egindako estalki gabe ibiliz gero; nire gorputz osoa zegoela beroaren eta hotzaren kontrako babeskirik gabe, eta beraz, egunero aritzen nintzela jartzen eta kentzen aspertu eta gogaituta. Eta azkenik, berak ikusia zuenez, herrialde hartako animalia guztiek berezko gorrotoa omen zieten yahooei, ahulagoek ez zutelarik haiekin topo egin nahi eta indartsuagok ihes egiten zitelarik; beraz, guk adimenaren dohaina dugula kontu eginda ere, ezin zuen ulertu nota erremedia zitekeen izaki orok gure aurka agertzen zuen berezko ezinikusi hori; ezta ere, beraz, nola otzan genitzakeen eta gure zerbitzari bihurtu. Halere, (esan zuenez) ez zuen arazo honetaz luzaroago eztabaidatuko, irrika handiagoa baitzuen neure istorioa entzuteko, zein herritan jaioa nintzen eta hara iritsi aurretik nire bizitzan egindako eta gertatutakoak.

Gai guztietan beraren nahia betetzeko gogo bizia nuela baieztatu nion, baina zalantza handia

nuela zenbait gauza ezin izango ote nion azaldu jaun ohoragarri hari, ez baitzuen ideiarik ere izango haietaz, nik ez nuelako herrialde hartan ezer antzekorik ikusi. Halere, ahal nuen guztia egingo nuela haiek ere antzekotasunen bidez azaltzen saiatuz, apalki bere laguntza eskatzen niolarik hitz egokirik gabe geratzen nintzenerako, atseginez eman zidalarik horretarako hitza.

Guraso zintzoengandik jaioa nintzela esan nion, Ingalaterra deituriko irian, jaun ohoragarri haren morroirik indartsuenak eguzkiaren urteko ibilaldian egin zitzakeen beste bidai egunetara zegoelarik herrialde hartatik. Medikuntzarako hezi nindutela, gorputzeko zauriak eta minak, istripuz edo bortxakeriaz eginak, sendatzea delarik beronen zeregina; nire sorterrria emea zen gizon batek gobernatzen zuela, guk *Erregina* deitua; aberastasun bila irten nintzela handik, itzuli ondoren neure burua eta etxeakoak mantendu ahal izateko harekin; neure azken bidaiari, ontzi-buru izan nintzela, eta berrogeita hamarren bat yahoo nituela neure menpe, haietako asko itsasoan hil zirenez, hainbat naziotatik ordeztuak hartzera behartua aurkitu nintzelarik.

Gure ontzia bi aldiz egon zela hondoratzeko arriskuan, lehenengoan ekaitz handi baten ondorioz, eta bigarrean harkaitz baten kontra tupust eginda. Orduan, eten eta galdetu zidan ugazabak ea nola konbentzitu ahal izan nituen herrialde ezberdinetako arrotzak nirekin joan eta gorde-galduan ibiltzeko, jasandako galera eta bizi izandako arriskuen ondoren. Zorte gaiztoko jendea zela esan nion, sorterritik alde egitera behartua bere pobrezia edo krimenengatik. Batzuk lege-auzitan txirotu zirela; beste batzuek edaten, emagaldutan eta jokoan galdu zutela zeukaten guztia; beste batzuk traizio egiteagatik zebiltzala ihesi; beste hainbat, hilketa, lapurreta, pozoitzea, atraku, zin-hauste, faltsifikazio, edo txanpon faltsuak egin zituztelako; edo bortxaketa eta sodomia egiteagatik; edo bandera bertan behera utzi eta arerioaren aldera desertatzeagatik, eta gehienak espetxetik hanka eginda; haie-tako inor ez zela ausartzen bere sorterrira itzultzen urkatuko zuten edo kartzelan goseak hilko zen beldurrez; eta beraz, bizimodua beste leku batzuetan aurkitu beharrean zeudela.

Hitzaldi honetan zehar, atsegin izan zuen ugazabak sarri etetea. Itzulinguru askotaz baliatua nintzen krimen ezberdinen izaera azaltzeko, berauek behartu zituztelarik gure marinel gehienak beren herritik ihes egitera. Eginkizun honetan hainbat elkarrizketa-egun eman genuen, hura niri ulertzeko gai izan zen arte. Ez zuen batere ulertzen zertan zetzan bizio haietara makurtzearen onura edo beharra. Hau argitzeko, zenbait xehetasun ematen ahalegindu nintzaion botere eta aberastasunen irrikaz, eta lizunkerri, neurrigabekeri, maltzurkeri eta bekaizkeriaren eragin beldurgarriaz. Guzti hau adibideak ipiniz eta suposizioak eginez zehaztu eta azaldu behar izan nion. Ondoren, inoiz ikusi edo entzun gabeko zerbaitek asaldatu duena bezala, begiak goratu zituen txunditu eta suminduta. Boterea, gobernu, gerra, legea, zigorra eta beste milaka gauzak ez zuten hitzik hizkuntza hartan adierazi ahal izateko, horrela ia gaindigaitza zelarik esan nahi zutena ugazabari adierazteko zailtasuna. Baina ulermen paregabea zuelarik, behaketa eta elkarrizketa bidez oso jantzia, azkenean iritsi zen giza izaerak munduaren gure aldean egin leza-

keena egoki ulertzera, eta guk Europa deritzo-
gun lurraldeari eta batez ere neure herrialdeari
buruzko zerbait berezia kontatzeko erregutu
zidan.

5. KAPITULUA

Ugazabak eskaturik, Ingalaterrako egoeraren berri ematen dio auto-reak. Gerraren zergatiak Europako printzeen artean. Ingalaterrako Konstituzioa azaltzen hasten zaio auto rea.

Atsegin beza irakurleak ohartzea, ugazabarekin izandako elkarrizketa askoren ondorengo laburpen hau punturik garrantzitsuenen bilduma dela, bi urte luzez aldi ezberdinetan aztertutakoa; jaun agurgarri hark gero eta informazio oso-agoa eskatzen zuen sarri nik houyhnhnmen hizkuntzan aurrerapenak egiten nituen neurrian. Ahal bezain ongi, Europako egoera orokorra azaldu nion; merkataritza eta industria, arte eta zientziei buruz mintzatu nintzaion; eta hark egingandako galdera guztiei ematen nizkien erantzunak etengabeko elkarrizketa-iturri bihurtzen ziren. Baina hemen neure herrialdeari buruz gure artean esandakoaren mamia bakarrik azalduko

dut, ahal bezain ongi ordenatuta, garai edo zirkunstantziak kontutan hartu gabe, baina egiari guztiz atxikia. Nire kezka bakarra zera da, nekez egingo diedala justizia ugazabaren argudio eta adierazpenei, nire gaitasun faltaz eta gure ingeles zakarrera itzultzeaz nozitu egingo dutelako.

Beraz, jaun ohoragarri haren aginduak betetzearren, Orangeko Printzearekin sorturiko iraultzarena kontatu nion, hots, Printze hark Frantziarekin hasitako gerra luzea, ondorengoak —egungo Erreginakberriztu egin zuela, eta bertan kristau-munduko indarrak ahaltsuenak sartuta egonik, oraindik ere jarraitzen duela; berak eskatuta, kalkulatu nuen milioi bat yahoo izan zitezkeela gerraldi osoan zehar hildakoak, eta beharbada ehun bat edo gehiago konkistaturiko hiriak eta bost aldiz gehiago erretako edo urperatutako itsasontziak.

Herrialde bat beste batekin gerran hasteko zergatia edo motiboa zein izaten zen galdetu zidan. Ezin konta ahala zirela erantzun nion, baina nagusienetako batzuk bakarrik aipatuko nizkiola. Batzuetan printzeen anbizioa, sekula ez baitute pentsatzen nahikoa lur edo jende dute-

nik gobernatzeko; beste batzuetan ministroen ustelkeria, beren nagusiak gerratarra bultzatzen dituztelarik administrazio txarraren aurkako menpekoen haserrea isilarazi edo desbideratzeko. Iritzi-ezberdintasunak ere hildako milioi askoz ordaindu direla; esate baterako, *haragia ogia* den ala *ogia haragia*; *baia* baten ura *odola* ala *ardoa* den; *ziztu egitea* bizio ala bertute den; ea hobe den *egur bati muin ematea* ala *sutara botatzea*; zein den *jantzi* batentzat kolorerik onena, *beltza*, *zuria*, *gorria* ala *arrea*; eta *luzea* ala *motza*, *estua* ala *zabala*, *zikina* ala *garbia* beharko lukeen, eta beste asko. Eta gerrarik sutsu eta odoltsuenak, eta luzeenak ere, iritzi-ezberdintasunek eraginak izaten direla, batez ere, garrantzirik gabeko gauzetan.

«Batzuetan, bi erregeren arteko eztabaida, hirugarren bati jabetzak zeinek kenduko dizkion erabakitzeke izaten da, bietariko inork ez izan arren horretarako batere eskubiderik. Beste batzuetan errege batek beste bati erasotzen dio, honek berari erasoko ote dion beldurrez. Batzuetan baliteke arerioa *indartsuegia* delako hastera gerra, eta beste batzuetan *ahulegia* delako.

Batzuetan auzokoek guk *dauzkagun gauzak nahi* izaten *dituzte*, edo guk *nahi ditugun gauzak dauzkate* beraiek, eta borroka egiten dugu haiek gureak eraman arte edo berenak guri eman arte; bidezko kausa izaten da gerrarako beste herrialde bat inbaditzea jendea goseak suntsitua, izurriak deseginda edo bere arteko taldekeriez nahaspilaturik dagoenean. Bidezkoa da geure hurbileneko aliatuarekin gerran hastea haren hirietako bat egoki kokatua baldin badago guretzat, edo lur-zati batek gure lurraldeari biribiltasun eta trinkotasuna eman diezazkiokenean. Jende pobre eta ezjakina duen nazio batera bidaltzen baditu printzeak bere indarrak, legezko zaio erdiak garbitzea eta gainerakoak esklabo bihurtzea, zibilizatzeko eta bizimodu basati hartatik ateratzeko. Inbasioren baten aurka babes-teko printze batek beste baten laguntza nahi badu, inbaditzailea bota ondoren, duin, ohoragarri eta ohiko praktika da laguntzailea bera jabetzea lurraldeaz eta laguntza eskatu zion printzea hil, preso hartu edo deserriratzea. Odol berekoen edo ezkontzazko aliantza gerrarako aski arrazoi da printzeen artean, eta zenbat eta estuagoa

izan ahaidetasuna, orduan eta joera biziagoa liskarrerako; nazio *txiroak* gose izaten dira, eta *aberatsak harro*, eta harrokeria eta gosea ez dira inoiz bat etorriko. Arrazoi hauengatik, *soldadua*-ren lanbidea guztien arteko ohoretsuena dela uste da, zeren eta, hotz-hotzean bere espeziekoak ahal beste hiltzeko alokatutako yahooa baita *soldadua*, nahiz eta berari ez dioten inoiz kalterik egin.

Badira European eskean ibiltzen direnetako printzeak ere, berez gai ez direnez gerra egiteko, nazio aberatsagoei alokatzen baitizkiete gudarosteak, gizon eta egun bakoitzeko hainbesteko baten truke, eta honen hiru laurdenak berentzat gordetzen dituztenez, errentaren zatirik emankorrena izaten dute; Alemanian eta Europaren iparraldeko beste leku batzuetan daude honelakoak».

«Gerrari buruz kontatu didazunak», esan zidan ugazabak, «benetan miragarriro erakusten ditu zuek ba omen duzuen adimenaren ondorioak; halere, eskerrak *lotsa arriskua* baino handiagoa den eta Naturak zeharo ezgaituta utzi zaituzten kalte handirik egiteko! Zeren eta, ahoa ez

duzuenez aurpegian irtenda, nekez egin baitie-zaiokezue horzka elkarri (helbururen batekin), ados jarrita ez bada behintzat. Aurreko eta atzeko hanketako atzazalei buruz, berriz, hain motz eta bigunak direnez, gure yahooetako batek ihes eragingo lioke zuetako hamabiko bati. Eta gudan hildakoen kopurua kalkulatzekoan, ez *dena esan duzula* baino ezin dut pentsatu».

Ezin izan nuen buruari eragin eta irribarre txiki bat egin gabe egon. Eta gerragintzan zeharo ezjakina ez naizenez, kanoiak, esku-kanoiak, mosketeak, karabinak, pistolak, balak, bolbora, ezpatak, baionetak, batailak, setioak, erretiradak, erasoak, minak, minaurkakoak, bonbardaketak eta itsas borrokak azaldu nizkion; mila gizonekin hondoratutako itsasontziak, hilzoriko garrasiak, airean doazen gorputz-adarrak, kea, zaratotsa, nahas-mahasa, zaldiek hankapean zapalduta hiltzea; ihesa, pertsekuzioa, garaipena; gorpuz jositako zelaiak, zakur, otso eta hegazti harraparien elikagai utzita; harrapaketa, lapurreta, bortxaketa, erreketeta eta suntsipena. Eta nire erkide maiteen adorea azaltzeko asmoz, baieztatu nion, ikusia nuela behin, inguratuta

zeuden ehun arerio jo eta airean botatzen, eta beste hainbeste itsasontzi batean, eta gorpuzatiak goitik behera erortzen ikusle guztien gozamen handirako.

Xehetasun gehiagorekin jarraitzera nindoa-nean, isiltzeko agindu zidan ugazabak. Eta hain animalia zitalak nik azalduriko ekintza guztiak egiteko gai izatea yahooen izaera ulertzen zuen edozeinek erraz sinets zezakeela esan zuen, berorien indarra eta buru-argitasuna maltzurkeriaren pareko baldin baziren. Baina nik esandakoak espezie osoarekiko gorrotoa areagotu zio-larik, honek burua asaldarazten ziola ohartu omen zen, aurrez zeharo ezezaguna zitzaion gauza. Uste zuen bere belarriak ohitzen baziren hain hitz nardagarrietara, poliki-poliki joango zela nazka gutxiagoz onartzen. Bere herrialdeko yahooei gorroto bazien ere, esan zuen higuingarrikeria haiengatik ez ziela erru handiagorik egozten *gnnayh* (hegazti harrapari) bati bere ankerkeriagatik baino, edo harri zorrotz bati apatxean ebakia egiteagatik baino. Baina adimena omen zuen izaki bat halako izugarrikeriak egiteko gauza baldin bazen, beldur zen ahalmen

horren ustelkeria zabarkeria bera baino okerragoa izango ote zen. Beraz, ziur zegoen, adimenaren ordeztu, geure berezko bizioak areagotzeko balio zuen kualitatereen baten jabe ginela, erreka nahasiaren islak gorputz desitxuratuaren irudia —ez bakarrik *handiagoa*, baita *distortsionatua*— ere— itzultzen duen bezalaxe.

Gerraren gaiaz gehiegi entzun zuela gaineratu zuen, bai orduko hartan baita aurreragoko beste hitzaldietan ere. Bazegoela beste arazo bat pixka bat harritzen zuena; gure marineletako batzuk *legeak* behea jota utzi zituelako irten zirela beren herrialdeetik esan omen nion nik; azaldu omen nuen jadanik hitzaren esanahia; baina gizon guztiak babestea izanik legearen helburua, ezin zuela ulertu nola gerta zitekeen inoren hondamendi izatea. Beraz, gehiago argitzea nahi zuen zer esan nahi nuen *legeaz* eta beronen administratzaileez hitz egitean, neure sorterriko egungo egoeran oinarrituz betiere; zeren eta, berak uste baitzuen Natura eta Adimena aski gida zirela animalia adimendun batentzat —guk baginela pretenditzen genuen bezala— zer egin behar duen eta zer ez jakiteko.

Legea bezalako zientzia batean ez nengoela oso jantzia baieztatu nion jaun ohoragarri hari, egin zidaten zenbait bidegabekeria medio alfer-alferrik abokatuak kontratatzea baino ez bainuen egin; halere, asebeteko nuela haren jakinmina ahal bezain ongi.

Gure artean bazela gizon-elkarte bat, esan nion, zuria beltza dela eta beltza zuria dela hitzez frogatzeko artean gaztetatik heziak, hitz-jarioa areagotzen dutelarik horretarakoxe, hartzen duten ordainaren arabera betiere. Elkarte honen esklabo dela gainerako jende guztia. «Adibidez, auzokoari buruan sartzen bazaio nire behiaz jabetzea, legegizon bat kontratatzen du hark nire behia hartu beharko lukeela frogatzeko. Orduan, nik beste bat kontratatu behar dut neure eskubidea defendatzeko, arau guztien aurka baitoa nork bere buruaren izenean hitz egitea. Eta horrela, kasu honetan, ni, benetako jabea naizen hau, bi eragozpen handiren aurrean aurkitzen naiz. Lehenengo, nire abokatu, ia jaio zenetik beti faltsukeria defendatzen ari izana, bere girotik guztiz kanpo dago justiziarren alde egin behar duenean, eta ohiko lanbidea

ez duenez, zabarkeria handiz ekiten dio, gogo txarrez ez baldin bada. Bigarren eragozpena, nire abokatuak kontu handiz ibili behar duela, bestela agiraka egingo diote epaileek eta gorroto izango lankideek, legegintza gutxiesten balu bezala. Eta beraz, bi bide bakarrik ditut neure behiarekin jarraitzeko. Lehena, nire aurkakoaren abokatuak erosi bi aldiz gehiago ordainduz, orduan bere bezeroari traizio egingo diolarik justizia haren aldetik dagoela adieraziz. Bigarrena, nire abokatuak nire auzia ahalik eta bidegabekoa balitz bezala agertaraztea, behia nire aurkakoarena dela onartuz, zeren eta, hau trebetasunez egiten badu, ziur lortuko baitu epaimahaia- ren aldekotasuna.

Dena den, epaile hauek jabetzari buruzko eztabaida guztiak erabakitzeko daudela izendatuta jakin behar du jaun ohoragarri horrek, baita kriminalak epaitzeko ere, eta zahartuz edo alfer- tuz joan diren abokaturik iaioenen artetik auke- ratzen dituztela, eta bizitza osoa egiaren eta eki- tatearen aurka eman dutenez, hain daude iru- zurkeri, zinauste eta zapalkuntzaren alde jokatu beharrean, ezen ezagutu baititut batzuk arrazoia

zuen aldekoaren eskupeko bikainei ere uko egiten, beren izaera edo zereginarekiko zerbait desegokia eginez *lanbidea* ez iraintzearren.

Abokatu hauen arteko arau nagusi bat da aurrez egina izan dena berriz ere egin daitekeela legez; eta honela, ardura bereziaz erregistratzen dituzte ohiturazko zuzenbidearen eta gizakiaren zentzu onaren aurka aurrez hartutako erabaki guztiak. Hauek, *aurrekasuak* deituak, autoritate gisa hartzen dituzte iritzirik okerrenak bidezkoetzeko; eta epaileek beti erabakitzen dute horien arabera.

Alegatuetan, oso arduratsu ihes egiten diote auziaren *merituetan* sartzeari; baina ozen, bortizki eta aspergarriri luzatzen dira axolarik ez duten *inguruabar* guztietan. Esate baterako, jadanik aipatua dugun kasuan, sekula ez dute jakin nahi izaten zer eskubide edo titulu duen aurkakoak nire behiari buruz, baina bai behia gorria ala beltza den, adar luze ala motzekoa, hura larrean erabiltzen nueneko zelaia biribila ala karratua den, etxean ala kanpoan eraisten zuten, zer-nolako gaitzak dituen eta antzerako gauzak; gero, *aurrekasuak* kontsultatu, noizean

behin auzia eten erazi eta hamar, hogei edo hogeita hamar urtera iritsiko dira erabakiren batera.

Kontuan izan behar da, halaber, elkarte honek baduela bere hizkera mordoilo berezia, beste edozein hankabikorentzat ulertezina, horrela daudelarik lege guztiak idatzita eta berauek ugaltzen arreta berezia jartzen dutelarik; honela zeharo nahastu dute egiaren eta falsukeriaren, zuzenaren eta okerraren funtsa; eta beraz, hogeita hamar urte beharko dira erabakitzeko, arbasoek sei belaunalditan zehar niri utzitako landa nirea den ala hirurehun miliara bizi den arrotzen batena.

Estatuaren kontrako krimenez akusaturiko pertsonen epaiketan askoz laburragoa eta gomendagarriagoa izaten da metodoa. Lehenik, agintean daudenen jarrera aztertzerantz bidaltzen du epaileak norbait, gero oso erraz urka edo salba dezakeelarik gaizkilea, betiere zorrotz betez legearen formalismo guztiak».

Puntu honetan eten eta esan zidan ugazabak tamalgarria zela, hain buru-gaitasun miragarritz hornituriko izakiak —egin nion azalpenaren ara-

bera abokatu haiek izango ziren bezalakoak— ez animatzea besteen gidari izatera jakinduria eta ezagutzan. Honi erantzunez, baieztatu nion jaun ohoragarri hari, beren lanbideari ez zegozkion gai guztietan, gure arteko ezjakin eta inozoenak izan ohi zirela gehienetan, mesprezagarrienak harreman arruntetan, jakintza eta kultura guztia-
ren etsai amorratuak, eta beren lanbidean beza-
lakoxe joera izaten zutela beste edozein hizketa-
gaitan ere gizateriaren zentzu ona galbideratze-
ko.

6. KAPITULUA

Ingalaterrako egoeraren berra ematen jarraitzen du. Lehen Ministro baten izaera.

Ulertu ezinda zebilen ugazaba, zerk bultzatzen ote zuen abokatu-jende hura bidegabeke-riaren alde elkartuz beren buruak hala nahastu, kezkarazi eta nekatzera beren animalari kideei kalte egitearren bakar-bakarrik; eta *alokairuz* egiten zutela esaten nionean ere ez zuen ulertzen. Ondoren, izugarri kosta zitzaidan *diruaren* erabilera azaltzea, zerez eginda dagoen eta metalen balioa; yahoo batek substantzia balio-*tsu* horretatik pilo handia zuenean, bururatutako guztia, jantzirik dotoreenak, etxerik bikainenak, lurralde zabalak eta janari eta edaririk garestie-*nak* lortzeko gai izaten zela baita emerik ederre-*nak* aukeratzeko ere. Beraz, *diruaz* bakarrik egin zitezkeenez balentria guzti horiek, gastatzeko edo aurreratzeke inoiz nahikoa ez zutelakoan egoten zirela gure yahooak, berezko joera bai-

tzuten bietarako, zarrastelkeriarako edo zikoizkeriarako. Aberatsak behartsuaren lanaren emaitzak gozaten zituela, eta aberats bakoitzeko mila behartsu bazirela. Gure arteko jende gehiena behartua zegoela miserian bizitzera, soldata txikien truke egunero lan eginez, gutxi batzuk oparotasunean bizitzeko. Oso luzatu nintzen honetan eta antzerako beste xehetasun batzuetan, baina jaun ohoragarri hura ez zen halere asetzen, lurreko emaitzetan parte izateko eskubidea animalia guztiek dutela uste baitzuen, eta batez ere besteen buru diren haiek. Horregatik nahi zuen nik esatea zeintzuk ziren jaki garesti horiek eta nola zitekeen gutariko inor haien faltan egotea. Beraz, burura etorri zitzaizkidan mota guztiak aipatu nizkion, eta atontzeko era ezberdinak, ezin zitekeena egin ontziak munduko alde guztietara itsasoz bidali gabe, eta berdineko likoreekin, saltsekin eta beste gozagarri askorekin. Baieztatu nion munduari hiru bira oso eman beharko zitzaizkiola, goren mailako gure yahoo eme batentzat gosaria eta honentzako kikara aurkitu baino lehen. Bertako biztanleei jatekorik eman ezin dien herrialdeak benetan

zoritzarrekoa izan behar duela esan zuen. Baina, nik azaldu nizkion bezalako lurralde zabalak batere *ur gezarik* gabe egoteak eta jendeak edari bila itsasoz harantzago joan behar izateak harritzen zuen, batez ere. Kalkulatuta zegoela, erantzun nion, Ingalaterrak (nire sorterri maitteak) bertako biztanleek kontsumi zezaketena baino hiru aldiz jaki gehiago produzitzen zuela, baita aleak edo zenbait zuhaitzen fruituak zantapatuta egindako likoreak ere, edari paregabeak benetan, eta proportzio berean beharrezko beste bizigai batzuk ere. Baina arren luxua eta neurrigabekeria eta emeen harrokeria elikatzearren, beste herrialde batzuetara bidaltzen genituela geuretzat beharrezko ziren gauza gehienak, ordainez, haietatik gaixotasun, zoramen eta biziorako produktuak ekartzen genituelarik genre artean kontsumitzeko. Honen ondorioz, gure arteko askorentzat nahitaezkoa zela bizi ahal izateko eskean, ebasketan, lapurretan, iruzurkerian, luparkeriatan, zin-hausten, koipekeriatan, eroskeriatan, faltsuztatzen, tranpatan, gezurretan, zuriketan, arrandikeriatan, bozketan, zirri-borroketan, izarrei begira, pozoitzetan,

emagalduekin, maltzurkeriatan, gaizki esaka, libre-pentsaketan eta antzerako eginkizunetan jardun behar izatea; eta hitz hauetariko bakoitza neke handiz ulertarazi nion.

Gure artean *ardo*a ez zela atzerritik ekartzen ura edo beste edari batzuk falta zirelako, baizik eta, geure zentzuetatik ateraz, alaitu egiten gintuen edari-mota zelako, gogoeta ilun guztiak kendu, buruan irudipen zoro eta bitxiak sortarazi, itxaropenak suspertu eta beldurrak uxatu, adimenaren lana aldi batez eten eta geure gorputz-adarren erabileraz ere gabetzen gintuelako, lozorroak hartu arte; nahiz eta aitortu beharra egon ondoezik eta adorerik gabe esnatzen ginela beti, eta likore hura edateak gure bizitza mingostu eta laburtu egiten zuten eritasunez betetzen gintuela.

Baina guzti honetaz gain, bizitzeko beharrezko eta komenigarri diren gauzak aberatsentzat eta batak bestearentzat eskuratuz mantentzen zirela gure arteko gehienak. Esate baterako, etxean behar bezala jantzita nagoenean, ehun bat artisauen lana daramadala gainean; etxea eraiki eta janzteko beste hainbesterena behar

dela, eta bost aldiz gehiagorena emaztea apaintzeko.

Beste jende-mota batez hitz egitera nindoa-kion, gaixoak zainduz bizimodua ateratzen dutenei buruz alegia, behin baino gehiagotan esan bainion jaun ohoragarri hari gaixorik hil zela nire ontzilarietako asko. Baina orduan zailtasun izugarria izan nuen esan nahi nuena ulertarazteko. Hark erraz ulertzen zuen houghnhnm bat ahul eta mugigaitz egoten hastea hil baino egun batzuk lehenago, edo istripuz gorputz-adarren batean min hartzea. Baina Naturak, dena perfektioz egiten duenak, gure gorputzean inolako minik sortzen uztea ezinezkoa iruditzen zitzaion eta txarkeria esplikagaitz honen zergatia jakin nahi zuen. Bateriaezinak diren milaka gauzaz elikatzen ginela esan nion; gose izan gabe jaten genuela, eta egarriak eskatu gabe edaten; gau osoak ematen genituela likore gogorak edaten mokadu bat ere egin gabe, honek alferkeriara eramaten gintuelarik, gorputza hanpatu eta digestio bizkortu edo eragotziz. Yahoo emagalduek halako eritasun batek jotzen zituela, haien besartera zihoazenen hezurak ustelarazten

zituelarik; eritasun hau eta beste asko gurasoen-gandik seme-alabengana igarotzen zirela, asko etortzen zirelarik mundura gaitz larriekin gainean; amaiezina izango litzatekeela giza gorputzean eragina duten eritasun guztien katalogoa egitea, ez bailirateke bostehun edo seiehun baino gutxiago izango gorputz-adar eta giltzadura guztietan banatuta; labur esateko, zati bakoitzak, kanpoko nahiz barnekoak, berari dagozkion eritasunak dituela; eta guzti hau erremediatzeko, bazegoela gure artean gaixoak sendatzen edo sendatzeko plantak egiten trebatutako jendea. Eta nolabaiteko gaitasuna banuenez zientzia honetan, jaun ohoragarri harenganako esker onez, erabiltzen zuten misterio eta metodo osoaren berri emango niola.

«Eritasun guztiak *betekadatik* sortzen direla daukate funtsezko printzipiotzat, eta hortik ateratzen dute gorputzaren hustuketa handia egin behar dela, bai berezko bidetik bai gorantz ahotik. Hurrengo eginkizuna, belar, mineral, goma, olio, maskor, gatz, zuku, alga, gorotz, zuhaitz-azal, suge, zapo, igel, armiarma, hildakoen haragi eta hezur, txori, piztia eta arrainez nahaski bat

prestatzea izaten da, usainez eta gustuz ahal den nardagarri, nazkagarri eta higuingarriena, sabelak berehalaxe botatzen duelarik nazkaz; eta honi gorakoa deitzen diote beraiek; edo bestela, jakitegi beretik, eta beste gehigarri pozoi-tsuren batzuekin, *goiko* edo *beheko* zulotik (orduantxe medikuari bururatzen zaionetik) erraietarako aurrekoa bezain desatsegin eta gogaikarria den sendagai bat hartzeko agintzen digute, honek sabela lasaitu eta dena beherantz ekartzen duelarik; eta honi *libragarri* edo *aiuta* deitzen diote. Zeren eta, Naturak (hala diote medikuek) goiko aurreko zuloa solidoak eta likidoak sartzeko bakarrik ezarri duelarik eta beheko atzekoa botatzeko, eritasun guztietan Natura lekuz kanpo geratzen dela pentsatzen baitute artista hauek zorroztasun handiz; eta beraz, bere lekuan berrezartzeko, guztiz alderantziz erabili behar dela gorputza, zuloen erabilera elkarraldatuz, solidoak eta likidoak uzki-zulotik sartzera behartuz eta hustuketak ahotik eginez.

Baina, benetako eritasunez gain, irudipenezkoak bakarrik diren beste askoren menpe ere bagaude, hauetarako irudipenezko sendaketak

asmatu dituztelarik medikuek; hauek beren ize-
nak dituzte, baita berauentzat egokiak diren
botikek ere, hauek beti gainezka ibiltzen
direlarik gure yahoo emeak.

Leinu honetakoek duten gauzarik bikainetako
bat *pronostikoetan* duten trebetasuna da, gutxi-
tan huts egiten baitute; benetako eritasunetan
egiten dituzten iragarpenek —behin halako larri-
tasun-maila batera iritsiz gero— gehienetan
heriotza aurrean nahi dute, hau beti dutelarik
beren esku, ez ordea hobekuntza, eta beraz,
beren erabakia eman ondoren, ustekabeko sus-
pertzeko-aztarnak agertzen badira, sasi-igarletzat
salatuak izan baino lehen, badakite nola kredita-
tu munduaren aurrean beren zolitasuna dosi
egoki batez.

Halaber, bereziki mesedegarriak izaten dira
ezkontideaz asperturik dauden senar-emazteen-
tzat, lehensemeentzat, gobernuko ministro han-
dientzat eta printzeentzat ere bai sarri.»

Aurrez behin hitz egina nintzen ugazabarekin
gobernalaren izaeraz oro bar, eta gure *Konstitu-
zio bikainaz* zehazkiago, ongi merezia duelarik
mundu osoaren mirespena eta inbidia. Baina

orain halabeharrez aipatu nionean *Gobernuko Ministroarena*, deitura harekin ea zer-nolako yahoari buruz ari nintzen informatzeko agindu zidan pixka bat geroago.

Lehen Ministro edo *Gobernu-Buru* bat, nik orduan azaldu nahi niona, inolako alaitasun edo nahigaberik, maitasun edo gorrotorik, gupida edo amorrurik gabeko izakia zela esan nion; edo ez zuela behintzat beste grinarik agertzen aberastan, aginte eta tituluen irrika bizia baino; beste edozertarako erabiltzen dituela bere hitzak, buruan duena adierazteko izan ezik; ez duela inoiz *egia* esaten, *gezurtzat* har dezazun asmoz baizik; ezta ere *gezurra*, zuk *egiatzat* hartzeko helburuaz ez bada; inoren atzetik gaizki esaka aritzen bada, hura dagoela biderik onean gora igotzeko; eta besteen edo zeure aurrean goraipamenak egiten hasten bazaizu, galduta zaudela egun horretatik aurrera. Berarengandik bar daitekeen seinalerik txarrena promesa bat dela, zin eginez berresten badu batez ere, horrelakoen ondoren, zuhurra den guztiak erretiratu eta esperantzak oro galtzen dituelarik.

«Hiru prozedura daude gizon bat Lehen Ministro izatera iristeko; lehena, emazte, alaba edo arrebaz zuhurki nola joka jakitea; bigarrena, aurrekoari traizio egin edo azpiak jatea; eta hirugarrena, Gorteko ustelkeriaren aurkako *jarrera sutua* agertzea jendaurreko batzarretan. Baina printze zuhurrak nahiago izango ditu hiru prozedura hauetako azkenaz baliatzen direnak, izan ere, hain sutu diren horiek gero barkabera eta morroirik itsuenak izaten baitira beti nagusiaren borondate eta grinekiko. *Ministroek*, kargu guztiak beren esku dituztelarik, senatu edo kontseilu nagusiko gehiengoa erosiz irauten dute agintean; eta azkenean, *Indemnitete-legea* delako espedientearen bidez (zer-nolakoa zen azaldu niolarik), beren buruak babesten dituzte ondorengo kontu-hartzeetatik eta bizitza publikotik erretiratzen, nazioko harrapakinez beteak.

Gobernu-Buruaren jauregia lanbide horretan berorretan beste batzuk prestatzeko mintegia izaten da: zerbitzariak, lekaioak eta atezainak, nagusia imitatuz, *gobernu-ministro* izatera iristen dira, bakoitza bere barrutian; eta hiru *elementu* nagusietan —*lotsagabekeria*, *gezurre-*

tan eta *eroskerian*— nabarmentzen ikasten dute. Ondorioz, badute menpekoen sail bat goren mailako jendeak ordaintzen diena, eta batzuetan, trebetasun eta lotsa gutxiren poderioz, mailakamailaka, beren jaunaren ondorengo izatera iristen dira.

Neskamotz galdu edo morroi kuttunen batek gobernatu ohi du bera, hauek izanik mesede guztiak lortzeko bideak eta, azken finean, zuzena litzateke erresumaren gobernariak direla esatea ere.»

Egun batez, neure sorterriko *nobleteriaz* hitz egiten entzun ninduelarik ugazabak, nire ustez, merezi ez nuen konplimendu bat egiteari ederretsi zion: alegia, ziur zegoela familia nobleren batean jaioa nintzela, zeren eta, itxuraz, kolorez eta garbitasunez zeharo gainditzen omen nituen haren nazioko yahoo guztiak, nahiz eta bazurudien indar eta bizkortasunean gutxiago nintzela, hau bizimodu ezberdinari —beste animalia haie-na ez bezalakoari— egotzi beharko zitzaiolearik; eta gainera, ez nengoela mintzamenaz bakarrik hornitua, baita adimen-hastapenen batzuez ere,

ondorioz bere ezagun guztien artean ere miragarritzat nindukatelarik.

Ohartarazi zidan, houyhnhnmen artean, *zuriak*, *beilegiak* eta *nabar ilunak* ez zutela zehazki *hori-zurixkaren*, *zuri-beltzaren* eta *beltzaren* gorpuzkera bera, eta ez zirela jaiotzen buru-gaitasun edo garatzeko ahalmen berberaz ere; eta beraz, beti zerbitzari-mailan irauten zutela, beren askaziaz kanpokoekin elkarbatzeko asmorik gabe, herrialde hartan gauza higuingarri eta kontranaturaltzat hartuko baitzuketen.

Nitaz eduki nahi zuen iritzi onarengatik esker onik apalena adierazi nion jaun agurgarri hari; baina aldi berean, sortzez jatorri apalekoa nintzela baieztatu nion, guraso zintzo eta xumeengandik jaioa, ozta-ozta eman ahal izan zidatelarik hezkuntza egoki samarra; gure arteko *nobletaria* ez zela hark buruan zuena bezalakoa; gure *aitonen seme* gazteak alferkerian eta luxuan hezten direla haurtzarotik; adinak ahalbidetzen duenean beren sasoia hondatu eta eritasun higuingarriak hartzen dituztela eme lizunengandik; eta aberastasunak ia xahututa dituztenean, jatorri apal eta itxura desatsegineko emakume

gaixokaren batekin ezkontzen direla, diruaren-gatik bakarrik, emazte hori gorrotatu eta mesprezatu egiten badute ere. Ezkontza hauetako emaitzak gehienetan haur gangailadun, hebain edo itxuragabetuak izaten direla, horrela familiak nekez irauten duelarik hiru belaunaldi baino gehiago, emaztea ez bada behintzat auzokoen edo morroien artean aita osasuntsu bat aurkitzeaz arduratzen, askazia hobetu eta iraun dezan. Gorputz ahul eta gaixoka, aurpegi isuria eta azal horixka direla *odol noblekoen* benetako ezaugarriak; eta itxura osasuntsu eta sendoa guztiz lotsagarria dela goi-mailako batengan, benetako aita zamaltzain edo gurtzainen bat izango zuela pentsatzen baitu mundu guztiak. Haien buru-akatsak ere gorputzekoen parekoak direla, kaskar, trakets, ezjakin, apetatsu, lizun eta harroputzak baitira.

Gorputz agurgarri honen adostasunik gabe ezin dela legerik aldarrikatu, kontraerabaki edo aldatu, eta halaber, aitonen seme hauek gure jabetza guztiei buruzko erabakia dutela, apela-ziorik gabe.

7. KAPITULUA

Autoreak bere sorterriari dion maitasun handia. Ugazabaren oharpenak autoreak azaldu dizkion Ingalaterra-ko Konstituzio eta administrazioari buruz, antzerako kasu eta konparazioekin. Ugazabaren oharpenak giza izaerari buruz.

Baliteke irakurleak galdetzea nola erabaki nuen neure espezie berekoei buruz hain garbi hitz egitea, bestela ere, haien yahoo eta nire artean zegoen antz osoarengatik, giza espezieari buruzko iritzirik txarrena zertzeko prest baitzeuden haiek. Baina argi eta garbi aitortu behar dut, *lauhazkako* bikain haien bertute ugariak, giza ustelkeriaren aurrez aurre jarrita, hainbestearinoxe zabaldu zidatela begiak eta ulermena, ezen oso era ezberdinean hasi bainintzen ikusten gizonaren ekintzak eta grinak, eta neure espeziaren ohoreak trikimainarik ez zuela merezi pentsatzen ere hasi nintzen; gainera, ezinez-

koa zitzaidan honela hastea ugazaba bezalako bereizmen zorrotzeko pertsona baten aurrean, egunero ikustarazten baitzizkidan neuregan milaka akats, nik aurrez batere ohartu gabeak, eta guregatik balitz sekula ez liratekeenak giza miserien artean sartuko. Gainera, ikasia nuen haren jokaeratik faltsukeria edo itxurakeria guztiei gorrotorik biziena izaten, eta egia hain maitagarria iruditzen zitzaidanez, dena beronen alde sakrifikatzea erabaki nuen.

Zilegi bekit irakurlearekin honen zintzo jardutea eta gauzen azalpenean halako askatasunez jokatzeko arrazoi sendoagorik ere banuela aitortzea. Herrialde hartan urte bete ere ez neraman, hango biztanleenganako hain maitasun eta begirune handia nuelarik, giza espeziekoen artera sekula ez itzultzeko eta houyhnhnm miragarri haien artean bertute guztiak miretsi eta praktikatzuz bizitzaren gainerakoa emateko erabaki sendoa hartu nuenean; han ezin nuen biziorako eredurik edo tentaziorik izan. Baina zoriak, nire betiko etsaiak, halakorik ez zegokidala erabaki zuen. Halere, pozten nau orain pentsatzeak neure erkideei buruz esandakoetan *arindu* egin

nituela berauen akatsak hain aztertzaile zorrotzaren aurrean ausartu beste, eta arazo bakoitzaren ikuspegirik mesedegarriena eman nuela gaiak uzten zuen neurrian. Izan ere, ba al da bizidunen artean bere sorterriarekiko jarrera on eta alderdikoitasunak menperatzen ez duenik?

Ugazabaren zerbitzura egoteko ohorea izan nuen denboraldirik gehienezan berarekin izandako hainbat elkarrizketaren mamia azaldu dut, baina laburtzearren, hemen esandakoa baino askoz gehiago baztertu dut.

Haren galdera guztiei erantzun ondoren, eta jakin-mina guztiz asebetea zuela ematen zuelarik, goiz batean goiz, beregana joateko eta halako tarte batera esertzeko aginduz (ordura arte inoiz egin gabeko ohorea), nire istorio osoaz — bai neuri buruz baita sorterriaz kontatutakoaz ere— arduratsu egon zela gogoetan esan zidan; berak ikusten omen gintuen, imajinatu ezin zuen txiriparen batez *adimen*-izpiren batez hornitutako animalia mota bezala, geure *berezko* ustelkeriak areagotzeko eta Naturak eman gabeko beste berri batzuk geureganatzeko bakarrik erabiltzen genuelarik adimen hori. Bestalde, Natu-

rak emandako trebetasun banaka horietatik ere gabetu egiten genuela geure burua; oso arrakastatsuak izan ginela geure jatorrizko beharrak ugaltzen, eta bazirudiela bizitza osoa ematen genuela alferrikako ahaleginetan geure asmakizunekin behar horiek asetzen. Neuri zegokidanez, nabaria zela ez nuela yahoo arrunten ez indarrik ez bizkortasunik, kili-kolo ibiltzen nintzela atzeko hanken gainean, nolabait moldatu nintzela atzazalak ez erabilgarri eta ez babesgarri bihurtzeko, baita kokotsetik ilea kentzeko ere, eguzkitik eta eguralditik babesteko izan arren. Azkenik, ezin nuela lasterka bizkor egin, ezta zuhaitzetara igo ere nire *anaiak* (horrela deitu zituen), herrialde hartako yahoak, bezala.

Garbi zegoela gure *gobernalu*-erakundeak eta *legeak* gure *adimen*-gabezia handiaren eta, beraz, *bertute*-ezaren ondorio zirela, zeren eta, adimena berez aski baita animalia arrazional bat gobernatzeko; eta beraz, ez genuela kualitate hau geureganatzeko eskubiderik, ezta neuretarrez esan nion guztian oinarrituta ere, bera garbi ohartua zelarik hauen alde jokatzearren xeheta-

sun asko gorde nizkiola eta ez zena esan niola sarri.

Oso sendo zegoen iritzi honetan, konturatua baitzen nire gorputzeko ezaugarri guztietan beste yahooen antza nuela, baina benetan behetik nengoela indar, abiadura eta mugikortasunean, atzazalen laburtasunean eta Naturari ez zegozkion beste zenbait xehetasunetan; era berean, gure bizimodu, ohitura eta ekintzei buruz esan nionagatik, buru-jarreretan ere antzekotasun handia aurkitzen zuen. Jakina zela, esan zuen yahooek beste edozein animalia espeziek baino gehiago gorrotatzen zutela elkar; eta honetarako aipatu ohi zen arrazoia beren irudiarrekiko biguina izaten zela, guztiek gainerakoen gain ikus zezaketena baina ez nork beregan. Horregatik, hasia zela pentsatzen ez zela zehar zentzugabea gorputzak *estaltzea* eta asmakizun horrekin gure zatarkeria asko elkarri ezkutatzea, bestela nekez jasango genituzkeenak. Eta aurrez oker zegoela konturatzen zela orduan, eta bere herriko adimengabe haien arteko gatazkek gurek zuten zergati berbera zutela, nik kontatutakoaren arabera. Zeren eta, (esan zuen) bost

yahoo artera berrogeita hamarrentzat beste janari botatzen baduzu, bake-bakean jan orde, elkar larrutzeko prest oldartuko baitira gainera, *dena beretzat hartu* nahi izango duelarik bakoitzak; eta horregatik, morroi bat bidaltzen zela haien ingurura kanpoan jaten ari ziren bitartean, eta etxean zeudenak lotuta edukitzen zituztela halako tarte bat utzita elkarren artean; zaharrez edo istripuz akabatzen bazen behi bat, houghnhnm batek bere yahooentzat hartu ahal izan aurretik, auzokoak taldean etortzen zirela harrapatzera eta, gero, nik deskribatu bezalako borrokaldia gertatzen zela, atzaparrez egindako zauri izugarriekin bi alderdietakoen artean, nahiz eta gutxitan izan elkar akabatzeko gai, guk asmatu bezalako heriotza-tresna egokirik ez zutelako. Beste batzuetan, zergati garbirik gabeko borrokak ere izaten omen dira zenbait auzategitako yahooen artean; barruti batekoak aukera guztiez baliatzen omen dira ondokoak, prest egon baino lehen, ustekabean harrapatzeko. Baina beren egitasmoak porrot egin duela ohar-tuz gero, etxera itzuli eta, beste etsairik ezean,

elkarri egiten omen diote eraso nik *gerra zibila* deituriko horretan murgilduta.

Bere herrialdeko zenbait landatan kolore askotako *harri distiratsu* batzuk daudela esan zuen, berauen irrika bizian egoten direlarik yahooak, eta *harri* hauen zati bat lurrean sartuta dagoenean, batzuetan gertatzen den bezala, egun osoak ematen dituztela atzaparrez azterka kanpora ateratzeko, eta handik eraman eta piloka beren kobazuloetan gordetzen dituztela, baina kontu handiz inguruetara begira betiere, lagunek altxorra aurkituko ote dioten beldurrez. Irrika kontratural honen zergatia sekula ezin izan zuela ulertu esan zuen ugazabak, ezta *harri* haiek zertarako erabiltzen ote zituzten ere yahooek; baina nik giza espezieari egotzitako *zikoizkeria* berberak sortarazia izan zitekeela pentsatzen zuela orain; behin, froga gisa, *harri*-pilo haietako bat kendu zuela ezkutuan, yahoo batek lurperaturik utzitako lekutik; eta gero, abere zikin hark, altxorra falta zitzaiola ohartzean, bere auhen ozenez talde osoa erakarri zuela hara, hantxe triste uluka eginez; bat-batean besteei horzka eta atzaparka ekin ziela, eta moteltzen

hasi, ez jan, ez lorik eta ez lanik egin gabe, ugazabak morroi bati agindu zion arte *harriak* eramateko ezkutuan zulo berera eta lehen bezala uzteko gordeta; yahooak aurkitu zituenean, berehala suspertu zitzaizkiola adorea eta aldarte ona, baina gordeleku hobera eramateaz arduratu zela, eta ordudanik oso abere lagunkorra izan dela beti.

Gainera baieztatu zidan ugazabak, eta ni neu ere konturatu nintzen, *harri distiratsu* haiek egon ohi diren lurraldeetan borrokaldirik basatienak izaten direla maiz, auzoko yahooen etengabeko sarraldiak direla medio.

Bi yahook halako *harri* bat aurkitu landan eta jabea nor zen erabakitzeke eztabaidan ari zirenean, egoeraz aprobetxatu eta hirugarren batek beste biei kentzea ohikoa zela esan zidan; eta ugazabak tinko esaten zuen honek bazuela nola-baiteko antzik gure *lege-auziekin*; eta gure sinesgarritasunagatik, honetan ez desengainatzea hobe zela pentsatu nuen; zeren eta, hark aipatzen zuen konponbidea askoz ekitatezkoagoa baitzen gure arteko berediktu asko baino, hark aipaturiko kereilariak eta demandatuak ez

baitzuten eztabaidan zegoen *harria* baino gal-
tzen, eta gure *ekitatezko auzitegiek*, berriz,
sekula ez zuten auzia amaitutzat ematen bieta-
ko bati zertxobait geratu arte.

Esaten ari zenarekin jarraituz, baieztatu zuen
ugazabak beste ezerk ez zituela yahooak higuin-
garriago bihurtzen aurrean jartzen zitzaien guz-
tia irensteko irrika itsuak baino: belarrak, sus-
traiak, baiak, abereen haratustela edo dena
nahastuta; eta urruti harrapatu edo ebatsitakoa
etxean ematen zitzaien askoz janari hobea baino
gogokoago izatea ere haien izaeraren bereizga-
rri zela. Harrapakinak irauten bazuen, ia lehertu
arte jaten zutela, gero Naturak halako *sustrai* bat
erakusten zielarik erabateko hustualdia egiteko.

Bazela beste sustrai-mota bat ere, oso
urtsua, baina aski bakana eta zaila aurkitzeko,
yahoek irrika handiz bilatu eta oso gogotsu xur-
gatzen zutena; eta guretzat ardoak zuen eragin
berbera zuela sustrai hark haientzat. Haren era-
ginez, batzuetan elkar besarkatu, eta beste
batzuetan elkar larrutzen zutela; uluka eta irriba-
rreka, berriketan eta zabunka ibiltzen zirela, eta
gero loak hartzen zituela lokatzetan.

Egia esan, herrialde hartan eritasunak zituzten animalia bakarrak yahooak zirela ohartu nintzen; halere, zaldiek gure artean baino askoz gutxiago dituzte, eta ez dira gaixotzen inolako tratu txarrik ematen zaielako, animalia narras haien zikinkeria eta salokeriagatik baizik. Eta eritasun hauetarako deitura orokor bat baino ez dago haien hizkuntzan, aberearen izenetik hartua, *hnea-yahoo* deritzona, *yahooaren gaitza* alegia, eta ematen zaien sendabidea *beren gorotz eta pixaz* egindako nahaski bat da, indarrez yahooen zintzurrean behera sartzen dena. Sarritan ikusi ditut hau hartzen, eta arrakastaz; beraz, neure erkideei gomendatzen diet orain, guztion onagatik, betekadak eragindako gaitz guztien aurkako sendagai miragarri gisa.

Kultura, gobernu, arte, industria eta antzerakoei zegokienean, herrialde hartako yahooen eta gureen artean antz gutxi edo batere ez zuela aurkitzen aitortu zidan ugazabak. Izan ere, izaeraren genuen parekotasunaz bakarrik ohartu nahi baitzuen. Entzuna zien houyhnhnm begiluze batzuei abeltalde gehienetan zegoela agintari moduko yahoo bat (gure artean ere parkeetan

orein nagusi edo buruzagi bat gehienetan egon ohi den bezala), gainerakoak baino gorputzez *zatarra*goa eta *jarreraz maltzurra*goa zena beti. Buruzagi honek *bera bezalakoxe* kuttun bat izaten zuela sarri, *ugazabari hankak eta atzealdea miatzatu eta hari yahoo emeak tegira eramatea zuelarik* bere eginkizuna; eta honengatik, noizean behin astaki-puska bat ematen ziria saritzat. Kuttun hau talde osoak gorrotatzen du, eta beraz, bere burua babestearren, *buruzagiagandik hurbil* egoten da beti. Bere postuan egon ohi da okerragoren bat aurkitzen duten arte; baina kargutik botatzen duten une berean, ondorengo —barruti hartako yahoo guztien, gazte eta zahar, at eta emeen— buru dela, denak bat egin da etorri eta kaka egiten diote gainera, burutik oinetaraino. Baina gure *gorte* eta *faboritoei* eta *gubernuko ministroei* zenbateraino izan zitekeen hau aplikagarria, neuk erabakiko nuela hobeto esan zuen ugazabak.

Ez nintzen ausartu aieru maltzur honi erantzuten, ehiza-txakur arrunt baten zolitasunaren behetik uzten baitzuen giza adimena, zakurrak bai baitu aski bereizmen *taldeko trebeenaren*

ulua bereizi eta hari jarraitzeko, inoiz huts egin gabe.

Yahooek bazituztela tasun azpimarragarri batzuk esan zidan ugazabak, giza espezieari buruz esan nizkionetan ez zizkidanak aipatzen entzun, edo oso azaletik bestela; animalia haiek, beste abere batzuek bezalaxe, beren emeak komunean zituztela esan zuen, baina gauza batean ezberdin zirela, alegia, yahoo emeak, ernari zegoen bitartean ere, onartu egiten zuela arra eta hauek, elkarren artean bezain basati haserretzen eta borrokatzen zirela emeekin. Bi jokaera hauek hain aberekeria zital handia erakusten zuten, sekula ez zela beste izaki sentikorrik hartaraino iritsi.

Yahooen beste gauza harrigarri bat haren-tzat, satsukeria eta zikinkeriarako joera biaz zen, gainerako animalia guztiengan garbitasunerako berezko joera zegoela zirudien arren. Lehenengo bi akusazioak oso pozik utzi nituen pasatzen erantzunik gabe, ez bainuen haietaz hitzik neure espeziekoen defentsan esateko, bestela, neure joeragatik, esango nukeen zalantzarik gabe. Baina azken puntuan egozten zitzaion

berezitasunaz erraz mintzatu ahal izango nintzatekeen giza espeziearen alde *txerririk* egon izan balitz herrialde hartan (baina ez zegoen, zoritxarrez); zeren eta, yahoook baino lauhazkako gozoagoak badira ere, ezin dute, nire iritzi apa-lean, garbiagoak direnik bidezki uste izan; eta horrela aitortuko zukeen jaun ohoragarri hark ere, ikusi ahal izan balu jateko duten era nazkagarria, eta lokatzetan iraulkatu eta lo egiteko ohitura.

Bestalde, bere morroiek hainbat yahooren-gan aurkitutako kualitate bat ere aipatu zuen ugazabak, berarentzat guztiz ulergaitza zena. Esan zuen, batzuetan baztertxo batera erretiratzeko kasketaldia izaten zuela yahoook, etzan eta uluka eta orroka, hurbiltzen zitzaizkion guztiak uxatuz egoten zela, nahiz eta gazte eta gizona izan eta ez egon ez janari ez edari faltan; ezin izaten zutela morroiek imajinatu zerk atsekabetzen zuen hala. Eta aurkitzen zuten sendabide bakarra lana gogor eragitea izaten zela, orduan beti-beti etortzen omen zelarik bere onera. Isilik geratu nintzen, neure espeziekoen alde egitearren; halere, argi eta garbi ikus nitzakeen hartan

esplinenaren benetako haziak, *alferrak*, *luxuzaleak* eta *aberatsak* bakarrik hartzen dituenaren menpean, zeintzuk erregimen berdina eramatera behartuko balituzte, ziurtatuko bainuke nik berorien sendaketa.

Jaun ohoragarri hark ikusia zuen gainera yahoo emea muino edo zuhaixka atzean sarri egoten zela pasatzen ziren at gazteei begira eta, orduan, azaldu eta ezkutatu egiten zela, keinu eta imintzio bitxi asko eginez, halakoetan igartzeko zelarik *usain higuin garria* botatzen zuela; eta arren bat hurbiltzen zenean, poliki-poliki alde egiten zuela emeak, sarri atzerantz begiratu eta beldur-plantak eginez, leku egokiren bateraino joaten zelarik lasterka, jakinean arrak haraino jarraituko ziola.

Beste batzuetan, eme arrotzen bat etortzen bazen haien artera, sexu bereko hiruzpalauk inguratu, ongi begiratu, txortxor jardun, irribarre egin eta goitik behera usaindu ondoren, bizkar ematen ziotela mesprezua eta destaina adierazteko moduko keinuak eginez.

Agian ugazabak leundu egingo zituen pixka bat gogoeta hauek, berak ikusitakotik edo beste

batzuek esandakotik atera zituenak; halere, ezin nuen nik harridura eta atsekabe bizirik gabe entzun *lizunkeria*, *irtirinkeria*, *laido* eta *esame-sen* hastapenak berez eta senez zeudela emakumearengan ezarriak.

Ugazabak, gure artean hain ohikoak diren naturaren kontrako bi sexuen gurari horiez akusatuko zituela yahoak espero nuen etengabe. Baina dirudienez Natura ez da hain maistra tre-bea izan, eta atsegin sofistikatu hauek artearen eta adimenaren emaitzak dira guztiz, munduaren gure partean.

8. KAPITULUA

Yahoei buruzko zenbait xehetasun kontatzen du autoreak. Houyhnhnmen bertute handiak. Haien gazteriaren hezkuntza eta ariketak. Haien Batzar nagusia.

Ugazabak ahal izango zuen baino hobeto ezagutzen nuelakoan nik giza izaera, erraza izan zen niretzat hark yahooen izaerari buruz esandakoa neuri eta neure erkideei aplikatzea, eta neuk behaketa eginez are gauza gehiago aurkituko nuela pentsatu nuen. Beraz, sarri erregutzen nion jaun ohoragarri hari auzoteriako yahoo taldeen artera joaten uzteko, beti onartzen zidalarik bihotz zabalki, oso konbentziturik baitzegoen abere haienganako nuen gorrotoak ez zuela utziko galbidera nintzaten; eta jaun ohoragarri hark bere morroi bati, oso zintzo eta jatorra zen moxal beilegi indartsu bati, agindu zion nire zaintzaile izateko, haren babesik gabe ez nintzelarik halako abenturetara ausartuko. Zeren eta,

esan baitiot jadanik irakurleari zenbateraino gogaitarazi ninduten animalia higuingarri haiek lehenengoz aurkitu nindutenean. Geroztik, ozta-ozta libratu nintzen haien atzaparretan jaustetik hiruzpalau alditan, sastakairik gabe pixka bat urrundu bainintzen oharkabean. Eta badut arrazoirik pentsatzeko beren espeziekoa nintzela pentsatzen zutela nolabait, neuk ere sarri bultzatzen nituelarik horretara, mahukak jaso eta besoak eta bularra agerian uzten bainizkien, babeslea neurekin zegoenean. Honelakoetan, ausartu beste hurbiltzen ziren, eta tximinoak bezala imitatzen zituzten nire ekintzak, baina gorroto handia erakutsiz betiere, hezitako *bele* bat kapela eta galtzerdiekin ikustean, bere espezieko basatiek pertsegitzen duten bezala haien artera joaten bada.

Arintasun miragarria dute txikitatik; halere, hiru urteko ar gazte bat harrapatu nuen behin, eta lasaitzen ote zen saiatu nintzen samurtasun guztiz; baina hain bortizki hasi zenez deabrukume hura txilioka, atzaparka eta horzka, jaregin beharra izan nuen, eta eskerrak gainera, zeren eta, haren zaratak zaharragoen talde oso bat

erakarri baitzuen gure ingurura, baina kumea onik zegoela ikustean (korrika abiatu baitzen), eta nire moxal beilegia ondoan zegoenez, ez ziren ausartu guregana hurbiltzen. Animaliatxo gaztearen haragiak oso usain txarra zuela ohar-tu nintzen, eta hats hura *erbinudearen* eta *aze-riarenaren* artekoa bezalakoa zen, baina askoz desatseginagoa. Beste xehetasun bat ahaztu zait (eta agian izango nuen irakurlearen barka-mena, zeharo kendu banu), alegia, piztitxo higuigarri hura esku artean nuen bitartean, bere gorotz nazkagarria, substantzia likido horix-ka bat, egin zidala jantzi gainera; baina zorionez bazen erreka bat han inguruan, eta ahal bezain ongi garbitu nuen bertan, nahiz eta ez nintzen ausartu ugazabaren aurrera agertzen, behar hainbat aireztatu arte.

Ikusi ahal izan nuenez, badirudi, animalia guztien artean, yahook direla ezer ikasteko gai-tasun gutxien dutenak, ezin direlarik iritsi zamak eramane edo garraiatzera baino gehiagora. Nire iritziz, akats hau haien izaera gaizto eta bihurri-tik sortzen da batez ere; zeren eta, maltzur, amarrutsu, traidore eta mendekatiak baitira.

Indartsu eta gogorak dira, baina izpiritu koldarrekoak eta beraz lotsagabe, doilor eta ankerrak. At nahiz eme *ilegorriak* gainerakoak baino lizun eta gaiztoagoak direla nabari da, nahiz eta askoz indartsuago eta biziagoak ere badiren.

Etiket oso urruti ez dauden estalpeetan edukitzen dituzte houyhnhnmek egunero erabiltzeko diren yahoak; baina gainerakoak kanpora bidaltzen dituzte, non sustraiak atera, belarmota ezberdinak jan, haratustela bilatu edo batzuetan erbinudeak eta *luhimuhs*-ak (basa-arratoi mota bat) harrapatzen dituzten, oso gogotsu irensten dituztelarik. Muino-hegaletan atzazalez zulo sakonak egiten erakutsi die Naturak, non sartzen den bakoitza berean; emeen zuloak bakarrik dira handiagoak, bizpahiru kume edukitzeko adinakoak.

Igelek bezala egiten dute igerian txikitatik eta gai dira urpean luzaro egoteko, sarri harrapatzen dituztelarik arrainak, gero emeek etxera eramane dituzten kumeentzat. Honetaz abentura bitxi bat kontatzea irakurleak barkatuko didala espero dut.

Egun batez kanpoan nenbilela nire babeslearekin, moxal beilegiarekin alegia, eta izugarri egun beroa zenez, inguruko ibai batean bainatzen uzteko erregutu nion. Onartu egin zuen, eta berehala larrugorritan jarri eta poliki-poliki uretara sartu nintzen. Gertatu zen zapalda atzean zegoen yahoo eme gazte batek dena ikusi eta, moxalak eta biok suposatu genuenez, irrits biziarrapaladan etorri eta uretara salto egin zuela bainatzen ari nintzen lekutik bosten bat metrora. Sekula ez dut bizitzan halako izu-ikararik izan; moxala larrean ari zen pixka bat urrutirago, ezer txarrik susmatu gabe. Guztiz neurri gabeki besarkatu ninduen emeak; ahal bezain ozen hasi nintzen orroka, eta moxala ziztu bizian etorri zitzaidan; orduan, harrapakinari jaregin zion oso gogoz kontra eta beste aldeko ibaiertze-
ra joan zen, han egon zelarik begira-begira eta uluka nik arropak jantzi bitarte guztian.

Hau denbora-pasa barregarri izan zen ugazaba eta haren etxekoentzat, baita ere iraingarri niretzat. Zeren eta, orduan ezin bainuen luzarago ukatu benetako yahoo nintzela gorputz-adar eta itxura osoan, emeek ere, beren espeziekoa

banintz bezalaxe, berezko joera baitzuten nireganako; gainera, animalia haren ilea ez zen gorria (nolabaiteko aitzakia izan zitekeena irrits ezohiko samarrarentzat), baizik eta basarana bezain beltza, eta aurpegia ere ez zuen bere espezieko gainerakoena bezain nazkagarria, zeren eta, nire ustez, ez baitzituen hamaika urte baino gehiago izango.

Hiru urtez bizi ondoren herrialde hartan, nik ere, beste bidaiari batzuek ohi bezala, hango biztanleen usadio eta ohiturei buruz zerbait esatea esperoko duela irakurleak pentsatzen dut, izan ere, hauek aztertzea izan baitzen nire eginkizun nagusia.

Bertute guztietarako joera orokorraz hornitu dituenek Naturak houyhnhnm zintzo haiek, eta ezertxo ere ez dakitenez izaki arrazional bategan zer den gaizkia, *adimena* lantzea eta guztiz beronen gobernupean egotea da haien goiburu nagusia. Eta *adimena* ez da haientzat guretzat bezala zerbait eztabaidagarria, auzigai baten bi alderdietan argudiatzen baitugu onargarriro; baizik eta berehala betetzen zaituena uste osoz; horrelakoa izan behar duelarik grinaz eta intere-

sez nahasi, ilundu edo kolorgetua ez dagoenean. *Iritzi* hitzaren esanahia edo arazo bat eztabaidagai izan zitekeela ugazabari ulertaraztea oso zail gertatu zitzaidala gogoratzen dut; zeren eta, ziur gaudenean bakarrik baietsi edo ukatu behar dugula zerbait erakusten baitigu *adimenak*, eta ezin dugu ez bata eta ez bestea egin ezagutzen dugunaz kanpo. Beraz, proposizio faltsu edo zalantzazkoei buruzko polemikak, kalapitak, eztabaidak eta dogmakeriak houyhnhnmen artean gaitz ezezagunak dira. Era berean, gure *natur filosofiako* sistema ezberdinak azaltzen nizkionean, barre egiten zuen, *adimendun* omen zen izaki batek beste jende baten aieruen jakintzan oinarrituta ebaluatzen zuelako bere burua, edo beste zenbait gauzatan non jakintza hura, egiazkoa izatekotan ere, ezin zen erabilgarri izan. Honetan guztiz bat zetorren Sokratesen sentimenduekin, Platonek dioenaren arabera; eta filosofoen printze hari egin niezaiokeen ohererik handiena bezala aipatzen dut hau. Ordudanik sarri hausnartu izan dut doktrina hark zer nolako suntsiketa egingo lukeen Europako libu-

rutegietan, eta osperako zenbat bide itxiko lituzkeen jende ikasiaren artean.

Adiskidetasuna eta onginahia dira bi bertute nagusiak houyhnhnmen artean, eta hauek ez dira banako berezientzako bakarrik, baizik eta arraza osoarentzat oro har. Zeren eta, urrutieneko arrotza hurbileneko auzotarra bezalaxe hartzen baitute, eta noranahi doalarik ere bere etxean bezalaxe sentitzen da. *Modu onak* eta *gizalegea* goren mailan betetzen dituzte, baina ez dakite ezertxo ere *zeremoniez*. Ez dira melingak izaten beren potto eta pottokekin, baizik eta hauen heziketan jartzen duten ardura *adimena*-ren araberakoa izaten da guztiz. Eta ugazabak bere eta auzokoen kumeenganako maitasun berdina zuela ohartu nintzen. Naturak espezie osoa maitatzen erakusten diela esaten dute, eta *adimenak* bakarrik egiten duela pertsona-bereizketa, bertute-maila handiagoa dutenean.

Houyhnhnm-amek sexu bakoitzeko kume bat izan badute, ez dute luzaroago beren senarrekin jarraitzen, ez badute behintzat kumeren bat istri-puz galtzen, gutxitan gertatzen den gauza; baina honelako kasuetan, berriro elkartzen dira.

Edo honelako istripuren bat gertatzen bazaio emaztea ernalgarri ez duenen bati, beste bikote-
ren batek bere pottoko bat ematen dio, eta
hauek berriro elkarbatzen dira ama ernalduta
geratu arte. Ardura hauek beharrezkoak dira biz-
tanle larregi egon ez dadin herrialde hartan.
Baina houyhnhnmen arteko behe-mailakoek,
zerbitzari izatekoek, ez dute hain muga zorrotzik
kontu honetan; sexu bakoitzeko hiru ere sor-
ditzakete, familia nobleen zerbitzari izateko.

Ezkontzak egiterakoan arreta handiz aukera-
tzen dituzte koloreak, nahasketa desatsegini-
sor ez dezaten arrazan. Arraren kasuan *indarra*
baloratzen da batez ere, eta *xarma* emearen-
tzat, eta ez *maitasuna* hartzen delako kontutan,
baizik eta arraza honda ez dadin; eta gertatzen
bada emea bereziki *indartsua* izatea, *xarma* har-
tzen da kontutan senarra aukeratzeko. Gorteia-
tzea, amodioa, opariak, alarguntasunak eta
ezkonsariak ez dira haien buruetan sartzen, eta
beren hizkuntzan hitzik ere ez dute horiek adie-
razteko. Gurasoek eta lagunek horrela erabaki
dutelako bakarrik elkar ezagutu eta batzen dira
bikote gazteak; egunero ikusten dute horixe egi-

ten eta izaki arrazional batek egin beharrezkotzat jotzen dute. Baina haien artean sekula ez da ezkontza-hausteaz edo beste horrelako lizunkeriez ezer entzuten; eta topatzen dituzten beren espezieko beste batzuingana agertzen duten adiskidetasun eta onginahi berberean igarotzen du bizitza bikote ezkonduak, jelsia, eztikeria, haserre edo atsekaberik gabe.

Ar nahiz eme gazteen heziketarako duten metodoa zoragarria da, eta benetan merezi du guk imitatzea. Hamazortzi urte bete arte, ez zaie *olo*-ale bat ere dastatzen uzten egun jakin batzuetan izan ezik; ezta *esnerik* ere, oso gutxitan izan ezik; eta udan bi ordu ematen dituzte goizean larrean, eta beste horrenbeste arratsean, aitamek ere berdin egiten dutelarik; baina zerbitzarietara ez zaie uzten denbora horren erdia baino, eta dagokien belarraren parte handi bat etxera ekartzen zaie, eta ordurik egokienetan jaten dute, lanetik libratzeko unerik onenetan.

Neurritasuna, lan-zaletasuna, ariketa eta *garbitasuna* dira sexu bateko nahiz besteko gazteei berdin irakasten zaiena; eta nire ugazabaren ustez, astakeria handia da guk emeei eta arrei

heziketa ezberdina ematea, etxeko zenbait egin-
kizuni dagokionean izan ezik; eta hala bada,
hark zuzen ohartarazi bezala, gure biztanleria-
ren erdiak umeak mundura ekartzeko baino ez
du balio, eta hain ezgai diren animalien esku
gure umeen zainketa uztea, zabarkeriaren are
froga handiagoa zela esaten zuen.

Baina houyhnhnmek indar, bizkortasun eta
gogortasunean entrenatzen dute beren gazteria,
muino aldapatsuetan gora eta behera edo zoru
gogor eta harritsueta lasterketetan aritzera
behartuz, eta izerditan blai jartzen direnean
denak, saltoan istil edo ibaian belarrietaraino
sartzeko agintzen zaie. Lau aldiz urtean zenbait
eskualdetako gazteak elkartu egiten dira korrika
eta saltoka duten trebetasuna erakutsi eta indar
edo bizkortasunezko beste proba batzuk egite-
ko, eta garaileen saria beraien ohorez egindako
kanta bat izaten da. Jaialdi honetan, yahoo talde
bat eramaten dute morroiek zelaira, belar
onduz, oloz eta esnez zamatuta, dena
houyhnhnmen janaritarako; eta gero, berehala
itzularazten dituzte animalia hauek, bildutakoak
zarataz gogaitaraziko ote dituzten beldurrez.

Lau urtean behin, *udaberriko ekinozioan*, nazio osoko Ordezkarien Kontseilua egiten da, gure etxetik hogeit mila ingurura elkartzeko direlarik lautada batean, bospasei egunerako. Han eskualde ezberdinetako egoera eta kondizioen berri izaten dute, belar ondu edo olo, eta behi edo yahoo gehiegi ala gutxiegi duten. Eta hauek baten batean eskas badabilta (gutxitan gertatzen dena) berehalaxe hornitzen dira guztien adostasun eta laguntzaz. Kumeen erregulapena ere han egiten da; adibidez, houbhnhnm batek bi at baldin baditu, bat trukatu egiten du bi eme dituenarekin; eta kumeren bat istripuz akabatu bada eta ama ez badago jadanik ernalgarri, galdutakoaren ordezkoko beste bat inguruko zein familiak sortu behar duen erabakitzen da.

9. KAPITULUA

*Eztabaida handia houyhnhnmen
Batzarrean, eta nola erabakitzen
den. Houyhnhnmen kultura. Beraien
eraikuntzak. Hiletak. Hizkuntzaren
hutsarteak.*

Batzar handi hauetako bat neu han nengoen bitartean egin zen, handik irten baino hiru hilabete lehenago, gure eskualdeko ordezkari izan zelarik ugazaba. Kontseilu hartan beraien eztabaida zahar bati ekin zioten, herrialde hartan inoiz izandako eztabaida bakarrari, egia esateko; eta itzuli zenean, zehatz eman zidan ugazabak beraren berri.

Ea yahooak lurraren gainetik garbitu behar zituzten ala ez zen eztabaidagaia. Alde zegoen *batzarkide* batek indar eta pisu handiko zenbait argudio eskaini zuen, yahooak, Naturak inoiz sortu dituen animaliarik zikin, kaltegarri eta desitxuratuenak ez ezik, bihurri eta hezkaitz, petral eta maltzurrenak ere bazirela alegatuz;

houyhnhnmen behien errapatetik edoskitzen zute-
la ezkutuan, katuak akabatu eta jaten, belarra
eta oloa zapaltzen eta, ez bazituzten etengabe
zaintzen, beste milaka gehiegikeria egiten zute-
la. Tradizio orokor bat aipatu zuen, alegia, yaho-
oak ez zirela betidanik herrialde hartan egon,
baizik eta, urte asko zirela, animalia haietako bi
mendian azaldu omen ziren batera, inoiz jakin ez
zelarik eguzkiaren beroak buztin eta lokatz uste-
letik sortu zituen, edo itsasoko lohi eta aparreta-
tik. Yahoo haiek kumeak izan zituztela, eta den-
bora laburrean haien ondorengoak nazio osoa
inbaditu eta hondatzeko beste ugaldu zirela.
Gaitz hartatik libratzeko, houyhnhnmek harrapa-
keta orokorra egin zutela, azkenean talde osoa
inguratu zutelarik; eta zaharrenak suntsituz,
houyhnhnm bakoitzak bi gazte gorde zituela
tegian, eta berez hain basatia den animalia bate-
kin lor litekeen neurriraino hezi zituela, lorreta
eta garraiorako erabiliz. Zirudienez, egia hutsa
zela tradizio hau, eta izaki haiek ezin zirela *ylnh-
niamshy* (*jatorriz bertakoak*) izan, houyhnhnmek
eta gainerako animalia guztiek zieten gorroto
biziagatik; zeren eta, gorroto hau, aski merezia

bazuten ere beren izaera maltzurragatik, sekula ez zela hain goren mailara iritsiko *jatorriz bertakoak* izan balira, edo aspaldi suntsituko zituztela bestela. Zentzugabea izan zela bertakoak, yahooen zerbitzuaz baliatzeko gogoia izan zutelarik, *astoen* hazkuntzaz ez arduratzea, animalia erakargarriak, erraz zaintzekoak, otzan eta mantsoagoak, inolako usain txarrik gabeak eta lanerako nahikoa indartsuak baitziren, nahiz eta besteak baino gutxiago izan gorputz-zalutasunez; eta astoen aharrantza ez izan arren soinu atsegina, yahooen ulu ikaragarriak baino askoz hobea zela.

Beste zenbaitek ere antzerako iritziak azaldu zituen, eta nire ugazabak konponbide bat proposatu zion batzarrari, ideia neuregandik hartuta, egia esateko. Ontzat eman zuen aurrez hitz egindako *batzarkide ohoragarriak* aipaturiko tradizioa, eta beren artean lehenengoz ikusi omen zituzten bi yahoo haiek itsasoz iritsi zirela baieztatu zuen; lehorrera heltzean, eta lagunek abandonatu egin zituztelarik, mendietara jo zutela, eta poliki-poliki endekatuz joan zirenez, bi haien jatorrizko herrialdean geratutako kideak baino

askoz basatiago bihurtu zirela denboraren poderioz. Baieztapen honen arrazoa berak orduan zeukan yahoo miragarri batengan omen zetzan (nitaz ari zen), gehientzat entzunez ezaguna, eta askok ikusia ere bai. Lehenengo aldiz nola ikusi ninduen kontatu zien orduan, beste animalia batzuen larru eta ilezko osakin artifizialez guztiz estalia nuelarik gorputza; neure hizkuntza berezian mintzatzen nintzela eta oso ongi ikasi nuela beraiena; hara eraman ninduten gorabeherak azaldu nizkiola; estalkirik gabe ikusi nindueanean, yahoo hutsa nintzela oso-osorik, kolore zuriagoa, ile gutxiago eta atzazal motzagoak baldin banituen ere. Gaineratu zuen, nola konbentzitu nahi izan nuen, neure sorterrian eta beste batzuetan yahooak zirela animalia arrazional eta nagusiak, houyhnhnmak zirelarik zerbitzariak; niregan yahooen tasun guztiak nabaritzen zituela, adimen-izpiren batez pixka bat zibilizatuagoa izan arren, baina halere houyhnhnm arrazakoen azpitik nengoela honetan, beren herriko yahooak nire azpitik zeuden bezalaxe; beste gauza batzuen artean, houyhnhnmak, gazteak ziren bitartean, *irentzeko* genuen ohitura

aipatu nuela, otzanago bihurtzeko egiten omen zelarik; ebaketa erraza eta arriskugabea zela; ez dela lotsagarria animaliangandik jakinduria ikas-tea, lan-zaletasuna inurriak irakasten baitu eta eraikuntza enarak (horrela itzultzen dut *lyhannh* hitza, nahiz eta askoz hegazti handiagoa izan). Asmakizun hau bertako yahoo gazteenekin erabil zitekeela, eta honela, atsegingarri eta lanerako egokiago bihurtzeaz gain, mende baten buruan espezie osoa desagertuko zela, inor akabatu gabe. Bitartean, asto-hazkuntzara dedikatzeko *aholkatu* behar litzaiekeela houyhnhnmei, alde guztietatik abere baliotsuagoak izateaz gain, bai baitute abantaila hau ere, hots, bost urterekin egokiak direla lanerako, eta besteak hamabira arte ez.

Hau izan zen Kontseilu nagusian gertatutakoaz orduan ugazabak kontatu nahi izan zidan guztia. Baina neuri zegokidan xehetasun bat gordezteari ederretsi zion, beraren zorigaiztoko eragina laster sentitu nuelarik irakurleak bere garaian jakingo duen bezala, eta haren ondoriozkoak dira nire bizitzako geroko ezbeharrak guztiak.

Houyhnhnmek ez dute letrarik, eta beraz haien jakintza tradiziozkoa da. Baina hain ongi elkartua, bertute guztietara berez emana, guztiz adimenak zuzendua eta beste nazioekin traturik gabea den jendearen artean garrantzizko gertakari gutxi izaten denez, historikoa dena erraz gordetzen dute oroimenak larregi bete gabe. Aipatua dut jadanik ez daudela eritasunen menpe eta ez dutela, beraz, medikuen beharrik. Halere, belarrez egindako sendagai paregabeak dituzte halabeharrezko makadurak eta harri zorrotzez apatxeko trabatoki edo axurtunetan egindako ebakiak osatzeko, baita gorputzeko beste aldeetan egindako lesio eta minetarako ere.

Eguzkiaren eta ilargiaren biraketaz kalkulatzen dute urtea, baina ez dute astetan azpiziztzen. Aski ongi ezagutzen dituzte bi argizagi horien mugimenduak, baita ulertzen ere *eklipseen* izaera; eta hau da haien *astronomiaren* aurrerapen handiena.

Poesigintzan onartu beharra dago gainerako bizidun guztiak baino hobeak direla; haien konparazioen doitasuna eta xehetasuna, baita haien

deskribapenen zehaztasuna ere benetan imitazioak dira. Ugari dira bi hauetakoak haien bertsoetan, eta edukiez, adiskidetasun eta onginahiari buruzko argibide bikainak edo lasterketa eta beste ariketa fisikoetan garaile gertatutakoen gorespenak izaten dira gehienetan. Beraien eraikinak, oso traukil eta xumeak izan arren, ez dira desegokiak, baizik eta ongi pentsatuak hotz-beroaren eragozpen guztietatik babesteko. Badute zuhaitz-mota bat, berrogei urterekin sustriak maskaldu eta lehen ekaitzaz jausten dena; zuzen-zuzen hazten dira, eta harri zorrotzez (houyhnhnmek ez baitute burdinaren erabilera ezagutzen) taketei bezala punta atera ondoren, zoruan sartzen dituzte tente hogeita bosten bat zentimetroko tartearaz eta gero, olo-lastoa edo batzuetan gereta artekatzen dute haietan. Era berean egiten dute sabaia, baita atea ere.

Houyhnhnmek, aurreko hanketako trabatoki eta apatxaren arteko hutsarteak erabiltzen dituzte guk eskuak bezala, eta nik hasieran imajina nezakeen baino trebetasun handiagoz gainera. Ikusia dut geure familiako behor zuri bat orratzean haria sartzen giltzadura horrekin (orra-

tza neuk utzi niolarik horretarakoxe). Behiak eraitsi, oloa segatu eta eskuak eskatzen dituzten lan guztiak era berean egiten dituzte. Sukarri gogor bat bezalako ere badute, beste harri batzuen aurka zorroztu ondoren, tresnak egiten dituztelarik, taket, aizkora eta mailutzat erabiliz. Halaber, sukarri horiez egindako lanabesez eba-kitzen dute belar ondua eta segatzen oloa, han berez etortzen delarik zenbait landatan. Azauak yahooek garraiatzen dituzte gurdietan etxera, eta estalpe batzuetan morroiek zapaltzen dituzte alea banatzeko, hau biltegietan gordetzen dutelarik. Buztinezko eta zurezko ontzi trauskil samar batzuk egiten dituzte, lehenengoak eguzkitan erretzen dituztelarik.

Istripurik izaten ez badute, zaharrez bakarrik hiltzen dira eta aurki litezkeen lekurik ezkutue-netan lurperatzen dituzte, hildakoen alde egin beharraz lagunek eta ahaideek ez pozik eta ez atsekaberik ez dutelarik adierazten; eta hiltzen ari denak ere ez du auzokoren bat ikusi ondoren etxera itzultzera doanak baino nahigabe handia-gorik azaltzen. Gogoan dut, behin, garrantzizko arazoren bat zela eta, lagun bat bere etxekoekin

nire ugazabarenera etortzekotan geratu zela; eta etorri behar zuen egunean, oso berandu iritsi zelarik etxekoandrea bere bi umeekin, barkatzeko eskatu zuela bi arrazoirengatik: lehenengo, berak esan zuen bezala, senarrari goiz hartantxe egokitu zitzaiolako *lhnuwnh*. Hitza oso adierazkorra da haien hizkuntzan baina ez itzultzeko erraza; *bere lehen amarengana itzuli* esan nahi du. Eta bera lehenago ez iritsi izanaren zergatia zera zen, goizean berandu hil zelarik senarra, luzez egon zela morroiekin hizketan gorpua uzteko leku egokiari buruz; eta gure artean gainerakoak bezain alai portatzen zela ohartu nintzen. Hiru hilabete geroago hil zen bera.

Oro bar, hirurogeita hamar edo hirurogeita hamabost urtera arte bizi ohi dira, gutxitan laurogeira arte; hil baino aste batzuk lehenago poliki-poliki gainbeheran hasten dira, baina minik gabe. Aldi honetan lagunen bisita asko izaten dute, ezin baitira beraiek kanpora irten ohi bezalako erraztasun eta atseginez. Halere, hil baino hamarren bat egun lehenago, gutxi izaten direlarik hauek zenbatzen ez dituztenak, hurbileko auzotarrak ikustera joaten dira lehen egindako

bisiten trukean, lera egokietan yahoek garraiatzen dituztelarik, ibilgailu honetaz baliatuz ez bakarrik kasu honetan, baita zahartzen direnean, bidaia luzeetan edo istripuren batez herrenka geratzean ere. Eta horrela, hiltzearduden houyhnhnmek bisitak itzultzen dituztenean, handikiro agurtzen dituzte lagunak, herrialdeko eskualde urrutiren batera balihoaz bezala bizitzaren gainerakoa bertan pasatzeko asmoz.

Ez dakit mereziko duen ohartaraztea, houyhnhnmek ez dutela beren hizkuntzan ezer *txarrik* adierazteko hitzik, yahooen itsuskeria edo kualitate txarretatik hartutako maileguak izan ezik. Honela bada, morroi baten zentzuga-bekeria, ume baten hutsegitea, hankan ebakia egiten dien harria, etengabeko eguraldi txar eta nahasia eta antzerako gauzak adierazteko bakoitzari yahoo epitetoa eransten diote. Esate baterako, *hnhm yahoo*, *whnaholm yahoo*, *ynlhmna-wihlma yahoo*, eta gaizki-asmaturiko etxea, *ynholmhnmrohlnw yahoo*.

Atsegin handiz luzatuko nintzateke herri bikain haren ohitura eta bertuteei buruz, baina

laster beste liburu bat argitaratuko dudanez gai honetaz, jo beza hara irakurleak. Eta bitartean, neure ezbehar tristearen berri emango dut.

10. KAPITULUA

Autorearen etxe-burubidea eta bizi-modu zoriontsua houyhnhnmen artean. Haiekiko harremanen ondorioz, onbidean egindako hobekuntza handia. Elkarrizketak. Herrialde hartatik alde egin behar duela adierazten dio ugazabak autoreari. Zorabiatu egiten da saminez, baina etsipenez hartzen. Kanoa batasmatu eta morroi lagun baten laguntzaz egiten du, eta itsasoratu egiten galdu gordean.

Etxeko burubidetxoa ezin hobeki antolatua nuen. Hangoak bezalako bizitegi bat etxetik sei bat metrora presta ziezadatela agindu zuen ugazabak, haren hormak eta zorua buztinez estali nituelarik, neuk asmatu ihi-zerriez estalita. Kalamua jo erazi nuen, han berez etortzen dena, eta harekin lastaira moduko bat egin nuen; hau zenbait txoriren lumaz bete nuen, txoriak,

yahoo-ilez egindako lakioz harrapatuak, janari aparta zirelarik. Bi aulki ere landu nituen ganibetaz, moxal beilegiak lagundu zidalarik eginkizunik zakarren eta neketsuenean. Jantziak higatuta zarpailtsu geratu zitzaizkidanean, beste batzuk egin nituen untxien eta tamaina bertsuko beste animalia eder baten larruz, azken hauek *nnuhnoh* deituak, biloxka finez estalia zutelarik larrua. Hauez galtzerdi aski dezenteak ere egin nituen. Arbola bati moztutako zuraz zolatu nituen oinetakoak eta gaineko larrura moldatu, hau ere higatu zenean, beronen orde, eguzkitan lehortutako yahoo-larrua jarri nuelarik. Sarritan hartzen nuen ezta barne-hutsik zeuden zuhaitzetatik, uraz nahastu eta ogiarekin jaten nuelarik. Beste inork ezin zituen bi esaldi hauek gehiago egiaztatu, alegia, *oso erraz asebetetzen dela natura, eta beharra dela asmakizunen sortzailea*. Gorputzeko osasun eta barneko bake bete-beteak nituen; ez nuen lagunen traiziorik edo aldakorkeriarik jasaten, ezta ezkutuko edo agiriko etsaien kalterik ere. Ez nuen eroskeria, koipekeria edo luparkeriatan ibiltzeko aukerarik handikiren baten edo haren faboritoaren ederrik

lortzearren. Ez nuen babesik behar iruzurkeria edo zapalkuntzaren aurka; han ez zegoen ez medikurik gorputza hondatzeko, ezta legegizonik aberastasunak xahutzeko; ezta salataririk nire hitz eta ekintzak zelatatzeko edo diruagatik nire kontrako akusazioak faltsuztatzeko; han ez zegoen murrikari, maiseatzaile, gaitzesale, litxarrerero, bidelapur, etxelapur, letratu, lupeme, bufoi, jokozale, politikari, orojakile, ipurterre, gogaikarri, aurkagile, bortxatzaile, hiltzaile, atrakatzaile edo sasi-jakintsurik; ez zegoen alderdi edo taldeetako buruzagi eta jarraitzailerik; ezta biziora eragiten zuenik sedukzioz edo eredu txarrez; ez zegoen ziegarik, aizkorarik, urka-bilurrik, zigor-haberik edo urkaberik; ez zegoen dendari edo mekanikari zizakaririk; ezta harrokeria, handikeria edo arrandikeriarik; ezta finolari, matoi, mozkor, emagaldutari edo sifilisik; ezta emazte zaratatsu, lizun eta garestirik; ezta sasi-maisu inozo eta harroputzik; ezta lagun astun, menperatzaile, liskarti, zaratatsu, ahozabal, hutsal, harro eta biraolaririk; ezta beren bizioen merituz lohitik irtendako lotsagaberik, edo bere bertuteengatik bertan jausitako aitonen seme-

rik; ezta jaun agurgarri, musikari, epaile edo dantza-maisurik ere.

Ugazaba bisitatzera edo berarekin bazkaltzera etorritako zenbait houyhnhnmekin egoten uzteko mesedea egin zidaten; halakoetan gelan egon eta haiek esaten zutena entzun nezan onartzen zuen jaun ohoragarri hark bihotz-zabal-ki. Sarritan niri galderak egin eta erantzunak hartzeari ere ongi irizten zioten berak eta berarekin zeudenek. Beste batzuei egiten zien bisitaldian ugazabarekin joateko ohorea ere izan nuen batzuetan. Sekula ez nintzen hitz egitera ausartzen, galdetutakoari erantzuteko izan ezik, eta orduan ere barne-damuz egiten nuen, neure burua hobetzeko denbora alferrik galtzea baitzen; baina zeharo liluraturik egoten nintzen elkarrizketa haietan entzule apal izateko aukeraz, non gauza onuragarriak baizik ez baitziren esaten, ahalik eta hitzik gutxien eta esanguratsuenez; halakoetan (jadanik esan dudan bezala) *egokitasunik* handienaz jokutzen zen, inolako zeremoniarik gabe; eta inork ez zuen hitz egiten bere buruari eta gainerakoei atsegina eman gabe; eta ez zen etenik, asperdurarik, suhartasunik

edo iritzi-ezberdintasunik egoten. Jendea bilduta dagoenean, isilaldi labur bat elkarrizketarako lagungarri izaten dela pentsatzen dute; hau egia zela ohartu nintzen; zeren eta, bitarte labur horietan, ideia berriak sortzen baitzitzaizkien buruan, elkarrizketari bizitasun handia ematen ziotelarik. Hizketagaiak gehienetan adiskidetasuna eta onginahia izaten dira, edo ordena eta ekonomia, batzuetan Naturaren ageriko lanak, edo antzinako ohiturak, bertutearen mugak, adimenaren arau zurrak, edo hurrengo Batzar Nagusian hartu beharreko erabakiren batzuk eta *poesigintzaren* bikaintasun ezberdinak sarritan. Zilegi izan bekit harrokeriarik gabe eranstea neure presentziak ere sarri ematen zuela hizketagaia, aukera izaten baitzuen ugazabak neure eta nire sorterriaren historia lagunei azaltzeko, eta honetaz atsegin izaten zuten guztiek luze mintzatzea giza espeziearentzat oso mesedegarri ez zen moduan; eta horregatik ez dut hemen errepikatuko han esaten zutena. Bakarrik, zilegi bekit esatea jaun ohoagarri hark, niretzat gauza harrigarria, hobeto ezagutzen bide zuela yahoo-en izaera nik neuk baino. Gure bizio eta txorake-

ria guztiez jarduten zuen eta sekula aipatu ez nizkion asko ere aurkitu zituen, bere herrialdeko yahoo bat adimen pixka batez zer-nolako gaitasunak zertzeko gai izan zitekeen suposatuz bakarrik; eta aski egiantz handiaz ondorioztatzen zuen zein izaki donge eta mesprezagarria izan behar duen.

Garbi aitortzen dut ikasia dudan baliozko guztia ugazabarengandik eta beraren eta lagunen hizketaldiak entzunez hartutako irakaspenen ondorio dela; harroago sentituko nintzatekeelarik haiei entzuteaz Europako batzarrik handien eta jakintsuenari aginduak emateaz baino. Biztanle haien indarra, lerdentasuna eta bizkortasuna miresten nituen; eta halako bertute-pilaketak hain pertsonaia maitagarrien baitan begirunerik handiena sortarazten zuen niregan. Egia esateko, hasieran ez nuen sentitzen yahooek eta gainerako animaliek haiengana duten berezko begirune hori, baizik eta poliki-poliki zertu zen niregan, imajinatu baino askoz bizkorrago, eta begirunezko maitasun eta esker onarekin nahastua zegoen, ni espezieko gainerakoengandik bereiztea onetsi zutelako.

Neure etxekoez, lagunez, erkideez edo giza arrazaz oro har oroitzen nintzenean, ziren bezala ikusten nituen, hots, yahooak gorputzez eta izaeraz, pixka bat zibilizatuagoak agian eta mintzamenaren dohainaren jabe, baina herrialde hartako neba-arrebek Naturak emandako neurrian soilik zituzten bizioak areagotu eta ugaltzeko bakarrik erabiltzen zutelarik gutarrek adimena. Laku edo iturriren batean neure irudia ikusten nuenean islatua, neure buruaren izuz eta nazkaz itzultzen nuen aurpegia, eta jasangarriagoa zitzaidan yahoo arrunt bat ikustea neure burua baino. Houyhnhnmekin izandako harremanarengatik eta liluraz miresten nituelako, haien ibilera eta keinuak imitatzen hasi nintzen, orain ohitura bihurtu zaidalarik, eta lagunek sarri esaten didate argi eta garbi, *zaldiak bezala ibiltzen naizela trostan*; halere, konplimendu handitzat hartzen dut hau; eta ez dut ukatuko houyhnhnmen ahots eta hizkera neureganatzen ditudala mintzatzerakoan eta horregatik barre egiten didatela, ez zaidalarik batere mingarri gertatzen.

Zoriontasun guzti honen erdian, bizitza osorako ezarria nengoela uste nuenean, goiz batez,

ohi baino pixka bat lehenago, beregana joateko agindu zidan ugazabak. Bere aurpegia ikustean pixka bat aztoratua zegoela ohartu nintzen, eta ez zekiela nola hasi hizketan. Isilaldi labur baten ostean, esan zidan ez zekiela nola hartuko nuen adierazi behar zidana; azken Batzar Nagusian, yahooen arazoa aztertu zenean, ordezkariak gaizki iritzi ziotela berak yahoo bat (nitaz ari zen) etxean edukitzeari houyhnhnm bezala eta ez animalia adimengabetzat. Jakina zela sarri hitz egiten zuela nirekin, nolabaiteko onura edo atsegina lortu ahal izango balu bezala niregandik; jokaera hura ez zetorrela bat Adimen edo Naturarekin, eta ez zela sekula halakorik entzun haien artean. Beraz, edo espezieko gainerakoak bezala erabiltzeko ni *aholkatzen* ziola Batzarrak, edo igerian sorterrira itzul nendin agindua emateko. Konponbide hauetako lehenari uko biribila eman ziotela inoiz ugazabaren edo beren etxean ikusia ninduten houyhnhnm guztiek; zeren eta, alegatzen omen zuten, adimen-aztarna batzuk banituenez, yahoo haien berezko gaiztakeriaz bat eginda, beldur izatekoa zela herrialdeko alde basotsu eta menditsuetara eramango ote nituen

eta, gero, gauzez houyhnhnmen ganadua suntsitzera ekarriko ote nituen taldeka, jangura handikoak baitziren berez eta lanerako gogogabeak.

Auzoteriako houyhnhnmek egunero Batzarren aholkua jarraitzera behartzen zutela gaineratu zuen ugazabak, ezin zuelarik luzaroago atzeratu. Zalantza zuen ea joan ahal izango ote nintzen igerian beste herrialderen batera, eta beraz, nik deskribatua nion ibilgailuaren antzeko zerbeit asma nezan nahi zuen, ni itsasoz eraman ahal izango ninduen, lan hartan bere eta auzokoen morroien laguntza izango nuelarik. Amaitzeko, bere aldetik bizitza osoan poz-pezik edukiko ninduela bere zerbitzura esan zidan, zenbait ohitura eta joera txarretatik sendatua nengoela konturatzen baitzen, neure izaera arruntagoaz ahal zen neurrian saiatzen nintzelarik houyhnhnmak imitatzen.

Azaldu beharra diot hemen irakurleari, Batzar Nagusiaren dekretua *hnhloayn* hitzaz adierazten dela herri hartan, *aholkua* esan nahi duelarik, eman nezakeen itzulpen zehatzenaz; zeren eta han ez baita ulertzen izaki adimendun bati *aginduak* ematerik, baizik eta gomendio edo *ahol-*

kuak bakarrik, ezin baitio inork adimenari desobeditu izaki arrazional izateko asmoari uko egin gabe.

Ugazabaren hitzak entzun ondoren, atsekabe eta etsipenik handienak hartu ninduen, eta samin hura jasateko gauza ez nintzenez, haren oinetara jausi nintzen zorabiatuta; senera etorri nintzenean, hilda nengoela uste izan zuela esan zidan (jende hark ez baitut honelako gogo-ahuleziarik jasaten). Heriotza zorion handiegia izango zatekeela erantzun nion ahots ahulez; Batzarren *aholkuari* edo lagunen presari errurik egotzi ezin nien arren, halere, neure zentzu ahul eta galduaz pentsatzen nuela adimenaren arabera-koagoa izango zatekeela hain zorrotz ez jokatzea. Ezin nuela legoa bat ere igerian egin, eta haiengandik hurbilen izango zen lurraldea ehun baino gehiagora egongo zela ziur aski; ni handik atera nintzakeen itsasontzi txiki bat egiteko beharrezko material asko zeharo falta zela herri hartan, baina halere, jaun ohoragarri harengana-ko obedientzia eta esker onez, saiatuko nintzela egiten, nahiz eta pentsatzen nuen ezinezkoa zela hura eta, beraz, jadanik galdua ikusten

nuela neure burua. Heriotza ez-natural baten etorkizun ziurra zela nire gaitzik txikienetakoa; zeren eta, abentura bitxiren batetik bizirik aterako nintzela jota ere, ea nola pentsa nezakeen asaldatu gabe nire egunak yahoo artean ematea, neure lehengo galdukerietan berreroriz eta bertutearen bidetik eraman eta gida nintzakeen eredurik gabe. Ongiegi nekiela zein arrazoi sendotan zeuden oinarrituta houyhnhnm zuhurren erabaki guztiak, nire, yahoo mesprezagarri honen, argudioz aldaezinak; eta beraz, nire esker on apala eman ondoren ontzia egiten laguntzeko bere zerbitzariak eskaini zizkidalako, eta zentzuzko epe bat erregutu niolarik lan zail hartarako, saiatuko nintzela agindu nion zoritxarreko neure izaki hura zaintzen; eta inoiz Ingaltarrara itzultzen banintzen, ez zela izango neure espeziekoentzat onuragarri izateko itxaropenik gabe, houyhnhnm entzutetsuen gorespenak ospatu eta beraien bertuteak giza espezieak imita zitzan proposatuko nituelarik.

Labur, maitagarriro erantzun zidan ugazabak, bi *hilabeteko* epea eman ez ontzia amaitzeko; eta moxal beilegiari, nire morroi-lagunari

(horrela deitzera ausartzen bainaiz distantzia honetara) nire argibideei jarraitzeko agindu zion, haren laguntza nahikoa izango nuela esan bainion ugazabari, bai bainezien maite ninduela ere.

Ontzilari matxinatuek ni lehorreratzeko agindua eman zuteneko kostalde hartara, berarekin batera joatea izan zen lehen eginkizuna. Gain batera igo eta itsasorantz alde guztietara begiratu-tuz, ipar-ekialderantz irla txiki bat ikusten nuela iruditu zitzaidan; poltsikoko kataloxa atera eta orduan garbi ikusi ahal izan nuen bosten bat legoara, kalkulatu nuenez; baina hodei urdin bat besterik ez zela iruditu zitzaion moxal beilegiari, zeren eta, bere herriaz gain besteren ideiarik ez zuenez, urrutiko gauzak bereizten ezin izan horretan hainbeste jardun dugunok bezain iaioa.

Irla hura aurkitu ondoren, ez nuen gehiago pentsatu, erabaki baizik, ahal izanez gero, hura izango zela nire deserriko lehen tokia, ondorioak Zoriaren esku utzita.

Etxera itzuli eta moxal beilegiarekin hitz egin ondoren, basotxo batera joan ginen, eta han, nik ganibetaz eta hark antze handiz beren erara

zurezko girten bati lotutako sukarki zorrotzez zenbait haritz-haga moztu genuen, ibiltzeko makila baten lodierakoak ia, eta beste batzuk handiagoak. Baina ez dut irakurlea nekaraziko neure tekniken azalpen zehatzekin; aski bedi esatea sei asteren buruan, moxal beilegiaren laguntzaz, berak egin zuelarik lanik handienekoa, kanoa indiar baten modukoa —baina askoz handiagoa— egin nuela, yahoo-larruz estalia, larruak ongi elkarjosita zeudelarik neuk egindako kalamu-hariz. Bela ere animalia beraren larruz osatua zen, baina lortu ahal bezain gazteenena erabili nuen, zaharrenena sendo eta lodiegia baitzen, eta lau arraun ere eskuratu nituen. Untxi eta hegazti-haragi egosiaz hornitu nintzen eta bi ontzi ere hartu nituen, bata esnez betea eta bestea uraz.

Ugazabaren etxe ondoko istilean frogatu nuen kanoa, eta akatsak zuzendu nizekion; yahoo-bilgorrez estali nizekion zirriztu guztiak, ongi itxita zegoela eta neure eta nire gauzen zama jasan zezakeela ikusi nuen arte. Eta nik ahal beste burutua egon zenean, yahooek tira egindako gurdiz poliki-poliki itsasertzera eramán

nuen, moxal beilegiaren eta beste morroi baten zuzendaritzapean. Dena prest egon zenean, eta irteteko eguna iritsi zitzaidanean, agur esan nien ugazabari, andereari eta etxeko guztiei, begiak malkoz gainezka eta bihotza saminez eroria nituela. Baina jaun ohoragarri hark, ikusminez, eta agian (harrokeriarik gabe esan badezaket) maitakortasunez neurri batean, kanoan ikusi nahi ninduen eta auzoko zenbait lagun eramanez berekin. Ordu bete baino gehiago itxaron behar izan nuen mareagatik, eta gero, haizeak irlarantz oso ederki jotzen zuela ohartu nintzenez, hara bideratzeko asmoa nuelarik, bigarrennez esan nion agur ugazabari; baina haren apaxari muin egiteko makurtzera nindoanean, poliki-poliki nire ahorantz altxatzeko ohorea egin zidan. Badakit zenbat kritikatu nauten azken xehetasun hau aipatu izanagatik. Zeren eta, nire gaizki-esaleek atsegin baitute pentsatzea gertagaitza dela pertsona argitsu hura ni bezalako izaki kaskarrari halako begirunea adierazteraino beheratzea. Eta bidaiari batzuek, hartu dituzten mesede apartak harrokeriaz agertzeko duten zaletasuna ere ez dut ahaztu. Baina kritikatzaile

hauek hobeto ezagutuko balute houyhnhnmen
izaera bikain eta gizabidetsua, laster aldatuko
lukete iritzia.

Agur esan nien jaun ohoragarri harekin bate-
ra zeuden gainerako houyhnhnmei ere; gero
kanoara sartu eta urrundu egin nintzen itsaser-
tzetik.

11. KAPITULUA

Autorearen bidaia arriskutsua. Holanda Berrira iritsi, han ezartzeko itxaropenez. Bertako batek geziz zauritzen du. Harrapatu eta ontzi portugaldar batera eramaten dute indarrez. Kapitainaren adeitasun handia. Autorea Ingalaterrara iristen da.

Etsipenezko bidaia hura 1715eko otsailaren 15ean hasi nuen, goizeko bederatzietan. Oso aldeko nuen haizea; halere, hasieran arraunez bakarrik baliatu nintzen, baina laster nekatuko nintzela pentsatuz eta ziur aski haizea bat-batean aldatuko zelakoan, belatxo txikia goratzera ausartu nintzen; eta horrela, marearen laguntzaz, orduko legoa t'erdi eginez jo nuen aurrera, kalkulatu ahal izan nuenez. Ugazabak eta lagunak itsasertzean jarraitu zuten ia bistatik galdu ninduten arte; eta moxal beilegia (beti maite izan ninduena) behin eta berriz entzuten

nuen oihuka: *Hnuy illa nyha maiah Yahoo*, Zaindu zeure burua, yahoo jator hori.

Ahal izanez gero, jende gabeko irlatxoren bat aurkitzea zen nire asmoa, neure lanaz bizitzeko behar beste eman ahal izango zidana ordea, hori niretzat zorientasun handiagoa izango zelarik Europako Gortetik bikainenean lehen ministro izatea baino, beldurgarria baitzen niretzat yahooen artean eta gobernupean bizitzera itzuli behar nuela pentsatzea. Nik nahi nuen bakardadean behintzat, gozatu ahal izango nuen neure gogoetekin eta houyhnhnm imitaezin haien bertuteak atseginez hausnartu, neure espeziekoen bizio eta ustelkerietan jausteko batere aukerarik gabe.

Gogoan izango du irakurleak, ontzilariek nire aurka matxinatu eta ganbarotean itxi nindutenekoaz kontatu nuena. Nola eman nuen han zen-bait aste norantz gindoazen jakin gabe, eta txalupan lehorreratu nindutenean nola zin egin zidaten marinelek, egiatan edo gezurretan, ez zekitela munduaren zein aldetan geunden. Hala ere, Esperantza Oneko muturraren hegoaldera hamarren bat gradura geundela uste izan nuen

orduan, hots, 45en bat gradura hego-latitudean, hala atera ahal izan bainuen haien artean entzutea egokitu zitzaidan zenbait hitz orokorretatik, une hartan, nire ustez, hego-ekialdera geundelarik haiek Madagaskarrera egin nahi zuten bidaian. Eta hau aierupen hutsa baino askoz gehiago izan ez arren, halere ekialderantz bideratzea erabaki nuen, Holanda Berriko hego-mendebaldeko kostara iristeko itzaropenez, eta beharbada, haren mendebaldera, baita nik nahi bezalako irlaren batera ere. Haizeak guztiz mendebaldetik jotzen zuen, eta arratsaldeko seiak aldera, gutxienez hamazortzi legoa egin nituela ekialderantz kalkulatu nuenean, irla txiki-txiki bat ikusi nuen legoa erdira edo, laster iritsi nintzelarik bertara. Harkaitz bat besterik ez zen, ekaitzen indarrak berez arku-itxuran egindako kala txiki batekin. Hantxe sartu nuen kanoa, eta harkaitzaren alde batetik igoz, argi eta garbi ikusi nuen lehorra ekialderantz, hegoaldetik iparraldera hedatzen zena. Kanoan etzanda eman nuen gau guztia, eta goizean goiz bideari berriro ekinez, zazpi ordutan iritsi nintzen Holanda Berriko hego-mendebaldeko muturrera. Honek

finkatu egin ninduen luzaroan izan dudan iritzi-
tzian, alegia, herrialde hau benetan dagoen
lekutik gutxienez hiru gradu ekialderago koka-
tzen dutela mapek eta itsas mapek; gogoeta
honen berri eman nion duela urte asko Herman
Moll adiskide preziatuari, eta horretarako nituen
arrazoiak ere azaldu nizkion, baina hark nahiago
izan zuen beste autore batzuei jarraitzea.

Ez nuen jenderik ikusi lehorreratu nintzen
lekuan eta, armarik gabe nengoenez, beldur nin-
tzen oso barrura sartzen ausartzeko. Zenbait
maskor aurkitu nuen hondartzan eta gordinik
jan, ez bainintzen sua pizten ausartzen, bertako-
ek aurkituko ninduten beldurrez. Neure horni-
gaiak aurreratzearen, hiru egunez jarraitu nuen
ostraz eta lapaz elikatzen, eta zorionez ur ede-
rreko erreka bat ere aurkitu nuen, atsegin
handia eman zidana.

Laugarren egunean goiz, pixka bat urrutiegi
joaten ausartu nintzen eta bertako hogeita
hamar edo berrogeiren bat ikusi nituen gain
batean, niregandik bostehunen bat metrora edo.
Larrugorritan zeuden gizon, emakume eta hau-
rarak, suaren inguruan, kearengatik konturatu

ahal izan nintzenez. Haietako batek ikusi egin ninduen eta gainerakoei esan; emakume eta haurrak sutondoan utzirik, haietako bost niregana hurbildu ziren. Ahalik bizkorren joan nintzen hondartzara, kanoara igo eta handik aldendu. Ihesi nindoala ikustean, atzetik jarraitu zidaten basatiek; eta itsasoan barrura oso urruti joan ahal izan baino lehen, gezi bat bota zuten, ezkerreko belaun-txokoan sakon zauritu ninduen (hilobiraino eramango dut orbana). Beldur nintzen gezia pozoituta egongo ote zen eta azkonek irispidetik aldentzeko arraunean eginez (egun bare-barea baitzen), zauria xurgatzea eta ahal bezain ongi lotzea lortu nuen.

Ez nekien zer egin, ez bainintzen ausartzen aurrez lehorreratutako leku berera itzultzen, baik eta iparraldera nengoen, eta arraunean egi-tera behartua, zeren eta, oso arina baina haizea neure kontra bainuen ipar-mendebalderantz jotzen. Lehorreratzeko leku seguruaren bila nengibilela, belaontzi bat ikusi nuen ipar-ipar-ekialdera, gero eta garbiago ageri zena; zalantzan nengoen haren zain egon ala ez; baina azkenean, yahoo arrazari nion gorrotoa gailendu zen eta

kanoari bira emanaz, belaz eta arraunez baliatuz hegoaldera egin nuen, eta goizean irten nintzeneko kalatxo berera sartu, *barbaro* haien artean geratzea nahiago nuelarik yahoo europarren artean bizitzea baino. Ahal beste hurbildu nuen kanoa itsasertzera eta erreka ondoko harkaitz baten atzean ezkutatu neu, jadanik esan dudan bezala, oso ur ona zelarik errekakoa.

Kalatik legoa erdira hurbildu zen itsasontzia eta bere txalupa bidali zuen ontziekin ur gezaren bila (leku hura oso ezaguna zela ematen baitzuen), baina ni ez nintzen ohartu txalupa ia itsasertzera etorri arte eta beranduegi zen beste gordeleku bat bilatzeko. Lehorreratzean hire kanoa ikusi zuten marinelek eta dena miatu ondoren, jabea ez zela urruti ibiliko sumatu zuten erraz. Haietariko lauk, ongi armatuta, zirrikitu eta gordeleku guztiak arakatu zituzten, azkenean harkaitz atzean ahozpeaz aurkitu ninduten arte. Pixka batean txundituta geratu ziren nire jantzi bitxi trauskilei begira, larruz egina bainuen kasaka, oinetakoak zurezko zoladunak eta galtzerdiak ere larruzkoak; halere, horregatik ondorioztatu zuten ez nintzela bertakoa, denak

biluzik ibiltzen baitira han. Altxatzeko agindu zidan marinetako batek portugesez, eta nor nintzen galdetu. Oso ongi ulertzen nuen hizkuntza hura eta zutituz, yahoo gizagaixo bat nintzela erantzun nion, houyhnhnmengandik deserriratu, eta mesedez alde egiten uzteko erregutu nien. Harritu egin ziren beren hizkuntzan erantzuten niela entzutean, eta nire aurpegieragatik europarra izango nintzela pentsatu zuten; baina ez zuten ezer ulertzen zer esan nahi nuen yahoo eta houyhnhnm hitzekin, eta aldi berean barre eragiten zien hitz egitean nuen doinu bitxiak, zaldi-irrintziaren antzekoa baitzen. Izuaren eta gorrotoaren artean dar-dar egiten nuen etengabe; alde egiten uzteko erregutu nien berriro ere, eta poliki-poliki kanoarantz abiatu nintzen; baina heldu eta zein herrialdetakoa nintzen galdetu zidaten, nondik nentorren eta beste gauza asko. Ingalaterran jaioa nintzela esan nien, bosten bat urte zirela handik irten nintzela eta orduan haien herria eta gurea bakean zirela. Beraz, ez nindutela etsaitzat hartuko espero nuela, ez baitzuen inolako kalterik opa, baizik eta yahoo gizarajo bat nintzela, jendegabeko lekuren baten bila,

nire zoritxarreko bizitzaren gainerakoa hantxe emateko.

Hitz egiten hasi zirenean, sekula ez nuela ezer hain kontraturalik entzun pentsatu nuen; zeren eta, txakur edo behi batek Ingalaterran edo yahoo batek houyhnhnmlandian hitz egingo balute bezain zentzugabea iruditzen baitzitzaidan. Portugaldar zintzo haiek ere txunditurik zeuden nire jantzi bitxiez eta hitzak esateko modu arraroaz, oso ongi ulertzen zituzten arren. Gizatasun handiz hitz egin zidaten eta esan, ziur zeudela kapitainak *gratis* eramango ninduela Lisboaraino, handik neure herrialdera itzuli ahal izango nintzelarik; marineletako bi ontzira itzuliko zirela ikusitakoaren berri kapitainari eman eta haren aginduak ekartzera; bitartean, ez banuen behintzat tinko zin egiten ez nuela ihes egingo, indarrez eutsi beharko zidatela. Haien proposamena betetzea iruditu zitzaidan onena. Jakingura handia zuten nire istorioa ezagutzeko, hona oso gutxi asebate nituen; eta nire zoritxarrek burua hondatu zidatela sumatu zuten guztiek. Bi orduren buruan, txalupa, ur-ontziz betea joan zena, kapitainaren aginduekin itzuli zen ontzira

eraman nintzaten. Belaunikatu egin nintzen neure askatasuna gordetzearren; baina dena alferrik izan zen eta, sokaz lotu ondoren, txalu-para bultza egin zidaten gizonak, handik ontzira eraman nindutelarik eta gero kapitainaren ganbaroteran.

Pedro de Mendez zuen izena; oso gizabide-tsua eta bihotz onekoa zen; neure buruaz zerbait kontatzeko erregutu zidan, eta zer jan edo edango nuen jakin nahi zuen; bera bezain ongi tratatuko nindutela eta beste hainbat gauza adeitsu ere esan zidanez, txunditurik nengoen halako gizalegea yahoo batengan aurkitzeaz. Halere, isilik eta zaputz egon nintzen; beraren eta beste gizonen usainak ia zorabiatu egiten ninduen. Azkenean, neure kanoatik jateko zerbait ekartzeko eskatu nuen; baina oilaskoa eta ardo bikain bat ekartzeko agindu zuen berak, eta gero ganbarotea garbi-garbi batean ohera nintzatela. Ez nituen arropak erantzi, baizik eta ohe gainean etzan, eta ordu erdi geroago, ontzilariak bazkaltzen ariko zirelakoan, hanka egin nuen; eta ontzi ertzera joanik, itsasora salto egin eta igerian bizia salbatzeko asmoa nuen yahoo artean

jarraitu baino lehen; baina marinel batek erago-tzi egin zidan eta gertatuaren berri kapitainari eman ondoren, kateatu egin ninduten ganbarotean.

Bazkaldu ondoren, Don Pedro etorri zitzaidan eta etsigaiztoko ahalegin haren zergatia jakin nahi zuen; ahal zuen guztian laguntzea besterik ez zuela nahi baieztatu zidan, eta hain hunkigarriro hitz egin zidanez, azkenean amore eman eta adimen-izpiren batez hornitutako animalia-tzat hartu nuen bera. Neure bidaiaz hitz egin nion labur, marinelek neure kontra egindako satorlanaz, lehorreratu ninduteneko herrialdeaz eta hantxe emandako hiru urteez. Guzti hori amets edo ikuskaritzat hartu zuen berak, niretzat oso iraingarria izan zelarik; zeren eta, guztiz ahaztuak bainituen gezurra esateko ahalmena —yahooen ezaugarri garbia nagusi diren herrialde guztietan— eta ondorioz beren espezieko besteengan egia zalantzan jartzeko duten joera. Galdetu nion ea haren herrialdean ba al zen ez *zena esateko* ohiturarik. Faltsukeria zer zen ia ahaztua nuela esan nion, eta mila urtez bizi izan banintz houyhnhnmlandian, sekula ez niokeela

gezur bat entzungo morroirik apalenari ere; ez zidala batere axola sinesten zidan ala ez, baina halere, beraren mesedearen ordainetan, oso barkabera izango nintzela haren izaera galduaz eta jarri nahi ziezadan edozein objekziori erantzungo niola, horrela erraz jakin zezan egia.

Neure istorioaren zatiren batean hanka sartzeko harrapatzeko etengabe ahalegindu ondoren, kapitaina, gizon zuhurra, hasi zen azkenean nire zintzotasunaz iritzi hobea izaten. Baina gaineratu zuen, hain atxikimendu haustezina nuen egiarekiko, ohore-hitza eman behar niola neure biziaren kontra ezertan saiatu gabe berarekin bidaia egiteko, edo bestela preso edukiko ninduela Lisboaraino iritsi arte. Eskatzen zidana hitz eman nion; baina aldi berean baieztatuz nekerik handienak jasango nituela yahoo artean bizitzera itzuli baino lehen.

Gertaera gogoangarririk gabe igaro zen bidaia. Kapitanarenganako esker onez, batzuetan, hark biziki eskatuta, berarekin esertzen nintzen, giza espeziearen aurkako ezinikusia ezkutatzen saiatus, nahiz eta sarritan kanporatzen zitzaidan eta hark, ezer esan gabe, pasatzen

uzten. Baina egunik gehiena ganbarotean itxita ematen nuen, ontzilarietako inor ez ikustearren. Kapitainak sarritan erregutu zidan nire arropa basati haiek erantzeko, eta berak zeukan jantzirik onena uzteko prest agertu zen. Ezin nuen amore eman hau onartuz, biguina bainion yahoo baten gainean egondako zerbaitez neure gorputza estaltzeari. Bi alkandora garbi uzteko erregutu nion bakarrik, hark erabili eta gero garbituak zituenez, ez nindutela zikinduko uste bainuen. Bi egunez behin aldatzen nituen eta neuk garbitzen.

Lisboara 1715eko azaroaren 5ean iritsi ginen. Lehorreratzean, bere gainjantziaz estaltzera behartu ninduen kapitainak, jendaila nire ingurura bildu ez zedin. Bere etxera eramanez ninduen eta, nik biziki erregututa, atzealdeko goren-goreneko gelan utzi. Houyhnhnmei buruz kontatu niona inori ezertxo ere ez esateko erregutu nion, zeren eta, halako istorioaren adierazpenik txikienak ni ikustera jendetza handia erakartzeaz gain, ziur aski preso geratzeko edo Inki-sizioak erretzeko arriskuan ere jarriko baininduen. Estreinatu gabeko jantzi bat onartzeko

konbentzitu ninduen kapitainak, baina ez nuen onartu jostunak neurria har ziezadan; halere, Don Pedro ia nire tamainakoa zelarik, nahikoa egokia egin zidaten. Beharrezko beste zenbait gauzaz ere hornitu ninduen, denak berriak, erabili aurretik hogeita lau orduz aireztatzen nituelarik.

Kapitainak ez zuen emazterik, ezta hiru morroi baino gehiago ere, hauei ez zitzaielarik uzten jatorduetan aurrean egoten, eta haren portaera osoa hain adeitsua zenez eta *gizakia* hain ongi ulertzen zuenez, benetan hasi nintzen haren konpainia jasaten. Halakoxe begirunea hartu nion ezen atzeko leihotik kanpora begiratzere ere ausartu bainintzen. Poliki-poliki beste gela batera eraman ninduen; handik ezkutuki kalera begiratu nuen, baina izututa berehala sartu nuen burua barrura. Aste beterako lortua zuen ateraino jaits nendin. Poliki-poliki nire izuikara gutxitzen ari zela ohartu nintzen, baina gorrotoa eta mesprezua areagotzen ari zitzaizkidala ematen zuen. Azkenean izan nuen behar hainbat adore berarekin kaletik ibiltzeko, baina

sudurra errudaz, edo batzuetan tabakoz, itxi-itxia eramaten nuen.

Hamar egunen buruan Don Pedrok, neure etxeko gauza batzuk kontatuak nizkiolarik, ohore eta kontzientzi arazotzat proposatu zidan neure sorterrira itzuli eta emazte eta umeekin bizi behar nuela neure etxean. Portuan, itsasoratzeko prest, ontzi ingeles bat zegoela esan zidan, eta hark berak hornituko ninduela beharrezko gauza guztiez. Aspergarria litzateke haren argudioak eta nire eragozpenak errepikatzea. Bizitzeko nahi nuen bezalako irla bakarti bat aurkitzea ezinezkoa zela esan zidan, baina neure etxean ere agindu ahal izango nuela eta neuk nahi bezala gordeta eman denbora.

Amore eman nuen azkenean, ohartuz ezin nuela ezer hoberik egin. Azaroaren 24ean irten nintzen Lisboatik, merkatalontzi ingeles batean, baina kapitaina nor zen ere ez nuen galdetu. Don Pedrok ontziraino lagundu zidan eta hogeit liberala utzi. Agur esan maitagarriri eta besarkatu egin ninduen azkenean, ahal bezain ongi jasan nuena. Azken bidaiaren honetan ez nuen harremanik izan ez kapitainarekin ezta haren gizonekin

ere, baizik eta gaixo nintzen plantak eginez neure ganbarotean geratu nintzen itxita. 1715eko abenduaren hamabostean bota genuen aingura Downsen goizeko bederatziak aldera, eta arratsaldeko hiruretan iritsi nintzen onik Redrif-eko neure etxera.

Harridura eta alaitasun handiz hartu ninduten emazteak eta etxekoek, hiltzat jotzen baininduten seguru; baina aitortu beharra dut garbi haiek ikusteak gorrotoz, nazkaz eta mesprezuz bakarrik bete ninduela, eta are gehiago haiekiko nuen lotura estua gogoratzean. Zeren eta, houyhnhnmen herrialdetik zoritxarrez deserriratu behar izan nuenetik, behartua nuen arren neure burua yahooen presentzia jasatera eta Don Pedro de Mendez-ekin hitz egitera, halere nire oroimena eta irudimena beti zeuden houyhnhnm paregabe haien bertute eta gogoeztaz beteak. Eta yahoo espezieko batekin elkarbatzeagatik gehiagoren aita bihurtu nintzela pentsatzen hasi nintzenean, lotsa, nahasmendu eta izu-ikararik biziena jabetu ziren nitaz.

Etxera sartu bezain bizkor, besarkatu eta musu eman zidan emazteak eta ni, hainbeste

urtez ohitu gabe nengoelako hain animalia higuingarria ukitzera, zorabiatuta egon nintzen ia ordu betez. Idazten ari naizen une honetan, ia badira bost urte azkenekoz Ingalaterrara itzuli nintzenetik; lehenengo urtean ezin izan nuen jasan emaztea edo seme-alabak aurrean egoterik, eraman ezina zitzaidan hauen usaina bera ere, eta are gutxiago jasan nezakeen gela berean egotea jaten. Oraindik ere ez dira ausartzten nire ogia ukitzen edo kikara beretik edaten, eta ezin izan diet eskutik heltzen ere utzi. Gastaturiko lehen dirua bi ametzaia erosteko izan zen, zalditegi eder batean ditudalarik, eta gero, zamaltzaina dut kuttunena, zeren eta, barrua suspertzen zaidala sentitzen baitut tegian erantsen zaion usainaz. Nahikoa ongi ulertzen didate neure zaldiek; gutxienez lau ordu ematen ditut egunero beraiekin hizketan. Ez dute bridarik edo zelarik ezagutzen, oso ondo hartzen dugu elkar eta adiskidetasunean bizi dira beren artean.

12. KAPITULUA

Autorearen egiatasuna. Bere asmoa lan hau argitaratzean. Egiatik desbideratzen diren bidaiarien salaketa. Idaztean ez duela inolako helburu gaiztorik argitzen du autoreak.

Objekzio bati erantzuna. Koloniak ezartzeko metodoa. Bere sorterriaren goraipamena. Bidezkoa da autoreak azaldutako herrialdeekiko Kororak duen eskubidea. Haiek konkistatzeko eragozpenak. Autoreak azken agurra egin irakurleari, etorkizunera-ko bere bizimodua azaldu, aholku onak eman eta amaitu egiten du.

Honela, irakurle atsegin hori, hamasei urte eta zazpi hilabete baino gehiagoz neuk egindako bidaien kontaketa zintzoa eman dizut, honetan ez naularik egiak beste apaindurak kezkatu. Agian, beste batzuek bezala, nik ere utz zintzakedan txundituta istorio bitxi sinesgaitzekin;

baina nahiago izan dut gertaera hutsak modu eta idazkerarik xumeanean azaltzea, nire asmo nagusia informatzea baitzen, eta ez dibertitzea.

Ingeles edo beste europar batzuek gutxitan bisitatzen dituzten urrutiko herrietara bidaiatzen dugunontzat erraza da itsas nahiz lehorreko animalia harrigarrien deskribapenak egitea. Baina bidaiariaren helburu nagusiak gizakiak jakintsuago eta hobeago bihurtzea izan beharko luke, eta gogamenak hobetzea atzerriko leku horiei buruz esandakoaren irakaspen on eta txarren bidez.

Biziki nahiko nuke lege bat aldarrika dezaten, bidaiari bakoitzak, bere bidaien berri argitaratzeko baimena lortu aurretik, inprimatzeko asmoa duen dena —berak dakien neurrian behintzat— guztiz egia dela zin egin dezan Kantzelari Nagusiaren aurrean; horrela ez bailitzaioke munduari iruzur egingo egin ohi zaion bezala, idazle batzuek, beren lanak jendartean harrera hobeia izan dezaten, faltsukeriarik handienak sartzen dizkiotenean irakurle oharkabeari. Gaztaroan bidai liburu asko irakurri nuen arretaz eta atsegin handiz, baina orduz geroztik munduko bazter

gehienetara joan naizenez, eta neure behaketa-
gatik gai izanik alegiazko kontaketa asko gezur-
tatzeko, honelako irakurgaien kontrako jarrera
bizia sortu da niregan, baita nolabaiteko amo-
rrua ere gizateriaren sinesgarritasunaz zein lotsa
gutxiz abusatzen den ikustean. Beraz, eta nire
lagunek pentsatzen zutelarik bazitekeela nire
ahalegin apalak ez izatea onargaitzak nire erki-
deentzat, egiari zorrotz atxikitzeko araua —
sekula baztertu behar ez nuena— ezarri nion
neure buruari; eta benetan, ez dut tentazio txi-
kienik ere izango hori aldatzeko nire gogoan
ditudan bitartean ugazaba bikain haren eta
beste houyhnhnm argitsuen irakaspenak eta
eredua, beraien entzule apala izateko ohorea
izan bainuen luzaroan.

...Nec si miserum Fortuna Sinonem

*Finxit, vanum etiam mendacemque
improba finget.*

Oso ongi dakit ospe txikia lortzen dela ez
argitasunik ez kulturarik ezta beste gaitasunik
ere, baizik eta oroimen ona eta egunkari zehatz

bat bakarrik eskatzen duten idazkiekin. Badakit ere, bidai idazleak, hiztegiak bezala, ahanzturan murgiltzen direla atzetik etortzen direnen —eta beraz, gain-gainean jartzen direnen— pisu eta tamainagatik. Eta errai gerta liteke, nire lan honetan azalduko herrialdeak geroago bisitatu-ko dituzten bidaiariek, nire hutsegiteak aurkitzean (egin baditut behintzat) eta bere egindako aurkikuntza berri asko eranstea, bultzaka-bultzaka baztertuz niri ospea kentzea eta berak nire lekuan jartzea, noizbait idazle izan nintzela ere munduari ahantzaraziz. Hau benetan oso samingarria izango litzateke ospearen bila idatziko banu; baina nire helburu bakarra GUZTION ONGIA izanik, ezingo naiz arras etsita sentitu. Zeren eta, nork lezake houyhnhnm goresgarrien bertuteei buruz ezer irakurri bere bizioez lotsatu gabe, bere burua herrialdeko animalia arrazontzaile eta nagusizat baldin badu? Ez dut ezer esango yahooak nagusi diren urrutiko nazioei buruz, non gutxien gaiztotuak brobdingnagiarrak, diren, haien moral eta gobernu-arau zuhurrak betetzeak zoriontsu egingo gintuzkeelarik. Baina ez dut luzaroago jardungo, eta hobe ira-

kurle zentzudunari bere oharpen eta aplikazioak egiten uztea.

Ez da niretzat atsegin txikia nire lan honek agian kritikaririk ez izatea, zeren eta, zer objekzio egin daiteke urrutiko herrialdeetan jazotako gertaera hutsak kontatzen dituen idazlearen aurka, herrialde haietan guk ez dugunean inolako interesik, ez komertzial ez diplomatikorik? Kontu handiz baztertu ditut, bidai idazle direnei sarritan bidezki egozten dizkieten akats guztiak. Gainera, batere ez naiz sartu inongo *alderdirekin*, baizik eta edonolako gizabanako edo giza talderen aurkako grina, aurreiritzi eta borondate txarrik gabe idatzi dut. Helbururik bikainenaz idazten dut: gizateriari informazioa eman eta irakasteko, harrokeriazko hutsegiterik gabe esan baitezaket bera baino zertxobait gorago nagoela hougayhnhnm iaio haiekin luzaroan harremanetan egon izanak emandako abantailagatik. Inolako onura edo gorespenik lortzeko asmorik gabe idazten dut. Ez dut sekula hitz bat pasatzen uzten asmo gaiztokoa izan litekeena, edo iraingarri gerta balekieke hartzeko gehien prestatu-rik daudenei ere. Beraz, espero dut batere erru-

gabeko autoretzat aitortu ahal izango dudala bidezki neure burua, beronen aurka erantzule, kontsideratzaile, behatzaile, gogoeta-egile, arakatzaile eta ohartarazleen leinukoek inoiz aurki ez dezaten beren gaitasunak lantzeko aukerarik.

Aitortzen dut, xuxurlatu didatela, Ingalaterraren menpeko nintzenez behartua nengoela gobernuko ministroen bati ikusitakoaren berri ematera iritsi bezain laster, zeren eta, menpeko batek aurkituriko guztia Koroari baitagokio. Baina zalantza dut hemen aipaturiko herrialde hauen konkista Ferdinando Cortezek larrugorritan zeuden amerikarrekin egindakoa bezain erraza ez ote litzatekeen izango. Liliputiarrek, nire ustez, nekez merezi dute berak menperatzeko ontziteria eta armada baten gastua egitea, eta zalantza dut zuhurra edo segurua izango litzatekeen brobdingnagiarrekin horretan ahalegintzea; edo armada ingeles bat eroso egongo ote litzatekeen Irla Hegalaria gainean izanik. Houyhnhnmek, egia esateko, ez dute ematen gerrarako hain ongi prestaturik daudenik, guztiz ezezaguna baitzaie zientzia hau, eta batez ere jaurtigaiak. Halere, ni gobernuko ministro

banintz, ez nuke inoiz emango hura inbaditzeko aholkua. Haien zuhurtziak, adostasunak, beldurrik ezak eta herriarenganako maitasunak erruz beteko lituzke militargintzan dituzten akatsak. Imajinatu haietako hogeit mila armada europar baten erdira sartu eta lerroak nahasten, gurdiak iraulkatzen, atzeko apatxez emandako ostiko beldurgarriez gerlarien aurpegiak jo eta suntsitzen. Ongi mereziko lukete Augustori buruz esaten dena: *Recalcitrat undique tutus*. Baina nazio bikain hura konkistatzeko proposamenen ordez, nahiago nuke Europa zibilizatzeko behar beste biztanle beren artetik bidaltzeko gaitasuna edo gogoia izango balute, guri ohore, justizia, egia, neurritasun, hiritar-jarrera zintzo, sendotasun, kastitate, adiskidetasun, onginahi eta leialtasunaren hastapenak irakatsi ahal izateko. Gure arteko hizkuntza gehienetan ditugu oraindik bertute guzti hauen izenak, eta autore moderno nahiz antzinakoetan aurki daitezke; hau neuk baieztatu dezaket egin ditudan irakurketa txikien ondorioz.

Baina badut beste arrazoi bat neure aurkuntzekin Maiestatearen aginterriak zabaltzen

hasteko are gogo gutxiago ematen didana. Egia esateko, banuen nik zenbait eskrupulu honelako okasioetan printzeek izaten duten banatze-justiziaz. Esate baterako, ekaitzak pirata-multzo bat eramaten du auskalo noraino, azkenean ontzimutilak lehorra aurkitzen du masta-gailurretik, eta hara joaten dira lapurtu eta ebastera; jende kaltegabea aurkitzen dute, harrera ona izaten dute, izen berria ematen diote herrialdeari, erregearen izenean haren jabe egiten dira ofizialki, pipiak jotako ohol edo harriren bat jarri oroigarri gisa, bertako bizpahiru dozena hil, beste pare bat indarrez eraman erakusgarri gisa, sorterrira itzuli eta barkatu egiten zaie. Honela hasten da aginterri berri bat, jainkozko zuzenbide tituluz lortua. Ontziak bidaltzen dira lehen aukera izaten denean, bertakoak kanporatu edo suntsitu eta haien printzeak torturatu egiten dira urrea non duten jakiteko; baimen osoa ematen da aberkeria eta lizunkeriazko ekintza guztietarako, bertakoen odolaz lurra blai geratzen delarik; eta hain espedizio jainkozalean erabilitako sarraskitzaile-talde higuigarri hau kolonia modernoa

dela esaten da, jende idolatra eta barbaro hura konbertitu eta zibilizatzerantz bidalitakoa.

Baina aitortzen dut deskribapen hau ez dago-kiola inola ere britainiar nazioari, mundu osoa-rentzat eredu izan baitaiteke koloniak ezartzeko duen zuhurtzia, arreta eta justiziagatik; erlijio eta kulturaren aurrerapenerako emaitza eskuza-balengatik; kristautasuna hedatzeko aukeratuta-ko pastore jainkozale eta iaioengatik; ama-erre-sumako jendez, neurrizko bizimodu eta ohitura-ko jendez koloniak hornitzeko kezkatik; kolo-nia guztietan zehar trebetasun handieneko eta ustelkeria guztiz ezezagun zaien funtzionarioe-kin administrazio publikoa hornituz, justizia egi-teko duen ardura zorrotzagatik; eta dena boro-biltzeko, gobernaririk zoli eta bertutetsuenak bidaltzeagatik, hauek ez dutelarik beste helburu-rik izaten menpeko jendearen zorientasuna eta beren jaun erregearen ohorea baizik.

Baina, ez duenez ematen azaldu ditudan herrialde hauek, koloniak direla eta, konkista-tuak, esklabizatuak, hilak edo deserriratuak izateko batere gogorik dutenik, eta urre, zilar, azu-kre edo tabako askorik ere ez dutenez, pentsatu

nuen apalki ez zirela inola ere gure arreta, adore edo interesgai. Halere, honetan gehiago inplikatuak pentsatzen badute hobe dela bestelako irizirik, prest nago zin egiteko, legez dei egiten zaidanean, ezein europarrek ez dituela herrialde haiek bisitatu nire aurretik. Jakina, jendeari sine-tsi behar badiogu.

Baina neure Erregearen izenean jabetza hartzearen formalitateari dagokionez, inoiz ez zitzaidan bururatu ere egin; eta hala gertatu balitz, nire egoera kontutan hartuta, agian une egokiagorako utziko nukeen, zuhurtasunez eta neure burua gordetzeagatik.

Honela erantzun ondoren bidaiari gisa inoiz nire kontra egin litekeen objekzio *bakarrari*, azken agurra egin nahi diet hemen neure irakurle adeitsuei, eta neure gogoetez goatzera itzuliko naiz Redriffeko lorategitxora, houyhnhnmen artean ikasitako bertute-irakaspen paregabe haiek praktikatzera, neure familiako yahooak heztera animalia hezgarriak diren heinean, sarritan neure irudia ispiluan ikustera, eta horrela, ahal bada, ea ohitzen naizen denboraz gizakia- ren presentzia jasatera; neure herrialdeko

houyhnhnmen zakarkeria deitoratzera, baina beti errespetuz erabiliko ditudalarik neure uga-zaba bikain eta haren etxeko eta lagunetikiko eta houyhnhnm arraza osoarekiko begirunez, gure hauek ere ezaugarri guztietan haien antzeko izateko ohorea baitute, nahiz eta adimena auskalo zenbateraino endekatu zaien.

Aurreko astean hasi nintzen emazteari neurekin batera mahaian esertzen uzten, mahai luze baten beste muturrean, eta egiten dizkiodan galdera urriei (ahalik eta laburren) erantzuten uzten. Oraindik ere yahooaren usaina oso nazkagarria zaidanez, beti izaten dut sudurra errudaz, labandaz edo tabako-hostoz betea. Eta zaila bada ere urtetan aurreratutako pertsonaren ohitura zaharrak aldatzea, ez dut itxaropenik galdu denboraren poderioz jasan ahal izango dudala auzoko yahooen baten konpainia, oraindik ere berauen hortz eta atzaparrekiko dudan beldurrik gabe.

Oro bar, yahoo espeziarekin adiskidetzea ez litzateke hain zaila izango Naturak eman dizkien bizio eta txorakeriekin bakarrik konformatuko balira. Ez nau batere haserrarazten legegizon,

litxarrero, koronel, inozo, jaun agurgarri, jokoza-
le, politiko, putazain, mediku, lekuko, erosle,
letradu, traidore edo antzerakoren bat ikusteak;
hau dena gauzen ohiko bidean sartzen da; baina
gorputz nahiz buruko itsuskeria eta eritasun-pilo
bat, *harrotasunez* betea, ikusten dudanean,
berehalaxe apurtzen zaizkit pazientziaren muga
guztiak; eta ezingo dut inoiz ulertu nola etor dai-
tezkeen bat halako animalia eta halako bizioa.
Houyhnhnm zuhur eta bertutetsuek, izaki adi-
menduna apain lezaketen perfekzioak ugari
dituztenak, ez dute beren hizkuntzan bizio hone-
tarako hitzik ere, hizkuntza hark ez duelarik ezer
txarrik adierazteko hitzik, yahooen kualitate
higuingarriak deskribatzekoak izan ezik, eta
hauen artean ez ziren haiek harrotasunarena
bereizteko gauza, ez zutelako giza izaera sakon
ezagutzen, animalia hau nagusi den beste
herrialde batzuetan agertu ohi den bezala. Baina
nik, eskarmentu handiagoa nuelarik, garbi
sumatu nitzakeen horren aztarna batzuk yahoo
basatien artean.

Baina houyhnhnmak, adimenaren gobernu-
pean bizi direlarik, ez dira beren kualitate onen-

gatik harrotzen, ni neu, izter edo besorik falta ez zaidalako harrotuko nintzatekeen baino gehiago, bere zentzuan dagoen inork ere ez lukeelarik egingo, nahiz eta zoritxarrekoa izan beroriek gabe. Luzatu egin naiz arazo honetaz gogo bizia baitut yahoo ingelesen baten elkartasuna noiz-bait jasangaitz ez gertatzea eta, beraz, bizio zentzugabe honen arrastorik duenari ez ausartzeko aurrean agertzera erregutzen diot.

AMAIERA

GULLIVER KAPITAINAREN ESKUTITZA, SYMPSON ADIXKIDEARI

Eskatzen zaizunean, publikoki aitortzeko prest egongo zarela uste dut, biziki eta sarri estutu ninduzulako lortu zenuela nire adostasuna neure bidaien kontakizun nahaspilatu eta akastuna argitaratzeko; eta unibertsitatearen bateko zaldun gazteren batzuk kontratatzeko eskatu nizula beroriek ordenatu eta idazkera zuzentzeko, Dampier adixkideak nire aholkuz egin zuen bezalaxe *Munduaren inguruko bidaiak* deitu liburuan. Baina ez dut gogoratzen baime-nik eman nizunik ezer ken zezaten onartzeko eta are gutxiago ezer erantsia izateko; beraz, azken honi buruz, hementxe bertan uko egiten diot horrelako edozeri; batez ere, Ana Erregina zenuari —ospe santu eta aintzatsuko Maiestateari— buruzko paragrafo bati, nahiz eta giza espezieko beste inori baino begirune eta estima handiagoa nion. Baina zuk, edo zure tartekatzaileak, pentsatu beharko zenuketean ez zela nire joera

eta beraz ez zela bidezkoa geure espezieko animaliarik goraiatzeari nire houbhnhnm ugazabaren aurrean; eta gainera, gertaera hura gezurrezkoa zela; zeren eta, dakidanez —Maiestate haren erregealdiko zati batean Ingalaterran izan bainintzen— Lehen Ministro baten bidez gobernatu zuen; ez, bi izan zituen jarraian: lehena, Godolphineko Lord-a izan zen, eta Oxfordeko Lord-a bigarrena; beraz, ez zen gauza esan erazi didazue. Era berean, Proiektugileen Akademiako kontakizunean eta houbhnhnm ugazabari esandakoaren zenbait pasartetan garrantzizko xehetasun batzuk ere kendu dituzu, edo hainbestearinoxe nahastu edo aldatu dituzu ezen nekez jakin baitezaket neure lana denik. Honetaz aurreko eskutitz batean zerbait adierazi nizunean, norbaiti min egiteko beldur zinela erantzuteari ederrezi zenion; agintean zeudenek zorrotz zaintzen zutela prentsa eta prest zeudela ez bakarrik interpretatzeko, bai eta *zirikada*-itxurako guztia (horrela esaten zenuela uste dut) zigortzeko ere. Baina mesedez, orain dela hainbeste urte eta bost mila legoara baino urrutirago beste erresuma batean esandakoa, nola aplikatu dakioke orain,

taldea gidatzen omen duten yahoetariko inori, batez ere, berauen menpe bizitzearen zoritxarraz gutxi pentsatzen eta beldurrik ez nuenean? Ez al dut arrazoi osoa kexatzeko yahoo hauek berauek houyhnhnmek garraiatutako ibilgailuetan ikusten ditudanean, hauek animaliak eta haiek izaki adimendunak balira bezala? Eta egia esateko, hain ikuskizun nazkagarri eta higuingarriari ihes egitea izan zen hona erretiratzeko arrazoi nagusietariko bat.

Hauxe zen zeuri buruz eta zeuregan jarritako usteonaz esan nahi nizuna.

Ondoren, neure zentzugabezia handia deitoratu nahi dut zure eta beste batzuen erregu eta arrazoiketa faltsuen eraginez eta neure iritziaren kontra, onartu egin nuelako neure Bidaiak argitara zitezten. Gogora ezazu, mesedez, guztion ongia aipatzen zenuenean, nik zenbat aldiz erregutu nizun kontutan hartzeko yahooena, aginduz nahiz eredu onez, zeharo zentzakaitz den animalia espeziea dela; eta hemen duzu frogara: irlatxo honetan bederen, gehiegikeria eta ustelkeria guztiei betirako amaiera nola ematen zaien ikusi ordez, nik espero nuen bezala, ohartarazi nuela

sei hilabete baino gehiago igaro direlarik, ez dut entzuten nire liburu honek neure asmoen araberrako eragin txikiarik izan duenik. Eskutitez jakin erazteko erregutu nizun ea noiz desagertzzen ziren alderdi eta taldekeriak; noiz epaileak jakintsu eta zuzenak bilakatzen; abokatuak zintzo eta apalak, zentzu-izpiren batekin; noiz zegoen Smithfield lege-liburu piloekin sutan; edo aitonen seme gazteen heziketa oso-osorik aldatua; medikuak erbesteratuak; yahoo emeak bertute, ohore, egia eta zentzuz jantziak; ministro handien omenaldi eta jaialdiak zeharo kendu eta garbituak; trebetasuna, meritua eta jakinduria sarituak; eta prentsa prosaz nahiz bertsoz iraintzen duten guztiak beren kotoia bakarrik jatera eta egarria beren tintaz asetzera kondenatuak. Zure laguntzaz, hauen eta beste mila eraberrikuntzaren itxaropen sendoa nuen; izan ere, argi eta garbi ondoriozta baitzitezkeen liburuan emandako aginduetatik. Eta yahooen nagusi diren bizio eta txorakeria guztiak zuzentzeko zazpi hilabete aski denbora dela aitortu behar da, beren izaeraz bertute edo zuhurtasunerako batere joerarik izateko gai balira. Halere, zeure

eskutitzetan oso urruti zaude nire esperantzari erantzuteko, eta aitzitik, gure mezularia astero zamatzen duzu libeloz, klabez, kritikaz, oroit-idazkiz eta bigarren zatiz, zeinetan ikusten dudan estatista handiei kalte egiteaz akusatzen nautela, giza izaera endekatzeaz (oraindik usteona dutelarik horrela deitzeko) eta emakumezkoak iraintzeaz. Halaber, paper-sorta horien idazleak beren artean ez datozela bat ohartzen naiz, zeren eta, batzuek ez bainaute neure Bidaien autoretzat ere aitortzen, beste batzuek guztiz arrotz zaizkidan liburuen autore bihurtzen nauten bitartean.

Ohartu naiz, halaber, zure inprimatzaileak garaiak nahasten dituela axolagabeziaz eta oker jartzen dituela nire bidaia eta itzuleren datak, ez duelarik asmatzen ez benetako urtea, ezta benetako hila edo hileko eguna ere; eta entzun dut jatorrizko eskuizkribua suntsitua izan dela liburua argitaratuz geroztik. Eta nik ere ez dut haren kopiarik; halere, zuzenketa batzuk bidali dizkizut, inoiz bigarren argitalpenik egiten bada sar ditzakezunak; baina oraingoz ezin dut nik horien erantzukizuna hartu, baizik eta arazo hori nire

irakurle zentzudun eta bihotz onekoan esku utzi-ko dut, beraiek molda dezaten nahi bezala.

Entzun dut gure itsas yahoetarikoren batzuei akastuna iruditzen zaiela nire itsas hiz-kerak, desegokia zati askotan eta erabiltzen ez dena gaur egun. Ezin dut horretan lagundu. Lehen bidaietan, gaztea nintzenean, marinak zaharragoak irakatsi zidaten eta haiek bezala hitz egiten ikasi nuen. Baina geroztik konturatu naizenez, itsas yahoek, lehorrekoek bezalaxe, modari jarraitzen diote beren hitzetan, eta hauek urtero aldatzen dira; eta hainbestearino gainera, ezen gogoratzen dut bidaiak bakoitzaren ostean neure sorterrira itzultzean, dialekto zaharra hain aldatua egoten zenez, nekez ulertu ahal izaten nuela berria. Eta konturatzen naiz, yahooren bat ikusminez Londrestik etortzen zaidanean bisita egitera etxera, ez hark eta ez nik ezin izaten ditugula geure ideiak adierazi bestearentzat ulergarri izateko moduan.

Yahoen kritikak inolako eraginik izango balu niregan, arrazoi osoa izango nuke kexatzeko horietako batzuek nire bidai liburua neure burua- ren fikzio hutsa dela pentsatzeko bezain lotsaga-

beak direlako; eta houyhnhnmak eta yahooak Utopiako biztanleak baino egiazkoagoak ez direla adierazteraino ere iritsi dira.

Benetan aitortu beharra dut Liliput, Brobdin-grag (horrela idatzi beharko bailitzateke hitz hau eta ez hutsegitez «Brobdingnag») eta Laputako biztanleei dagokienez, oraindik ez dudala inoiz aurkitu haien izatea edo beraietaz kontaktzen ditudanak eztabaidatzeko bezain yahoo harroputzik, zeren eta, egiak berehala sinesbetetzen baitu irakurlea. Eta zergatik ez da sinesgarria houyhnhnm edo yahooei buruz kontaktzen dudana, nabaria denean hiri honetan bertan ere azken hauetariko milaka asko dagoela Houyhnhnmlandiaiko neba-arreba adimengabe-koekiko duten ezberdintasun bakarra kiskunkaskun mintzatu eta biluzik ez ibiltzea denean? Zentzarazteko idatzi nuen, eta ez onespenez emateko. Arraza osoaren ahobatezko gorespene gutxiago axola zait, tegian ditudan bi houyhnhnm endekatuen irrintzia baino, zeren eta, hauei esker, endekatuak egon arren, neure burua hobetzen baitut zenbait bertutetan, inolako bizio-nahasketarik gabe.

Neure egiatasuna defendatzeko bezain endekatua naizela uste ote dute animalia miserable hauek? Yahooa naizen arren, ongi dakite Houyhnhnmlandia osoan, nire ugazaba bikainaren irakaspen eta eredu onari esker bi urteren buruan (neke handiz izan zela aitorturik ere) lortu nuela gezurra esateko, itxurak eta iruzur egiteko, eta nahastarazteko ohitura madarikatua neuregandik kentzea, hain sakon sustraiturik dagoen ohitura nire espezieko guztien baitan, europarrenean batez ere.

Badut kexa gehiagorik ere arazo iraingarri honetaz, baina ez dut jarraituko neure burua edo zu zeu gogaitarazten. Argi eta garbi aitortu behar dut, azkenekoz itzuli nintzenetik, nire yahoo izaerako okerkeria batzuk indarberritu egin zaizkidala zeure espezieko zenbaitekin, eta batez ere neure familiako batzuekin halabeharrez, elkarrizketatzean; bestela, sekula ez nintzatekeen hasiko yahoo arraza erresuma honetan erreformatzeko proiektu zentzugabeaz; baina orain amaitu dut betirako egitasmo ameslari guzti horiekin.